

MEMORIA PARTEKATU BATERANTZ

*Erreterian 1956tik 2012ra bitarte izan diren
giza eskubideen urraketei eta indarkeria-ekintzei
buruzko txostena*

“Ez dute ikusten begiraten ez dutelako. Beste alde batera begiraten dutelako. Batzuek ez dakite ikusten ez dutelako; beste batzuek, berriz, ezjakinarena egiten dute, nahiago baitute gertatzen den ezer ikusiko ez balute bezala jokatu”

Javier Ortiz

“Noiz samurtuko zaigu kontzientzia giza zorigaitzagatik mendeku hartu ordez zorigaitz horri aurrea hartzera iristeraino?”

Anna Eleanor Roosevelt

Egilea:



giza eskubideen aldeko elkarte - asociación pro derechos humanos
pro human rights association - association en faveur des droits humains

Editorea:



Errenteriako Udala
Ayuntamiento de Errenteria

Laguntzailea:



Gipuzkoako Foru Aldundia

MEMORIA PARTEKATU BATERANTZ

*Erreterian 1956tik 2012ra bitarte izan diren giza eskubideen urraketei
eta indarkeria-ekintzei buruzko txostena*

2015eko otsaila

“Ez dute ikusten begiratzen ez dutelako. Beste alde batera begiratzen dutelako. Batzuek ez dakite ikusten ez dutelako; beste batzuek, berriz, ezjakinarena egiten dute, nahiago baitute gertatzen den ezer ikusiko ez balute bezala jokatu”

Javier Ortiz

“Noiz samurtuko zaigu kontzientzia giza zorigaitzagatik mendeku hartu orde zorigaitz horri aurrea hartzera iristeraino?”

Anna Eleanor Roosevelt

ARGITUZ, giza eskubideen aldeko elkarteak.

Ikerketa-taldea:

Gaztelumendi, Bertha
Ormazabal, Sabino

Arau-esparrua:

Astigarraga, Juana Mari
Pego, Laura

Elkarrizketen transkripzioa:

De la Hera, Edurne
Goikoetxea, Nerea

Inprimategia: antza komunikazio grafikoa

Lege Gordailua: SS 1132-2015

ISBN: 978-84-608-2612-5

EDUKIA

Memoria partekatu baterantz.....	1
Edukia.....	3
1.Sarrera.....	5
2. Txostenaren helburu orokorra.....	9
2.1. Zergatik motibazio politikoko indarkeria?.....	9
2.2. Indarkeriaren aldia	10
2.3. Memoria berreskuratzea.....	11
3. Txostenaren edukia.....	13
4. Kasuak sailkatzeko irizpideak.....	17
5. Arau esparrua: “biktima” kontzeptua eta biktimaren eskubideak	21
5.1. Biktima izaeraren eta biktimaren eskubideen inguruko nazioarteko adierazpenak eta gomendioak.....	21
5.1.1. “biktima” kontzeptua: “delituaren eta botere abusuaren biktimentzako justiziaren oinarritzko printzipioei buruzko adierazpena”	21
5.1.2. Biktimek justizia eta erreparazioa jasotzeko duten eskubidea: “giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen ageriko urraketak eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larriak pairatu dituzten biktimek errekurtsioak aurkezteko eta kalte-ordainketak jasotzeko duten eskubideari buruzko printzipio eta jarraibideak”	23
5.2. Biktimaren estatutua Europar Batasunean.....	24
5.3. Estatuko legeria.....	25
5.4. Autonomia erkidegoko legeria.....	27
6. “Etap berria” euskal erakundeetan.....	31
7. Giza eskubideen urraketak Errenterian.....	35
7.1. Bizitzeko eskubidearen urraketa	35
7.1.1. Bizitzeko eskubidearen urraketak errenterian: zifrak.....	45
7.2. Pertsonen osotasun fisiko eta psikikorako eskubidearen urraketak Errenterian.....	50
8. Ikerketa sakonagoa behar duten kasuak.....	61
9. Beste indarkeria ekintza batzuk eta motibazio politikoko indarkeriaren ondoriozko beste sufrimendu batzuk	65

9.1. Heriotza eragin duten indarkeria politikoari lotutako beste gertakari batzuk.....	67
9.2. Zaurituak.....	68
9.3. Ikusten ez diren, baina izan diren edo dauden sufrimenduak.....	69
10. Herriko indarkeriaren historian izan diren gertaera azpimarragarriak.....	73
11. Argazki/laburpena.....	97
12. Indarkeriari eta bizikidetzan izan duen inpaktuari buruzko iritziak eta testigantzak: iragana zuzendu, oraina adostu eta etorkizunari begiratu.....	103
12.1. Bizikidetzaz apurtua edo oso ahuldua.....	107
12.2. Zer aldatu da eta zer ez da aldatu Erreterian?.....	112
12.3. Harrera ona eta oihartzun handia izan zuen ekimena: Eraikiz	119
12.4. Bizikidetzaz hobetzeko modua.....	127
12.5. Ateak irekita, barrarik gabe leihuetan	134
13. Erreterian azken berrogeita hamar urteetan izandako motibazio politikoko indarkeria ekintzen kronologia.....	137
13.1. Frankismoaren azken urteak.....	137
13.2. Francoren heriotzatik konstituziora arte.....	141
13.3. Konstituzioa onartu ondoren.....	146
13.4. Etorkizuna.....	200
14. Azken apunteak.....	201
15. Bibliografia	203

1.SARRERA

Indarkeriari lotutako iraganak hautsi duen bizikidetzaren berreskuratzeko prozesua luzea eta neketsua da, eta erronka eta lan askori egin behar zaie aurre prozesu horren barruan. Horien artean, lehen eta beharrezko zereginetako bat iraganari begiratzea da: indarkeriaren norainokoa eta ondorioak ongi ezagutzea funtsezkoa da zauriak sendatzeko eta luzeegia izan den aldi batean elkarren aurka bizi izan direnen arteko kontratu sozial berriak egiten hasteko. Behar-beharrezkoa da egia guztiak –pluralean– ezagutzera ematea.

Indarkeriak gure gizartean izan duen inpaktuari lotutako errealitatea osatzeko, iraganaren eta norberaren balioespena egin behar dugu, baina eginkizun hori ez da batere erraza. Ispiluaren aurrean iruzurrik egin gabe jartzea mingarria izan daiteke, eta ausardia eta adorea behar da “besteengan” gaitzetsiko genituzkeen, baina geure inertziak ahalbidetzen dizkigun jokabideetan geure burua islatuta ikusteko. Gizakiak izaki. Bakearen kultura baterantz abiatzeko, ezinbestekoa da gure jarrerak sakonean aldatzea, errealitateari beste ikuspegi batzuetatik begiratzea eta geure erantzukizunak onartzea. Eta, zalantzarik gabe, hori guztia ez da batere erraza.

Gure herrialdean, eta Errenterian ere bai, giza eskubideen urraketak eta bestelako indarkeria-ekintzak izan ditugu, eta horiek guztiek sufrimendu handia eragin diete zuzeneko biktimei zein horien senide eta hurbilekoei. Beraz, kontu handiz landu beharreko gaia da, gertakari traumatiko horiek erabakigarriak izan baitira pertsonen eta familia osoen bizitzan.

Alderdi horiek guztiek eztabaida eta desadostasuna sorrarazi eta sorrarazten dute, eta, une jakin batzuetan, jarrera ideologikoen arteko gizarte-polarizazioa areagotu dute. Hortaz, esan daiteke irtenbideak sortu beharrean eztabaidak sortzen dituen problematika baten aurrean gaudela askotan, erantzunak baino galdera gehiago eragiten dituen gai baten aurrean, eta memoria osatzeko zereginen aurrera egiteko tresna egokiak beti eskuragarri ez daudela.

Kontua zera da, nola landu behar den memoria hori gizarte-polarizazioa areagotu gabe, irtenbideak bilatu ahal izan daitezen eta eragindako kaltea konpondu ahal izan dadin. Gizarte-sarea berreskuratzeko, gure ustez, desadostasun politikoak dituzten taldeen arteko errespetuzko harremanak ezartzera bultzatu behar gaitu, eta, nolana ere, harreman horiek ez dute hausturarik, etsaitasunik edo mesfidantzarik ekarri behar. Kontua ez da guztiak adiskide bihurtzea, elkar errespetatzea baizik, kultura politiko desberdinak gorabehera.

Gure polarizazio politiko eta sozialaren aurrean, memoriaren inguruko lan ororen oinarri izango diren irizpide sendoak bilatu behar ditugu. Bila dezagun giza

eskubideen ideian oinarritutako bide bat, beste herrialde batzuetako gatazkak konpontzeko esperientzietan bezalaxe. Gatazka horien izaera eta ezaugarriak direla-eta, memoria osatzeko gida fidagarria direla esan daiteke.

Memoriaren berreskuratzea eta bakearen eraikuntza hertsiki lotuta daude giza eskubideekin

Memoriaren prozesua errazten duten funtsezko eta beharrezko hiru elementu uztartzen dituzte giza eskubideek:

Oinarri komuna: memoria berreskuratzeko lan orok guztiona izango den oinarri sendo eta legitimatu bat behar du: Giza Eskubideak. Iraganeko indarkeria ikertzeko garaian behar den ezaugarri komun etikoa giza eskubide guztien errespetua da, inolako salbuespenik egin gabe. Kasuen aniztasuna behar bezain zehatz ikusteko aukera ematen diguten betaurrekoak direla esan daiteke, are gehiago kasu horien inguruan zirkunstantzia problematikoak edo nahasiak daudenean. Aniztasun hori bereizteko lana giza eskubideen ikuspegi hertsitik landu behar da, hori baita onarpen handia lortzeko era bakarra.

Giza eskubideek hizkuntza unibertsal bat eskaintzen dute. Bidezkoa dena eta ez dena erabakitzen duen epaile gisa onartuta daude oro har, eta errespetuaren mugak ezartzen dituzte giza harremanetan.

Oinarri komun hori, halaber, ondoren aipatuko dugun “ekitate” kontzeptuaren euskarria da:

Ekitate-irizpidea: distantziakidetasun faltsuak alde batera utzita, giza eskubideak dira ekitatez lan egiteko daukagun baliozko erreferentzia bakarra. Izan ere, biktima mota guztiek jasandako nahigabea eta urraketak errespetu berdinarekin tratatzea ahalbidetzen dute giza eskubideek, urraketan egileak edo biktimen ideia politikoak kontuan hartu gabe.

Gure kasuan, txosten honetan aipatzen den errespetu hori agertzea ezinbesteko prozesua da. Horrek ez du esan nahi biktimizazioa eragin duten prozesuak parekatu behar direnik eta ekintzak egin dituztenak parekatu behar direnik, ezta indarkeriazko ekintza jakin batzuk justifikatu behar direnik ere. Aitzitik, errespetuan, enpatian eta errekonozimendu barne-hartzailean oinarritutako jarrera bat hartu behar da (beharrezkoa den historia partekatu baterako aurreneko urratsa ere izango ahal da!).

Gure aldetik, berriz ere azpimarratu nahi dugu biktima guztiak eta sufrimendu guztiak aztertu nahi ditugula, egileen araberrako hierarkiarik egin gabe, baina behar bezala bereizita, ekintzen eta biktimen inguruko larritasun-maila eta erantzukizun-maila desberdinak ulertu ahal izan daitezten. Egiatzapen hori da txosten honen abiapuntua. Gure errealitatea osatzen duten giza sufrimendu ugari horiez jabetu nahi dugu, ahal dugun heinean arintzen eta erreparatzen saiatzeko.

6. atalean adieraziko dugunez, euskal erakundeek, zenbaitetan adostasun handiarekin, biktimen aniztasuna onartzeko, hots, motibazio politikoko indarkeriaren biktima mota guztiak –egileak edozein izanik ere– barnean hartuko dituen tratamendu bat erabiltzeko joera agertu dute azken urteotan, erritmo desberdinekin bada ere. Eta horrek ez du esan nahi ezer eta inor justifikatzen dutenik edota egoera desberdinak nahasten dituztenik. Aurrerago ikusiko dugu hori.

Eta, azkenik,

Adostasuna: giza eskubideak justiziaren mugak ezartzen dituen irizpidetzat hartuta daude mundu osoan. Iraganeko indarkeriaren egiak ahalik eta adostasun sozial eta politikorik handiena lortu behar du bere onarpena eta eraginkortasuna ziurta dadin. Ez dugu ahaztu behar egia ezagutzeak duen balioa, gizarte-harreman hobeak lortzeko bitarteko urratsa baita.

2. TXOSTENAREN HELBURU OROKORRA

Txosten honen bidez, Erreterian 1956tik 2012ra bitarte izan diren motibazio politikoko giza eskubideen urraketan eta bestelako indarkerien berriak kritiko bat egin nahi izan dugu errespetu osoz. Horretarako, hiribildu honetan izan diren indarkeria-ekintzarik garrantzitsuenei buruzko datuak eta testigantzak (azken hauek letra etzanez agertzen dira) bildu ditugu ikuspegi integral eta partzializatu gabe batekin, gertatutakoaren memoria osatzen lagunduko digutelakoan, antzeko urraketarik berriz gerta ez dadin eta, horren bidez, herriaren egungo eta etorkizuneko bizikidetzak bultzatu dadin.

2.1. ZERGATIK MOTIBAZIO POLITIKOKO INDARKERIA?

Azken hiru legegintzaldietan, Eusko Legebiltzarrak eta Eusko Jaurlaritzak “motibazio politikoko indarkeria” kontzeptua erabili dute biktimen tipologia baten inguruko politika publikoak zehaztean. Gaur egun, halaber, “motibazio politikoko ekintzen biktimen” errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko foru-lege baterako proposamena eztabaidatzen ari da Nafarroako Parlamentuan.

Duela gutxi arte, nolabaiteko ikara ematen zuen “motibazio politiko” kontzeptuak, horren bidez helburu politikoak lortzeko egindako giza eskubideen urraketa jakin batzuk justifikatu nahi zirelakoan. Bidegabekeria batek bidegabekeria izaten jarraitzen du “politiko” kalifikatzailea erantsita ere; kalifikatzaile horrek ez du balio oker hartutako erabakiak zuzentzeko edota erabaki horien erantzukizunak gainetik kentzeko. Nolanahi ere, kontzeptu hori orokortu egin da hemen zein nazioartean, estatuek eta gobernuak indarrean dagoen ordena (diktatoriala zein demokratikoa) irauli nahi dutenen aurka egindako jardunak edota botereen eta horien legeen aurka dihardutenen jardunak kategorizatzean; nahikoa da ingurura begiratzea hori ikusteko.

Motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketan biktimak (Eusko Jaurlaritzak, 2008ko ekaina) txostenaren egileak kontzeptu horren esanahia zehazten saiatu ziren. Garbi adierazi zuten, era horretan kalifikatzeak ez du esan nahi, per se, jardunbide jakin batzuk justifikatzen direnik. Ikuspegi kriminologiko batetik, motibazio politikoko indarkeria termino deskribatzailea da, testuinguru jakin bati lotua (ekintza kriminala bultzatzeko arrazoiei lotua, zehazki). Ekintza kriminalak (erailketak, hilketak, torturak, lesioak eta abar) beste arrazoi batzuegatik ere egiten dira (indarkeria patriarkalagatik edo genero-indarkeriagatik, droga-trafikoagatik eta abar), eta beste egile mota batzuek ere egiten dituzte (ohiko delitugileek, mafiek eta abar). Gure kasuan, ordea, urraketaren egileak zentzu “politiko” ematen dio ekintzari (subjektuaren

izaeragatik, ekintza motagatik, lortu nahi den helburu edo inpaktuagatik edota hautatutako biktimengatik).

Hortaz, motibazio politikoko indarkeria ez da kontzeptu itxia. Halaber, ez da terrorismoaren definiziotik kanpo dagoen kontzeptu bat. Esan daiteke terrorismoa motibazio politikoko indarkeria dela, baina motibazio politikoko indarkeriaren errealitatea zabalagoa dela. Edonola ere, terrorismoak eta motibazio politikoko indarkeriak ez dute definizio juridiko edo politiko garbi eta adosturik gaur egun. Hortaz, txosten honen helburua ez da definizio horiek finkatzea.

Jon Mirena Landa Gorostiza katedradunak koordinatutako lantaldeak 2008an egin zuen analisiaren arabera, nolabaiteko antolaketa-maila batekin eta gizartean edo politikan eragiteko asmoarekin egiten diren eta/edo gertaera bakan edo ustekabekoez bestelako jardun-eredu bati jarraitzen dioten ekintzak dira ekintza politikoak. Asmo politikoa, bestalde, biktimaren aukeraketan ere isla daiteke. Adibidez, biktima gisa oposizioko pertsonak edo taldeak hautatzeak haien jarduna geldiarazteko, haien erakundea apurtzeko edo areriotzat hartutako pertsona indarkeriaz hiltzeko asmoa uzten du agerian. Beste kasu batzuetan, biktimak indiskriminatuak izaten dira, edota berez eta bakarka izaera politiko nabarmenik ez duten ezaugarri soziologiko komun batzuk dituzte, baina erasoaren helburua gizartean terrorea eragitea edota biztanle-sektore handietan inpaktu jakin bat lortzea delako izaera politiko hori hartzen dute.

2.2. INDARKERIAREN ALDIA

Ez dut kritikatzeko asmoz esaten, ezta gutxiagorik ere, baina batzuek karlistaldietaraino egin nahi dute atzera.

Aztergai dugun aldia berrogeita hamar urtetik gorakoa dela kontuan hartuta, aztertu beharreko garaiak ezin ditugu nahasi, eta ezin dugu karlistaldietaraino atzera egin, jaso dugun testigantza batean adierazi bezala. Aldi bakoitzak bere ezaugarriak ditu; hori agerian geratzen da txostenaren amaieran eskainitako kronologia zabala arretaz ikustean. Diktadura eta demokrazia ez dira gauza bera, baina bietan urratu dira giza eskubideak, testuingurua desberdina izanik ere.

Kontuan izan behar da, gainera, oso urria dela hasierako hamarkadetako informazioa (hirurogeiko hamarkadakoa, bereziki), ez baitago urte haietako zuzeneko eta zeharkako biktimen testigantzarik. Zuzeneko testigantzarik ez dugunez gero, ibilbide luzea dugu aurrean alderdi hori ahal den neurrian

zuzentzeko. Hortaz, zeregin horretan lagungarria izan daitekeen euskarrietako bat da txosten hau.

Zergatik 1960. urtetik hasita?

Udalarekin adostu zenez, txosten honetan ikertzen den aldia 1960tik gaur egun artekoa da. Aldi hori bat dator Terrorismoaren Biktimak Aitortu eta Osorik Babesteko irailaren 22ko 29/2011 Legean aurreikusitako politikekin; izan ere, aurretik indarrean zeuden arauak zabaldu eta bateratu egin zituen lege horrek, eta 1960ko urtarrilaren 1etik aurrera gertatutako ekintza guztiei aplikatzen zaie atzeraeraginez. Era berean, AVT erakundeak eskaintzen dituen biktimen zerrendek, Covite erakundearen Terrorearen Mapak, Libertad Digital-en In Memoriam atalak, Fernando Buesa Fundazioaren dokumentazio-zentroaren Efemérides de atentados atalak eta La derrota de ETA. De la primera a la última víctima¹; Vidas Rotas²; Gernikako seme-alabak 1960-2010³ eta Sangre, votos y manifestaciones. ETA y el nacionalismo vasco radical 1958-2011⁴ liburuek, besteak beste, 1960. urtea edo aurreko data bat dute abiapuntu.

Beste erakunde eta elkarte memorialista batzuentzat bezalaxe, txosten honen idazlari taldearen ustez egokiagoa da aldi zabalago bat hartzea (azterlan honen kronologian, 1956ko salbuespen-egoera da abiapuntua). Alderdi hori ondorengo txostenetan lan daiteke, betiere garai bakoitza ongi zehazten bada eta aldiak nahasten ez badira. Ikuspegi zabalago bat izatea lagungarria da gertakariak ulertzeko.

2.3. MEMORIA BERRESKURATZEA

Bizi izandako esperientzia guztiak gure memorian era barne-hartzailean txertatzen saiatzea zeregin korapilatsua da. Dena dela, gertatutakoaren memoria partekatu bat osatu nahi badugu, **funtsezkoa da jarrera irekia izatea**. Horretarako, Bakearen aldeko Koordinakundeak zioenez, “memoria-prozesuak egin beharko dira era koordinatuan, elkarren aurka egin gabe eta adosteko borondatearekin”⁵.

¹ CALLEJA, José María eta Ignacio Sánchez-Cuenca. Adhara, 2006.

² ALONSO, Rogelio eta Florencio Domínguez eta Marcos García Rey. Espasa, 2010.

³ LAN KOLEKTIBOA. AGIRRE, Josean (koord.). Euskal Memoria Fundazioa, 2010.

⁴ FERNÁNDEZ SOLDEVILLA, Gaizka eta Raúl López Romo, Sangre, votos y manifestaciones. ETA y el nacionalismo vasco radical 1958-2011. Tecnos, 2012.

⁵ BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA. Las víctimas de actuaciones indebidas del Estado en la lucha antiterrorista. 2011ko uztaila, 9. or.

3. TXOSTENAREN EDUKIA

Lan honetan, Erreterian aztergai dugun arloan gertatutakoaren memoria kolektiboa lantzeko eta antolatzeko gure ustez balio dezakeena zehaztu nahi izan dugu. Horretara hurbiltzen saiatu gara behintzat. Amaitu gabeko lana izango da beti, eta agertzen diren datu berriekin jarraitu beharko da egiten. Kontuan izan behar dugu, gainera, indarkeria mota batzuk ezin direla kontabilizatu eta, beraz, nekez eraman daitezkeela estatistiketara. Aurrerago aztertuko dugu hori. Badira, halaber, ikerketa honetan egun eskuragarri dauden baliabideekin azertu ezin diren beste indarkeria mota batzuk ere. Alderdi horiei buruzko azterlanak egin beharko dira aurrerago; azken kapituluan aipatuko ditugu.

Txosten honen muga barruan, Erreteriarako biktimak identifikatu eta kuantifikatu ditugu, baina, horrez gain, komenigarria iruditu zaigu gertatutakoaren sekuentzia osoa jasotzea, ahalik eta ikuspegi fotografikorik osatuena izateko. Horregatik, 1956tik 2012ra arteko aldia hartzen duen kronologia bat landu dugu; bertan, Erreterian azken berrogeita hamar urteetan izan diren motibazio politikoko indarkeria-ekintzak daude bilduta, urtez urte.

Indarkeria-ekintzen zerrendak egileen arabera baino egiten ez badira, ez da prozesu osoa jasotzen, ez da gertaera guztien katea islatzen, eta zailagoa da zer gertatu zen jakitea. Urraketa guztien ikuspegi integral baten bidez, berriz, "gutarrak" ez direnei zer gertatu zaien jakiteko aukera dugu. Hori lagungarria da elkarren nahigabea errespetatzeko, eta erraztu egiten du etorkizuneko bizikidetzak.

Urraketa guztiak eta indarkeria soziopolitikoari lotutako beste ekintza guztiak barnean hartuko dituen ikuspegi batek, azken batean, urraketa guztiei ekitatez aplikatu beharreko eskakizunak egokiro orekatzen lagunduko du, egilea edozein izanik ere.

Txostenaren akotazioak

Indarkeriak inpaktu asko eta askotarikoak eragin ditu Erreterian. Arestian adierazi dugunez, lan honetan ez ditugu landuko konnotazio politikoko urraketa mota guztiak (terminoa ikuskera osoan hartuta). Txosten honetan, oro har, ez daude jasota erantzun errepresiboak jaso zituzten sistemaren aurkako jardunbide politikoak, hala nola borroka antinuklearra, NATOren aurkakoa, nahitaezko soldadutzaren aurkakoa, desobedientzia kolektiboaren erabilera (tailaketen eta

zozketen aurkako sabotajeak, kateatze eta eserialdi baketsuak eta abar), intsumisioaren inguruko praxiaren errepresioa (atxiloketak, epaiketak, espetxe-zigorak eta abar) edota irrati libreen, abandonatuta utzitako eraikinen okupazioen eta gaztetxeen inguruan sortutako errealitatea. Mugimendu horiek indar handia izan zuten Erreterian.

Kontuan hartu dira, ordea, diktaduraren azken urteetan Oarsoaldeko langile-borrokaren aurkako errepresioa eta langileen oinarrizko eskubideen urraketak, garai hartan langileek zuzentzen baitzuten adierazteko, biltzeko, elkartzeko, manifestatzeko, sindikatzeko edo askatasunez aukeratzeko askatasunaren aldeko borroka. Estatu espainoleko lehen salbuespen-egoera 1956an ezarri zen, eta garai hartan hasi berriak ziren langile eta ikasleen mugimenduak isilaraztea zuen helburu. Esanguratsua da, gainera, ETAk Erreterian jarri zituen lehen hiru lehegailuak (lehegailu bana 1972an, 1973an eta 1974an) sindikatu frankistaren ordezkariaren aurka zuzendu izana. Halaber, komando autonomoek hirurogeita hamarrekota eta lauogeiko hamarkadetan CCOO sindikatuaren egoitzaren eta langatazka zituzten enpresen aurka egindako sei atentatu jaso dira. Ez dugu uste gertakari horiek txosten honetan aztergai dugun gaitik bereiz daitezkeenik.

Horrela, beraz, “euskal kasuari” (hots, batzuek “euskal gatazka” eta beste batzuek “ETAren terrorismoaren aurkako borroka” izendatzen dutenari) lotutako motibazio politikoko indarkeriak Oarsoaldeko hiribildu honetan izan duen inpaktua du ardatz txosten honek.

Testigantzen bilketa eta kasuen zerrendak

Dokumentazioa biltzean eta askotariko testigantzak bildu ondoren, oroimena ahula eta selektiboa dela egiaztatu ahal izan dugu. Oso zaila da hain aldi luze eta bizian gertatutako guztia buruan gordetzea. Jakin badakigu iraganaren oroitzapenak, jasandako nahigabea gogora ekartzeaz gain, gauzak berriz ere neurri berarekin ez neurtzeko arriskua dakarrela. Horregatik, gertatutako giza eskubideen urraketatako asko identifikatzeaz gain, herriko memoria-proiektu baterako baliagarriak izan daitezkeen bizipenak, gogoetak, zalantzak, desadostasunak eta elkartzeko askotariko esperientziak eman nahi izan ditugu ezagutzera. Proiektu horrek, nolahi ere, gertatu zaigunaren ahalik eta errekonozimendurik zabalena lortu beharko du.

Udalak 1996an editatu zuen Erretereriako historia liburuan, garai hartako alkate Miguel Buen Lacambrak honako hau zioen: “Gure iragana ezagutzeak ez gaitu hobe edo okerrago egiten, baina gogoetatsuago”⁶. Guk ere jasandako gertaerak gogoratzen eta horiei buruzko gogoeta egiten lagundu nahi dugu, gertaera horiek ahatz ez daitezen; eta etorkizunari begiratu nahi diogu, horrelakorik berriz gerta ez dadin. Bide horretan lagundu nahi izan dugu lan honen bitartez.

⁶ Juan Carlos Jiménez de Aberasturik zuzendutako *Erretereriako historia* (1996) liburuaen aurkezpena.

Hona hemen elkarrizketa egin duten pertsonak:

- **Buen Lacambra, Miguel.** Eusko Jaurlaritzako Segurtasuneko sailburuorde ohia, foru-diputatu ohia eta Errenteriako alkatea 18 urtean (1987-2003).
- **Elkano Etxebeste, Ángel María.** Herri Batasunako zinegotzi ohia Errenteriako Udalean.
- **Ferradás Freijó, José Manuel.** Errenteriako Ezkerrako (EB) zinegotzia Errenteriako Udalean.
- **Herzog De Bustos, José Manuel.** Alderdi Popularreko (PP) zinegotzia Errenteriako Udalean.
- **Lopez de Etxezarreta Auzmendi, Garazi.** Eusko Alkartasunako (EA) kidea. EH Bilduko zinegotzia Errenteriako Udalean.
- **Molina Guerrero, Mari Jose.** Errenteriako Emakumeen Taldeko kidea eta herriko hainbat ikastetxetako irakaslea.
- **Peña López, Maite.** Gipuzkoako EAJ-PNVko gizarte-politiketako arduraduna eta EAJ-PNVko zinegotzia eta bozeramailea Errenteriako Udalean.
- **Rodríguez Medina, José Ángel.** Errenteriako Udaleko zinegotzia eta Errenteriako PSE-EE taldeko idazkari nagusia.
- **Ugalde Ugarte, Mikel.** Orereta ikastolako lehendakari ohia eta Ereintzako kide ohia; hiribilduko ohorezko saria jaso du.

Arestian aipatutako pertsonak eta horiek emandako erantzunak ausazko ordenan agertzen dira txosten osoan. Erantzunak hainbat ataletan tartekatu ditugu, eta letra etzanean agertzen dira beti. Salbuespenak salbuespen, uste dugu ZER erantzuten den jakiteak (edukia, mamia, argumentua) NORK erantzuten duen zehazteak baino ekarpen handiagoa egiten duela. Izan ere, nork esaten duen kontuan hartzeak ez gaitu baldintzatu eta mugatu behar; zer eta NOLA esaten den hartu behar da kontuan.

Jakina, ez dugu ados egon behar esaten digutenarekin. Besterik gabe, kontuan hartu behar dugu hori pentsatzen duen jendea dagoela, eta, beraz, orainari eta etorkizunari begira denok espazio berean (Errenterian) askatasun osoz bizitzeko akordioetara iritsi nahi izanez gero, ahaleginak egin beharko direla arlo bakoitzean adostasun-puntuak bilatzeko eta kasu bakoitzean gutxiengoarenak edo disidentearenak diren iritziak egokiro kudeatzeko.

4. KASUAK SAILKATZEKO IRIZPIDEAK

Gertatu diren gauza guztiak ez dira berdinak izan, eta, gertatu dena ordenatzeko garaian, dena ezin da zaku berean sartu. Gauza guztiez hitz egin behar da eta gertatutako guztia jakin behar da, baina ahalegin metodologiko bat egin behar dugu gertakariak eta metatutako sufrimendua behar bezala sailkatzeko. Izan ere, sufrimendua biktima guztiek duten zerbait da, baina indarra bidegabeki erabiltzeko arrazoiak eta asmoa desberdinak dira, egileak desberdinak dira, egia argitzeko garaian agertutako zigorgabetasun-mekanismoak desberdinak dira, antzeko jardunen ondoriozko erantzukizunak desberdinak dira, eta biktima guztien kalteberatasuna ere desberdina da. Batzuek tiro egitea aukeratu dute, edozein modalitate eta posiziotan, eta beste batzuek, aldiz, ez. Batzuek hil egin dute, beste batzuk hil egin dituzte. Badira hil dutenak eta geroago hil dituztenak ere. Nabarmena da dena ez dela gauza bera.

Dena ez da gauza bera, baina biktimak parekatu egiten dira biktima bihurtzen direnean. Eta zertan parekatzen dira? Eskubideei dagokienez, zentzuzko printzipio unibertsal batean: urraketa berdinei egia, justizia, errekonozimendua eta erreparazioa jasotzeko eta diskriminaziorik ez jasateko eskubide berdinak dagozkie.

5. kapituluan, zehatz-mehatz azalduko dugu nazioarteko, Estatuko eta Autonomia Erkidegoko arau eta legeetan definituta dagoen eta txosten honetan jarraituko diogun "biktima" kontzeptua. Nolanahi ere, distantziakidetasuna saihesteaz eta nahasi behar ez dena nahasi gabe antolatzeaz kezkatuta, honako galdera hau egin genien elkarriketa egin zutenei: nola landu behar ditugu Errenterian gertatu diren indarkeria guztiak?

Denek erantzun berdina eman dute: ez da bereizketarik egin behar biktimen artean. Era berean, ez dituzte ekintzen egileen arabera hierarkizatu nahi izan. Bakar batek ere ez du batzuk besteen gainetik jarri nahi izan. Txostenean dena kontu dadin nahi izan dute:

Niretzat, GALEkoak, GRAPOkok, ETAkook, hemengoak eta hangoak, denak berdinak dira. Inork ez dezala pentsa hemen nagoelako [PSE-EE alderdiko kargu politiko gisa] batzuk besteak baino gehiago atsegin ditudanik. Ez, ez. Utikan horiek guztiak.

Zenbait sektoretan hain eztabaida bizia sortzen duen gai labaina izateko, oso esplizituak izan dira PSE-EE alderdiak herriko Udalean duen bozeramaile José Ángel Rodríguezeren erantzunak.

Zirrararik handiena sorrarazi dioten gertaerez mintzatu ondoren, "grisen" jokaera, eraildako zinegotziak, emazteari egindako jazarpenak eta abar maila berean

jartzeak distantziakidetasun-arazoak sortzen dizkion galdetu genion. Hona hemen erantzuna:

Ez, jakin badakit beste aldean ere gauzak gaizki egin direna, eta niri hildako guztiek ematen didate min, e? Gauza batzuk onartezinak iruditu zaizkit, hala nola Lasa eta Zabarena edo... baita Pasai Donibanen hil zituzten Komando Antikapitalistetako lau kideena ere.

Gaiarekin jarraitu genuen. Gertatutakoa azaltzerakoan, axola izango al litzaizuke dena giza eskubideen urraketaren ikuspuntutik balioetsiko balitz?

Funtsean, ez dut gertatutako ezer atsegin. Gehien izorratzen nauena zera da, nork egin zuen tiro lehen aldiz eta noiz erail zen lehenengoa.

Oso argigarriak dira, halaber, PP alderdiak herriko Udalean duen zinegotzi Chema Herzogek distantziakidetasunari buruz eman dizkigun erantzunak:

Nik uste dut bi gauzak gaizki daudela. Nik uste dut koldarragoa dela torturazalea; Estatuko makineriaz babestuta dago, eta seguru sentitzen da. Hiltzaileak, berriz, badaki klandestinoak dela eta harrapa dezaketela; abenturazaleagoa da. Ez dakit, bi gauzak dira lazgarriak, zein baino zein lazgarriagoa.

Eta jarrera horiek arazorik sortzen al dizute inguruan?

Alde batetik eta bestetik seinalatzen nautenek ez dute niri kalte egiteko modurik aurkitzen, eta bakean uzten naute. Errezeloa sorrarazten dut, baina ez dute erabateko diagnostikorik; "hau honek deskalifikatzen du": arraroa izateak eta horrek sortzen duen mesfidantzak baino ez nau deskalifikatzen.

Komeni da, nolana ere, gaia tentu, pedagogia eta elkartasun handiz lantzea. Nahigabe eta sufrimendu handia dago metatuta. Horregatik, garrantzitsua da problematika honi guztiari aurre egiteko moduarekin asmatzea. Miguel Buen alkate ohiak honako hau zehaztu du:

Bi aldeek jasandako sufrimenduaren kontuak arazo bat dakar. Izan ere, ez dut uste terrorismoaren biktima –maiuskuletan– izan denari gehiegi eska diezaiokegunik (eta berdin dio zer terrorismo mota, berdin-berdin dio). Egia da eman dieguna baino askoz gehiago eman behar diegula denei: babes handiagoa, maitasun handiagoa, ulermen handiagoa, baina, askotan, oso zaila da hori.

Zeregin korapilatsua eta oso tentuz ibiltzekoa da, zalantzarik gabe. Horregatik, herrian izan diren oinarrizko eskubideen urraketa guztien artean nagusiki (baina ez bakarrik) bizitzeko eskubideari eta osotasun fisiko eta psikikorako eskubideari lotutako urraketari heltzea erabaki dugu lan honen diseinu metodologikoan. Koadro/argazkietan eta kronologian bai, zerrendatu ditugu beste urraketa mota batzuk, baina kasu askotan zuzeneko iturririk ez dugunez gero, ondorengo

azterlanetan sakontasun handiagoz landu beharko dira beste urraketa mota horiek.

GIZA ESKUBIDEEN URRAKETA

Lehentasun gisa adierazitako bi bloke handi horiek ezarri ondoren (bizitzeko eskubidea eta osotasun fisiko eta psikikorako eskubidea), kasu eta biktimen kasuistika osoa lantzeko modua zehaztu behar dugu. Argi eta garbi bereizi nahi ditugu eskubideen urraketak eta beste sufrimendu mota batzuk. Egia da dena dela sufrimendua, baina, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen estandarren arabera, sufrimendu guztiak ez dira giza eskubideen urraketatzat hartu behar. Gertatutakoaren argazki osatua nahi dugu, baina behar bezala ordenatua.

Badugu, beraz, lehen talde bat: giza eskubideen urraketarik larrienak, hots, bizitzeko eskubidearen eta osotasun fisiko eta psikikorako eskubidearen urraketak. 5. kapituluan aipatutako arau eta legeen arabera, jasandako kaltearen larritasunaren proportziorako erreparazioa dagokie biktima horiei, egiaz eta justiziaz gain. Erreparazio horren barruan, lehengoratzea, kalte-ordain ekonomikoa, birgaitzea, gogobetetzea eta berriz ez gertatzeko bermeak bilduko dituen errekonozimendu bat behar da.

- Errenteriako Udalak herriko biktimen memoria eta errekonozimendua lortzeko eginkizunean dagozkion jardunak sustatu beharko ditu herrian: omenaldiak, oroitzapen-ekitaldiak, gertatutakoaren jakintza eta abar. Nolanahi ere, komenigarria izango litzateke erakundeen arteko koordinazioa sinergiak gehitzeko, informazioa eta irizpideak elkartrukatzeko eta lanak ez bikoizteko.

IKERKETA SAKONAGOA BEHAR DUTEN KASUAK

Bigarren taldea osatzen duten kasuetan: a) ez dago informazio nahikorik oraindik; b) kontraste handiagoa behar da ikerketa egin ondoren; c) informazio nahikoa badago, baina egileak kontrajarriak edo kontraesankorrak dira; d) bertsio ofizialaz gain, beste batzuk ere badaude. Kasu bakoitza argitu ahala, lehen taldean txertatu ahal izango da, edota ez da motibazio politikoko biktimatzat hartuko, halakotzat hartzeko baldintzak betetzen ez dituelako, hots: egileak ohiko delitugileak zirelako eta, beraz, motibazio politikorik ez zegoelako, indarkeriazko liskarra izan zelako baina eskubideen urraketarik gertatu ez zelako eta abar.

- Herriko Udalak falta zaion informazioa eskatu beharko die erakunde eskudunei, edota, hala badagokio, informazio hori lortzeko baliabideak gaitu beharko ditu. Era horretan, informazioa eskuan izanik, herri-mailako erabaki gehiago hartu ahal izango ditu (egin beharreko oroitzapen-ekitaldi eta omenaldietan pentsatuta, bereziki), eta kasu horiek bizitzeko eskubidea kendu dieten pertsonen kasuetan txertatzeko ala ez txertatzeko jarraibideak ezarri ahal izango ditu.

BESTE SUFRIMENDU BATZUK

Aurreko bi taldeetatik kanpo, hirugarren bat ere badago, eta nazioarteko estandarretan zentzu hertsian giza eskubideen urraketatzat hartzen ez diren kasuak dira, nahiz eta astindu gaituen indarkeria-dinamika hori izan ez balitz amaiera tragikorik izango ez zuten kasuak izan. Beren buruaz beste egin duten poliziez edo presoez, barrikaden ondorioz edo espetxeetarako bisitaldietan gertatutako istripuez ari gara, adibidez. Atal honetan, halaber, lehen taldean aipatutako kasuen izaera desberdina izanik ere indarkeria-ekintza baten esparruan (liskar batean edota norberaren arma edo lehergailuekin) gertatu diren heriotzak sar litezke.

Errenteria astindu duen indarkeria politikoaren beste inpaktu batzuen adierazgarriak dira horiek, Udalak edo beste erakunde batzuek errekonozimendu edo erreparazioaren arloan dituzten inplikazioei dagokienez giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen arau eta legeetan lehen tokian sailkatutako giza eskubideen urraketekin alderatu edo parekatu ezin badira ere. Hori dela-eta, atal berezi batean sailkatu dira txosten honetan, dena berdina ez dela argi eta garbi ikus dadin, eta hainbeste urtetan metatutako nahigabea eta ezinikusia kontuan hartuta ulergarriak izan daitezkeen ohiko irain hutsalak ahal den heinean desager daitezten.

5. ARAU ESPARRUA: “BIKTIMA” KONTZEPTUA ETA BIKTIMAREN ESKUBIDEAK

Atal honen barruan, “biktima” kontzeptua definitzen duten eta biktimen eskubideak finkatzen dituzten giza eskubideen nazioarteko sistemaren arau-tresna nagusien eta beste estandar batzuen azalpen-analisia erraztu nahi izan dugu. Horrela, beraz, ez da tresna guztien analisi zehatz bat, biktima-izaeraren konfigurazioan eta egia, justizia eta erreparaziorako eskubideak finkatzean funtsezko bilakaera eragin duten tresnen azalpen laburra baizik.

5.1. BIKTIMA IZAERAREN ETA BIKTIMAREN ESKUBIDEEN INGURUKO NAZIOARTEKO ADIERAZPENAK ETA GOMENDIOAK

Nazioarteko adierazpenak, gomendioak eta beste dokumentu batzuk erabakigarriak izan dira biktimei egia, justizia eta erreparaziorako eskubideak bermatzeko. Arau-ikuspuntu batetik estatuentzat ondorio loteslerik ez duten dokumentuak badira ere, tresna egokiak dira, estatuak biktimen eskubideak betetzeko hertsatuki eskatzen dieten eta estatu horiek horretarako bidezko neurriak har ditzaten sustatzen duten tresnak.

Hasteko, 1985ean Nazio Batuen esparruan emandako lehen definizioa aipatuko dugu:

5.1.1. “BIKTIMA” KONTZEPTUA: “DELITUAREN ETA BOTERE ABUSUAREN BIKTIMENTZAKO JUSTIZIAREN OINARRIZKO PRINTZPIOEI BURUZKO ADIERAZPENA”⁷

Nazio Batuen Batzar Nagusiak munduko milioika pertsonen “delituen eta botere-abusua dakarten beste ekintza batzuen ondoriozko kalteak” jasan dituztela eta “biktima horien eskubideak aitortu ez direla” onartu zuen 1985eko azaroaren 29ko 40/34 Ebazpenean.

Onarpen horretatik abiatuta, eta adierazitako Ebazpenaren esparruan, “Delituaren eta botere-abusuaren biktimentzako justiziaren oinarrizko printzipioei buruzko

⁷ Delituen eta botere-abusuaren biktimentzako justiziaren oinarrizko printzipioei buruzko adierazpena, NBEren Batzar Nagusiak 1985eko azaroaren 29ko 40/34 Ebazpenean hartua. Honako honetan dago eskuragarri: <http://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/VictimsOfCrimeAndAbuseOfPower.aspx>

adierazpena” formulatu zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiak. Hain zuzen ere, gobernuei eta nazioarteko komunitateari kriminalitatearen eta botere-abusuaren biktimantzako justizia gauzaten laguntzeko beharragatik formulatu zuen Adierazpen hori nazioarteko erakunde horrek. Azken helburua, nolana ere, biktimei eskatzen zuten laguntza eskaintzea zen.

Adierazpenean biktima terminoari ematen zaion definizioa Adierazpenaren ekarpen nagusietako bat dela esan daiteke, eta azpimarratu beharra dago biktimaren definizio zabala ematen duela.

Zehazki, estatu kideetan indarrean dagoen zigor-legeria urratzen duten ekintzen edo ez-egiteen ondorioz kalteak jasan dituen pertsona oro da biktima.

Kaltetzat zer har daitekeen zehazteko garaian, Adierazpenak zabaltasun berarekin jokatu du, lesio fisiko edo mentalak, sufrimendu emozionala, galera ekonomikoak edo oinarrizko eskubideen galera esanguratsua hartzen baititu kaltetzat. Gainera, zuzenekoak ez ezik, zeharkakoak ere biktimatzen hartzen ditu. Zehazki, “biktimarekin harreman estua duten senideak edo pertsonak eta arriskuan zegoen biktimari laguntzeko edo biktimizazioa prebenitzeko esku hartzean kalteak jasan dituzten pertsonak” hartzen dira biktimatzen.

Gainera, azterlan honen ondorioetarako garrantzitsua den beste zehaztasun bat aipatu da. Hain zuzen ere, pertsona bat biktimatzen hartzeko, ez da beharrezkoa kaltea eragin duen pertsona “identifikatu, atxilotu, jazarri edo errudun deklaratu izana”⁸.

Bestalde, indarrean dagoen zigor-legeriaren urraketari dagokionez, botere-abusuaren esanbidezko aipamen bat jasotzen du. Berezitasun azpimarragarria da gure ustez, ez baitu beste ezein ez-zilegi penalik aipatu esanbidez.

Handik urte batzuetara, 2005eko abenduan, Nazio Batuen Batzarrak, biktimaren 1985eko definizioan oinarrituta, biktimen eskubideak babesteko hainbat printzipio eta jarraibide onartu zituen:

⁸ Delituen eta botere-abusuaren biktimantzako justiziaren oinarrizko printzipioei buruzko adierazpena, NBEren Batzar Nagusiak 1985eko azaroaren 29ko 40/34 Ebazpenean (2. paragrafoan) jasoa.

5.1.2. BIKTIMEK JUSTIZIA ETA ERREPARAZIOA JASOTZEKO DUTEN ESKUBIDEA:
“GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO NAZIOARTEKO ARAUEN AGERIKO
URRAKETAK ETA NAZIOARTEKO ZUZENBIDE HUMANITARIOAREN
URRAKETA LARRIAK PAIRATU DITUZTEN BIKTIMEK ERREKURTSOAK
AURKEZTEKO ETA KALTE-ORDAINKETAK JASOTZEKO DUTEN
ESKUBIDEARI BURUZKO PRINTZPIO ETA JARRAIBIDEAK”⁹

2005eko abenduaren 16an, giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen ageriko urraketak pairatu dituzten biktimek errekurtsioak aurkezteko eta erreparazioak jasotzeko duten eskubideari buruzko oinarritzko printzipio eta jarraibideak onartu zituen Nazio Batuen Batzar Nagusiak.

Testu horretan, Nazio Batuek erabiltzen duten “biktima” kontzeptua 40/34 ebazpeneko kontzeptuan oinarrituta dago.

Nazio Batuek 2005. urtean onartutako printzipio eta jarraibide horien arabera, giza eskubideen eta biktimen justiziarako eta erreparaziorako eskubideen urraketak ikertzeko betebeharra dute estatuek. Zehazki, estatuen honako betebeharrak hauek xedatzen dituzte printzipio eta jarraibide horiek:

- a) urraketak saihesteko legegintza-xedapenak, administrazio-xedapenak eta bestelako neurri egokiak hartzea;
- b) urraketak era eraginkor, bizkor, oso eta inpartzian ikertzea eta, hala badagokio, ustezko erantzuleen aurkako neurriak hartzea, barneko eta nazioarteko zuzenbideari jarraiki;
- c) beren giza eskubideen edo zuzenbide humanitarioaren urraketaren biktimei justizia lortzeko ekitatezko eta benetako aukera eskaintzea, aurrerago azalduko dugunez, urraketaren erantzulea edozein izanik ere; eta
- d) Biktimei baliabide eraginkorrak eskaintzea (baita erreparazioa ere, aurrerago azalduko dugunez)¹⁰.

Zehazki, biktimek eskubidea dute: a) gizalegez eta beren duintasuna eta giza eskubideak errespetatuz tratatuak izateko, b) justiziarako aukera berdina eta

⁹ 60/1947 Ebazpena, Batzar Nagusiak 2005eko abenduaren 16an onartua. Honako honetan dago eskuragarri: <http://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/RemedyAndReparation.aspx>

¹⁰ 60/1947 Ebazpena, 2005eko abenduaren 16an Batzar Nagusiak onarturikoa, 3. paragrafoa.

benetakoa izateko, c) jasandako kaltearen erreparazio egokia, eraginkorra eta bizkorra jasotzeko, eta d) giza eskubideen urraketek eta erreparaziorako mekanismoak buruzko informazio egokia izateko.

Urraketen biktimek erreparazioa jasotzeko duten eskubidea giza eskubideen nazioarteko hainbat xedapen eta tratatutan jasota dago¹¹.

Erreparazioa, zehazki, giza eskubideen urraketek eragindako kalteak zuzentzeko Estatuak hartu beharreko neurrien multzoa da. Erreparazioak urraketen larritasunarekiko eta jasandako kaltearekiko proportzionala izan behar du. Erreparazioa ez da konpentsazio ekonomiko soiltzat hartu behar; kasuaren arabera, honako forma hauek har ditzake: lehengoratzea, kalte-ordaina, birgaitzea, gogobetetzea eta berriz ez gertatzeko bermeak.

Lehengoratzeak, kasuaren arabera, honako hauek biltzen ditu: askatasunaren berrezartzea, giza eskubideez, identitateaz, familia-bizitzaz eta herritartasunaz gozatzeko aukera, bizilekura itzultzea, enplegura itzultzea eta ondasunen itzultzea.

Europako esparruan, biktimen eskubideak jasotzen dituen tresna nagusia honako hau da:

5.2. BIKTIMAREN ESTATUTUA EUROPAR BATASUNEAN

2012ko urriaren 25ean, delituen biktimen eskubideei, laguntzari eta babesari buruzko gutxieneko arauak ezartzen dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/29/EB Zuzentaraua onartu zen¹².

Zuzentarau horrek biktimaz ematen duen definizioa Nazio Batuek emandakoaren antzekoa da. Zehazki, honela definitzen du biktima 2. artikuluan: “arau-hauste penal batek zuzenean eragindako kalte edo galera bat (lesio fisiko edo mentalak, kalte emozionalak edo galera ekonomikoak, bereziki) jasan duen pertsona fisikoa”.

¹¹ Eskubide Zibil eta Politiko Nazioarteko Ituna (2. artikulua), Arraza Diskriminazio mota oro Desagerrarazteko Nazioarteko Hitzarmena (6. artikulua), Torturaren aurkako Hitzarmena (14. artikulua) eta Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena (39. artikulua).

Delituen eta botere-abusuaren biktimetzako justiziaren oinarritzko printzipioei buruzko Adierazpenak Estatuko legerian tipifikatutako delituak eta botere-abusuak ditu ardatz (horien artean, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen eta zuzenbide humanitarioaren, Giza Eskubideen eta Herrien Afrikako Gutunaren (7. artikulua), Giza Eskubideei buruzko Amerikako Hitzarmenaren (25. artikulua), eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren eta Amerikako Herrialdeetako Giza Eskubideen Gortearen erabakien urraketak), eta biktimen eskubideak onesten ditu. Erromako Estatuak, azkenik, ahalmena ematen dio Nazioarteko Gorte Penalari “bere erabakian biktimei edo kausadunei eragindako kalte edo galeren norainokoa eta magnitudea finkatzeko” eta “zuzenean kondenatuaren aurkako erabaki bat hartzeko, biktimei eman beharreko ordain egokia adierazita, lehengoratzea, kalte-ordaina eta birgaitzea barne” (75. artikulua). Ikus “Giza eskubideen nazioarteko babes juridikoa gatazka armatuetan” (Nazio Batuen Goi Komisarioa, 2011, 96. eta 97. kapituluak). dago eskuragarri: <http://www.boe.es/doue/2012/315/L00057-00073.pdf>

Halaber, “zeharkako biktima” kontzeptua biltzen du, eta halakotzat hartzen du arau-hauslea identifikatu, atxilotu, akusatu edo kondenatu den kontuan hartu gabe.

Zuzentaraua, legegintzako egintza denez gero, nahitaez bete beharrekoa da Europar Batasuneko estatu kide guztientzat. Halaber, EBko herrialde guztiek bete beharreko helburu bat ezartzen du, betetzeko modua herrialde bakoitzak erabakitzen badu ere. Zuzentaruak biktimei aitortzen dizkien eskubideak gutxienekoak dira; estatuak errespetatu egin behar dituzte eskubide horiek, eta Zuzentaruak emandako babes-eremua zabal dezakete (ez, ordea, murriztu).

Zuzentaru horretan, biktimak eskubide ugariren titularrak dira. Honela taldeka ditzakegu eskubide horiek: informaziorako eskubidea, prozesuan parte hartzeko eskubidea, babesa jasotzeko eskubidea, laguntza jasotzeko eskubidea eta erreparazioa jasotzeko eskubidea¹³.

Adierazitako Zuzentaruaren transposizio-epea 2015eko azaroaren 16an amaituko da. Edonola ere, 2017ko azaroaren 16ra arte (estatu kideek Batzordeari Zuzentaru horretara egokitzeko hartu dituzten neurriei buruzko informazioa emateko mugako data da hori) ezin izango da ebaluatu Zuzentaruaren onarpena Europar Batasunean biktimen eskubideak indartzeko baliagarria izan den ala ez.

5.3. ESTATUKO LEGERIA

Espainiako legegintzan, aldakorra izan da biktimen eskubideen sorkuntza eta arau-garapena. Azken hogeita hamar urteotan, onartutako hainbat arauen bidez eta kalte-ordaina jasotzeko eta osatzeko eskubidea bermatze aldera, bilakaera bat izan da Estatuak biktimei eskaintzen dien estalduran.

90eko hamarkadan, indarkeriazko eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei laguntzeko 25/1995 Legea eta hori garatzen duen erregelamendua¹⁴ onartu zen izaera orokorrez. Arau hori delitu baten biktima mota orori zuzenduta dago, eta aurrerapen handia ekarri zuen biktimen eskubideen errekonozimenduan. Legeak gaur egun ere badirau, eta erreferentziazko araua izan da delituen biktima gehienentzat.

Handik urtebetara, terrorismoaren biktimei eman beharreko tratamenduaren erregulaziorik osatuena eta zehatzena egin zen, uztailaren 18ko 1211/1997 Errege Dekretuaren bidez onartutako terrorismo-delituen biktima direnei laguntzeko eta kalte-ordaina emateko Erregelamendua onartu zenean, hain zuzen ere.

¹³ Hona hemen sailkapen hori egin duten zenbait egile: ECHEBURÚA ODRIOZOLA, Enrique / BACA BALDOMERO, Enrique / TAMARIT SUMALLA, Josep María eta PÉREZ RIVAS, Natalia.

¹⁴ 738/1997 Errege Dekretua, maiatzaren 23koa, delituen biktimentzako laguntzei buruzko Erregelamendua onartzen duena.

Erregelamendu horren bidez, terrorismoaren biktimak indarkeriazko delituen edo sexu-delituen biktimak tratatzeko sistema orokorretik bereizi ziren. Helburu nagusia laguntzak kualitatiboki eta kuantitatiboki hobetzea eta terrorismoaren biktimei laguntza integral pertsonalizatua ematea izan zen. Erregulazio horretan, kalte ordaingarri kontzeptua merkataritza- eta industria-establezimenduetan gertatutako kalteetara eta ibilgailuetan gertatutakoetara zabaldu izana azpimarratu beharra dago. Halaber, honako helburu hauek dituzten laguntzen emakida hartzen da kontuan: ikasketak; laguntza psikosoziala (laguntza psikologikoa eta psikopedagogikoa, azken kasu horretan senideentzat ere bai); kalte materialen ordaina; eta, azkenik, terrorismoaren biktimen elkarteei diru-laguntzak ematea¹⁵.

1999. urtean, bi arau garrantzitsu onartu ziren: lehena 1974/1999 Errege Dekretua da, abenduaren 23koa, Terrorismoaren Biktimei Aitorpen Zibila egiteko Errege Aginduaren Erregelamendua onartzen duena; kalte-ordainaz edo laguntzaz bestelako alderdi bat garatzen du, eta biktimen kolektibo horri errekonozimendua adieraztea eta omentzea, eta terrorismo-ekintzetan hildakoen, zaurituen eta bahituen memoria kondekorazioak ematearen bidez ohoratzea du helburu. Bigarrena, berriz, 32/1999 Legea, urriaren 8koa, terrorismoaren biktimekiko elkartasunerakoa da, eta kaltetuek delituaren egileak kalte-ordain zibil gisa zor dituen zenbatekoak jasotzeko duten eskubidea gauzatzea du helburu nagusi; horren arabera, Estatuak hartuko du bere gain zenbateko ekonomiko horien ordainketa, baita jardun judizialak egin arren kalte-ordain horiek onartzen dituen epai irmorik ez dagoen kasuetan ere¹⁶.

Gerra Zibilaren eta Frankismoaren biktimen eskubideak bereiz arautu ziren 2007an, Gerra Zibilean eta Diktaduran jazarpena edo indarkeria pairatu zutenen eskubideak onartzen eta zabaltzen dituen abenduaren 26ko 52/2007 Legea (Memoria Historikoaren Legea) onartu zenean. Lege horren edukiak kritika handiak izan ditu, baita nazioarteko erakundeen aldetik ere, biktimen talde horri egia, justizia eta erreparazioa bermatzeko ahula delakoan¹⁷.

Azkenik, azpimarratu beharra dago Terrorismoaren Biktimak Aitortu eta Osorik Babesteko irailaren 22ko 29/2011 Legearen onarpena¹⁸. Lege horrek testu bakarrean bildu zituen kolektibo horren eskubideei buruz indarrean zeuden arau guztiak, eta eskubide horiek zabaldu zituen.

¹⁵ Neurri berri horiei aurrekontu-estaldura emateko, bi arau onartu ziren: 13/1997 Errege Lege Dekretua, abuztuaren 1ekoa, Loteria Nazionalaren zozketa bat terrorismoaren biktimen alde egiteko baimena ematen duena; eta 73/1998 Errege Dekretua, urtarrilaren 23koa, loteriaren zozketak emandako etekinen ondoriozko laguntzak biktimei esleitzeko irizpideak arautzen dituena.

¹⁶ Adierazi beharra dago, halaber, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Goi Komisarioa sortu zela 2004. urtean, abenduaren 17ko 2317/2004 Errege Dekretuaren onarpenaren bidez. Organo hori Gobernuaren Presidentziaren mende zegoen zuzenean, eta, beste zenbait funtzioaren artean, Estatuako Administrazio Orokorrean terrorismoaren biktimentzako laguntzaren arloan eskumena zuten organoen jardunen inguruko jarraipena, koordinazioa eta lankidetzak hartu zituzten bere gain. Dena dela, handik bi urtera, organo hori desegin egin zen, irailaren 8ko 990/2006 Errege Dekretuari jarraiki.

¹⁷ Behartutako edo Nahi Gabeko Desagertzeen inguruko Nazio Batuen Lantaldearen txostena. Espainiako Misioa. NBEren dokumentua: A/HRC/27/49/Add.1, 2014ko uztailaren 2koa.

¹⁸ 671/2013 Errege Dekretua, irailaren 6koa, 29/2011 Legearen Erregelamendua onartzen duena.

Legearen Hitzaurrean, honako helburu nagusi hau ezartzen da: biktimei omenaldia egitea eta errekonozimendua, errespetua eta elkertasuna agertzea. Halaber, garrantzi handia ematen zaio memoria, duintasun, justizia eta egiaren printzipioak “indar-ideia” gisa hartzeari. Arauaren bidez lortu nahi den azken helburua, nolatan ere, biktimari erreparazio integrala ematea da, eta 1960ko urtarrilaren 1etik aurrera gertatutako ekintza guztietan atzeraeraginez aplikatzeko aukera onartzen da.

Horretarako, hainbat neurri integral diseinatuko dira, honako helburu hauekin: biktimen duintasuna eta memoria errekonozitu eta sustatzea, babes integrala ematea, ordaintzea, arreta-neurriak sendotzea, biktimen eskubideak errekonozitzea, kalte-ordainei lotutako administrazio-izapideak malgutu eta koordinatzea, biktimaren tratamendu prozesalean esparru espezifiko bat ezartzea eta, azkenik, mehatxuak eta derrigortzeak jasaten dituzten pertsonak errekonozitu eta babestea.

Legearen edukiaren onuradunak hildako pertsonak eta haien senideak, kalte fisiko edo psikikoak jasan dituzten pertsonak eta kalte materialak jasan dituztenak izango dira. Halaber, ohore- eta kondekorazio-ondorioetarako, hildakoen odolkidetasuneko bigarren mailako senideak eta atentatu terrorista bat jasan duten, baina lesiorik izan ez duten pertsonak izango dira titularrak. Azpimarratu beharra dago, berritasun garrantzitsu gisa, mehatxatuta dauden pertsonak arauaren hartzaileen taldean sartu direla.

5.4. AUTONOMIA ERKIDEGOKO LEGERIA

Euskal Autonomia Erkidegoak terrorismoaren biktimei zuzendutako eta abuztuaren 4ko 221/1988 Dekretuaren bidez araututako laguntza-programa baten onarpenarekin hasi zuen biktimek dituzten eskubideen errekonozimenduaren arloko jarduna. Bertan, honako prestazio hauek onartu ziren: Eskolaurreko eta OHOk ikasleentzako lehentasunezko laguntza psikopedagogikoa; ikasketak egiteko bekak eta garraio eta jangelarako laguntzak; doako osasun-laguntza, horren onuradunak ez ziren kaltetuentzat; enpresentzako laguntzak (abalak eta diru-laguntzak); eta ondasunetan kalteak jasan zituzten partikularrentzako laguntzak.

Hainbat urtetan eztabaida biziak egin ondoren, azkenean 2008. urtean osatu zen arlo horren erregulazioa, hain zuzen ere Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legea onartu zenean. Arau horren helburua ETArek biktimei ez ezik beste talde armatu batzuen (hala nola GALen, eskuin muturreko taldeen eta beste talde parapolizial batzuen) biktimei ere laguntza eta babesa ematea da¹⁹. Lege-testu horren barruan, biktimentzako

¹⁹ “Parapolizial” terminoa gero eta maiztasun handiagoarekin erabiltzen da, eta, Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritzak egindako txostenaren arabera, honako hauek biltzen ditu: “bereziki trantsizio

laguntzari eskainitako III. Titulua azpimarratu beharra dago. Bertan, terrorismoaren biktimei estaldura integrala emateko neurri multzo bat dago jasota (kalteen erreparazio materiala, laguntza eta tratamendu mediko eta psikologikoa, hezkuntzarako laguntzak, etxebizitza eta enplegua lortzeko laguntzak eta abar)²⁰.

2010eko abenduaren 15ean, terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretua argitaratu zen 239. zenbakiko EHAAn. Erregelamendu horren bidez, adierazitako 4/2008 Legearen III. Tituluaren edukia garatu da, eta aurrerapen bat lortu da bertan aurreikusitako babes eta laguntza integraleko sistemaren aplikazioan.

Adierazitako arauan aurreikusitako sistema integralak honako eremu hauetan neurriak hartzea hartzen du kontuan: kalte materialengatik ordaintzeko jardunak; kalte materialen prebentziorako jardunak, hala nola mehatxuak edo jazarpena jasaten duten pertsonen etxebizitza, establezimendu edo ibilgailuetan segurtasun-sistemak ezartzea; laguntza juridikoa; osasun-eremua eta eremu psikologikoa; irakaskuntza-eremua; enplegu-politikak; funtzio publikoa (Legeak funtzio publikokoak diren biktimei hainbat eskubide onartzeko aukera hartzen du kontuan); etxebizitzaren eremua; eta Legeak babesten ez dituen premia pertsonalei edo familia-premiei erantzuteko ezohiko laguntzak.

Azkenik, azken urteotan Euskal Autonomia Erkidegoko motibazio politikoko indarkeriaren biktimen beste kategoria batzuetara zabaltzen hasi da arau-esparrua. Legebiltzarraren erabakien ondorioz (hala nola motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketak eta bestelako sufrimendu bidegabeak jasan dituzten biktimei buruzko 61/2011 Legez Besteko Proposamenaren ondorioz), Osoko Bilkuraren Akordioa lortu zen (09/11.02.01.0501), eta zenbait arau onartu ziren, hala nola 107/2012 Dekretua, ekainaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketan ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzekoa eta biktima horiei ordainak ematekoa. Azken hori urriaren 16ko 426/2013 Dekretuak aldatu zuen.

Agerian geratu denez, nazioarteko arauetan oinarritutako eta Autonomia Erkidegoko legerian garatutako lege-esparru oso bat dago biktimen eskubideak babestu eta defendatzeko. Hala ere, argitu beharra dago horren inguruko Estatuko eta Autonomia Erkidegoko arauetan ez direla kontuan hartu euskal kasuko biktima guztiak.

ETAren indarkeriaren biktimentzat, Terrorismoaren Biktimekiko Elkartasunerako Legea (1999) izan da lege-esparrua, eta geroago indartu egin da Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko Legearekin (2008), eta, ondoren, Terrorismoaren Biktimak Aitortu eta Osorik Babesteko Legearekin (2011).

politikoaren urteetan eta 80ko hamarkadako lehen urteetan segurtasun-indarren adostasunarekin eta zenbaitetan segurtasun-indarren zuzeneko parte-hartzearekin (ekintza klandestinoetan parte hartuz edo segurtasun-indar gisa bete beharreko zereginetik kanpo, baina laguntza aktibo edo pasiboren batekin) jardun zuten kolektibo edo taldeak". 2008ko ekaina, 307. or.

²⁰ DE LA CUESTA, 31.-32. or.

Segurtasun indarrek –edo horien adostasunarekin–, eskuin muturreko taldeek edo talde parapolizialek egindako indarkeriaren biktimen kasuan, gehienak ez dira behar bezala errekonozitu. Horiek ere hainbat giza eskubideren urraketa larrien biktimak dira, hala nola bizitzeko eskubidearen eta osotasun fisiko eta psikikorako eskubidearen urraketen biktimak, eta azken horretan daude kokatuta torturakasuak. Tratu anker, gizagabe edo iraingarririk ez jasotzeko eskubidearen urraketak ezinbestez aipatu beharrekoak dira, horien salaketek oso arreta urria jaso baitute: ez dago ikerketarik, eta salaketen ia % 100 artxibatu egiten da.

Txosten hau idazteko unean, torturari buruzko azterlan bat dago abian²¹, Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritzak eskatuta; berriki eman dira argitara lehen datuak: 3.587 kasu salatu dira 1960-2013 aldian. Ikerketa hori amaitzen denean, ezkutatuta eta ukatuta egon den eta horren ondorioz biktimen diskriminazioa eragin duen fenomeno hori argitzen lagunduko du.

Biktimen eskubideen errekonozimenduan eta babesean izan den asimetria hori nolabait ere konpentsatu egin da Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeko eta biktima horiei ordainak emateko ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuarekin. Arau horren bidez, segurtasun-indarrek, eskuin muturreko taldeek eta talde parapolizialek egindako giza eskubideen urraketen biktimak errekonozitzen hasi ahal izan da lehen aldiz.

²¹ KRIMINOLOGIAKO EUSKAL INSTITUTUA. Euskadin izandako torturaren ikerketa, 1960-2010.

6. "ETAPA BERRIA" EUSKAL ERAKUNDEETAN

Arestian adierazi dugunez, 2008. urtean Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legea onartu zen. Lege horren bidez, arlo horretan abuztuaren 4ko 221/1988 Dekretuan garatutako erregulazioa osatu zen. Legeak ETaren zein BVE, GAL eta beste talde paramilitar batzuen biktimei laguntza eta babesa ematea zuen helburu.

Ordurako (2007ko urriaren 5ean eta 17an, zehazki), Eusko Legebiltzarrean Terrorismoaren Biktimei buruz egindako Osoko Bilkura Monografikoan, 21 ebazpen onartu ziren: horietako batek -lehenak- motibazio politikoko indarkeriaren ondorioz izandako giza eskubideen urraketen biktimekin du zerikusia. Lehen ebazpen horretan, agindu bikoitza ezarri zen. Honako hau zioen, zehazki:

"1. Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak kontrolatu gabeko taldeen, eskuin muturreko taldeen eta GALen terrorismoak eragindako biktimen gaineko ikerketa-txosten sakon eta zehatza egin dezala, arreta berezia jarritz biktimen identifikazioan eta indarrean dagoen legedian aitortzen diren eskubideen aitortza-mailaren ikerketan".

"2. Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak motibazio politikoak eragindako giza eskubideen zapalketa jasan duten beste biktimen errealitatearen gaineko ikerketa-txosten sakon eta zehatza egin dezala, arreta berezia jarritz biktimen identifikazioan eta aitortza moral eta ordaintza egiteko beharrezko neurriak aztertzen".

Bi txosten horiek 2008ko ekainean aurkeztu ziren. Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren "Taldea inkontrolatuek, eskuin muturreko taldeek eta GALek eragindako terrorismoaren biktimei buruzko txostenaren" arabera, 66 hildako eta 63 zauritu izan ziren hainbat erakundek (hots, GAL, Batallón Vasco Español (BVE), AAA edo Triple A, Grupos Anti ETA eta GAE erakundek) egindako 74 ekintza terroristetan.

"Txosten honen eduki materialaren mugaketak ez dakar, inondik ere, hainbat motatako sufrimenduak pairatu zituzten eta oraindik ere pairatzen dituzten beste pertsona batzuk izan zirela ukatzerik edo aitortzerik; nolana ere, pertsona horietako asko giza eskubideen urraketa larrien biktimak dira, eta botere publikoek erantzun bat eman eta neurri egokiak hartu behar dituzte, kasu bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuta"²².

Bigarren txostenean ("Motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketen biktimei buruzko txostena"), 109 hildako eta, lehen

²² Talde inkontrolatuek, eskuin muturreko taldeek eta GALek eragindako terrorismoaren biktimei buruzko txostena, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza, 2008, 6. or.

sailkapen batean, 538 zauritu aipatzen ziren, torturak salatu zituzten milaka pertsonak kontuan hartu gabe.

“Txosten honen helburua eta edukia orain arte politika publikoetan kontuan hartu ez diren biktimea ugariren errealitatea aztertzea eta aitortzea da. Helburua ez da urraketen inbentario bat egitea liskarrak edo bidegabekeriak areagotzeko, ahaztutako errealitate bat agerian uztea eta urraketa horiek jasan zituzten pertsonekin beharrezkoa den enpatia agertzea baizik”²³.

2009ko ekainaren 30ean, Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko zuzendari Maixel Lasak honako hau adierazi zuen Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordearen aurrean egindako agerpenean:

“Beste etapa bati hasiera emateko moduan gaude gaur egun (...)

“[PP alderdiaren babesarekin inbestitutako PSE-EE alderdiko Patxi López lehendakariaren 2009-2012ko] gobernu honek biktimen arloan garatuko duen politika integralak ez du kanpoan utziko terrorismoaren ezein biktimea. Paternalista eta politikoki zuzena izango ez den diskurtso barnehartzaile eta militantea egituratzen saiatuko gara beti. Euskadiko mota bateko eta besteko terrorismoaren biktimen errealitatea barnean hartuko duen diskurtsoa. ETaren biktimetara mugatu gabe. Errespetu eta begirune berdinarekin, ahaleginak egingo ditugu GAL, BVE edo Triple A taldeen terrorismoaren biktimek Gobernuaren zeregina aitor dezaten, eta, era berean, biktimea gisa dituzten eskubide guztiak onartzen zaizkiela ikus dezaten. (...) Bidegabekeriarekiko irekiera ez-lehiakorra eta ekitatean oinarritua bultzatu eta sustatuko dugu. Egia, memoria, justizia eta erreparazioa jasotzeko eskubidea terrorismoaren biktimea guztien eskubidea da, eta azpimarratu egin nahi dut GUZTIAK hitza.

“(…) Era berean, jakin badakigu, eta egiaztatu egin dugu, euskal gizartea astindu duen indarkeriaren testuinguruan izandako giza eskubideen beste urraketa batzuen ondoriozko beste biktimizazio-kasu batzuk ere izan direla”.

Handik sei hilabetera, 2009ko abenduaren 22an, honako aldarrikapen hau egin zuen aho batez Eusko Legebiltzarrak:

“Lanean jarrai dezatela ‘Motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketen biktimei buruzko txostena’ delakoarekin (...), Euskadin azken hamarkadetan indarkeriak eragin dituen giza eskubideen urraketek sortutako sufrimendu bidegabea, gaur arte kontuan hartua izan ez dena; horrela, biktime horiek aintzat hartzean ere egingo da aurrera”.

Geroago, 2011ko martxoaren 31ko osoko bilkuran, motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketak eta bestelako sufrimendu

²³ Motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketen biktimak. Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritza, 2008, 308. or.

bidegabeak jasan dituzten biktimei buruzko legez besteko 61/2011 proposamena onartu zuen Eusko Legebiltzarrak. Talde politiko guztiek eman zuten aldeko botoa, hots, EAJ-PNV, PSE-EE, PP, Aralar, EA eta EB alderdiek. Hori ziurtatu zuen Mahaiko lehen idazkari Jesús Loza Aguirrek, Eusko Legebiltzarreko presidente Arantza Quiroga Ciaren oniritziarekin.

Erabakian, Eusko Legebiltzarrak, besteak beste, honako eskaera hauek egin zizkion Eusko Jaurlaritzari:

- “Motibazio politikoko indarkeria-egoeran gertatutako giza eskubideen urraketan eta sufrimendu bidegabeen biktimak” txostenean aurreikusten den esparru instituzionala eta administratiboa berehala sor dezala eta beharrezko egituraz zein baliabideez horni dezala.
- Biktima horien errekonozimendua ahalbidetuko duten neurriak eta jarduerak martxan jar ditzala, eta biktimen sufrimendua eta horren askotariko ondorioak konponduko dituzten neurriak ezar ditzala.

Neurri horien artean, dekretu bat sortzea ezarri zen (1960tik 1978ra arteko aldia hartuta), ekainaren 12ko 107/2012 Dekretua, hain zuzen ere, geroago 1978tik gaur egun arteko aldia hartuko zuen eta inplementatu beharreko laguntzak eta horiek lortzeko irizpideak finkatuko zituen bigarren dekretu bat sortzeko asmoarekin. Dekretuaren ondorioz, 2012. urteaz geroztik diharduen ebaluazio-batzorde bat jarri zen abian.

Guneak bizikidetzara irekitzeko bidean, Estructura de una Base de datos y diseño metodológico de recogida de información sobre casos de violencia política izenburuko lan berria ere azpimarra daiteke. Lana Aranzadi Zientzia Elkartek, Argituz elkartek eta Euskal Memoria Fundazioak landu eta adostu dute, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Zuzendaritzak eskatuta, eta beste batzuen ekarpenetara ere irekita dago. Lan horretan, memoriaren mapan giza eskubideen urraketak eta indarkeria politikoko beste ekintza batzuk argi eta garbi bereizteko beharra azpimarratzen da.

Komenigarria izango litzateke tokiko ekimenak eta beste eremu horiek koordinatzea, instantzia eta erakunde guztiek sinkronizatuta jardun dezaten.

7. GIZA ESKUBIDEEN URRAKETAK ERRENTERRIAN

7.1. BIZITZEKO ESKUBIDEAREN URRAKETA

Erreterian, **28 pertsonari** urratu zaie bizitzeko eskubidea. Atal honetan, kronologikoki sailkatu ditugu, eta bakoitza nor izan zen eta nola hil zuten azaltzen duen sinopsi bat erantsi dugu:

1977tik 1978ra

Lehen lau biktimak lehen hauteskundearen aurretik zendu ziren, eta bosgarrena, berriz, Konstituzioa onartu aurreko egunean, 1978ko abenduan.

Isidro Susperregi Aldaco

Erreteriakoa zen eta 68 urte zituen. Tornularia zen lanbidez, eta tailer mekaniko bat zuen Erreterian. Donostian bizi zen 1977ko martxoaren 15ean, Polizia Armatuak jaurtitako gomazko pilota batek zauritu zuenean. Dirudienez, amnistiaren aldeko manifestazio bat egin zen Donostiako Boulevardetik hurbil, eta pilotak bularrean eman zion, bihotzaren aldean. Isidroren gorputzak ez zuen gainditu, eta 1977/03/29an hil zen, Gurutze Gorrian. Eusko Abertzale Ekintzaren (EAE) Donostiako Batzordeko kidea zen. *El País* egunkariak handik bi egunera eman zuen heriotzaren berri, honako titular honekin: "Anciano muerto por un balazo de goma" (Adineko gizon bat hil da gomazko bala batek jota).

Rafael Gómez Jauregi

Pasai Antxon jaio zen eta Erreterian bizi zen. 78 urte zituen eta seme baten eta alaba baten aita zen. 1977ko maiatzaren 12an, amnistiaren aldeko astearen barruan, lagun batekin paseatzen ari zela guardia zibil batek tiro egin zion Zumardian zegoen Batzokiaren ondoan, eta balak toraxa zeharkatu zion. Rafael Gómez ELA sindikatuko buruzagia izan zen 1936ko kolpe militarra arte. Ondoren, Alava Sarean sartu zen eta Bidasoa ibaia zeharkatzen laguntzen zien hegazkinlari ingelesei. Horregatik atxilotu eta heriotza-zigorra ezarri zioten 1941. urtean, baina 1946an espetxea utzi zuen. Frankismoko lehen bi greba garrantzitsuetan hartu zuen parte, 1947. eta 1951. urteetan, eta Sellières-era (Frantzia) erbesteratu behar izan zuen.

José Luis Cano Pérez

Aranjuezen (Madril) jaio zen, eta Errenterian bizi izan zen anaiarekin, gero Donostiara joan bazen ere. 28 urte zituen, eta *La Voz de España* egunkariko tailerretako tipografoa zen. CCOO sindikatuan afiliatuta zegoen. 1977ko maiatzaren 13an hil zen, amnistiaren aldeko astean, Polizia Armatuko kide batek buruan tiro egin ondoren, Iruñeko Manuel tabernaren ondoan. Antsoingo (Nafarroa) alkate Alfredo García, PSN alderdikoa, zuzeneko lekuko izan zen, eta, adierazi zuenez, jo egin zuten, ostikoak eman zizkieten eta, lurrean zegoela, polizia batek tiro egin zion²⁴. Iruñeko Udalak segurtasun-indarren jokabidea salatzea erabaki zuen udal osoko bilkuran.

Gregorio Marichalar Ayestaran

Beraun auzoan bizi zen. 63 urte zituen 1977ko maiatzaren 13an (amnistiaren aldeko bigarren asteko greba orokorreko eguna), etxeko balkoian zegoen bularrean balaz zauritu zutenean. Donostiako Arantzazu Ospitalera eraman zuten, eta bertan hil zen 1977ko maiatzaren 23an. Itxuraz, Polizia Armatuaren patruila bat zegoen Altamira auzotik egin zioten tiro. Gobernadoreak kasua argituko zuela agindu zuen, baina ez zen jakin nork egin zuen tiro. Hortaz, heriotza hau ere zigorrik gabe dago oraindik.

José María Sarraiz Llasera

Polizia-komisarioa zen, berriki sortutako Errenteriako polizia-etxeko burua. 56 urte zituen eta bost seme-alabaren aita zen. 1978ko abenduaren 5ean, hiru lagunez osatutako ETA militarreko komando batek aurpegia estali gabe agertu eta Urgull tabernaren barruan hil zuen, Donostiako Amara auzoko Errege Katolikoen kalean. Tiro egin ziotenean, Poliziako komisariorde Gabriel Alonso Perejilekin eta Pasaiaiko udaltzain Ángel Cruz Salcinesekin zegoen tabernan. Hirurak hil ziren atentatuan. Hurrengo egunean, Espainiako Konstituzioaren erreferenduma egin zen.

²⁴ *Europa Press*, 2015/01/14. Antsoingo PSNko alkate Alfredo Garcíaen agerpena Nafarroako Parlamentuan, 2015eko urtarrilaren 14an, "eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko foru-legerako proposamenaren" inguruko eztabaidaren esparruan.

1979tik 1982ra

Aldi hau Autonomia Estatutua onartu eta lehen udal-hauteskundeak egin ziren urtean hasi, eta Estatu espainolean PSOE alderdiak irabazi zituen hauteskundeen urtean amaitzen da.

Vicente Vadillo Santamaría, “Francis”

Jaenen jaio zen. Transexuala zen, 32 urte zituen, eta artista trabesti gisa ziharduen Oarsoaldeko hainbat lokaletan. 1979/06/10ean, Erreteriarra berriki iritsitako eta kalez jantzitako polizia batek tiro egin zion aurpegian, herriko Apolo dantzalekuaren barruan. Lekukoen arabera, erasotzailea euskaldunak iraintzen ari zen –“Voy a cargarme a algún vasco” (euskaldunen bat akabatu behar dut) edo “Estoy del País Vasco hasta...” (kokoteraino nago Euskadiz) esanez, adibidez–, eta Vicente Vadillo euskaldunen alde agertu zen. Gertatutakoa salatzeke, Udalak ezohiko osoko bilkura bat egin zuen, eta aho batez gaitzetsi zuen beste heriotza hori. Halaber, gorpua jaioterrira eramateko laguntza eman zitzaion hildakoaren familiari.

Sixto Holgado Agudo

Bañobárez-en (Salamanca) jaio zen, eta Erreterian bizi zen. 46 urte zituen eta zortzi seme-alabaren aita zen. Taxilaria zen ETA militarrek 1979ko irailaren 26an hil zuenean. Aurretik, Coca Cola enpresako banatzaile-lanetan aritu zen, eta Donostiako udaltzain izan zen lau urtean. Gorpua San Markoseko zabortegean aurkitu zuten, Beraun auzotik hurbil. Taxia biktimaren bizilekutik ehun metro baino gehixeagora utzi zuten. Herriko taxilariak geldialdi bat egin zuten, gertaera salatzeke.

Miguel Rodríguez Fuentes

44 urte zituen eta lau seme-alabaren aita zen. Argoños-en (Kantabria) jaio zen, eta Indar Armatuetan lan egiten zuen Donostian. Zehazki, Infanteriako komandantea zen Miguel Rodríguez. Gainera, eskolak ematen zituen Erreteriarako Don Bosco Lanbide Eskolako Automobilismo Sailean. ETA militarreko kide batzuek tiroz hil zuten 1980ko otsailaren 8an, adierazitako ikastetxean eskola eman ondoren etxera joateko autoan sartzera zihoala. Euskadiko Mugimendu Komunistak (EMK) salatu egin zuen “langile-klasearen eta euskal herriaren kausa defendatzen zuen ezkerreko militar baten” aurkako atentatu hori (*El País*, 1980/02/10).

Benito Morales Fabián

ETA militarreko kide batzuek buruan bi tiro eginda erail zuten 1980ko urriaren 2an. ETAk dei baten bidez jakinarazi zuen gorpua non zegoen (biktimaren beraren taxiaren barruan, N-1 errepidean, Erreenterian bertan). 40 urte zituen atentatuaren egunean. Ezkonduta zegoen eta hiru seme-alaba zituen. Santibáñez el Alto herrian (Cáceres) jaio zen, eta Erreenterian bizi zen. Sei urte zeramatzan herrian taxilari gisa lanean. Urtebete lehenago Sixto Holgado Agudo taxilaria hil zutenean bezala, herriko taxilariak lanik ez egiteko erabakia hartu zuten, dolua adierazteko.

Antonio Díaz García

Donostian jaioa, 31 urte zituen eta Erreenteriako Nafarroa Etorbidean bizi zen. La Gramola pubaren jabea zen. Antonio Díaz ezkonduta zegoen eta ez zuen seme-alabarik. ETako kide batzuek hil zuten 1981eko urtarrilaren 5eko goizaldean, bere sotoko eskaileretan, igogailuaren aurrean. Gorpua 06:00etan aurkitu zuten; bi tiro zituen buruan. Bizkaiko komunikabide bati egindako dei batzuen ondorioz, atentatua Komando Autonomo Antikapitalistek egin zutela adierazi zuten zenbaitek, baina ETAk atentatuaren eta bertan zuen inplikazioaren xehetasun esanguratsuak aurkeztu zituen.

José Fragoso Martín

Guardia zibila zen, 35 urtekoa. Ezkonduta zegoen eta lau seme-alaba zituen. Marokoko ipar-mendebaldeko kostaldean kokatuta dagoen Larache herrian jaio zen, eta zazpi urte zeramatzan Guardia Zibilean. Erreenteriako Lartzabal auzoan bizi zen. 1982ko otsailaren 16an, bizilekutik hurbil aparkatuta zuen ibilgailuaren barruan zegoela, ETA militarreko kide batek tiro egin zion buruan. José Fragosok Pasaiaiko Portuko zerga-zerbitzuan lan egiten zuen, handik hilabetera erail zuten Modesto Martín Sánchez lankideak bezalaxe.

Modesto Martín Sánchez

1982ko martxoaren 15ean, ETA militarreko kide batzuek Beraun auzoko ibilgailu bat tirokatu zuten. Barruan, Guardia Zibileko kabo Modesto Martín, zazpi hilabetez haurdun zegoen emaztea eta eskolara eraman nahi zuten bi semeetako bat –bost urtekoa– zeuden. Modesto Martínek metraileta-tiro batzuek zituen bihotzaren aldean. 41 urte zituen. Pinofranqueado-n (Cáceres) jaio zen, eta Beraun auzoko Maurice Ravel kalean bizi zen. Pasaiaiko Portuko zerga-zerbitzuan lan egiten zuen. Hiletan, Gobernuako presidenteorde Rodolfo Martín Villa, Espainiako Gobernuako delegatu Marcelino Oreja, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingoko sailburu Luis M^a Retolaza eta Guardia Zibileko teniente jeneral Aramburu Topete izan ziren. Modesto Martín Erreenteriako hilerrian lurperatuta dago.

Jesús Ordoñez Pérez

Jaenen jaio zen, eta familia Valentziara joan zen bizitzera bera haurra zela. 25 urte zituen, ezkondata zegoen eta ez zuen seme-alabarik. Gipuzkoako Polizia Nazionaleko kidea zen, eta ETA militarren segada batean erail zuten 1982ko irailaren 14an, Perurenatik Aitzpitarte-Landarbasoko kobazuloetara doan bidean, Errenteriako udal-mugaratean. Beste polizia batzuekin batera iritsi zen leku horretara, bi ibilgailutan: Z auto batean, uniforme jantzitako poliziak zeuden, eta bereizgarri gabeko SEAT 131 batean, berriz, kalez jantzitako poliziak. Atentatuan, Juan Seronero, Alfonso López eta Antonio Cedillo poliziak ere hil ziren, eta beste bat zaurituta geratu zen: Juan José Torrente. Gainera, hurrengo egunean, lankide batek (Julián Carmonak) bere buruaz beste egin zuen Donostian egindako gaubeilan.

Juan Seronero Sacristán

Gijónen (Asturias) jaio zen, 35 urte zituen, eta bi seme-alabaren aita zen. Gipuzkoako Polizia Nazionaleko kidea zen. ETA militarrek 1982ko irailaren 14an Perurenatik Aitzpitarte-Landarbasoko kobazuloetara doan bidean (Errenteriako udal-mugaratean) egindako segadan hil zen. Beste polizia batzuekin batera iritsi zen leku horretara, bi ibilgailutan: Z auto batean, uniforme jantzitako poliziak zeuden, eta bereizgarri gabeko SEAT 131 batean, berriz, kalez jantzitako poliziak. Atentatuan, Jesús Ordoñez, Alfonso López eta Antonio Cedillo poliziak ere hil ziren, eta beste bat zaurituta geratu zen: Juan José Torrente. Gainera, hurrengo egunean, lankide batek (Julián Carmonak) bere buruaz beste egin zuen Donostian egindako gaubeilan.

Alfonso López Fernández

Argentinan jaio zen, 30 urte zituen eta alaba baten aita zen. Gipuzkoako Polizia Nazionaleko agentea zen. 1982ko irailaren 14an, ETA militarrek erail zuen, beste polizia batzuekin batera, Perurenatik Aitzpitarte-Landarbasoko kobazuloetara doan bidean, Errenteriako udal-mugaratean. Bi ibilgailutan iritsi ziren leku horretara: Z auto batean, uniforme jantzitako poliziak zeuden, eta bereizgarri gabeko SEAT 131 batean, berriz, kalez jantzitako poliziak. Atentatuan, Jesús Ordoñez, Juan Seronero eta Antonio Cedillo poliziak ere hil ziren, eta beste bat zaurituta geratu zen: Juan José Torrente. Gainera, hurrengo egunean, lankide batek (Julián Carmonak) bere buruaz beste egin zuen Donostian egindako gaubeilan.

Antonio Cedillo Toscano

Gipuzkoako Polizia Nazionaleko kidea zen, eta 29 urte zituen. Olivares-en (Sevilla) jaio zen, eta seme bat zuen. 1982ko irailaren 14an, ETA militarrek erail zuen, beste polizia batzuekin batera, Perurenatik Aitzpitarte-Landarbasoko kobazuloetara doan bidean, Errenteriako udal-mugarlean. Bi ibilgailutan iritsi ziren leku horretara: Z auto batean, uniformeaz jantzitako poliziak zeuden, eta bereizgarririk gabeko SEAT 131 batean, berriz, kalez jantzitako poliziak. Antonio Cedillo zaurituta geratu zen hasieran, baina kamioi batean ospitalera eramaten ari zirenean komandokideek errematatu egin zuten. Atentatuan, Jesús Ordoñez, Juan Seronero eta Alfonso López poliziak ere hil ziren, eta beste bat zaurituta geratu zen: Juan José Torrente. Gainera, hurrengo egunean, lankide batek (Julián Carmonak) bere buruaz beste egin zuen Donostian egindako gaubeilan.

Carlos Manuel Patiño Casanova

Villamayor-en (A Coruña) jaio zen eta Errenterian bizi zen. 28 urte zituen eta bi seme-alabaren aita zen. CCOO sindikatuan afiliatuta zegoen, eta drogeria bat eta pintura-biltegi bat administratzen zituen. 1982ko azaroaren 18an, Esteban Fariñas González (26 urtekoa) eta Francisco Rosco Herraizo (38 urtekoa, Kaputxinoetako auzoko kultura-elkarte bateko sustatzailea) lankideekin zegoela, ETA militarreko kide batzuek tirokatu egin zituzten Kaputxinoetako auzoan. Larriki zauritu zituzten hirurak, baina Carlos Manuel Patiño handik egun batzuetara hil zen, azaroaren 23an. Polizia-iturrien arabera, baliteke ETAREN helburua beste bat izatea, hirurak zeuden ibilgailua guardia zibil batena izan baitzen. Hala ere, ETAK ez zuen horrelakorik onartu ekintza erreibindikatzeko komunikatuan.

1983tik 2011ra

PSOE eta PP alderdiak izan ziren gobernuan urte horietan, txandakatuta: Felipe González (1982-1996), José María Aznar (1996-2004), José Luis Rodríguez Zapatero (2004-2011) eta Mariano Rajoy (2011. urteaz geroztik). 1983. urtean, GAL taldea sortu zen, eta 2011. urtean, armak behin betiko utzi zituela iragarri zuen ETAK.

Ángel Flores Jiménez

1983ko urriaren 12an, Ángel Flores guardia zibila, Irungo Geltokiko Esku Hartze Fiskaleko Zerbitzuan ziharduena, atentatu batean hil zuten Beraun auzoko Norberto Almandoz kalean, hots, bizi zen auzoan bertan. 14:30ean, ETA militarreko bi kidek tiro egin zioten bere autotik irtetean, etxera joateko asmotan zegoela, eta hiru bala-tiro jaso zituen (bat lepoan). Ángel Flores San Martín del

Pimpollar-en (Ávila) jaio zen, 44 urte zituen eta bost seme-alabaren aita zen. Irunen lan egin aurretik, antzeko funtzioak bete zituen Pasaian, 18 urtean.

Cándido Cuña González

Galiziarra zen jaiotzez, Burgosen bizi izan zen gero, eta bertan ezkondu eta hiru seme-alaba izan ondoren, Zamalbide auzora joan zen bizitzera. Okina zen lanbidez, eta Pasaiako Molinao auzoko Ogilan okintza-kooperatibako bazkidea zen. Aurretik, postari gisa ere jardun zuen Erreterian. 50 urte zituen 1983ko urriaren 20an, herriko Zubiaurre kaleko Tres Cepas tabernatik irtetean ETA militarreko kide batzuek tiro egin ziotenean. Dena dela, ez zen izan hiltzen saiatzen ziren lehen aldia; Cándido Cuñak beste atentatu bat izan zuen 1979ko apirilaren 21ean, eta larriki zauritu zuten orduan.

Pablo Garraza García

Allon (Nafarroa) jaio zen, 59 urte zituen eta gaixorik zuen emaztearekin bizi zen Erreterian. Taxilaria izan zen zortzi urtean, eta, istripu baten ondoren, lana utzi eta erretiroa hartu zuen. ETA militarreko kide batzuek 1983ko abenduaren 9an erail zuten. Gorpua udaltzainek aurkitu zuten Zamalbide auzotik hurbil dagoen eremu arboladun batean, Erretereriako hilerri berriaren ondoan. Tiro bat zuen buruan. ETA militarrek ekintza erreibindikatu zuenean jakin zenez, lehenengo bahitu egin zuten galdeketa egiteko, eta ondoren tiro egin zioten buruaren atzealdean. Erretereriako zein Alloko udalek atentatua gaitzetsi zuten.

Bixente Perurena Telletxea, "Peru"

Astigarragako Bentan jaio zen, Erretereria, Astigarraga eta Oiartzunen arteko mugan. Tailer batean lan egiteaz gain, baserriko lanak egiten zituen eta familiako tabernan ere aritzen zen. Hil baino hiru urte lehenago, Erretereriako hirigunetik (bertan bizi zen ezkondu ondoren) Hendaiara joan zen bizitzera familiarekin. ETako kidea zen ordurako. 38 urte zituen eta hiru alabaren aita zen. 1984ko otsailaren 8an, beste errefuxiatu batekin batera, pertsona armatu batzuen jazarpena salatu zuen Hendaiako polizia-etxean, eta, bertatik irtetean, GAL taldeko kide batzuek hil zuten. Bere etxe aurrean egin zioten tiro. Berarekin zihoan errefuxiatua ere hil egin zen (Angel Gurmino Lizarraga, 30 urteko olatzagutiarra).

Vicente Gajate Martín

1984ko urriaren 17an, ETAk Vicente Gajate hil zuen, 34 urtekoa eta hiru seme-alabaren aita. Salamancan jaio zen eta Erreterian bizi zen. Bertan, 29 urterekin, 1979ko lehen udal-hauteskundeetan aurretik indar politiko guztietako kideez osatutako Udal Gestorako zinegotzia izan zen. PSE-PSOE alderdian eta UGT sindikatuan afiliatuta zegoen, eta Erreteriarako udaltzaina zen ETAk San Markos kalean hainbat tiroz erail zuenean. Udalaren ezohiko osoko bilkura batean, atentatua gaitzetsi eta biktimari egindako lanagatik kondekorazio bat ematea erabaki zen. Halaber, dolu-egun baterako deialdia egin zuen. Atentatua gaitzesteko manifestazio jendetsu bat egin zen hiribilduko kaleetan zehar, eta udaltzainek greba egin zuten.

José Antonio Cardosa Morales

Postaria zen, 22 urtekoa eta ezkongabea. Erreterian bizi zen, eta oso ezaguna zen herriko giro disidenteetan, Kakitzat kolektibo antimilitaristako eta Zintzilik Irrati libreko kidea baitzen. 1989/09/20an, Erreteriarako HBko Ildefonso Salazar militante ezagunaren postontzian sartu nahi zuen bonba-gutun batek eztanda egitean hil zen. Eusko Jaurlaritzaren Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren 2008ko ekaineko txostenean, “eskuin muturreko taldeek edo inkontrolatuek hildako” gisa agertzen da, eta Covite erakundeak, berriz, heriotza GAL taldeari leporatzen dio zuzenean. Guardia Zibileko zuzendaria izan zen Luis Roldán Ibáñezek 1996/05/05ean salatu zuenez, Barne Ministerioak hainbat bonba-gutun bidali zizkien militante abertzaleei, eta horietako batzuk (Iñigo Iruin abokatuari zuzenduta zegoena, adibidez) desaktibatu egin ziren Cardosaren heriotzaren ondoren.

Raúl Suárez Fernández

Erreteriarako herritar honek “Cocoliso” izengoitia zuen, familia osoak bezalaxe. Raúl Suárez ezkongabea zen eta 24 urte zituen. 1991ko ekainaren 8an, ETako bi kidek –bizkor ihes egiteko laguntzarekin– tirokatu egin zuten Iztieta pasealekuan, txakurrarekin paseatzen ari zela. Atentatuaren egileek txakurra ere hil egin zuten. Atentatuaren hurrengo egunean *El Diario Vasco* egunkariak zioenez, poliziak zenbait aldiz atxilotu zuen gaztea, ibilgailuak lapurtu izanaz akusatuta. ETak droga-trafikoarekin lotu zuen atentatua.

José Luis Luengos Martínez

1992ko irailaren 29an, ETAk José Luis Luengos hil zuen, Telefónica telekomunikazio-enpresa multinazionalaren Elitel azpikontratako enplegatua. Leonen jaio zen, eta lau urte zeramatzan Gipuzkoan bizitzen. 31 urte zituen. ETAk tiro egin zion Errenteriako Renfeko geltokian autoa aparkatzen ari zenean. Familiaren eta Ertzaintzaren arabera, baliteke atentatua ETaren “hanka-sartzea” izatea eta ezaugarri beretsuko auto bat zuen polizia-inspektore batekin nahasi izana. Nolanahi ere, ETAk bi hilabete baino gehiagora erreibindikatu zuen atentatua. 1992/12/16ko *Egin* egunkarian argitara eman zenez, biktima “Guardia Zibilaren zerbitzu berezien laguntzailea” zela zioen ETAk.

José Luis Caso Cortines

Comillasen (Kantabria) jaio zen, eta Irunen bizi zen. 64 urte zituen, bi semeren aita zen, eta Alianza Popular (AP) alderdiaren sortzaileetako bat izan zen Euskadin, 1982an. Soldatzailea izan zen Pasaiako Astilleros Luzuriaga enpresan, eta erretiratuta zegoen ETAk atentatu batean hil zuenean, 1997ko abenduaren 11n. Irungo Juan Arana kaleko Trantxe tabernan zegoen pertsona batek buruan tiro egin zionean. José Luis Caso Alderdi Popularreko zinegotzia izan zen Irunen, eta hil zuten egunean PP alderdiko zinegotzia zen Errenteriako Udalean. Mehatxu asko jaso zituen horregatik.

Manuel Zamarreño Villoria

42 urte eta hiru seme-alaba zituen. Galdaragilea zen eta langabezian geratu zen. Hogei urtean Pasaiako Astilleros Luzuriaga enpresan lan egin zuen, eta bertan ezagutu zuen José Luis Caso, geroago Errenteriako Udaleko zinegotzi gisa ordeztu zuena, hain zuzen ere. Zinegotzi-karguan hilabete baino gehixeago zeramala, ETAk erail egin zuen Kaputxinoetako auzoan, bizilekutik hurbil. 1998ko maiatzaren 25a zen. PP alderdiak Errenterian zituen bi zinegotzietako batek dimititu egin zuen bere bizilekuko atean bonba bat jarri ziotenean. Manuel Zamarreñori berari ere pintadak eta mehatxuak egin zizkioten, eta autoa erre zioten. Atentatua urrunetik aktibatutako motozikleta batean jarritako lehergailu baten bidez egin zen, eta bizkartzain-lanak egiten zituen Juan María Quintana ertzaina ere zaurituta geratu zen. Handik urtebetera, Manuelen alargun Marisol Fernándezek Errenteriako PP alderdiaren zerrendetan parte hartu zuen.

Froilán Elespe Inciarte

ETAk eraildako Errenteriako azken biktima izan zen. Komando bateko kide batek bi tiro egin zizkion buruan, 2001eko martxoaren 20an, Lasarte-Oriako Urko plazako Sasoeta tabernan zegoela. 54 urte zituen hil zutenean, eta bi semeren aita eta 13 hilabeteko biloba baten aitona zen. Froilán Elespe Errenterian jaio zen, baina gero Urnietara (bertako zinegotzia izan zen) eta Lasartera joan zen bizitzera. Azken herri horretan, PSE-EE alderdiko alkateordea izan zen 1987az geroztik. Unión General de Trabajadores (UGT) sindikatuan afiliatuta zegoen. Filosofia positiboa zuen bizitzaren inguruan, eta bizkartzainik ez izatea erabaki zuen. 2003ko maiatzean inauguratutako Lasarte-Oriako lorategi botanikoak haren izena du.

7.1.1. BIZITZEKO ESKUBIDEAREN URRAKETAK ERRENTERIAN: ZIFRAK

- Errenteriako biktimen artean, lehen hildakoa Isidro Susperregi Aldaco izan zen. 1977ko martxoaren 15ean hil zen, Polizia Armatuaren gomazko pilota batek jota. Errenterian heriotza eragin zuen azken atentatua ETAk egin zuen Manuel Zamarreño Villoria zinegotziaren aurka, 1998ko ekainaren 25ean, eta Errenteriatik kanpo, berriz, azken atentatua Froilán Elespe Inciarte errenteriarren aurkakoa izan zen Lasarte-Orian, 2001eko martxoaren 20an.
- Errenteriako lehen lau hildakoak poliziaren biktimak dira, eta bosgarrena, berriz, Errenterian heriotza eragin zuen ETaren lehen atentatuan hil zen, 1978/12/05ean.
- ETAk 21 pertsona hil ditu. Talde parapolizialen atentatuetan 2 herritar hil ziren, eta poliziaren tiroek jota, berriz, 5. Beste hiru kasutan, ikerketa eta kontraste sakonagoa behar da.
- Hildakoen artean, emakume 1, transexual 1 eta 29 gizonezko daude (ikerketa sakonagoa behar duten hiru kasuak barnean hartuta).
- ETak eraildako pertsona guztiak gizonezkoak ziren.
- Hamarkadaren arabera, hildakoen kopurua honela banatuta dago:

	70eko hamarkada	80ko hamarkada	90eko hamarkada	2000ko hamarkada	2010eko hamarkada
ETAk hildakoak	2	15	3	1	
GAlek hildakoak		2			
Segurtasun-endarrek hildakoak	5				
Ikerketa sakonagoa behar dute	2		1		
GUZTIRA	9	17	4	1	0

- Aurreko koadroan ikus daitekeenez, hildakoak eragin zituzten atentatuen kopururik handiena joan den mendeko laurogeiko hamarkadakoa da: 17 pertsona.
- Azken hamazazpi urteetan (1998ko ekainean Manuel Zamarreño Villoria erail zutenetik), ETAk ez du Errenterian inor hil.
- 1979. urteaz geroztik, Errenterian ez da inor hil Estatuko Segurtasun Indarren tiroen ondorioz.
- Adina, seme-alaben kopurua eta atentatuaren lekua kontuan hartuta:

	Hildakoen batez besteko adina	Seme-alaben guztizko kopurua	Erreterian egindako atentatuak	Erreteriatik kanpo egindakoak
ETAk hildakoak	40	51	18	3
GAlek hildakoak	30	2	1	1
Segurtasun- indarrek hildakoak	53	4	3	2
Ikerketa sakonagoa behar dute	47	2	3	0
GUZTIRA	42	59	25	6

- Atentatuan hildako pertsonarik gazteenak 22 urte zituen (José Antonio Cardosa Moralesek) eta zaharrenak, berriz, 78 (poliziak tiroz hil zuen Rafael Gómez Jauregik, hain zuzen ere). Hildakoen artean, seik 30 urte baino gutxiago zituzten, eta bostek 60 urte baino gehiago.

- Lan honetan, aitarik gabe geratu ziren 59 seme-alaba kontabilizatu ditugu. Ezin izan dugu jakin zenbat alaba eta zenbat seme ziren. Gainera, lau kasutan, ez dugu jakiterik izan seme-alabarik bazuten ala ez. Sei hildakok ez zuten seme-alabarik (ezkonduta egon arren), eta beste bi ezkongabeak ziren. Alargunetako bat – gutxienez– haurdun zegoen atentatua gertatu zen unean.

- 27 erailketa edo heriotzatan, su-armak erabili ziren, eta kasu bakar batean, urrunetik aktibatutako lehergailua. Ikerketa sakonagoa behar duten bi kasutan, ibilgailu batek harrapatuta hil ziren biktimak.

- Hogeita bost atentatu edo indarkeria-ekintza Erreterian bertan egin ziren, eta beste sei herritik kanpo: Donostian (2), Irunen, Hendaian, Iruñean eta Lasarte-Orian.

- Jaioterria kontuan hartuta:

	Erreterian jaiotako pertsonak	Erreteriatik kanpo jaiotakoak
ETAk hildakoak	2	19
GAlek hildakoak	2	0
Segurtasun- indarrek hildakoak	2	3
Ikerketa sakonagoa behar dute	0	3
GUZTIRA	6	25

- Sei pertsona Erreterian jaio ziren, eta hogeita bost Erreteriatik kanpo: Irun, Pasaia, Donostia, Zizurkil, Nafarroa, León, Aranjuez (Madril), Jaén (2), Salamanca (2), Kantabria (2), Cáceres (2), Galizia (2), Maroko, Asturias, Argentina, Sevilla eta Ávila.

- Kondizioa kontuan hartuta:

	Zibila	Polizia	Guardia zibila	Armadako kidea	Udaltzaina	ETako kidea
ETak hildakoak	11	5	3	1	1	
GAlek hildakoak	1					1
Segurtasun- indarrek hildakoak	5					
Ikerketa sakonagoa behar da	2					1
GUZTIRA	19	5	3	1	1	2*

*ETako bi kide horien heriotzei "Beste sufrimendu batzuk" atalean sartutako beste 3 kideenak gaineratuz gero, 5 izango lirateke guztira, eta Komando Autonomoetako kide bat ere badago.

- ETak 11 zibil eta estamentu militarizatuetako 10 kide erail zituen.

- Estatuko Segurtasun Indarretako eraildakoen artean, 5 Polizia Nazionalekoak ziren, 3 Guardia Zibilekoak, 1 Infanteriako Armadakoa (komandantea), eta beste bat Erreteriarako Udaltzaingoakoa.

- ETak erail zituen zibilen artean, hiru taxilari (horietako bat erretiratu), ostalari bat, pintore-papereztaizale bat, okin bat, Telefónicako azpikontrata bateko enplegatu bat, soldatzaile erretiratu bat eta langabezian zegoen galdaragile bat zeuden (beste baten lanbidea zein zen ez dakigu). Bakar bat ere ez zen gizarte-klase dirudunekoak. Hildako bi Alderdi Popularrereko zinegotziak ziren, beste bat PSE-EE alderdiko zinegotzia, eta laugarren bat ere PSOEko zinegotzia izan zen Udal Gestora iragankorrean, 1979ko lehen udal-hauteskundeak egin arte. UGT sindikatuko kidea zen.

- Hirurogeita hamarrek hamarkadan poliziaren tiroen ondorioz hildako guztiak zibilak ziren: tornulari bat, portuko langile erretiratu bat, egunkariko tipografo bat eta eskualdeko hainbat lokaletan ziharduen artista trabesti bat. Bakar bat ere ez zen diruduna. Bi EAE-ANV alderdi historikoko kide izan ziren, eta bi ELA eta CCOO sindikatuetan afiliatuta egon ziren.

- Talde parapolizialek egindako bi atentatuetan hildakoen kasuan, batek baserrian, tailer batean eta familiaren tabernan lan egiten zuen ETako kide zela Hendaiara ihes egin aurretik, eta bigarrena, berriz, postaria zen eta behin-behineko lan-kontratu bat zuen; Kakitzat talde antimilitaristakoa zen.

- Ikerketa sakonagoa behar duten kasuen ataleko hiru pertsoneri dagokienez, bat autobideko langilea zen, bestea etxeandrea, eta hirugarrena ETako ustezko kidea (aurretik burdinola batean eta traktore batekin lan egin zuena).

* * *

Oarsoaldeko egoera

Oarsoaldeko eskualde osoa hartuta, eskualdea osatzen duten lau herrietan eraildako edo hildako pertsonak 70 dira:

Herria	ETA (pm), ETA (m), Komando Autonomoak	GAE, BVE, GAL...	Polizia eta Guardia Zibila	Ikerketa sakonagoa behar da
Errenteria	21	2	5	3
Pasaia	15	1	2	6
Lezo	4	1	-	-
Oiartzun	9	-	1	1
GUZTIRA	49	4	8	10

- Koadro honetan ez dira kontuan hartzen "Beste sufrimendu batzuk" ataleko heriotzak.

Bizitza duinerako eskubidea

Arestian adierazi dugunez, ondorengo azterlanetan aztertu beharko dira biziaren aurkako atentatu horiek zeharkako biktimengan izan dituzten ondorioak. Sufrimendu emozional larriez gain, kasu askotan estuasun ekonomikoak jasan behar izan zituzten aita, bikotekide sentimental, ama, seme edo anaiarik gabe geratu zirenek. Ez da erraza jasandako nahigabearen esanahi osoa biltzea, baina, abiapuntu gisa, honelako egoerak hartu beharko dira kontuan:

- Aita edo ama (eta, zenbait kasutan, biak) ezagutzeko aukerarik izan ez zuten edota hurbileko senideekin hezi ziren seme eta alaba txikiak. Pertsona maiteekin hazterik izan ez duten nerabeak.
- Askotan desoreka psikologiko eta emozionalak zituen familia bat aurrera atera behar izan zuten, harreman afektiboak eta auzo-harremanak eten zitzaizkien eta ekonomikoki kaltetuta geratu ziren alargunak. Atentatu batean aita galdu zuten, eta etxeke sostenguaren galera ahal bezala arintzeko etxetik kanpo lan egin behar zuen amaren presentziarik gabe geratu ziren umezurtzak.

*Nire ama pasilloan eserita egon zen hurrengo hiru egunetan, etxeko atea irekita zuela, nire aita noiz sartuko zain...*²⁵

*Familiak drogeria itxi zuen zor handiekin, eta alargunak gurasoen etxera joan behar izan zuen bizitzera bi alabekin...*²⁶

*Nire amak ez zuen inoiz gainditu*²⁷*... Emakume gajoak burua galdu zuen...*²⁸

²⁵ Manu Cuña, ETAk 1983ko urriaren 20an Zamalbiden eraildako Cándidoren hiru semeetako bigarrena, bere ama Benitari buruz (hilda dagoeneko). *El País*, 2013/10/19.

²⁶ ETAk 1982ko azaroaren 18an Beraun auzoan hil zuen Carlos Patiñoren familiaz ari da (atentatuan beste bi langile geratu ziren larriki zaurituta). Geroago kalte-ordain bat kobratu bazuten ere, hasierako une haiek arrasto handia utzi zuten biktimaren senide guztiengan. Hamaika bala-tiro jaso zituen zaurituetako baten familiak alde egin zuen Errenteriatik. *El País*, 2002/11/25.

²⁷ Mari Jose Cardosa, talde parapolizialek (Covite erakundeak GAL taldea aipatzen du zuzenean) HBko kide bati zuzendutako lehergailu batek eztanda egin zion 22 urteko José Antonio postariaren arreba. *El Correo*, 2010/06/13.

²⁸ Miguel Buen Lacambra alkate ohiari 2014ko abenduan egindako elkarrizketa.

7.2. PERTSONEN OSOTASUN FISIKO ETA PSIKIKORAKO ESKUBIDEAREN URRAKETAK ERRENTERIAN

Motibazio politikoaren ondorioz zauritutako pertsonen buruzko datu ofizial eskuragarri ez dago, eta hainbat euskal erakundek eta elkartek aldarrikatu duten azterlan ofizial baten zain gaude. Komenigarria izango litzateke horrelako azterlan bat lehenbailehen egitea, baina, datu horiek iristen diren bitartean, Erreterriako kasuaren lehen hurbilketa bat egingo dugu.

Osotasun fisiko eta psikikorako eskubidea urratu dieten pertsona askok askotariko ondorioak jasan dituzte, ebakuntza kirurgikoak egin dizkiete zenbaitetan, eta batzuk baliaezintasun handiarekin edo ezintasun iraunkor absolutu edo osoarekin geratu dira. Itsu, mutilatuta, loaren eta izaeraren alterazioekin, psikologikoki kaltetuta, hainbat lan eta funtzio betetzeko ezinduta eta, beraz, bizitzan sozialki markatuta geratu diren pertsonak dira. Familiaren eta hurbilekoen inguruetik kanpo, ezezagunak dira pertsona horien oinaze eta gorabeherak, komunikabideen interesetik kanpo geratu baitira. Hala ere, badira salbuespen batzuk, hala nola geroago azalduko dugun Alberto Muñagorriren kasua.

Errealitate hori sakonean aztertu eta jakitera eman beharko litzateke.

Hona hemen kasu batzuk:

ETAren atentatueta zauritutako pertsonak:

1978/11/11	Juan Malpica Aguilera, guardia zibila	Oso larri. Ezkerreko hanka moztu zioten	ETA(m)
1979/04/21	Cándido Cuña González, CCOO sindikatuan afiliatua	Larri; lau bala-tiro jaso zituen (beste atentatu batean hil zen, 1983an)	ETA(m).
1980/10/31	Enrique Aguirre Pozo, Ondartxoko Ferreres galdategiko langilea	Balaz larriki zauritua. ETAk "hanka-sartzea" izan zela adierazi zuen komunikatuan	ETA(m)
1982/06/26	Alberto Muñagorri Berdasco, 10 urtekoa	Lesio larriak bi begietan, aurpegian, toraxean eta abdomenean; ezkerreko hanka galdu zuen	ETA(m)
1982/09/14	Juan José Torrente Terrón, polizia	Larri. Gerrialdea eta beheko gorputz-adarrak	ETA(m)
1982/11/18	Francisco Rosco Herrauzo, pintorea	Hainbat bala-tiro	ETA(m)
1982/11/18	Esteban Fariñas González, pintorea	Hainbat bala-tiro	ETA(m)

1983/08/05	Iñigo Bengoetxea Jauregi eta Koro Izagirre Larrañaga	Erreboteko bala batez zaurituak, motoan zihoazela	ETA(m)
1986/01/20	Vicente Blasco Lorenzo	Larriki zauritutako guardia zibila	ETA
1986/01/20	José M ^a González Garrido	Larriki zauritutako guardia zibila	ETA
1986/02/04	Manuel Espinosa Sanju, polizia, eta haren alaba, Noelia (9 urtekoa)	Agenteak hanka bat galdu zuen. Alabak zauri larriak izan zituen aurpegian	ETA
1993/09/30	Alejandro Del Pozo Gil, Francisca Mangas Fernández, Jesús Narrarte (DYA), Marco Antonio Tobías Galea eta bosgarren pertsona bat	Lau larriki zaurituta geratu ziren, bereziki Francisca Mangas eta Marco Antonio Tobías (udaltzaina), Telefónicaren aurkako atentatu batean	ETA
1997/02/05	José M ^a Lobato, PP alderdiko zinegotzi Elena Azpirozen bizkartzaina	Ezkerreko begiko ikusmena galdu zuen	ETA
1997/04/16	Juan José Baeza González, espetxeetako funtzionarioa	Balaz larriki zauritua	ETA
1998/03/30	Concepción Gironza (PPko zinegotzia) eta haren ama	Lehergailua etxeko sarreran. Bi emakumeek eta gainerako auzotarrek kanpoan eman zuten gaua	ETA
1998/06/25	Juan M ^a Quintana, ertzaina eta Manuel Zamarreñoren bizkartzaina	Metraila-zauriak eta lesioak begi batean	ETA

Kale-borroka- eta bestelako indarkeria-ekintzen ondorioz zauritutako pertsonak:

1977/05/12	Bost polizia eta bi guardia zibil	Segurtasun-indarretako kideak	Zauri garrantzitsuak greba-egunean
1979/08/30	Polizia-agentea	Polizia nazionala	Molotov koktel batek eragindako erredurak

1982/11/28	Ángel García Ronda	PSE-PSOeko Kongresuko diputatua	Kontramanoifestazio bateko kideen eraso
1982/11/28	Manuel Mercedez	Polizia nazionala	Manifestariak eragindako zauriak
1983/08/03	José Antonio Maturana	PSEko legebiltzarkidea	Harrkada kopetan
1983/08/03	Mari Carmen Ruiz	PSE-PSOeko zinegotzia	Jaurtitako objektu batek eragindako zauriak
1983/11/23	José Antonio Marcos	Polizia nazionala	Polizia-ibilgailuaren aurka jaurtitako molotov koktel batek eragindako zauriak
1983/12/20	José M ^a Gurruchaga	Alkatea, PSEkoa	Eraso eta kolpeak
1986/03/25	José Ángel Prieto	PSEko zinegotzia	Bahiketa eta jipoia
1987/03/12	Frantziako senar-emazteak	Kamioilariak	Molotov koktel batek eragindako erredurak
1987/03/04	Miguel Buen Lacambra	PSE-EEko zerrendaburua	Eraso
1993/08/25	Patruilako ertzaina	Ertzaina	Molotov koktel batez arinki zauritua
1994/08/27	Joaquín S. A.	Ertzaina	Bigarren mailako erredurak
1994/08/27	Josu M.	Ertzaina	Hirugarren mailako erredurak
1995/03/24	Jon Ruiz Sagarna	Ertzaina	Erredura larriak (% 50)
1995/03/24	Oscar Muñoz Ortega	Ertzaina	Erredura larriak
1995/03/24	Juan José Miragalla	Ertzaina	Erredura larriak
1995/03/24	Amaia Arruabarrena, 19 urtekoa	Oinezkoa	Oso larri. Bularraldea, ezkerreko hanka, larruazalaren urradura
1995/03/24	Estitxu Uranga	Oinezkoa	Orbita-haustura, eta zauriak hanketan
1997/02/13	Bi zinegotzi Udal Osoko Bilkura batean	PPko 2 zinegotzi eta EAJko 1	Erasoak, kolpeak, irainak eta mehatxuak

1998/01/25	Bi udaltzain	Udaltzainak	Zauri arinak Caja Rural-aren aurka egindako eraso batean
1998/07/25	Segurtasun-zaintzailea	Papresa	Molotov koktel batek harrapatua
2000/03/18	Domitila M. I.	Herriko Etxeko langilea	Jaurtitako gasolinak begietan eragindako narritadura
2004/03/14	Mikel Carcedo	EAKo zinegotzia	Jazarpena eta ukabilkada bekainean
2008/04/19	Kalez jantzitako ertzaina	Ertzaina	Erasoa

Talde parapolizialen atentatueta zauritutako pertsonak:

1977/06/18	Ángel Ramos Garate, bi semeren aita; herriko asanbladan hitz egin zuen	Hiru pertsonak jipoitu zuten. Kolpeak pistolaren kulatarekin. Hiru saihetsen haustura. Irainak
1979/06/11	Paco Ferreres, CD Touring taldeko entrenatzailea	Bi eraso, jazarpena eta mehatxuak
1979/11/14	M. A., 16 urtekoa	Lotu egin zuten, galdeketa egin zioten eta bortxatu egin zuten. GAE
1979/12/15	Maite Cerezo Cuadrado, 14	Bahitua eta bortxatua. GAE
1980/01/13	18 urteko emakumea	Bahitua eta bortxatua. GAE
1980/02/24	Maite Lasa Mitxelena	Jipoi handia. Ebakuntza kirurgikoa begi batean. Mehatxuak
1980/03/28	Jexuxmari Ijurko Orbegozo eta Mari Carmen Illarramendi, Amnistiaren Aldeko Batzordetakoak	Lehergailua. Senarra: hanka baten eta besaurre baten anputazioa, zauri larriak sabelaldean eta beste hankan. Emaztea: belarria, bizkarrezurra eta hankak
1980/10/20	Maite Lasa Mitxelena, ikastolako irakaslea, 23 urtekoa	Bigarren eraso; tratu txarrak eta mehatxuak (pistolekin)
1980/11/24	Juan José Inziarte Gallardo	BVE taldeak balaz zauritua
1981/02/24	Maite Lasa Mitxelena, ikastolako irakaslea, 23 urtekoa	Auto batean bahitzen saiatu ziren; ukabilkadak eta ostikoak

1982/12/21	Santi Vicente Altxu	Bahiketa; gorputza kristalez markatu, kolpeak eman eta galdeketa egin zioten
1983/03/16	Imanol Aizkorreta, Lanbide Eskolako irakaslea	5 orduko bahiketa; "poltsarena" egin, kolpeak eman, galdeketa egin eta mehatxatu egin zuten
1984/05/03	Jesús Zugarramurdi Huici	GAL taldeak balaz zauritua
1984/05/25	Xabier Lorenzo Almandoz	Bahiketa, galdeketa eta tortura
1985/07/30	Agustín Zelihueta Almazan, HBko zinegotzia	GAL siglak grabatu zizkioten gorputzean
1985/11/02	Agustín Zelihueta Almazán	Barruan bala bat zuen gutun bat jaso zuen. Revolución Nacional taldeak sinatu zuen gutuna
1985/11/07	Txema Tolosa	GAL siglak grabatu zizkioten besoan
1986/02/23	Juan Fernando Rico, Amnistiaren Aldeko Batzordeetako	Bahiketa, galdeketa, kolpeak, tiro bat lokiaren ondoan; burua ibaian sartu zioten
1986/10/19	Inaxi Vives Mendizabal, Langaitz ikastolako irakaslea	Garezur-traumatismoa eragin, ilea moztu, besoan svastika grabatu eta ebaketak egin zizkioten; ikastolako haurrak hiltzeko mehatxuak
1987/01/03	Inaxi Vives Mendizabal	Erasoa eta mehatxuak
1987/05/12	Agustín Zelihueta Almazán	Bahiketa, galdeketa eta tortura: hausturak besoan (igeltsatua) eta hatzetan
1987/09/22	Agustín Zelihueta Almazán	Laugarren erasoa; bahiketa eta tortura
1989/04/28	Karmele Urruzono, 18 urtekoa, Orereta ikastolako	Erasoa eta mehatxuak. Ebaketak aurpegian
1989/05/04	Zamalbidetako Lanbide Eskolako ikaslea	Erasoa eta mehatxuak. Beste gazte batek mehatxuak jaso zituen telefonoz, GAL taldearen izenean
1989/06/08	Joseba Lekuona, Orereta ikastolako ikaslea	GAL siglak grabatu zizkioten besoan
2005/01/13	Gizonezkoa	Jipoia. Traumatismo kraneoentzefalikoa

Poliziaren tiroen ondorioz larriki zauritutako pertsonak:

Koadro honetan, larriki zauritutako pertsonak baino ez dira aipatzen; horietako asko su-armekin zauritu zituzten. Horri dagokionez, komeni da Poliziak indarra eta su-armak erabiltzeko dauden arau nagusiak ezagutzea, honako bi hauek batez ere: Legea Betearazi behar duten Funtzionarioentzako NBERen Jokabide Kodearen 3. artikulua, eta Legea Betearazi behar duten Funtzionarioen Indarraren eta Su-armen Erabilerari buruzko Oinarrizko Printzipioak²⁹.

Data	Biktima	Egileak	Emaitza
1975/09/27	10 urteko neska	Guardia Zibila	Bala-zauria
1976/09/08	José Murua Etxabe	Guardia Zibila	Bala-zauria
1976/09/27	Pedro Murugarren, Mohamed Bahara eta Lino Vallina	Guardia Zibila	Lehena begi batean zauritua. Beste biak balaz zaurituak
1977/05/12	Cándido Peña Francisco	Guardia Zibila	Bala. Sarrerako eta irteerako zuloa toraxean
1977/05/12	Julio Marqués Sein	Guardia Zibila	Bala. Tibia eta peroneko haustura irekia
1977/05/12	Josu Ascasibar San Martín	Guardia Zibila	Bala, ezkerreko hankan
1977/05/12	José María Tolosa	Guardia Zibila	Bala, orkatilan
1977/05/12	Paquita Villa, bere etxean	Polizia	Bala eskuineko besoan
1977/05/13	Alberto Vidaurre Ortuño	Guardia Zibila	Bala eskuineko izterrean. Tibia-zainaren haustura.
1977/05/16	Pedro Olaiz Olaizola	Polizia	Bala-zauria
1977/05/16	Juan Carlos Bayón Fdez.	Polizia	Ke-potoa sudurrean
1978/07/12	Julián Hernández Centeno, 17 urtekoa	Polizia	Bala leherkorra besoan eta aldakan
1978/07/12	José Luis Jiménez Ruiz	Polizia	Bala hanka batean

²⁹ OSSE, Anneke. *Entender la labor policial. Recursos para activistas de derechos humanos*. AMNISTIA INTERNAZIONALE, 2007. PDF formatuan jaits daiteke honako honetatik: <https://doc.es.amnesty.org/cgi-bin/ai/BRSCGI/ENTENDER%20LA%20LABOR%20POLICIAL.%20Recursos%20para%20activistas%20de%20derechos%20humanos?CMD=VEROBJ&MLKOB=2621980444>

1978/07/13	Joseba Iriondo	Polizia	Zauri larriak. Gomazko pilota. Garezur-traumatismoa
1978/07/13	Florencio Andueza Buelles, bere etxean	Polizia	Garezur-traumatismoa gomazko pilota batek jota
1979/01/20	Juan Carlos Gaztelumendi	Polizia	Ezkerreko begia galdu zuen
Lehen udal-hauteskunde demokratikoen ondoren (1979/04/03):			
1979/06/11	Hamar pertsona (hiru zinegotzi tartean) Udaletxearen barruan jipoituta	Polizia	Gutxienez zazpi pertsona ospitaleratuta (<i>El País</i>)
1979/06/29	Arantxa Iparragirre	Polizia	Traumatismo kraneoentzefalikoa
1979/06/29	José Peña	Polizia	Traumatismo kraneoentzefalikoa
1979/06/29	Manuel González Muñoz	Polizia	Ke-poto batek eragindako erredurak aurpegian
1979/11/27	José Manuel Etura Ruiz	Polizia	Begi bat galdu zuen
1982/01/01	Manuel Cosano Cuenca, 68 urtekoa	Guardia Zibila	Bala-zauria besoan eta hemitoraxean
1982/01/01	Daniel Muñoz Valverde, 7 urtekoa, bere etxean	Guardia Zibila	Bala batek izterra zeharkatu zion
1983/07/22	Peio Mindegia, Lesakako Laminaciones enpresako langilea, EMK-ko kidea	Polizia	Begi bakarretik ikusten zuen, eta ke-poto batek erabat itsu utzi zuen
1983/12/05	María Vaquero	Polizia	Bala-zauria
1984/05/07	José Portu Espina	Polizia Nazionala	Bala bat gibelean
1987/02/23	Zamalbideko ikaslea	Polizia	Garezur-traumatismoa, eta aire-burbuilda pleuran
1988/04/27	José Ignacio Lete	Polizia	Begi batean. Etxeko balkoian zegoen

Tortura-salaketak:

Giza eskubideen urraketa mota honen aurrean, oso jarrera desberdinak ditugu. Badira tortura-kasuak izan direla onartzen ez dutenak edota postulatu politikoei jarraiki torturak sistematikoki salatzen direla diotenak ere. Beste batzuentzat (hala nola Amnistia Internazionalarentzat³⁰), hain zuzen ere fenomenoaren gutxiespenak eta aurkeztutako salaketak ez ikertzeak ahalbidetzen dute zigorgabetasuna.

Errenteriako kasuak lantzen dituen lan bakarra aurkitu dugu, Euskal Memoria Fundazioak egindakoa hain zuzen ere³¹. Lan horretan, aztergai dugun gaiarekin eta aldiarekin lotuta atxilotu zituzten 694 pertsonetatik torturak jasan dituztela salatu duten herriko 337 biztanleren izenak eta abizenak agertzen dira. Beraz, euskal kasuarekin lotuta atxilotu zituzten pertsonen erdiek baino gehiagok ez dute adierazi torturak jasan dituztenik. Torturak edo tratu txarrak jasan zituztela salatu zutenetatik, 31 pertsona –horietako bat ospitaleratu behar izan zuten– libre utzi zituzten kargurik gabe eta epailearen aurretik pasatu gabe, eta beste 14 epailearen aurretik pasatu ziren, baina libre geratu ziren kargurik gabe. Zifra horiek handiagoak izan litezke, ez baitakigu berrogeita hamar bat kasutan zer gertatu zen.

Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritzak urte hauetan izan den torturaren norainokoari eta errealitateari buruzko lan bat egiteko eskatu zion UPV-EHUko Kriminologiako Euskal Institutuari 2014an, eta horren zain gaude. Azterlan horren datuak iristen diren bitartean, eta aurkeztutako salaketen kopuru handiaz jabetuta, atxilotu ondoren ospitalera eraman behar izan zituzten Errenteriako herritar batzuk aipatuko ditugu ondorengo koadroan, adibide gisa:

1975/09/26	Julio Perurena Lizarazu	Polizia	Ospitaleratuta
1977/03/23	Miren Salinas Gutiérrez	Polizia	Ospitaleratuta giltzurrunetako arazoan ondorioz
1980/06/25	José Ortega López	Guardia Zibila	Epaileak aske utzi zuen (atxilotuaren egoera ikusita, inkomunikazioa luzatu egin zuen)
1983/03/01	Andone Elizondo Ubiria	Polizia	Ospitaleratua
1986/10/15	Agustín Azkarate Intxaurren	Guardia Zibila	Epailearen aginduz ospitaleratua
1992/05/13	Joxean Inziarte Gallardo	Guardia Zibila	Psikiatrikoan astebete ospitaleratua

³⁰ AMNISTIA INTERNAZIONALA. *Acabar con la doble injusticia. Víctimas de tortura y malos tratos sin reparación justa y adecuada*. 2004ko abendua.

³¹ Udalaren eskura dago zerrenda hori.

Pertsonen aurkako mehatxu larriak eta jazarpen-indarkeria:

Erregistratu gabe dauden eta nekez kuantifika daitezkeen, baina, nolnahi ere, bizikidetzan oinarritutako etorkizun bat finkatzean kontuan hartu behar diren giza eskubideen urraketak dira. Hona hemen kasu batzuk, adibide gisa:

- Jazarpenak. Mehatxuzko pintadak. Panfleto iraingarriak. Manifestazioak edo enkarteladak pertsona jakin batzuen atari edo etxebizitzaren aurrean amaitzea...
- Arrazoi batengatik edo bestearengatik bizia edota osotasun fisikoa edo psikikoa arriskuan izan zezaketen pertsonen senideen beldur iraunkorra, etxean edo lanean jasotako mehatxuzko dei edo anonimo ugariak –“el próximo eres tú” (zu izango zara hurrengo), “te quedan pocos días, txakurra” (egun gutxi geratzen zaizkizu, txakurra), “te vamos a violar, etarra” (bortxatu egingo zaitugu, etarra), “sabemos dónde vives” (badakigu non bizi zaren), “ya sabéis lo que os espera” (badakizue zer datorkizuen), “PP, ven y no lo contarás” (PP, zatoz eta ez duzu kontatuko)...–, eta zenbaitetan zuzenean senideak “ziprztintzen” zituzten indarkeria-ekintzak: pertsona jakin baten senidea izateagatik jasandako erasoak edo irainak, kalteak pertsona jakin baten senideen ondasun eta ibilgailuetan eta abar.
- “Txibato” edo “traidore” etiketak jartzearen ondorioz sortutako giro txarra, boikotak, mehatxuak, erasoak eta larderiak; ohiturak, lekuak edo lagunak aldatu beharra (bizitzera beste herri batera joatea, bizitza sozialaren suntsipena eta abar); familia barruko tirabirak (desorekak, beldurrak eta abar). Erasoa noiz egingo dizuten pentsatzen beti.
- Halaber, komunikabideetan, tertulietan edo kargu politikoen adierazpenetan norbaiti funtsik gabe “etarraren” etiketa jartzea (esandakoa ondoren zuzendu gabe); atxilotu ondoren edo epaitu ondoren (zenbaitetan urte asko igarotakoan) kargarik gabe libre irteteen sortutako familia-tirabirak (guraoen eta seme-alaben arteko harreman tirabiratsuak, soldata baten gabezia eta abar), tirabira sozialak (bikoteen hausturak eta abar), lan-arloko tirabirak (kaleratzeak, lanpostuan edo karguan gora egiteko ezintasuna eta abar); errepide-kontroltan jasandako larderia (legez kanpoko galdeketak, atxikipen-ordu asko, umiliazioak eta abar).

Erakunde politiko baten parte izateagatik oraindik ere zintzilik dauden epaiketak bertan behera geratu behar dira.

Ondasun higiezin aurkako erasoak:

- Altzari publikoen, udal-egoitzen, garraio publiko eta pribatuaren eta erakunde aurkako erasoen ondorioz, kasu bakoitzean kaltetutako langile eta herritarrengan beldurra sorrarazteaz gain, konponketen eta segurtasun-mekanismoen kostu ekonomikoa izugarria izan da, gizarte osoaren kontrol soziala eta poliziala areagotu egin da, segurtasun-zaintzaile pribatuaren kopurua

gehitu egin da, segmentu zabalago bat hartu da susmagarritzat (janzteko moduagatik, adibidez) eta abar.

Eta Udaletxeko atean zeuden kontrol guztiez gogoratzen ari naiz. Adibidez, batzuk oso kexu ziren kontrol horietaz. Nire kideak Udaletxean lan egiten zuen garai hartan, eta kontrolez kexatu ordez kontrol horiek jarri beharra eragin zuen egoeraz kexatu behar zela esaten zidan.

Estortsio ekonomikoa:

- Deustuko Unibertsitateko Etika Aplikatuko Zentroak koordinatutako lantalde bat ETaren “iraultza-zergak” enpresen eta profesionalen munduan izan duen dimentsio eta eraginari buruzko informazioa biltzen ari da³².

Txosten hori egin duen ikerketa-taldeak ez du Errenteriako daturik. Nolanahi ere, estortsioa giza eskubideen urraketan artean katalogatuta dagoenez gero, estortsioa ikusarazi egin beharko da herrian egin beharreko hurrengo lanetan.

³² Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu honako honetan:

<http://www.socialesyhumanas.deusto.es/cs/Satellite/socialesyhumanas/es/centro-de-etica-aplicada-0/memoria-etica-y-justicia/generico>

8. IKERKETA SAKONAGOA BEHAR DUTEN KASUAK

Bizitzeko eskubideari dagokionez:

Kontsultatutako iturrien arabera, atal honetan bildu ditugun kasuek tratamendu desberdina izan dute. Bertsio kontrajarriak daude, eta dauden informazioak kontuan hartuta (batzuk kontraesankorrak dira), neurri handiagoan kontrastatu beharko lirateke hiru gertaera horiek. Egiteko geratzen den zeregina da. Ildo horretan, komenigarria izango litzateke etorkizun hurbilean ikerketa-mekanismo independenteren bat izatea, oraindik behar bezala argitu gabe dauden kasu horietako bakoitzari heltzeko:

- 1977ko amnistiaren aldeko astearen barruko greba-egun batean, autobideko langile bat ibilgailu batek harrapatuta hil zen, barrikada bat kentzen ari zela (derrigortuta ala ez, horixe da eztabaida).
- 77 urteko emakume bat Polizia Armatuaren jeep batek zebra-bide batean harrapatuta hil zen; ibilgailua kontrako noranzkoan zihoan, manifestazio bat zegoen lekura.
- ETako ustezko kide bat hilda agertu zen, lokian tiro bat zuela, Zamalbideko eremu batean, modu irregularrean.

Hona hemen hiru kasuak:

Clemente Del Caño Ibáñez

Irungo Bentetako auzoan jaio zen eta bi seme-alaba zituen. 36 urte zituen 1977ko maiatzaren 13an, A-68 autobidean (Bilbo-Behobia) identifikatu gabeko ibilgailu batek oharkabean harrapatuta hil zenean. Clemente Del Caño autobide horretako langilea zen. Amnistia eskatzeko ekintza ugari egin ziren Erreterian egun horietan, eta liskar eta indarkeria handiko egunak izan ziren. Maiatzaren 12tik 16ra bitarte, bederatzi pertsona zauritu zituzten balaz herrian, eta horietako bi hil egin ziren. Gainera, beste hiri batean herriko beste seme bat hil zen poliziak tirokatuta. Hiribildua Estatuko Segurtasun Indarrek hartuta zegoen, indarkeriazko borrokaldiak oso ugariak ziren, eta barrikada asko eta asko jartzen ziren. Barrikada horietako bat A-68 autobidean jarri zuten, Erreteriarren inguruan. Iturri batzuen arabera, Guardia Zibileko kide batzuek autobideko oztopoak kenduarazi zizkieten Del Cañori (*In Memoriam pro Pax-ek* dioenez, agenteek “barrikada kentzera behartu zituzten autobideko langileak”³³). Kasua Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritzaren 2008ko ekaineko *Motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketen biktimak* txostenean jasota dago,

³³ <http://inmemoriampropax.blogspot.com.es/2011/05/clemente-del-cano-ibanez.html>

498. orrialdean, “Kontraste eta argitze handiagoa behar duten beste kasu batzuk” atalean. Del Caño Ibañez terrorismoko biktimatzat hartu du Barne Ministerioak.

Teodora Sánchez Ofertorio

Etxekoandrea zen eta 77 urte zituen 1979ko ekainaren 29an, Errenteriako Nafarroa Etorbideko zebra-bide bat zeharkatzen ari zela Polizia Armatuaren jeep batek harrapatuta hil zenean (*El País*, 1979/07/01). Harrapatzea ikusi zuten lekukoen arabera, poliziaren ibilgailua abiada bizian eta kontrako noranzkoan zihoan. Euskadin antolatutako amnistiaren aldeko aste bateko lehen eguna zen, eta, dirudenez, herriko enparantzan asanblada bat egin ondoren hasi zen manifestazio bat erreprimitzera zihoazen poliziak. Teodora Sánchez harrapatu eta ondorengo istiluetan, zauritu ugari izan ziren. Horietako hiru larriki zaurituta geratu ziren, eta ospitalera eraman behar izan zituzten: Arantxa Iparragirre, Miguel González eta José Peña. Teodora Sánchez goizean goiz hil zen Donostiako Arantzazu Ospitalean.

José Luis Geresta Mujika

Zizurkilgo Iruña baserrian jaio zen, eta 30 urte zituen 1999ko martxoaren 20an, Zamalbide auzoko eremu batean hilda aurkitu zuten egunean; tiro bat zuen lokian. Gerestak burdinola batean lan egin zuen, eta herriko dantza-talde batean eta Amnistiaren Aldeko Batzordeetan parte hartu zuen ustez ETAn sartu aurretik. Gorpua aurkitu baino hamaika egun lehenago, Poliziak Nekane Txapartegi atxilotu zuen, Gerestaren neska-laguna. Txapartegik tortura larriak salatu zituen 18/98 Sumarioan epaitzen zuen auzitegian. Kontrastatu ditugun iturrien arabera, bi bertsio nagusi daude: suizidioa (bertsio ofizialaren arabera) eta eraiketa (Amnistiaren Aldeko Batzordeen arabera). Estatuko fiskal nagusi Jesús Cardenalek salaketa hori egiten zutenen aurka jardungo zuela iragarri zuen. Txosten toxikologikoan egiaztatu zenez, gorpua manipulatu egin zuten hil ondoren. Ez da ohikoa hain jarrera hieratikoa su-armaz bere buruaz beste egiten dutenengan: ahoz gora, eskuak gorputzari lotuta eta beherantz begira, besoak eta hankak erabat luzatuta... Pistolari ez zegoen aztarnarik, ezta hildakoaren odolik ere, eta ezkerreko besoaren ondoan zegoen. Ekainaren 6an, Madrilgo Toxikologiako Institutu Nazionalak egindako txosten bati esker jakin ahal izan zenez, hildakoari bi hagin atera zizkieten hil aurretik edota hil eta berehala. Horren harira, handik bi urtera (2001/11/19an), Armadako teniente jeneral eta Guardia Zibileko zuzendari ohi José Antonio Sáenz de Santamaríak honako hau adierazi zuen 2011/11/19ko *La Razón* egunkarian (23. or.): “Komandoak ez dira berez entregatzen. Hildakoren bat ere agertu da, hortz bat mailukadaz aterata zuela. Hil ondoren ez da mailukadarik ematen ahoan. Ez dut kritika moduan esaten. Bizkarretik hiltzera etortzen diren tipo batzuen aurka gerra irregularra erabili behar da nahitaez. Zuzenbide-estatua

ongi dago, baina ezin da azken hariraino eraman, terroristen esku geratuko baikinateke".

Osotasun fisiko eta psikikorako eskubideari dagokionez:

1982/02/05. San Kristobal mendian *footing* egiten ari zen pertsona batek objektu batekin estropezu egin eta objektuak eztanda egin zuen. Lehergailuak zauri larriak eragin zizkion hanka batean eta beso batean, eta metraila sartu zitzaion besape batean eta belarri batean. Odol asko galdu zuen. Ez dakigu nork eta zergatik jarri zuen lehergailua leku horretan.

9. BESTE INDARKERIA EKINTZA BATZUK ETA MOTIBAZIO POLITIKOKO INDARKERIAREN ONDORIOZKO BESTE SUFRIMENDU BATZUK

Azken urteotan, gehiegi polarizatu eta politizatu da biktimekin eta horien tratamenduarekin zerikusia duen guztia. Zaila da norberarenaz bestelako errealitateak aitortzea, urraketen biktimatzat hartzeko ezaugarri berak betetzen ez badituzte ere gure historia hurbilean bizi izan dugun indarkeria-dinamikaren parte diren pertsonen errealitateak aitortzea, alegia. Dena dela, defekzio hori ez da betikoa. Jorge Oteiza eskultorearen lehen ideia baten ondoren, “Bakearen eta adiskidetzearen alde elkaturik” izeneko ekimena jarri zen abian 1993. urtean. Ekimen horren barruan, giza kate bat antolatu zen Villabonaren eta Benta Haundiren (Tolosa) artean. Bi leku horietan hil ziren ETak eraildako lehen guardia zibila eta Guardia Zibilak tiroz hildako lehen ETako kidea, hain zuzen ere. Ekitaldia Gipuzkoan bakearen alde ziharduten hamalau herriko taldeek³⁴, EUTGko ikasle talde batek, Denon Artean-Paz y Reconciliación taldeak eta Euskal Herriko Bakearen aldeko Koordinakundeak sustatu zuten. Urte hartako abenduaren 26an egingo zen ekitaldirako deialdia egiteko idazkia honela hasten zen:

*1993ko ekainean bete dira 25 urte bi pertsonen heriotza bortitza gertatu zenetik. Bata José Ángel Pardines Goardia Zibila eta bestea Txabi Etxebarrieta ETako militantea. **Bi horiek eta beren familiak izan ziren indarkeriaren eta terrorismoaren lehenengo bi jasaileak**³⁵.*

Gaur egun, ezinezkoa ez bada ere, oso zaila izango litzateke antzeko proiektu bat burutzea, hau da, elkar onartzea, hildako bien memoria errespetatzea eta bien familiak ez ezik, BIAK berak ere “indarkeriaren eta terrorismoaren lehen biktimatzat” hartzea.

Nolanahi ere, Donostiako Udalak PSE-EE alderdiko Odon Elorza alkatea zela kulturaren Europako hiriburu izateko aurkeztutako eta Hautaketa Batzordeak³⁶ 2011ko ekainean onartutako hautagaitza-proposamenak honako ekimen hau biltzen zuen: “Besarkada eta adiskidetzea; Aduna eta Tolosa herriak lotuko dituen giza katea, euskal gatazkaren lehen biktimak gogoratzeko”. Proiektuaren testuko 24. orrialdean, honela deskribatzen zen giza katea: “liskarra humanizatzeko nahia islatzeko era sinbolikoa, etorkizunerako topagune komun bat bilatuz”.

³⁴ Ataun, Amara Berri (Donostia), Beasain, Eibar, Getaria, Irun-Hondarribia, Lazkao, Ordizia, Orereta-Errearteria, Pasai Antxo, Tolosa, Zaldibia, Zarautz eta Zumaiako Bakearen aldeko Taldeak.

³⁵ <http://www.gesto.org/archivos/201312/9.-1993-cadena-humana-goierri.pdf?1>, 2015eko otsailean berrikusia.

³⁶ Hautatutako hautagaitzak ebaluatu zituen Hautaketa Batzordeko hamahiru kideetatik, zazpi Europako erakundeek izendatu zituzten (Europar Batasuneko Kontseiluak, Europako Batzordeak, Europako Parlamentuak eta Eskualdeen Batzordeak), eta gainerako seiak, berriz, Kulturako ministro Ángeles González-Sindek, PPko gobernukoak. Halaber, Batzordeko kide espainiarrek Europako Batzordearen nahitaezko oniritzia zuten.

Euskal Herriko Bakearen aldeko Koordinakundea eta, aurretik, Artesanos por la Paz taldea, 27 urtean, isilik eta era baketsuan bildu ziren sustrai politikoko indarkeria-ekintza batek heriotzaren bat eragiten zuen egunaren biharamunean, hildakoa nor zen, nola eta zergatik hil zuten eta egilea nor zen kontuan hartu gabe. Horrek ez du esan nahi erantzukizunak nahasten zituztenik edota indarkeria eta biktima moten arteko simetria edo distantziakidetasun faltsuak bultzatzen zituztenik. Ezta hurrik eman ere. Printzipio etikoei jarraitzen zieten edozein pertsonaren heriotza salatzean:

*Indarkeria-ekintzen arbuioa ez da ETaren atentatueta mugatzen, indarkeria “datorren lekutik datorrela” gaitzesten da (...) Kontzentrazio isilik edo keinuak izan ziren Bakearen aldeko Koordinakundearen ezaugarri bereizgarri nagusia. Kontzentrazio horietan, 15 minutuko isilaldia egiten zen Euskal Herrian sortutako indarkeria espezifikoki lotutako **heriotza edo erailketa** baten hurrengo egunean. **Gizaki ororen bizitzeko eskubidea aldarrikatzen zen, baita beste norbait hil nahi zuenarena ere**³⁷.*

Errenteriako adibide bat aipatzearren, herriko Bakearen aldeko Taldeak irizpide horiei berei jarraitzen zien. Adibidez, 1991ko maiatzaren 30ean, Gamon Zumardian elkartu zen ETa Vic-eko Guardia Zibilaren kuartel-etxearen aurka egindako atentatua gaitzesteko. Atentatuan, hamar pertsona erail zituzten (horien artean, lau neska). Hurrengo egunean, Bakearen aldeko Koordinakundea pankartaren atzean jarri zen berriz, ETako kideetako bi Poliziak tirokatuta hil ondoren. Eta gauza bera egin zuen 2001eko uztailaren 25ean, Olaia Kastresana Landaberea, 22 urtekoa, Torreviejan manipulatzeko ari zen lehergailuak eztanda egitean hil zenean.

Bestalde, Manuela Carmenak, Jon Mirena Landak, Ramón Múgicak eta Juan M^a Uriartek azken iradokizun bat planteatu zioten Eusko Jaurlaritzari 2013ko ekaineko Euskal kasuan gertaturiko giza eskubideen urraketek buruzko oinarrizko txostena (1960-2013) izenekoan: “Nazioarteko estandarren arabera, sufrimendu guztiak ez dira giza eskubideen urraketatzat hartu behar”. Eta honako hau gaineratzen zuten: “Horrek ez du esan nahi aintzat hartu behar ez direnik, gizartea onbideratzeko ikuspegitik begiratuta. Bestalde, enpatia da humanismoaren eta zibilizatu izatearen funtsezko adierazgarria. Azkenaldiko gure historian mota horretako sufrimendu asko izan dugu”.

Eta honako datu hau ematen zuten: giza eskubideen urraketek biktimizez gain, “ez ahaztu beste 277 pertsona hil direla modu askotara, indarkeriarekin loturiko gertaera edo egoeretan: nor bere buruaz beste eginda, liskarretan, armak manipulatzeko, polizia-kidegoen artean ustekabeko tiroen ondorioz... Gertakari horiek ezin dira zentzu hertsian giza eskubideen urraketatzat hartu, baina, hala ere, gertaturikoaren memoria osatzen dute”.

Amaitzeko, “errealitate hori aztertu eta aintzat hartu behar da” zioten, baina giza eskubideen urraketek errealitatearekin konparatu gabe.

³⁷ Bakearen aldeko Koordinakundea: <http://www.gesto.org/es/movilizacion-social/gestos/>, 2015eko otsailean kontsultatua.

Memoria eta urraketak bereiztea

Atal honetan, errealitate horietako batzuk aipatu ditugu, ezagut daitezzen eta tokiko instantziek azter ditzaten, presarik gabe. Lehentasuna, berriz diogu, Errenterian izan diren giza eskubideen urraketari eman beharreko tratamendua da. Alabaina, zer egin behar da beste kasuistika horien kasuan? Ez al du merezi kasu horiek ezagutzea, horien inguruko jarrera bat izateko? Errenteriako gizartearen eta Udaleko talde politikoen arteko adostasunak finkatu beharko du gure historiaren gertaera horiei eman beharreko tratamendua, betiere kontuan izanik helburua ez dela liskarrerako arrazoi gehiago ematea, bizikidetzeta eta adiskidetzeta lortzea baizik.

9.1. HERIOTZA ERAGIN DUTEN INDARKERIA POLITIKOARI LOTUTAKO BESTE GERTAKARI BATZUK

• Barrikadetan eta kontroletan:

1984/05/09. **Miguel Garmendia Picasarri**, 41 urtekoa, Donostian bizi zen eta goizean goiz hil zen Kaputxinoetako jaitsieran, bere Ford-Scort autoak kamioi baten kontra jo ondoren. Kamioia bat-batean gelditu zen Quirogako ertzean barrikada bat zegoelako.

2006/03/10. **María Jesús Amigot Ochoa**. Guardia Zibilak Gaintxurizketan jarritako errepide-kontrol batean izan zen trafiko-istripu batean hil zen.

• Suizidioak:

1982/09/15. **Julián Carmona**. Polizia Nazionaleko sarjentua. Bere buruaz beste egin zuen ETAK aurreko egunean Perurenaren eta Landarbaso-Aitzpitarteren artean eraildako lau kideren gaubeilan.

1988/06/29. **Mikel Arrastia Agirre**, 28 urtekoa, Errenterian jaioa. Ereintza dantza-taldekoka eta igeriketako monitorea zen. Ustezko ETAKo kidea. Gaztaño auzoko etxe batetik amildu zen, Guardia Zibilak atxilotzeko asmoz bere etxea inguratu ondoren.

• Estatuko Segurtasun Indarrekin aurrez aurre izandako liskar batean:

1984/08/13. **Pablo Gude Pego**, 29 urtekoa, Errenterian jaioa. Komando Autonomoetako kidea. Lasarte-Orian hil zen, kalez jantzitako guardia zibil batzuek bere autoa geldiarazi zutenean.

• **Beren lehergailuekin hildakoak:**

1987/08/15. **Rafa Etxebeste Garmendia**. 28 urtekoa, Errenterian (Gipuzkoa) jaioa. ETAko kidea. Donostian auto batean jartzen ari zen lehergailuak eztanda egin zion. Maite Pérez Sever ere bertan hil zen.

2002/09/24. **Egoitz Gurrutxaga Gogorza**. 28 urtekoa, Errenterian (Gipuzkoa) jaioa. ETAko kidea. Lehergailu batek eztanda egin zion Basurton (Bilbo), auto baten barruan. Hodei Galarraga Irastorza ere bertan hil zen.

Aurreko koadroei kasu horiek gaineratuz gero, honako egoera hau izango genuke:

Herria	Bizitzeko eskubidearen urraketa	Kontraste eta ikerketa sakonagoa behar duten kasuak	Heriotza eragin duten indarkeria politikoari lotutako beste gertakari batzuk	Hildako pertsonak, guztira
Errenteria	28	3	7	38

9.2. ZAURITUAK

1988/04/25. **Mikel Blanco Laskibar**, “Txuri”. Errenteriako gaztea; kamioi baten atzealdeko gurpilek harrapatu zuten, Ertzaintzako bi moto-gidarik aginduta kamioilaria barrikada bat saihesteko ahaleginak egiten ari zenean. Ez zuen gaztea ikusi, eta Mikel Blancok hanka bat galdu zuen. Zainketa Intentsiboetako Unitatean egon zen maiatzaren 11ra arte. Handik lau urtera, gazteari 34 milioi pezeta ordaintzeko zigorra ezarri zioten kamioilariaren maniobra zuzendu zuen ertzainari.

1989/09/21. **Félix García Rivera**. Balaz zauritu zuten garai hartako Gipuzkoako gobernadore zibil José Ramón Goñi Tirapuren bizkartzainek Josean Cardosa postariaren hiletan. Pertsona batzuek gobernadoreari leporatu zioten gaztearen heriotza eta horregatik eraso egiten saiatu ziren. Bizkartzainek tiro egin zuten.

1990/09/19. 32 urteko **E.I.C.** gazteak bere motozikletarekin talka egin zuen barrikada baten kontra, Errenteriako La Papelera enpresaren ondoan. Barrikada Iruñean gertatutako Mikel Castilloren heriotzaren kontra protestatzeko zegoen jarrita.

9.3. IKUSTEN EZ DIREN, BAINA IZAN DIREN EDO DAUDEN SUFRIMENDUAK

Indarkeriak sufrimendu larriak eta sakonak eragiten ditu. Eguneroko bizitzako harreman eta egoera guztiak hartzen ditu eraginpean: harreman intimoak eta pertsonalak zein gizarte-harremanak eta erakunde-harremanak nahasten ditu. Indarkeriak bizitza desitxuratzen du, eta suak bezala dihardu; inguruan dagoen guztia suntsi dezake, erretzeko ezer utzi gabe³⁸.

Indarkeriak bizikidetzan, osasunean, ikasketetan, lanean, aldaketa emozionaletan, izaera pertsonalean eta gizarte- eta familia-harremanetan izan dituen ondorioak eta metatutako sufrimendu guztia –askotan beldur bihurtua– nekez kuantifika daitezke datu edo koadro estatistiko batzuetan, baina gogoratu egin behar dira:

- Ondorioak ikasketetan eta ikastetxeko beste haur batzuekiko harremanetan: zenbaitetan bazterketak, etiketak (“...-aren semea/alaba”, “zure aita da”), borrokaldiak eta abar.

Eta [Poliziak] hartutako paper batzuetan ikustea zure emaztearen atzetik segika ibili direla, zure emaztea jomuga dela... jartzen zaizu... Edota seme-alabek esaten didatenean ezin dutela Errenterian ikasi, kanpora joan behar dutela, bestela norbaiti ostia bat eman eta akabatu egingo dutela. Edota nire semea Zumardira dantzara joatea eta ama hil egingo dutela entzun beharra. Edota nire semeak norbait lepotik heltzea amari hau edo bestea egingo diotela esaten ari zaiolako, eta ikastolatik irakasleek deitzea...

- Kargu politiko, polizia, kazetari, epaile eta abarren auzokoen etengabeko beldurra haien kontrako atentaturen batean zoritxarren bat izateko, ezkaratzean motxila edo poltsa susmagarriren bat aurkitzean izandako beldurra, edota molotov koktelen edo lehergailuen bidezko atentatuen jomuga izan litekeen banku-erakunde, alderdi politikoren baten egoitza edota postabulego baten gainean bizitzeagatik izandako beldurra. Adibidez, 2002/04/09an

³⁸ GALTUNG, Johan. Peace by Peaceful Means: Peace and Conflict, Development and Civilization. London: Sage.1996

sute bat eragin zuten Korta kaleko posta-bulegoan, eta, horren ondorioz, 10 pertsona artatu eta goiko lau solairuak hustu behar izan ziren sortutako keagatik.

Sekulako estutasunean bizi izan gara, eta auzokoek kalte handiak jasan dituzte istorio honetan. Jakina, garaje batean banago eta garajeen auto bat badut, auzokoek ere autoa dute garajeen. Motxila bat jartzen bazidaten edota egunen batean ezkaratzean motxilaren bat agertzen bazen, auzoko guztiak ikarak airean geratzen ziren.

Oraindik ere eztanda harekin egiten dut amets gau batzuetan.

- Pilotakada, ke-poto, borra-kolpe, harri edo beste objekturen batek jotzeko beldurra, manifestazioek eragindako izua, segurtasun-indarrek indarkeriaz husten zuten taberna batean egoteko izua, kale-borroakako ekintzek eragindako izua eta abar. Horren ondorioz, batzuk ez ziren ausartzen herritarren mobilizazioetara joatera, haserrea era baketsuan adieraztera edo familiarekin adieraztera (familia arriskuan ez jartzeko eta etiketa politikorik ez jasotzeko) edota leku jakin batzuetara joatera.

Ni urte askotan bizi izan nintzen Beraun auzoan. Gogoratzen naiz etxean geundela eta iskanbila entzun genuela. Terrazara irten nintzen, eta nigana apuntatu ondoren, ke-poto bat jaurti zidaten eta balkoian sartu zen. Berehala etxean sartu nintzen, hurrei ez nien irtetzen utzi eta pertsianak jaitsi genituen.

- Mespretxuak, tirabirak, irainak eta beldurra (leku jakin batzuetatik ibiltzeko, pertsona jakin batzuekin gurutzatzeko, kontramanifestazioetarako deialdien kasuan, Bakearen aldeko Taldearen Bakea behar dugu leloaren aurrean Euskal Herria askatu! leloa agertzean eta abar).

Erradikalek beste kontramanifestazio bat antolatzen zuten, gogorra, oso gogorra, hala nola Aldaya eta Iglesiasen bahiketak gertatu zirenean antolatzen zituztenak.

Kaletik gindoazela, zenbaitek, ahal izanez gero, tu egiten zizuten.

- Gizarte-harremanak, bizitza kolektiboa, auzolana, sentsibiltate desberdinen arteko zubiak eta abar kaltetuta geratu dira. Narriadura esanguratsua izan da.

Errenteriako bizikidetza apurtu egin da eta lubakia nabarmena izan da. Ezker abertzalea eta gainontzekoen arteko lubakia marraztu arterainokoa esango nuke. Ezker abertzalearekin nabarmenki lerrokatua egon naizenez, urteetan modu naturalean eraikia nuen sare soziala poliki-poliki urratu egin zen. Ikastolan, dantza taldean, euskara elkartean, kultur elkartean, aniztasunean buru belarri bizi arren, ezker abertzalearekin lerrokatu izanak, zubi lanak egiteko

aukerak mugatu, zaildu dizkit. Modu kontzientean izan ez arren, harremanetarako esparrua mugatzen joan da. Lagun arteko hainbat konplizitate apurto eta bizi espazioak murriztu. Begirada konplizeen unibertsoa kaltetu da batez ere.

- Etengabeko estres batean bizitzeak eragin handia izan du eremu pertsonalean, familiar, lanean, gizartean eta abar. Adibidez, laurogeita hamarreko hamarkadaren amaieraz geroztik Errenteriako Udaleko PPko zinegotzi izan zen María Ángeles Bastosen kasua aipa daiteke:

Politikan sartu zenetik, enplegu guztietatik bota dute. 54 urterekin, etxeak garbitzen lan egiten du, eta bere herritik kanpo bilatu behar izan du lana, laguntzaile gisa. Bizkartzainekin joan behar du garbitzen dituen etxe horietara. "Errenteriatik kanpo lan egiten dut, Errenterian ezin dut lan egin; inoiz lan bat eskaini didatenean, aitzakiaren bat bilatu behar izan dut lan hori ez egiteko. Kanpoan lan egiten dut eta inork ez daki nor naizen" (...). María Ángeles Bastos Errenteriako PP alderdiko bi zinegotzietako bat zen (bestea Lucía Peralta zen). Manuel Zamarreño erail zuten garaian erabaki zuen Bastosek bere herriko Udaleko zinegotzi izateko aurkeztea, eta, Zamarreñok bezalaxe, hainbat eraso jasan zituen; adibidez, autoa erre zioten eta pintadak egin zizkioten etxe aurrean³⁹.

- Bizkartzainak eraman beharrak aldatu eta baldintzatu egin du familia osoen bizitza, eta hautsi egin ditu familia-harremanak (banantzeak...), gizarte-harremanak (laneko eta auzokoen arteko jarrerak...), adiskidetasun-harremanak (kuadrilla bereiziak...) eta abar:

Gutako bakoitzaren atzean familia dago. Eta familiak nola bizi du hori? Ni orain ari naiz ikusten, poliki-poliki. Nire emazteak izan duen beldurra, nire seme-alabek jasan behar izan dituzten tontakeriak, nolabait deitzearren, garrantzia kentzeko. Bizkartzaina eraman behar izan dugun denboran... bizitza ordenatu samarra duzun pertsona bazara (lan egin, paseatu, emazteari erosketak egiten lagundu, zerbait hartzera irten eta normalean gaueko 12:00etarako etxean egon, alegia), ba tira, azkenean ohitu egiten zara. Nik, ordea, beti pentsatzen nuen: eta pertsona gazte bat? Nola garatzen du bere bizitza afektiboa? Adibidez, nola lortzen du neska-laguna edo mutil-laguna? Bakoitzak bere modura bizi izan dugu hori.

Eta gero zatiketa horren erakusle, udaleko zera izatea... zinegotzi izatea... neri ez zait tokatu baina... lagunak izan ditut eta orduan errebindikazioak eta protestak eta pertsonalizatu egiten ziren ezta? Banuen lehengusu bat barruan, zinegotzia, hura Euskadiko Ezkerretik atera zana, beste lagun bat PNVtik; bere etxepean kontzentrazioak... eta bueno, holakoetan esan daitezkeen guztiak... hau da, familiari mina nola emango edo... ez dakit; oso...

³⁹ M^a Ángeles Bastosen adierazpenak biltzen dituen COPEko irrati-programa, 2011ko maiatzaren 20koa, *El Mapa del Olvido* izenekoan jaso: <https://mapadelolvido.wordpress.com/category/renteria/>

Gogoratzen dudana da kezka sortzen zitzaidala “ezin naiz joan”, “ezin naiz beti ordu berean irten” esaten zuen jendea ikustean. Orduan, kezka izaten nuen, eta esaten nuen: jainko maitea, baina non gaude? Zer da hau? Indarkeria-kiribil hura alderdirik pertsonal eta intimoenetara iristen zen. Harreman pertsonalengatik nigandik hurbil zegoen jendeak “Ni ezin naiz joan, edo bizkartzainarekin joan behar dut, edota ezin naiz hurbildu zu hurbiltzen zaren leku horietara” planteatzen badizu... hori gaizki eramaten nuen, jende horrekin nuen harreman pertsonalarengatik.

- Atxiloteta inkomunikatua aplikatu zitzaaien pertsonen senideek eta hurbilekoek tortura-arriskuagatik eta atxilotua non zegoen ez jakiteagatik izan zuten pairamena.

Eta jakiten zenuenean lagunen bat atxilotu zutela, berehala sentitzen zenuen horrelako kezka eta beldur bat, ezin zenuen burutik kendu: zer egingo ote dioten komisaldegian...

- Etxetik milaka kilometrora preso dagoen pertsona baten senidea izatea mendekua bilatzen duen zigor erantsi antzeko bat jasatea da; milaka pertsonaren familia-bizitza, gizarte-bizitza eta lan-bizitza baldintzatzen du, gastu ekonomiko handia sortzen du, eta trafiko-istripu ugari eragiten ditu (hamasei senide eta adiskide hil dira).

Hain dramatikoak ez diren, baina eguneroko bizitzan oso garrantzitsuak diren gertaerak: ostiraletako kontzentrazioetan, adibidez, benetan sufrimendu hori dutela ikusten duzu. Edota norbait atxilotzen dutenean eta ezer egin ez duela dakizunean, edo, tira, horretaz sinetsita zaudenean. Bai, gauza horiek baldintzatu egiten dute.

Euskal presoen egoera eta beraien eskubideen errespetua. Urgentea da gaixo dauden presoak kaleratzea eta preso guztiak Euskal Herriratzea.

- Jende askorentzat, bakardadea eta babesgabezia jazarpen-egoerari erantsitako kalteak izan dira.

Askotan oso zaila izan da bakardadea eramatea. Herri honetan, askotan oso zaila izan da isiltasun nabarmenak eramatea. Izan ere, beldur handia zegoen, oso handia. Eta gaur egun desagertzen ari da, jakina, baina oraindik bada beldur dena.

10. HERRIKO INDARKERIAREN HISTORIAN IZAN DIREN GERTAERA AZPIMARRAGARRIAK

Ez dugu garrantziaren arabera, handitik txikira sailkatutako zerrenda bat eman nahi. Hemen bilduta dauden gertaerak ordena kronologikoan sailkatuta daude, gertatu ziren urtearen arabera. Gertaera horiek aukeratzeko, elkarrizketatutako pertsonen oroitzapenetan oinarritu gara.

Hona hemen hamahiru gertaerak, kronologikoki:

1.


Amnistiaren aldeko Astea eta Sanferminak 1977 eta 1978

Bi gertaera horiek oso inpaktu handia izan zuten Erreterian. 1977ko maiatzaren 12tik 16ra bitarte deitutako amnistiaren aldeko astean, zazpi pertsona hil ziren: hiru Erreterian, bi Iruñean, bat Ortuellan eta beste bat Bilbon. Horietako bost Polizia Armatuaren edo Guardia Zibilaren tiroek jota hil ziren. Bi kidego horiek hamar pertsona zauritu zituzten balaz Erreterian, eta horietako bi hil egin ziren. Horiei, nolahi ere, Iruñean hil zen eta Beraunen erroldatuta zegoen pertsona bat gaineratu behar zaie. Hilaren 16an auzo horretan egindako hiletatik irtetean, ke-poto batek sudurraren goialdean eman zion 17 urteko gazte bati, eta larriki zaurituta geratu zen. 1977/05/13ko El País egunkariak honako hau zioen Erreteriarri buruz: hilaren 12an, “Guardia Zibilak behealdera egin zuen tiro, geroago zaurituen egoera ikusita egiaztatu ahal izan zenez”.

1978ko uztaileko Sanferminetan, bi pertsona hil ziren Poliziak tiro eginda: bata Iruñean, 22 urtekoa, eta bestea Donostian, 19 urtekoa. Erreterian, poliziaren neurritz kanpoko erantzuna izan zuten protestek. Bi herritar zauritu zituzten balaz, eta uztailearen 13an “Polizia Armatuaren unitate batek Erreteriarri erasotzen dio”, Pedro Picaveak Erreteriarriko historia liburuan dioenez. El País egunkariak honako titulu hau eman zion albisteari: “Polizia Armatuaren unitate baten jardun basatia”. Suntsiketa ugari egin zituzten, inolako arrazoirik gabe, ibilgailu, erakusleho, leiho, trafikoko-seinale, kale-argi, eserleku, paperontzi, ezkaratz eta atezain automatikoetan. Gainera, hautsitako erakusleho batzuetako objektuak eta gaiak eraman zituzten. Ehun salaketa baino gehiago jaso ziren Udaletxean.

“Zirrara handia eragin zidan grisen –garai hartan horrela deitzen genien– jardun pare batek... horrek zirrara handia eragin zidan.

1977ko amnistiaren aldeko astea eta hildako herritarren gorpuak. Ihesean ibili ondoren herriko etxe batean babestu ninduten. Etxeko familiak Poliziari nola egin zion aurre dut gogoan.



96 • OREKETA. Hiri bozketari baten historia, 1976-1983.

Argazkia: Luis Mari. Punto y Hora, 1978/07/20-26, 28. or.

“[Errenteria] Diktaduraren kontrako langile-borrokaren sinbolo izan zen frankismoaren amaieran”, eta “Trantsizioaren hasieran, liskar bortitzak izan ziren manifestarien eta oraindik demokraziara egokitu gabeko segurtasun-indarren artean. **1978ko uztailean establezimendu bat arpilatzen ari ziren polizia uniformedun batzuen irudia mundu osoan zabaldu zen**” (Luis R. Aizpeolea. *El País*, 2013/02/09).

Iturria: *El País* egunkaria, 1978/07/21. Egunkariaren titularra: “Poliziak 121 beira hautsi zituen Errenterian”. http://elpais.com/diario/1978/07/21/espana/269820026_850215.html

2.

Bonbak Udaletxearen kontra

1979

1979ko uztailaren 19an, goizean goiz, Udaletxeko bigarren solairua, behe-solairuko leiho batzuk eta udal-ikuskaritzarako antzinako sarbidea suntsitu zituen Grupos Armados Españoles (GAE) taldearen bonba batek. Udaletxearen aldameneko zenbait etxebizitzak ere kalteak izan zituzten. Ordurako, lau hilabete ziren hiribilduko alkatetza Herri Batasunaren esku zegoela. Goizeko hiruretan, beste lehergailu batek egin zuen eztanda Hernaniko Udaletxean. Handik egun batzuetara, gauza bera gertatu zen Lezon, Bedian, Elgetan, Lemoan...

Urte hartako azaroaren 24an, GAE taldeak beste lehergailu bat jarri zuen Errenteriako Udaletxean, eraikina zaintzen ari ziren bi udaltzaini herio-mehatxua egin ondoren. Kalteak eraikinaren lehen solairuan eta Udaltzaingoaren bulegoetan eragin zituen lehergailuak.

Handik aurrera, bonba- atentaturik egin ez bada ere, askotan jaurti dira molotov koktelak, harriak edo pintura Udaletxearen kontra, askotariko protestak zirela-eta. Gainera, bonba-abisuak eta irtenarazteak ugariak izan dira, eta askotan manifestariak sartu izan dira. 1979ko udal osoko bilkura batean, adibidez, manifestariak agertu ziren, eta, atzetik, poliziak. Halaber, tentsio handiko udal osoko bilkurak izan dira laurogeiko hamarkadaren amaieran eta laurogeita hamarreko hamarkadan (1997/02/13ko udal osoko bilkuran batez ere), PSE-PSOeko alkateen eta PSE, PNV eta PPko zinegotzien aurkako irainak, objektuen jaurtiketak eta beste eraso batzuk izan zirenean.

Une latzak osoko bilkuran, ezker abertzaleak PPko zinegotziei egindako mehatxuak ("Tú esto no lo vas a contar" (Zureak egin du)). Beste alderdi bateko pertsona bati egiten badiote ere, zure kidea da, eta osoko bilkuran iritzia emateagatik egitea... gogorra da. Eta osoko bilkuratik "konejeretan" irten behar izan dugunean, PSEko alkate batek kargua hartzean (nire botorik gabe, gainera). Gogoan dut eskoltarekin irten behar izan genuela; Udaletxe barruraino sartu zituzten "konejerak", eta horrela irten ginen.



3.

Francis: tiro bat buruan

1979

Guardia zibil batek Tuterako kontzentrazio antinuklear batean Gladys del Estal Ferreño, 23 urteko ekologista tiroz hil eta astebetera, 1979ko ekainaren 10ean, beste heriotza bat izan zen Erreterian. Kalez jantzitako polizia batek pistolarekin tiro egin zion 32 urteko Vicente Vadillo Santamaría ("Francis") trabestiari, herriko Apolo dantzalekuan. Tarte horretan, ETA militarrek bi atentatu egin zituen Bergaran eta Donostian, eta Luis Berasategui Mendizabal eta Andrés Antonio Varela Rúa hil ziren, hurrenez hurren.

Apolo dantzalekuan zeuden lekuko arabera, biktima -Jaenen jaioa- euskaldunen izen onaren alde agertu zen erasotzailea euskaldunak iraintzen eta "euskaldunen bat" hiltzeko mehatxuka hasi zenean. Dirudienez, polizia probaldian zegoen Erreterian. Hilketaren kontrako protesta berehalakoa izan zen.



Argazkia: *Egin*, 1979/07/13.

Hurrengo egunean, protestak areagotu egin ziren. Herrira iritsitako FOPEko talde handi batek istiluen aurkako material kantitate handiarekin desegin zuen gaitzespena adierazteko manifestazio bat. Asanblada, egungo Herriko Enparantzan egiten ari zena, gogor zapaldu zuen poliziak. Asanbladan zeuden batzuen atzetik joan ziren gomazko pilotak eta ke-potoak jaurtiz, eta Udaletxean ere sartu ziren, Vicente Vadilloren hilketari buruzko udal osoko bilkura egiten ari zen unean. Zinegotziek erasoaz babestu behar izan zuten, baina horietako hiru jo egin zituzten bitarteko-lanak egiten saiatzean. Gau beranduan, eta "elkarren arteko adostasunez", gertakari horiek gaitzesteko greba orokorrerako deialdia egitea erabaki zuten eta erantzukizunak eta gobernadore zibilaren eta barne-ministroaren dimisioa eskatu zituzten. Ezohiko udal osoko bilkurak, halaber, aho batez gaitzetsi zuen beste hilketa hori, eta familiari gorpua jaioterrira eramateko laguntza ematea erabaki zuen.

Ekainaren 12an, lanuztea orokorra izan zen herrian. Milaka lagunek hartu zuten parte asanbladan eta herriko kaleetan zehar egindako manifestazioan. Orduan hartu zuten parte asanbladan, lehen aldiz, Euskal Herriko Gay Askapen Mugimenduko (EHGAM) kideek kolektibo gisa, eta sexu- eta adierazpen-askatasunerako eskubidea aldarrikatu zuten. Halaber, Francis hil zuten Apolo dantzalekuko langileek eta biktimaren aitak hartu zuten parte. Azken horrek publikoki eskertu zituen semearekiko maitasun-adierazpenak.

Donostian, EHGAMeko kideak publikoki agertu ziren pankarta batekin, eta azalpenak eman zituzten megafonoz.

Iturriak:

1979/06/11ko eta hurrengo egunetako komunikabideak.

HIKA, 2010eko ekaina, 24. or.

IRIARTE "Bikila", Joxe eta Luis Elberdin. *Orereta, herri borrokalari baten historia (1976-1983)*, autoedizioa, 1996, 11. eta 213. or.

4.

Emakume gazteen bortxaketak

1979 eta 1980

Sexu-eraso horiek Irunen eta Donostiaren artean gertatu ziren, sei hilabeteko aldi batean (1979ko azaroaren 16tik 1980ko maiatzaren 8ra bitarte). Eraso horiek emakumeen aurkako ohiko indarkeria patriarkaletik bereizten dituen ezaugarri nagusia *modus operandia* da: 1. Aldi jakin batean gertatu ziren, eta ez zen halako besterik izan ondorengo urteetan. 2. Eremu geografikoa gatazka politiko handikoa zen, eta zigortu egin nahi zen. 3. Bi edo hiru erasotzaile izaten ziren aldi bakoitzean. 4. Arma laburrak eramaten zituzten. 5. Ibilgailuak erabiltzen zituzten, biktimak bahitzeko eta babesik gabeko lekuetara eramateko. 6. Bere edo guraso eta lagunaren ideologia politikoari buruzko galdeketa egiten zioten biktimari eta/edo harekin zegoenari. 7. Inpunitate osoz ziharduten: leku publikoetan, aurpegia eta ibilgailua estali gabe eta lasai, legeak konturik eskatuko ez ziela jakinik. 8. Aukeratutako biktimak 14-19 urteko gazteak izan ziren. 9. Eraso bakoitza amaitzean, euskal emakumeen aurkako bortxaketa gehiago iragartzen zituzten. 10. Ekintzak Grupos Armados Españoles (GAE) taldeak hartzen zituen bere gain batzuetan, eta Batallón Vasco Español (BVE) taldeak besteetan.

Irunen eta Donostiaren artean gertatutako kasuak Izena eta adina	Eraso mota	Erreibindikazioa eta egoera judiziala	Erasoaren lekua eta eguna
M.A., 16 urte	Bahiketa, bortxaketa eta galdeketa	Grupos Armados Españoles (GAE)	Errenteria, 1979/11/16
Maite Cerezo Cuadrado, 14 urte	Bahiketa eta sexu-bortxaketa	Bortxaketa gehiago iragarri zituzten. Zigorrik gabe	Errenteria, 1979/12/15
19 urteko emakumea	Bahiketa eta bortxaketa	Zigorrik gabe	Irun, 1980/01/04
18 urteko emakumea	Bahiketa, bortxaketa, eta mutil-lagunari galdeketa	Zigorrik gabe	Errenteria, 1980/01/13
18 urteko emakumea	Bahiketa	GAE. Zigorrik gabe	Pasaia, 1980/01/13
Mari Jose Bravo del Valle, 16 urte	Bortxaketa eta erailketa. Laguna jipoitu zuten	BVE. Zigorrik gabe	Loiola (Donostia), 1980/05/08

Iturria: Violencia de motivación política contra las mujeres en el caso vasco, Argituz, 2015.

Errenteriako hiru kasuak:

- 1979/11/16. 16 urteko emakumea. Bikotekidearekin zegoen Sorginzulo auzoan. Bat-batean, bi pertsona armatuk miatu eta nortasun-agiria eskatu zieten. Emakumeak nortasun-agiririk ez zuela-eta, SEAT 850 urdin batean eraman zuten Lezoko kairaino. Bertan lotu egin zuten, ETari eta bere eta familiaren ideologia politikoari buruzko galdeketa egin zioten, eta biek bortxatu zuten. Grupos Armados Españoles (GAE) taldeak bortxaketa hori eta beste batzuk hartu zituen bere gain, 1980ko urtarrilaren 15ean bidalitako komunikatu batean.
- 1979/12/15. 14 urteko emakumea. Ez zen bereziki ezaguna herrian. Gaueko lehen orduetan, herriaren inguruko eremu batera eraman eta bortxatu egin zuten bi gizon armatuk. Erasotzaileek antzeko ekintzak iragarri zituzten. 1979ko abenduaren 22an, Udalaren batzorde ofizial bat, Errenteriako Emakume Taldea eta gaztearen senideak gobernadorearekin bildu ziren, eta bortxatzaileak “poliziak edo talde parapolizialeko kideak” zirela uste zutela adierazi zioten.
- 1980/01/13. 18 urteko emakumea. Errenteriako Renferen geltokiaren ondoan zegoen mutil-lagunarekin, mutilaren automobilaren barruan; bat-batean, bi pertsona armatu inguratu, eta neska Seat 128 batean sartzera behartu zuten. Hirugarren batek mutilarekin jarraitu zuen, eta haren eta gurasoen jardueri buruzko galderak egin zizkion. Beste biek, bitartean, neska Oiartzunera eraman, eta bertan biluztu eta bortxatu egin zuten.

Iturria: Motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketen biktimak. Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritza, 2008ko ekaina, 482.-484. or.



Argazkia: Bikila/Elberdin. *Orereta (1976-1983)*, 96. or.

Emakumeen Taldeak, Udalak, CCOO sindikatuaren Emakumeen Idazkaritzak eta beste 30 erakunde eta elkarte bano gehiagok (Agustinak, Galtzaraborda, Kaputxinoak, Alaberga eta Gaztañoko Auzo Elkarteak tartean), 1980ko urtarrilaren 17an greba orokorra egiteko deialdia sinatu zuten, “eraso hauen ugalketaren” aurrean protestatzeko.

Uste dut Alabergako neska bat izan zela lehena, oso gaztea gainera. Eta gogoratzen dudana da dokumentazioa eskatu ziotela, mutil-lagunarekin zegoela eta neskak dokumentaziorik ez zuela-eta, eraman egin zutela eta Lezoko kaian bortxatu zutela. Gero antzeko kasu bat gertatu zen. Uste dut Ondartxo inguruan beste bat izan zela. Ondoren, besteren bat Ugarritza auzoan, Renfe inguruan. Eta besteren bat Platako Itsasargian. Eta ez dakit Lezoko kaian beste bat edo bi gehiago izan ez ote ziren. Ez naiz zehatz-mehatz gogoratzen, baina denek antzeko ezaugarriak zituzten. Eta Lezoko kaian, ez dakit orain kontua nola dagoen, baina lehen ez zen edonor sartzan. Pistolak zeudela, pistolekin apuntatzen zituztela, gauzak galdetzen zizkietela. (...) Nik, hasieran, sinetsi ere ezin nuen egin, ezinezkoa zela esaten nuen.

Baina familiekin eta beraiekin hitz egiten genuenean, egia da ezaugarri horiek guztietan agertzen zirela. Eta kasuak zabaldu zirenean, garbi zirudien emakumeak gerrako arma gisa erabili nahi zituztela. Zigortzeko bortxaketak izan ziren, eta, zehazki, Errenteriako biztanleria zigortzeko.

5.

Alberto Muñagorri haurra bonba batez larriki zauritua

1982

ETAk Iberduero (egungo Iberdrola) enpresaren kontra jarritako bonba batek larriki zaurituta utzi zuen Alberto Muñagorri Berdasco haurra, 10 urtekoa, 1982ko ekainaren 26an. Bonba poltsa baten barruan zegoen, eta eztanda egin zuen mutilak ostiko bat eman zionean, amonaren etxera zihoala. Ezkerreko hanka galdu zuen, eta lesio larriki izan zituen bi begietan, aurpegian, toraxean eta sabelaldean. Egoera larrian eraman zuten Donostiako Gurutze Gorrira. Dirudienez, bonbak ez zuen aurreikusitako orduan eztanda egin hilaren 25eko gauean, eta kalean geratu zen, Iberduero enpresaren biltegiaren ondoan.

Udalak ikerketa-batzorde bat eratu zuen gertatutakoari lotutako erantzukizunak argitzeko, baina errudun nagusiei, hots, lehegailua jarri zutenei erantzukizunik kendu gabe, inondik ere. Dirudienez, lehegailua hamabi ordu lehenagotik lokalizatuta zegoen, eta leku berean jarraitzen zuen harrez geroztik. Udaltzaingoak, Polizia Nazionalak eta Iberdueroko langileren batek bazuten poltsa susmagarriaren berri (enpresa sabotaje ugariren xede izan zen garai hartan). Udaltzaingoak poltsa manipulatu ere egin zuen, Polizia Nazionala iristen zen bitartean, eta ura jaurti zuen gainera. Ez zen ezer gertatu, eta alarma faltsua izango zela ondorioztatu zuten udaltzainek. Ondoren, lekua ez zen hesiz inguratuta utzi, eta zegoen lekuan geratu zen poltsa. Polizia nazionalak, bestalde, “ez ziren etorri zer izan zitekeen ikustera” (Efemérides renterianas). Auzitegi Gorenaren 1989ko urtarrilaren 24ko epai bati jarraiki, Alberto Muñagorrik kalte-ordaina jaso behar zuen Estatuaren erantzukizunagatik. Izan ere, “polizia-zerbitzuek ez zituzten zirkunstantzien arabera kautelazko neurriak hartu”, bertan ez baitzuten jardun “Estatuko Poliziaren desaktibazio-zerbitzuek, eskaera behin eta berriz egin bazen ere”.

Leherketa gertatu eta urtebetera 1983/07/03ko El País egunkariak zioenaren arabera, Alberto Muñagorrik metrailaren arrastoak zituen oraindik aurpegian, betazalen azpian, eta erabat orbaintzen ez zitzaion zauri bat izterrean. Handik zazpi urtera, honela deskribatzen zuen 1989/01/26ko El País egunkariak: Albertori oin ortopediko bat jarri zioten, barrabil bat eta eskuineko begia galdu zituen, eta ikusmena ere galdu zuen ezkerreko begian. Gainera, hainbat orbain geratu zitzaizkion gorputzean, eta lau ebakuntza kirurgiko egin zizkioten gutxienez. Baina oso sentibera da eta ez du gorrotorik agertzen.



Argazkia: ABC Hemeroteca, 2001/02/23

Gogoan dut eskolara itzuli zen unea. Oso zirrara garria izan zen niretzat, ikastetxera itzuli zelako, baina makuluekin. Nik ez nuen ikasgelan. Niretzat, zirrara izan zen, lehenik eta behin, albistea, eta motxila bat, bonba bat zegoela, eta ostiko bat eman ziola eta eztanda egin ziola... eta, gero, gogoan dudana da eskolara itzuli zen unea, gurasoekin eta makuluekin. Denok irten ginen agurtzera. Baina zirrara handia eragin zidan mutila han ikusteak, makuluekin, berriz ere eskolara itzultzen zela...

6.

Imanol Aizkorretaren eta Agustín Zelihuetaren bahiketak **1983, 1985 eta 1987**

1983ko martxoaren 16an, Imanol Aizkorreta Zabala, Zamalbideko Lanbide Eskolako 29 urteko irakaslea bahitu zuten zazpi gizon armatuk, egun argiz. Ibilgailu batean sartu, eta liho-fabrikaren ondoan zegoen eremu basotsu eta isolatu batera eraman zuten. Bertan, bere jardueri, ideologiari eta adiskideei buruz galdetu zioten, “poltsarekin” torturatu zuten, eta konortea galdu arte jo zuten. Bere eta pertsona maiteen kontrako mehatxu eta larderia ugariren artean, gertatutakoa salatuz gero tiro egingo ziotela esan zioten. Bost ordutan galdetu eta torturatu ondoren, utzi egin zuten.

Familiak salaketa aurkeztu zuen handik bi egunera, eta Errenteriako Udalak bahiketa “Argentina eta El Salvadorko metodoak gogorarazten dituen gertaera” zela adierazi zuen.

Tamalez, antzeko gertaera ugari izan ziren urte horietan. Hiru hilabete lehenago, 1982ko abenduaren 21ean, Euskal Herriko Gay Askapen Mugimenduko (EHGAM) kide Santi Vicente Altxu (‘La Madelon’) bi ordutan eduki zuten bahituta. Zamalbide auzora eraman zuten, eta, bertan, jo egin zuten eta gorputza kristal batez markatu zioten, preso ohi bati buruz galdetzen zioten bitartean. 1981. urtean, Maite Lasa Mitxelena ikastolako irakaslea bahitzen saiatu ziren. Ez zuten lortu, baina gogor jo zuten. Lortu zuten, ordea, Xabier Lorenzo Huizi, 1984ko maiatzaren 3an, eta Juan Fernando Rico bahitzea, 1986ko otsailaren 23an. Datuak biltzea zen beti helburua.

Garrantzitsua izan zen, halaber, Udalean HBko zinegotzia zen Agustín Zelihueta Almazani egindako jazarpena, lau aldiz egin baitzioten eraso, 1985ean eta 1987an. Azken bi aldietan, bahitu egin zuten, ezker abertzaleko jendeari buruzko galdeketa egin zioten, eta torturatu egin zuten: besoa eta hatz batzuk hautsi, azidoarekin eta zigarroekin erre, eta “bainera” egin zioten Oiartzun inguruko erreka batean. Beste batean, bala bat zeukan gutun bat jaso zuen.



**Agustín
Celihueta**

Argazkia: “Euskadi 1997”. *Egin Urtekaria*, 120. or.

Iturriak: Imanol Aizkorretaren testigantza (zuzenean jasoa), eta *El País*, 1985/07/31 eta 1987/05/14.

7.

“Banderen gerra” izenekoaren hasiera 1983ko Madalenak bertan behera

Hona hemen Rafa Bandrésék Efemérides renterianas izenekoan kontatu zuena:

1983ko uztailaren 23a: “Arratsaldeko zazpiak baino ordu-laurden lehenago, kalez jantzitako polizia batzuk (ohi bezala Herriko Enparantzara Madalenen hasiera ikustera joan zen jendeak ordu batzuk lehenagotik ezagutu zituenak) jendeari aurre egiten hasi ziren, eta bataila izugarria sortu zen; jende asko zauritu zen, eta batitsu geratu zen. FOPEko indarrak agertu ziren, eta Herriko Enparantza polizia uniformedunek eta kalez jantzitakoek hartu zuten. Une horretan, PSOEko alkateak eta 6 zinegotzik suzuria jaurti eta bandera nazionala, ikurrina eta herriko armarrria jarri zuten. Arratsaldeko 8ak ziren. Elkarateak bildu eta ekitaldi guztiak bertan behera utzi zituzten Jai Batzordeko presidentearekin. Jaiak salbatzeko ahaleginak ere egin ziren gobernadorearekin, baina alferrik. Egunero izan ziren korrikaldiak, istiluak eta polizia talde handiak Udaletxe barruan, Espainiako bandera babesteko”.

1983ko uztailaren 31: “Espainiako 14 hiriburuko alkateak (Madril, Bartzelona, Malaga eta Zaragozakoak tartean) Oiartzungo Lintzirin hotelean bildu ziren Euskadiko hemezortzi udalerritako alkateekin, Errenteriako alkate José M^a Gurruchagari elkartasuna eta babes adierazteko. Kaleratu zuten komunikatu batean ziotenez, ‘Konstituzioa errespetatu’ beharra dago ‘legezkotasun demokratikoa’ lortzeko.

1983ko abuztuaren 3a: “HB, EAJ eta EEko zinegotziek eskatuta, eta epea amaitu ondoren, alkateak ezohiko osoko bilkurarako deialdia egin zuen, gai bakarrarekin: zentsura-mozioa eta alkatearen dimisioa, zapuztutako Madalenetako gertaeren ondorioz. Osoko Bilkura ezin izan zen amaitu guztion bozketarekin, HB, EAJ eta EEko zinegotziek alde egin baitzuten hiribilduan polizia zegoela-eta. Bilkura PSOEko zinegotziek baino ez zuten egin, eta baztertu egin zuten zentsura-mozioa eta alkatearen dimisioa. Kanean, jende ugari oihuka hasi zen bilkura-aretoan zeudenen aurka. PSOEko kideak ziren, eta, horien artean, Eusko Legebiltzarreko presidenteorde José Antonio Maturana sozialistak harrikada bat jaso zuen kopetan, kaletik harriak jaurtitzen hasi baitziren bilkura-aretora”.

Ez da ahaztu behar ‘banderen gerra’ ospetsuak liskar ikaragarria eragin zuela zinegotzi izan nintzen lehen Madalenetan.

1983an, Gurrutxaga alkate genuela bere lehen herriko jaietan eskuindarrak erakutsitako kateak eta eragindako zaurituak. “La guerra de las banderas”. Une horietan Ereintza Dantza taldearen auto-finantziazioa lortzeko tabernaren irekiera prestatzen ari ginen. Lagun zaurituak, odoletan gerturatu zitzaizkigun.



Argazkia: Egin, 1983/07/22.

Zaurituen balantzea aste osoan: 178 lagun; horietako 29 ospitaleratu egin zituzten. Polizien artean, hamar bat zauritu izan ziren.

8.

Vicente Gajateren erailketa, 1984



Argazkia: libertadigital.com/in-memoriain

Vicente Gajate Martín, 34 urtekoa eta hiru seme-alabaren aita, 1984ko urriaren 17an erail zuen ETAk, herriko San Markos kalean. Beraunen bizi zen, udaltzaina zen, eta udal-gestora iragankorreko zinegotzi izan zen 1979an. PSE-PSOE alderdiko eta UGT sindikatuko kidea zen.

Egun horretan bertan egindako Ezohiko Udal Osoko Bilkuran, atentatua gaitzetsi eta udal-kondekorazio bat eman zitzaion hildakoari, egindako lanagatik. Halaber, herrian dolueguna ezartzea erabaki zuen gehiengoak. Tentsioak, ordea, eztanda egin zuen hainbat lekutatik iritsitako PSE-PSOeko eta UGTko afiliatu ugarirengan, Herri Batasunako lau zinegotziak abstenitu zirenean. Irainak ("fascistas" -faxistak-, "asesinos" -hiltzaileak-, "pistoleros" -pistoladunak-) eta oihiak zuzendu zizkieten HBko kideei. Libertad Digital eta El País egunkariek kontatu zutenenez, "urriaren 17ko gauean, ostegunarekin, ETA eta Herri Batasuna bera iraindu, mehatxatu eta desafiatu egin zituzten, ordura arte Erreterian inoiz gertatu ez zen moduan". Udal osoko bilkutatik irtetean, txanponak jaurti zizkieten HBko zinegotziei.

Kalkulatutakoaren arabera, 4.000 lagun izan ziren atentatua gaitzesteko manifestazioan (In memoriam), eta eslogan gogorrak oihukatu ziren ETA eta HBren aurka: "HB asesina" (HB hiltzailea), "¿Dónde están no se ven los asesinos de HB?" (non daude, ez dira HBko hiltzaileak ikusten)... Zenbait eraso egin ziren Herri Batasunako kide eta jarraitzaileen establezimenduen aurka. Adibidez, gozo-denda bateko kristalak apurtu eta jabea astindu zuten, eta, goizean goiz, ezezagun batzuek Landare elkartearen metrailatu eta su eman zioten.

Odón Elorzak, Gipuzkako PSE-PSOeko udal-politikako arduraduna garai hartan, honako hau adierazi zuen Erreterian: "Hilketa hau UGTren, alderdi sozialistaren, Erreterian Udalaren eta erakunde demokratiko horren funtzionamenduaren aurkako probokazio nabarmena da" (Libertad Digital). Biktimaren kide ziren udaltzainek grebarako deialdia egin zuten.

Zinegotzia izan nintzen garaian, ETAk hainbat pertsona erail zituen; tartean, udal-langile bat, Vicente Gajate. Gezurra badirudi ere, inoiz ez nuen hildakorik ikusi fisikoki. Eta orduan tokatu egin zitzaidan. José María Gurruchaga alkateak barne-

erregimeneko eta Udaltzaingoko arduradun izendatu berri ninduen, besteak beste. Han egon behar izan nuen. [Gajate] ni orduan bizi nintzen lekutik oso hurbil bizi zen, Beraun auzoan.

Vicenteren gurasoak, **Felicidad Martín Gómez** eta **Andrés Gajate Castaño**, Galtzaraborda auzokoak, depresio-bide batean sartu ziren semea galtzean, eta bizitzeko gogoia galdu zuten. Aita 1999ko otsailaren 15ean hil zen, eta ama egun berean, 2002an. Vicente galdu izanagatik sentitzen zuten nahigabea eta bakardadea zela-eta, beren buruaz beste egin zutela adierazi zuten zenbait komunikabidek (*El País* 2012/09/10).

9.

Josean Cardosa postaria, bonba-gutun batek hila

1989

1989ko irailaren 20ko 14:25ean, **José Antonio Cardosa Morales**, 22 urteko postaria, Ildefonso Salazarren bizilekuko gutunontzian hari zuzendutako gutun bat sartzera zihoan, Juan Olazabal kalean. Salazar Herri Batasunako kidea zen; bost aldiz atxilotu zuten aurretik, eta urtebeteko espetxe-zigorra bete zuen ETari lagundu izana leporatuta. Atxiloteta batean jasandako torturen salaketaren ondorioz, guardia zibil bat zigortu zuten.

Gutunak bonba bat zuen, eta orduantxe egin zuen eztanda; postari gaztea hilda geratu zen. Josean Cardosa Kakitzat kolektibo antimilitaristako kidea zen, eta Zintzilik Irrati librean parte hartzen zuen. Postari gisa egiten zuen lan, behin-behineko lan-kontratu batekin.



Argazkia: In Memoriam pro Pax

Heriotza horren aurka protestatzeko, EAEko eta Nafarroako Correoseko langileek geldialdia egin zuten irailaren 21ean. Errenterian, berriz, greba orokorrerako deialdia egin zen hilaren 22an.

1996ko maiatzaren 5ean, Guardia Zibileko zuzendari ohi Luis Roldán Ibáñezek Barne Ministerioari leporatu zion publikoki militante abertzaleei bonba-gutunak bidali izana. Cardosari gertatutakoaren ondoren, gutxienez hiru bonba-gutun atzeman zituzten postaz-zerbitzuan (Iñigo Iruin abokatuari eta Azpeitiko zinegotziei zuzendutakoak). Eusko Jaurlaritzaren Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren txostenean, “eskuin muturreko taldeek edo inkontrolatuek hildako” gisa agertzen da. Covite erakundeak, berriz, heriotza GAL taldeari leporatzen dio zuzenean Terrorearen Mapan.

Hiletak hurrengo egunean egin ziren, eta istilu larriak izan ziren pertsona talde bat José Ramón Goñi Tirapu gobernadore zibilarengana hurbildu (agiraka egiteko asmoz, atentatuaren atzean Estatua zegoelakoan) eta bizkartzainekin liskarrean hasi zenean. Félix García Rivera, Trintxerpekoa, balaz zaurituta geratu zen bizkartzain batek tiro egin ondoren (Efemérides renterianas). Zaurituarekin batera, bost pertsona auzipetu zituzten eraso-ahaleginagatik.

[Josean Cardoso] Ikasle izan nuen eta Correosen lan egiten zuen. Lanean ari zela (paketeak eta gutunak banatzen), pakete batek eztanda egin eta hil egin zen. Kasua zigorrik gabe dago oraindik, ez dakigu nork jarri zuen bomba madarikatua. Oraindik gogoratzen naiz hartaz, askotan.

Nik gurasoak ezagutzen nituen, harreman handi samarra neukan gurasoekin. Eta emakume gajoak burua galdu zuen. Vicente Gajateren amak bezala, burua galdu zuen. Ba al du zentzurik horrek? Ez dut gogoan nori zuzenduta zegoen bomba-gutuna, ez dakit noren kontra, baina Correoseko langile bat hil zuen.

10.

Patruila-autoen aurkako erasoetan erretako ertzainak 1994 eta 1995

Bost ertzainen etxebizitzaren aurkako erasoak, kalez jantzitako bi agente kolpatuak, ertzainen 7 ibilgailu partikular erreak, molotov koktelek egindako 31 eraso Ertzaintzaren patruila-autoen kontra eta 3 eraso polizia-etxearen kontra. Ertzainek Errenterian jasandako erasoaren balantzearen zati bat baino ez da hori, manifestazioetan eta greba-egunetan izandako istiluak ez baitira kontuan hartu. 1997ko apirilaren 28an, gainera, ETak Ertzaintzaren polizia-etxearen ondoan 30 kilo amosal eta 10 kilo torlojurekin aparkatuta utzitako bonba-auto batek huts egin zuen Ertzaintzaren furgoneta bat bertatik pasatzean. Hala ere, geroago bonba-autoa era kontrolatuan detonatzean, 50 etxebizitzak eta 20 ibilgailuk kalteak izan zituzten, eta Miguel Alduntzin kaleko ehun herritarrek beren etxetik kanpo eman behar izan zuten gaua.



Argazkia: EFE, *El Correo.com*, 2004/10/22.

Nolanahi ere, Ertzaintzako agenteen aurka egindako erasoaren artean, 1995eko martxoaren 24koak eragin zuen zirrarak handiena; hiru ertzainek erredura larriak izan zituzten, eta bi emakume larriki zaurituta geratu ziren. Ez zen Ertzaintzako agenteak zauritzen zituzten lehen aldia. 1994ko abuztuaren 27an, Joaquín S.A. (31 urte) eta Josu M. (27 urte) ertzainek bigarren eta hirugarren graduko erredurak izan zituzten gorputzaren % 25ean, jaurtitako hainbat molotov koktelen ondorioz. Ertzainek Oiartzun ibaira jauzi egin behar izan zuten, arropak su hartu eta kiskaltzen ari zirenean.

Bigarren erasoan, 1995ekoan, Jon Ruiz Sagarna ertzaina gorputz-erdia erreta zuela geratu zen Lasa eta Zabalaren gorpuak aurkitu ondorengo borroka-egunean, Ertzaintzaren furgoneta baten aurkako eraso batean. Furgonetaren barruan bost ertzain zihoazen, eta erasoan erabilitako molotov koktekek azido sulfurikoa zeukaten. Molotov kokteletako bat ibilgailuaren barruan sartu zen; suak Óscar Muñoz Ortega eta Juan José Miragaya ertzainak hartu zituen, eta Jon Ruiz gidariak kontrola galdu zuen. Horren ondorioz, sutan zihoan furgonetak bertan zebiltzan bi emakume harrapatu zituen, eta larriki zaurituta geratu ziren: Amaia Arruabarrenak, 19 urtekoak, inpaktua zuen bularrean eta ezkerreko hankan, eta larruazala urratuta zuen bulbaraino; haren laguna zen Estitxu Urangak, berriz, orbita-haustura eta hanketako zauriak izan zituen eta ebakuntza kirurgikoa egin behar izan zioten.

Jon Ruiz Sagarna, bestalde, hilabete egon zen hilzorian, eta beste bost hilabete eman zituen Gurutzetako ospitalean. Ebakuntza kirurgiko ugari egin zituzten. Eraso gertatu eta hamahiru urtera, 2008ko urtarrilean, baliaezintasun absolutua eman zioten.

Lehen atentatua, Ertzaintzaren furgoneta baten kontra, bi ertzainek ibaira jauzi egin zutenekoa. Kasualitatea, ertzainetako bat nire emaztearen lehengusu propio batekin ezkontuta dago eta Donostian bizi dira; ez genuen harreman handirik, baina, bisitatzeraz joan nintzenean, emaztea ezagutu nuen.

Gero Ertzaintzaren furgonetaren aurkako beste atentatua dago, Sagarna lur jota geratu da bizitza osorako, fisikoki eta animikoki. Baina, gainera, furgoneta hark bi erreteriar harrapatu zituen. Haietako bat batez ere, [Estitxu] Uranga, hilzorian egon zen hilabete batzuetan.

1995eko martxoaren 28ko Udal Osoko Bilkuran, patruila-autoaren aurkako eraso eta horren ondorioak arbuiatu eta gaitzesteko mozio bat onartu zen lehenik eta behin. Mozioa Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ eta EA taldeek eta atxiki gabeko zinegotziak izenpetu zuten. Ondoren, harrapatutako biktimen senide eta adiskideek aurkeztutako mozioa onartu zen aho batez, aurrekoen eta Ooreretako HB taldearen botoekin. Mozio horretan, bi nahi planteatu ziren: “gure alabak azken biktimak izatea”, eta “ez dugu banantzeko arrazoi izan nahi; horregatik, Errenteriako herritar guztiei dei egin nahi diegu adiskideek eta senideek hilaren 30eko arratsaldeko 8etarako deitutako manifestazio baketsu eta isilera joan daitezten. Bakearen alde eskubide indibidual eta kolektiboak errespeta daitezten eskatzeko manifestazioa izango da”.

Hala ere, martxoaren 30ean ez zen guztien adostasuna lortu: bi manifestazio egin ziren Errenteriako kaleetan. Bigarreanean, molotov koktelak jaurti izana leporatuta atxilotu zituzten gazteak aske uzteko eskatu zen, haien kontrako polizia-operazioa amarrua zelakoan. Epaiketa 1996ko apirilean egin zen, eta gazteei sei urteko espetxe-zigorra ezarri zieten, hirurek beren burua errugabetzat hartu bazuten ere.

11.

PPko bi zinegotziren erailketak: Caso eta Zamarreño


1997 eta 1998

ETAk Errenterian edo Errenteriako herritarren kontra egindako hogeita bat erailketetatik, bi azkenak **José Luis Caso Cortinesena** (1997ko abenduaren 11n) eta **Manuel Zamarreño Villoriarena** (1998ko maiatzaren 25ean) izan dira.

Zamarreñoren erailketarekin, 12 dira ETAk hildako PPko kargu publikoak, 1995eko urtarrilaren 23an **Gregorio Ordóñez** Donostian erail zuenetik. Aurretik, Alianza Popular (AP) alderdiko hiru kide hil zituzten: **Luis María Uriarte** (1979), **Vicente Zorita Alonso** (1980) eta **Alberto López Jaureguizar** (1982). 1997ko uztailaren 13an, ETAk **Miguel Ángel Blanco Garrido** bahitu eta hil zuen. Ondoren, José Luis Caso (1997), **José Ignacio Iruretagoyena** (1998), **Alberto Jiménez-Becerril** eta haren emazte **Ascensión García** (1998) erail zituzten. Horiez gain, **Tomás Caballero Pastor** (Iruña, 1998) eta **Manuel Indiano Azaustre** (Zumarraga, 2000) zinegotzi independenteak aipatu behar dira. Zamarreñoren hilketaren ondoren, **José Luis Ruiz Casado** (2000), **Francisco Cano Consuegra** (2000) eta **Manuel Giménez Abad** (2001) zinegotzientzat gertatu ziren. Urte horretan, halaber, **José Javier Múgica** UPNko zinegotzia hil zuten Leitzan.

Biak Errenteriako Udaleko zinegotziak ziren: José Luis Casok 64 urte zituen hil zutenean, eta bi seme-aita zen. Manuel Zamarreñok, berriz, 42 urte eta hiru seme-alaba zituen. Zamarreñoren aurkako atentatuan, **Juan María Quintana** bizkartzaina zaurituta geratu zen, eta larri eraman zuten Donostiako Arantzazu ospitalera. Bien aurkako atentatu hori izan zen ETAk zinegotzientzat aurka bonba batekin egindako bakarra (hildakoak eragin zituzten aurreko 19 atentatuetan, su-armak erabili zituen). Bonba motozikleta batean jarri, eta urrunetik aktibatu zuten.

Casoren heriotza eragin zuen atentatuaren ondoren, haren laguna zen Zamarreñok honako hau adierazi zuen: "zinegotzi izateak izutzen banau ere, Jose Luisekiko leialtasunagatik izan behar dut zinegotzi, harekin Astilleros Luzuriaga enpresan 24 urtetan lan egin nuelako, hura galdaragile eta ni ere bai. José Luisek sartu ninduen PP alderdiaren kontu honetan, bera aurretik joaten zen beti, izaera indartsu harekin, eta ni pausotxo bat atzerago" (*El País*, 1997/12/13). ETAk Zamarreño erail zuenean, haren alargun Marisol Fernández PPko zerrendetan sartu zen.



Argazkiak: Alderdi Popularra, In Memoriam, <http://www.pp.es/jose-luis-caso-cortines> y <http://www.pp.es/manuel-zamarreño-villoria>

Caso eta Zamarreño zinegotzien heriotzek zirrara handia sorrarazi zidaten. Besteak beste, nire emaztea Udaleko zinegotzia zelako. Zamarreño nire auzokoa zen, Kaputxinoetakoa. Eta, jakina, nik harremana nuen harekin, egon, hitz egin, bazkaldu eta gauza asko egin nituen nik harekin. Zamarreñok Langaitz ikastolara eramaten zituen seme-alabak, nireak joaten ziren ikastolara, alegia. José Luis Caso, bestalde, oso pertsona ona zen, on-ona!

José Luis Casorekin oso harreman ona nuen, nik uste dut korporaziokide gehienek genuela oso harreman ona harekin. Izan ere, pertsona ona zen. Ez duzu ulertzen gauza horiek zergatik gertatzen diren. Inoiz ez dago arrazoirik norbait hiltzeko; baina jende gaiztoa egon daiteke, leku guztietan baitago (politikan, kazetaritzan, katedran eta leku guztietan). Baina hau pertsona bikaina zen, inori kalte egiteko gai ez zena.

Caso eta Zamarreñoren hilketen ondoren, Herri Batasuneko zinegotzi talde osoko kideok ETAren informazio komando bat osatzeaz akusatuak izan ginen. Mediotan lau haizetara zabaldu zuten berria eta epaitegitik deituak izan ginen. Inongo frogarik gabe, salaketa egin eta notiziaren zentroan kokatzen zaituzte. Zure hitzak ez du inongo baliorik. Aznarrek indarrean jarri zuen 'Todo es ETA' paradigma, printzipioa nahikoa zen edozein akusazio justifikatzeko, argudiatzeko. Defentsa aukerarik gabeko herritarrak izatera kondenatzen zaituzte.

12.

Xabier Oleagak torturak salatu zituen 'Euskaldunon Egunkariaren' itxieran 2003

Xabier Oleaga Arondo Erreterian bizi zen, eta Orereta Ikastolako zuzendaria, Ikastolen Federazioko komunikabideetako arduraduna eta *Euskaldunon Egunkaria* (1990-2003) egunkariko (hots, euskaraz editatzen zen egunkari bakarreko) zuzendariondokoa zen atxilotu zutenean. Del Olmo epaileak zuzendutako operazio batean, Guardia Zibilak egunkaria itxi zuen, eta hamar bat zuzendari atxilotu eta Madrilera eraman zituen 2003ko otsailaren 20an, ETAKo izatea edo ETAr lagundu izana leporatuta.

Hurrengo egunetan, kontzentrazioak eta protestak izan ziren Erreterian, hala nola otsailaren 24an Orereta eta Langaitz ikastolek, herriko euskaltegiek eta hainbat erakunde sozialek deitutakoa.

Oleaga inkomunikatuta egon zen atxiloketak iraun zuen denboran. Aldi horretan, Madrilgo 50. zenbakiko Epaitegian jasota geratu zenez, institutu armatuko agenteek torturatu egin zuten (Ortiz). Aske utzi zutenean, jasandako torturak salatu zituen, gainerako kideek bezala, baina salaketa artxibatu egin zen 2006. urtean. Dena dela, **Martxelo Otamendi** zuzendariaren salaketak aurrera jarraitu zuen eta Estrasburgora iritsi zen. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak egungo *Berria* egunkariko zuzendariaren demanda baietsi, eta Otamendiri kalte-ordain bat ematera zigortu zuen Estatua, haren tortura-salaketa ikertu ez izanagatik eta torturak argitzeko beharrezkoak ziren baliabideak jarri ez izanagatik hain zuzen ere. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren Hirugarren Salak epaian adierazi zuenez, Estatu espainolak Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 3. artikulua (tratu gizagabeak edo umiliagarriak emateko debekua ezartzen duena) urratu zuen.

2010eko apirilaren 12an, Audientzia Nazionalak auzipetu guztiak absolbitu zituen.

El País egunkariak 2013ko otsailaren 9an argitaratu zuen "Rentería, símbolo ahora de la paz" erreportajea, herriak "tortura-salaketan errekorra" zuela aipatzen zen.



Argazkia: "Egunkaria libre". Oleaga, ezkerretik bigarrena.

Zirrara eragin dizuten gauzak?... Tortura-salaketak izan direnean eta egiaztatu ahal izan direnean. Edo batere garbi ez zeuden, eta oraindik ere batere garbi ez dauden gauzak, hala nola Zabalza Bidasoa ibaian... Nik uste dut sentsibilitate apur bat duen edonorentzat, politikan sartuta egon ala ez, zirrargarria dela. Niri, jakina, are zirrara handiagoa eragiten zidan horrek, pertsona gisa zein ikuspuntu politikotik. Izan ere, terrorismoari ezin zaio arma horiekin aurre egin, legea eskuan dugula egin behar zaio aurre, eta, jakina, erabat arduratsua izanik.

‘Todo es ETA’ printzipioak, urrats berri bat bideratzen du. Egin itxi ondoren, Egunkaria euskaraz editatzen den egunkari bakarra ixten du Guardia Zibilak. Hizkuntza eta euskal kultura beraren etorkizuna erabat baldintzatu nahian. Larria iruditzen zait gertaera bera eta larria gertaeraren aurrean hainbat sasi-demokraten jarrera desagertuak. Donostian herritarren babesa esanguratsua izan arren, instituzioen inplikazio falta nagusitu zen Demokrata modura azaldutako pertsona jakinen adore faltak, hartutako jarrera asimetrikoak sarritan, nagusi zen demokraziaren aldeko diskurtsoa hustu izan duela uste dut. Egunkariaren adibidea kasu esanguratsua izanik.

13.

Ateak eta leihoak zabalik Herriko Etxean, 27 eraso jasan ondoren 2012

PSE-EE alderdiaren egoitzaren aurkako azken erasoak 2005ean jasan ondoren, Herriko Etxeko leihoetan segurtasun-neurri gisa jarritako barrak kendu zituzten 2012ko martxoaren 30ean (27 eraso eta sabotaje izan ziren 1983ko uztailaren 16an inauguratu zenetik), eta ateak zabal-zabal jarri zituzten herritar guztientzat. Talde politiko guztiak gonbidatu zituzten ekitaldira, eta guztiak joan ziren, Julen Mendoza Bilduko alkatea buru zela. Euskal lurraldean eraso gehien jasan dituen egoitzaren inaugurazio berri hartan, hiribilduko alkate ohi eta Eusko Jaurlaritzako segurtasuneko sailburuorde **Miguel Buen** eta alkateak izan ziren **Jose Maria Gurruchaga** eta **Juan Carlos Merino** ere izan ziren. Hantxe izan zen Gipuzkoako PSE-EEko idazkari nagusi eta Garraioetako sailburu **Iñaki Arriola** ere.

Hain zuzen ere, Iñaki Arriolak berak une horretan sentitzen zuena adierazi zien komunikabideei: “Euskadin bidea egiten hasi diren garai berrietako normaltasunaren sintoma da”. Komunikabideek Bilduko alkatea etorri izanaz galdetu zioten, eta Julen Mendoza “ongi etorria” zela erantzun zuen Arriolak. Azpimarratu zuenez, “Errenteriako PSEko jendea urte askotan nola bizi izan den azalduko diogu, eta bizi ditugun garai hauek lehenago iritsi izan balira jende asko herri honetan eta herrialde honetan seguruenik beste era batean biziko zela esango diogu”.

Errenteria, “kaleko indarkeriak gehien zigortutako” herria zena, “zabal-zabal ireki da indarkeriarik gabeko etorkizun batera” (*El Mundo*, 201/03/31) eta “bakearen sinbolo” bihurtu da (*El País*, 2013/02/09).



Argazkia: *El Mundo*, 2012/03/31.

11. ARGAZKI/LABURPENA

10.1. 1. koadroa: Frankismoaren azken urteak Erreterian / 1956-1975

10.2. 2. koadroa: Francoren heriotzatik Konstituziora arte / 1976-1978

10.3. 3. koadroa:

A eta B: Konstituzioaren onarpenetik gaur arte / 1979-2012

1. koadroa. Frankismoaren azken urteak Erreterian	
1956-1975	
Giza eskubideen urraketak	
<u>Diktadura-erregimenaren instantziek</u>	
Urraketa batzuk	Kopurua
- Askatasun demokratikoen errepresioa eta adierazteko, elkartzeko, biltzeko eta manifestatzeko eskubideen urraketa	-
- Epaiketa sumarisimoak eta Ordena Publikoko Auzitegia (TOP) 1963. urteaz geroztik	-
- 1956tik 1975era bitarte izan ziren 11 salbuespen-egoeretatik, 9k izan zuten eragina Erreterian: Foruaren 12., 13., 14., 15., 16. eta 18. artikuluen ezabaketa	9
<u>Estatuko Segurtasun Indarrek</u>	
Zaurituak	
- 10 urteko neska bat, balaz	1
- Manifestazio, greba eta protestetan bereizi gabe jipoitutaok	Zehaztugabea
Beste urraketa batzuk	
- 110 atxilotetetan torturak salatu dituzten pertsonak	59
- Isunak, deportazioak, pasaportea kentzea...	Zehaztugabea
<u>ETAk</u>	
Beste urraketa batzuk	
- Ordezkaritza sindikal bertikalaren aurkako sabotaje eta atentatuak, zauriturik gabe	3

2. koadroa. Francoren heriotzatik Konstituziora arte	
1976-1978	
Giza eskubideen urraketak	
ETAk, ETA militarrek, Komando Autonomoek	Kopurua
Hildakoak	
- Atentatuan	1
Zaurituak	
- Guardia zibil bat	1
Beste urraketa batzuk	
- Guardia Zibilaren kuartelaren aurkako eraso, zauriturik gabe	1
- Telefónica, Renfe eta Paisaren aurkako atentatuak	6
- Heriotza-mehatxuak	Zehaztugabea
<u>Kale-sabotaje edo Polizierekiko borrokaldietan</u>	
Zaurituak	
- Manifestazioetan zauritutako poliziak eta guardia zibilak	8, gutxienez
Beste kasu batzuk	
- Poliziaren eta Guardia Zibilaren aurkako erasoak manifestazioetatik kanpo, zauriturik gabe	2
- Askotariko mehatxuak	Zehaztugabea
<u>Talde parapolizialek, "inkontrolatuek" eta Guerrilleros de Cristo Rey taldeak</u>	
Zaurituak	
- Erasoak eta jipoiak	3, gutxienez
Bortxatutako emakumeak	
- Errenteriako Emakumeen Taldearen salaketak, egileak poliziak izan zirela adierazita	-
Beste urraketa batzuk	
- Etxebizitza, establezimendu eta ibilgailuen aurkako atentatuak	5
<u>Segurtasun Indarrek</u>	
Hildakoak	
- Poliziaren eta Guardia Zibilaren tiroen ondorioz	4
Zaurituak	
- Balaz	12
- Zauri garrantzitsuengatik ospitaleratutakoak	14
- Manifestazio, greba eta protestetan bereizi gabe jipoitutakoak	Zehaztugabea
Beste urraketa batzuk	
- 71 atxiloketetan torturak salatu dituzten pertsonak	48
- Polizia-konpainia batek 1978an eragindako askotariko suntsiketak	Ehun baino gehiago
<u>Estatuko beste instantzia batzuek</u>	
- Ordena Publikoko Auzitegiak (TOP) 1977. urtera arte iraun zuen. Kausen % 25 diktadorea hil ondoren bideratu zen.	-
- Prentsa eta inprentari buruzko 14/1966 Legeak Mugimendu Nazionalaren Printzipioei buruzko Legeari eta gainerako oinarriko legeei men egiteko betebeharrari eutsi zion Franco hil eta bi urte igaro arte.	-
- 1977ko salbuespen-egoera bi hilabetetan; 15. eta 18. artikuluen ezabaketa	1

3-A koadroa. Konstituzioa onartu zenetik gaur egun arte	
1979-2012	
Giza eskubideen urraketak	
<u>ETAk, ETA militarrek, Komando Autonomoek</u>	Kopurua
Hildakoak	
- Atentatuetan	20
Zaurituak	
- Atentatuetan zauritutakoak (horien artean, bi adingabe)	18
Beste urraketa batzuk	
- Kalte handiak eragin dituzten atentatuak, zauriturik gabe (bi etxebizitza-huste)	27
- PPko zinegotzi baten etxebizitzaren aurkako eraso	1
- Ibilgailua lapurtu zieten eta zuhaitz batean edo autoko maletategian lotuta utzi zituzten pertsonak	11
- Askotariko mehatxuak, bizkartzainak zituzten pertsonak	Zehaztugabea
- Estortsio ekonomikoa	Zehaztugabea
<u>Talde parapolizialek, "inkontrolatuek" eta eskuin muturrekoek</u>	
Hildakoak	
- Atentatuetan	2
Zaurituak	
- BVE eta GAL taldeen atentatuetan	3
- Erasoetan	6
- GAL siglak eta svastikak objektu zorrotz batekin markatuta besoetan, aurpegian eta gorputzean	5
Bahitutako eta bortxatutako emakumeak	
- Bi adingabe eta 18 urteko gazte bat (GAE taldeak); lau gehiago Irunen eta Pasaian	3
Bahituak	
- Eremuetara eraman ondoren galdeketak, torturak eta mehatxuak jasan dituzten pertsonak (HBko zinegotzi 1)	5
Beste urraketa batzuk	
- GAE taldeak Udaletxean jarritako bonbak, Udala HBren esku zegoenean	2
- GAL taldearen atentatuak edo HBko egoitzen eta kideen etxebizitzaren aurkako sabotajeak	12
- Ezker abertzaleko kide edo jarraitzaileei erretako ibilgailuak	6
- Heriotza-mehatxuak (bi bala eta bizar-xafla bat zituzten gutunak barne)	10
- Ezker abertzaleko gazte, kargu publiko eta kideen aurkako askotariko mehatxuak, bonba-abisuak ikastola eta ikastetxeetan, pintadak etxebizitzetan	Zehaztugabea
<u>Segurtasun Indarrek</u>	
Hildakoak	
- Polizia batek tiro eginda	1
Zaurituak	
- Balaz (horien artean, adingabe bat)	6
- Protesta baten berri emateko lanean ari zen argazkilari profesional bat	1
- Zauri garrantzitsuengatik ospitaleratutakoak	19
- 1983ko Madalenetan zauritutako 177 pertsonetatik ospitaleratutakoak	29
- Manifestazio, greba eta protestetan bereizi gabe jipoitutakoak	Zehaztugabea
Beste urraketa batzuk	
- 513 atxiloketetan torturak salatu dituzten pertsonak	230
- Kontraste eta ikerketa sakonagoa behar duten kasuak	2

Beste sufrimendu batzuk

Stricto sensu urraketatzat hartzen ez diren, baina gogoratu beharko liratekeen sufrimenduak

Hildakoak

- Ibilgailuarekin barrikada baten kontra jotzean, Quirogako ertzean	1
- Guardia Zibilak Gaintzurizketan jarritako kontrol batean ibilgailuarekin istripu bat edukitzean	1
- Gaztañoko etxe batetik amildu zen, Poliziak atxilo ez zezan	1
- Poliziarekin izandako aurrez aurreko liskar batean	1
- Beren bonbekin	2

3-B koadroa. Konstituzioa onartu zenetik gaur egun arte	
1979-2012	
Giza eskubideen urraketak	
Kale-borroka, sabotajeak eta indarkeriazko hainbat protesta	Kopurua
Zaurituak	
- Herriko Etxeko langilea	1
- EAJ-PNVko kidea (begian), Batzokiaren aurka egindako eraso batean	1
- Erasoak jasan duten PSE-PSOE eta PSE-EEko karguak (kasu batean, bikotekidea ere bai)	9
- Jipoitu, jazarri eta iraindutako EAKo zinegotzia	1
- PSE, EAJ edo PP alderdietako zinegotzien aurkako objektuak, irainak eta kolpeak	3
- Ertzaintzaren patruilen aurkako erasoetan zauritutako zibilak	3
- Frantziako trailer baten aurkako eraso batean zauritutako pertsonak	2
- Bi erasotan erredura larriak izan dituzten ertzainak (bat oso larria)	5
- Larritasun-maila handiago edo txikiagoarekin makatutako ertzainak	15
- Kalez jantzita erasotako ertzainak	2
- Udaltzainak (horietako 2 Caja Rural aurrezki-kutzaren aurkako eraso batean)	3
- Manifestazioetan zauritutako poliziak, guardia zibilak eta ertzainak	Zehaztugabea
Bahituak	
- Eremu batera eramandako eta jipoitutako PSE-PSOEko zinegotzia	1
Beste urraketa batzuk	
- Udaletxearen kontrako molotov koktelak	3
- Udal-dependenzietan oldarka sartzea eta udal osoko bilkurak etetea	10
- Bakearen aldeko kontzentrazio isilak irainen, oihuen eta abarren bidez etetea	Hainbat alditan
- Erasoak edo sabotajeak, askotariko erakunde eta establezimenduen aurka (kutzazainak, kabinak, INEM, Telefónica, Ogasuna eta abar) edota segurtasun-indarrekiko liskarretan	159
- PSE-EEko alkateen etxebizitzaren aurkako erasoak	3
- PSE-EEko zinegotzi baten etxebizitzaren aurkako erasoak	1
- EAKo zinegotzi baten etxebizitzaren aurkako erasoak	1
- Ertzainen etxebizitza partikularren aurkako erasoak	5
- Renfe eta Euskotrenen bagoi edo geltokien aurkako erasoak	30
- Herriko Etxearen (PSE eta UGTren egoitzaren) aurkako erasoak edo sabotajeak	27
- EAJ-PNVren Batzokiaren aurkako erasoak	7
- EAKo Alkartetxearen aurkako erasoak	4
- Hainbat protestatan erretako lineako autobusak	36
- Erretako Frantziako trailerrak (sua zenbait etxebizitzatara iritsi zen behin)	12
- Frantziako matrikula zuten edota Ford markako, Telefónicako, Correoseko edo bestelako ibilgailu erreak	97
- PSE-EEko kideei (zinegotzi bati, idazkari nagusi bati eta abar) erretako ibilgailuak	4
- PPko kideei (bat zinegotzia zen) erretako ibilgailuak	3
- Ertzainen auto partikularren aurkako erasoak (horietako bat senide batena zen)	7
- Ertzaintzaren ibilgailuen aurkako erasoak (manifestazioetatik kanpo)	31
- Poliziaren ibilgailuen aurkako erasoak (manifestazioetatik kanpo)	3
- Guardia Zibilarren Land Rover baten aurkako erasoak (manifestazioetatik kanpo)	1
- Bizkartzain baten autoaren aurkako erasoak	1
- Udaltzaingoaren ibilgailu baten aurkako erasoak	1
- Ertzaintzaren polizia-etxearen aurkako erasoak	3
- Mehatxuak Frantziako produktuak saltzen jarraitzen zuten saltokiei, hautetsiei, alkateen etxebizitzaren aurka, bonba-abisuak udal osoko bilkuretan, Renfen eta abar.	Zehaztugabea

12. INDARKERIARI ETA BIZIKIDETZAN IZAN DUEN INPAKTUARI BURUZKO IRITZIAK ETA TESTIGANTZAK: IRAGANA ZUZENDU, ORAINA ADOSTU ETA ETORKIZUNARI BEGIRATU

Egindako elkarrizketen ondorengo berrikuspena ez dugu Errenteriako udalerriko talde ideologiko eta sozialen adierazgarri gisa aurkeztu nahi. Zeregin hori ez dago gure esku. Gure baliabideak kontuan hartuta, elkarrizketatu beharreko taldea hamar pertsonara mugatzen zen, eta, beraz, etorkizunerako utzi behar izan ditugu beste elkarrizketa interesgarri batzuk.

Muga horiek kontuan hartuta, zuzenean jaso nahi izan ditugu udal-ordezkaririk izan diren pertsonen eta gizarte- eta bizikidetzak-ekimenei lotuta egon diren pertsona batzuen gogoetak eta iritziak. Iraganeko indarkeriari eta izan dituen ondorioei buruz dituzten iritziak jakin nahi izan ditugu, zuzenean eta lasai, baina, hori ez ezik, apurtutako bizikidetzak itxita utzi duen bidera irteteko egin daitezkeen urratsak ere jaso nahi izan ditugu.

Hasteko, onartu beharra dago oso zaila dela historia hurbilean –eta Errenterian bakarrik ez– gertatutako guztia zintzotasunez jasotzea. Beti ahaztuko zaigu norbaitentzat ezinbestez kontuan hartu beharrekoa den zer bait.

Gainera, txostenak aztertzen duen aldi luzeari (berrogeita hamar urte baino gehiago, horietako hamabost diktaduran) arrazoi batengatik edo bestearengatik artxibo batzuk lortzeko gaur egun oraindik badauden zailtasunak eta idazkiak, dokumentuak, pronuntziamentuak, irudiak eta memoria historikoari lotutako beste material batzuk gordetzeko izan diren zailtasunak gaineratu behar dizkiogu:

Ez dugu memoria grafikorik, ez dugu ezeren memoriarik Herriko Etxean, ezin izan baitugu hemeroteka txiki bat ere eduki. Hondatzen zigutena konpontzen genuen, eta berriz erretzen ziguten.

*Etxean nituen karpetak Poliziak eramane zituen.
Oraindik ere, artxibo batzuk ez daude eskuragarri.*

Bestalde, elkarrizketa egin duten pertsona batzuegan sentimendu kontrajarri bat dagoela sumatu dugu; hainbeste urtetako higaduraren eta liskarraren ondorioz, nolabaiteko gogaitasuna helarazi dute gai horietaz hitz egitean.

*Gauzak gogoratu? Zehatz-mehatz! Baina, egia esan, gero eta zehaztasun txikiagoz.
Kokoteraino nago gai horretaz. Aspertu egiten nau jada.*

Denok gaude nekatuta kontu horietaz, aseta. Bizi izan duguna ez ahaztea da kontua, haurrek gauza bera egin ez dezaten. Hain erraza da harria jaurtitzea eta esatea "izan ere, hori zuria da, hori berdea, gu urdinak gara"...

...baina, bestalde, honako hau diote:

Dena gogoratu behar da, dena atera behar da, ezin dugu ezer ahaztu...

Ez dugu iraganera eta iraganeko kontuetara itzuli behar; iraganekoak dira eta etsaitu egin gaituzte izugarri. Zera esan behar dugu, tira, ez da ahaztu behar, baina gainditu egin nahi dugu.

Eta pertsona berek adierazi dute hori, elkarrizketa berean.

Bakoitzak bere kontakizuna du; izan ere, norberak eta norberaren inguruan bizi izandako gertaera ugari eta desberdinen aurrean agertutako jarrerak, inplikazioak, arbuioak, aldentzeak eta abar azaltzen laguntzen diguten gauzak atxiki ohi ditugu. Urte hauetan izandako indarkeria-ekintza batzuk erabakigarriak izan dira gure bizitzan, baina horrek ez du esan nahi guztiok bizipen berak, gertatutakoaren pertzepzio berak izan ditugunik. Are gehiago, zenbaitek, adinagatik, beste errealitate batzuetan bizi zirelako, nahi izan ez dutelako eta abar, ez dute izan gertatutako gauza askoren berri.

Beste atal batzuetan gure solaskideentzat zirrargarriak izan diren beste oroitzapen batzuk labur-labur jasota badaude ere, zenbait irudipen pertsonal aipatuko ditugu orain.

Eremu pertsonalean:

Miguel Buen, PSE-EEko alkate ohia: *Nik mingostasun handiarekin bizi izan dut. Zerbaitetan nabarmentzen bazara, gauza asko irentsi behar dituzu, eta aurrera egin behar duzu, nola edo hala. Eta, bestela, alde egin behar duzu, jakina. Beharbada, alde eginda ere ez duzu ezer konponduko. Hortxe duzu Isaías Carrasco, alde egin zuen eta ez zion ezertarako balio izan, berdin-berdin hil zuten, hiltzeko oso pertsona erraza baitzen. Berriz diot. Kasu gehienetan, jazarpena eta erailketak ez dira gertatu Miguel Buen zarelako. Agian nire kasuan, une jakin batean, hartzen dituzun ardurak direla-eta (Alderdi Sozialistako idazkari nagusia zara Gipuzkoan, Errenteriako alkatea zara...), beharbada bai. Kasu gehienetan, ordea, gertatzen da PSE, UGT, PP, Comisiones edota EAJko kidea zarelako ... eta, beste aldean, Batasunakoa. Hau ez? Hau Batasunakoa da. Gaiztoa da automatikoki; zergatik? Nekatu egin naiz hori esateaz.*

Jose Angel Rodríguez, PSE-EEko zinegotzia: *Niri krak egin zidana Enrique Casasen erailketa izan zen. Handik aurrera, alde batetik bestera igaro nintzen. Hiletetara joaten, kideei laguntzen, kontrakoa egiten hasi nintzen. Eta beste prozesu horretan, gauza askok sorrarazi didate zirrara. Hiperkorrek sorrarazi dit zirrara, 'alboko kalteek' sorrarazi didate, beti gogoratuko naiz Zaragozako kuarteleko neska haietaz.*

Chema Herzog, PPko zinegotzia: *Nik Joseba Pagazaurtunduarekin eta José Luis López de Lacallerekin gosaltzen nuen. Biak erail zituzten. Horren aurretik, mobilizatu beharra zegoela iruditzen zitzaidan. Izan ere, beldurak akabatzen geunden denok, etengabeko jazarpena eta guztion eskubideen gutxiespena zen. Horrek mobilizatu egiten zaitu. Are gehiago zure senide eta lagunak kontra dihardutenean. Ondoren, Fernando lehengusua hil zuten. Fernando eta Enrique, Mugicatarrak, nire lehengusu propioak dira. Gregorio nire laguna zen, nire kontsultara etortzen zen, eta hura ere akabatu egin zuten. Zarautzen izan nintzen hilerrian; "pepino" bat jarri zuten nigandik 10 metrora, eta ozta-ozta ez ninduten garbitu.*

Anjel Mari Elkano, HBko zinegotzi ohia: *Uste dut bizitza oso bat eman dudala ni bezala nire inguruko guztiak, Ai, ai, ai! batean. Pikoloak, eguneko ordu txikitan, gauerdian etxera hurbildu zitezkeela pentsatuz. Funtsezko arrazoirik gabe etor daitezkeela pentsatzeak larri arazten du biziki eta bereziki. Berdin da arrazoa. Ikastola batean, euskaltegi batean, egunkari batean, irrati batean, sindikatu batean, dantza talde batean, herri dinamiketan jardutea nahikoa izan daiteke zure burua esku burdinez josita sentitzeko. Eta egia esan, 2007ko urriaren 4an, Seguran halaxe atxilotu gintuzten. Bi urte eta erdi kartzelan pasa ondoren gaur egun, hamar urteko kartzela zigorra eskaria dut nire buru gainean ezarria. Ulergaitza egiten den eskaera batez ere, akusazioa eta arrazoi bakarra prentsa agerraldi bat eta lau bileretan, lau bileretan parte hartu izana denean. Sinesgaitza. Non dago delitu zantzua? Eta hori gaur gertatzen ari da Erreterian, Euskal Herrian.*

Garazi Lopez de Etxezarreta, EAKo kidea eta Bilduko zinegotzia: *Zenbaterainoko presentzia poliziala kalean beti eta zenbat manifestazio eta konfrontazio etengabea polizia eta manifestanteen artean... Nik uste nik nire buruan beti kondenatu dudala biolentzia baina nik ez daukat biolentziaren gordintasunaren errekuerdia, ez gehiegi. Nik uste batzuk geratu garela, ni arte ni parte, askosaz ere terreno neutralago batean, zuzeneko eraginari dagokionean. Gehiago abertzaleen arteko liskarra biolentziaren defentsa edo legitimazioa egin eta ez egin, nik uste gu gehiago hor egon garela.*

José Manuel Ferradas, EAN-IUko zinegotzia: *ez da batere erraza izan bizi izandakoa, inorentzat ez, bakoitzak bizi izan duena desberdina izan bada ere.*

Eremu pertsonalean, Erreterian:

Maite Peña, EAJ-PNVko zinegotzia: *nik zirrara ikaragarria sentitu nuen ertzainak erre zituztenean. Niretzat kolpe gogorra izan zen, ezagunak baintuen han sartuta zeudenetako batzuk. Orduan jabetu nintzen benetan bizitzaren zirkunstantzien arabera ia edonor egon gitezkeela istilu horietan sartuta, ideia finko-finkorik izan gabe ere. Niri, pertsonalki –gaztea nintzen orduan–, izu handia, zirrara handia sorrarazi zidan horrek.*

Marijose Molina Guerrero, irakasle erretiratua: *nik uste dut 78. urteaz geroztik nengoela hemen [Erreterian]. Zirrara sorrarazi zidatelako gogoratzen ditudan gauzak? Hurbilenak izaten dira beti zirrara sorrarazten dizutenak: Alberto Muñagorri ez zen nire ikaslea izan, baina nire ikastetxean ikasten zuen. Josean Cardosa bai, nire ikaslea izan zen. Ijurkori eta Mari Carmen nire etxe azpian jarri zieten bonba.*

Jose Angel Rodríguez, PSE-EEko zinegotzia: *gu geunden agintean, eta gure bulegoei erasotzen zieten, korridoreetan mehatxatzen gintuzten, elkarrekin gurutzatu eta edozer gauza esaten ziguten. Jasan duguna izan da... Atzeko atetik irten behar izan dugu osoko bilkura baten ondoren, Poliziarekin, egun batean, hurrengoan eta hurrengoan... Eta horrez gain, mehatxuak, estortsioak, erailketak, Herriko Etxearen kontrako erasoak, panfletoak herri osoan... Horrela urte bat, bi urte... egunak joan egunak etorri.*

Garazi Lopez de Etxezarreta, EAko kidea eta Bilduko zinegotzia: *Mikel Carcedo da zinegotzi izandako EAko kide bat eta honek denuntzia jarri zuen jo egin zutelako kalean. Hori da niri gehien iritxi zaidan... eta hori bezala eta nire aitarekin ere, nolabait ikusten dut dela jende bat gainditu duela nolabait momentu batean egon den egoera oso konfliktiboa eta orain, EH Bilduren baitan gustora dagoena.*

José Manuel Ferradas, EAN-IUko zinegotzia: *Indarkeriaren fenomenoak ulertu egin da nolabait ere, baita babestu ere, eremu batzuetan besteetan baino neurri handiagoan, eta beste horietan errefusa handiagoa zen. Hauteskundeen gaian nabarmena den bezalaxe, nik uste dut indarkeria intentsitaterik handienarekin bizi izan zen garaian ere desberdina izan zela indarkeriak bizikidetzan zuen isla, herriko auzoaren arabera. Eta eremu horien bereizketa horretan, nik uste dut tentsioak nolabaiteko errealitate geografiko bat duela. Nik uste dut gai jakin batzuk era desberdinean bizi zirela herriaren goialdean (Kaputxinoak, Beraun, Galtzaraborda...) eta erdialdean.*

Mikel Ugalde, ikastolako presidente ohia eta Egintzako kidea: *Herri barruko zatiketa honek min handia egiten zuen. Eta gero zatiketa horren erakusle, Udaleko zinegotzi izatea neri ez zait tokatu baina lagunak izan ditut eta orduan errebindikazioak eta protestak eta pertsonalizatu egiten ziren ezta. Banuen lehengusu bat barruan, zinegotzia, hura Euskadiko Ezkerretik atera zana, beste lagun bat PNVtik; PNV... zera... bere etxepean kontzentrazioak... eta bueno, holakoetan esan daitezkeen guztiak... hau da, familiari mina nola emango edo... ez dakit.*

Miguel Buen, Errenteriako alkate ohia: ...kolpeak izan ziren, eta 40-50 bat pertsonak –edo zeudenek– jo egin nahi zaituztela jakiteak sorrarazten dizun beldurra. Jakina, lintxatu ahal izan ninduten. Eta ez zitzaidan aldi hartan bakarrik gertatu, gehiagotan ere gertatu zitzaidan, mehatxuak, tira...

12.1. BIZIKIDETZA APURTUA EDO OSO AHULDUA

Deskribatzen diguten errealitateak gordinki islatzen du urte askotan bizi izandako *infernua*, giro batzuetan besteetan baino neurri handiagoan. Errealitate horrek, nolana ere, eragin handia izan du beren bizitzan, hurbilekoengan (familia, lagunak, afiliazio-kideak eta abar) eta, oro har, herritar guztiengan:

Francoren kontra eta diktaduraren kontra elkartuago bizi izan ginen. Hortan adostasun handia gendun. Gero ia... Herri barruko zatiketa honek min handia egiten zuen.

Bizitako giroaren metafora izan daiteke hurrengo garrasia, telefonoz oihukatu zidaten garrasiaren deskribapena. Miguel Angel Blancoren heriotza orduan, gorpua azaldu zela jakin bezain pronto nire etxera, telefono fijora, deitu zuen anonimoaren garrasia: Hiltzaileaaaaaaa!!! Euskalduna zen pertsona horrentzat ni nintzen Blanco zinegotziaren hiltzailea. Oreretako zinegotzia besterik ez nintzela jakin arren, telefonoa hartu eta salaketa gordina egiteko konbentzimendua izan zuen emakumeak. Zintzoki larritu nintzen, ‘Todo ez ETA’ leloa, 1997ko uztailean, ideia hegemoniko batean bilakatua zela ohartu nintzelako batez ere. Emakume euskaldun harrentzat, ezker abertzale osoa zen, Blancoren hiltzailea. Bestalde, urte bat geroago, Lizarra-Garaziko hitzarmenak, hegemonia horren sendotasuna jarri zuen dantzan. Zorionez, nire herriko izaerarengatik akaso, nire bizitza normaltasunez egitea lortu dut. Eta bestalde, zubiak apurtuta egon arren, beti lortu dut, komunikazio hari bat mantentzea.

Bada gogoratzen dudan gauza bat, zirrara handia eragin zidana; ez da indarkeria-ekintza bat, garai hartako borroka ideologikoa baizik. Luzaroan egon nintzen kontu harekin bueltaka. Manifestazioetan “Gora ETA militarra” oihukatzen zenean, nik alde egiten nuen. Garai hartan, edozein gairi lotutako edozein manifestaziotan, “gora ETA militarra” oihukatzen zen azkenean. Nik erabaki hori hartu nuen. Orduan, Biteri kaletik gindoazen “mani” batean, eta “gora ETA militarra” oihukatzen hasi ziren. Ni lagun batekin nindoan, eta manifestaziotik irten egingo nintzela esan nion, eta zergatik ere azaldu nion. Manifestaziora begira geratu nintzen pixka batean, eta gizonezko batek (lagunari eman nion azalpena entzungo zuen, noski) tu egin zidan. Atsekabe izugarria eman zidan horrek.

Garratzagoa iruditzen zait gure arteko elkarbizitza. Asko sufritu dugu horrekin. Hemen aurkitu izan gera betidanik herrian behintzat ezagunak eta betidanik elkarrekin eta zera, eta harreman normal samarrak izaten ditugunak eta derrepentean, kasurik ez. Bat pasa eta kasurik ez, egun berean beste batekin topo egin eta kasurik ez. Ze kristo gertatzen da hemen!

Batzuk Errenteriatik beste herri batera joan ziren bizitzera:

Iruditzen zitzaidan liskar handiko herria zela, eta indarkeria denok hartzen gintuen kiribil bat bezalakoa zela. Maila guztietan indarkeria-giroan sartuta egotearen sentsazioa, nola puskatu jakin gabe. Besteak beste, hemendik beste leku batera joatea erabaki nuen, oso itogarria iruditzen baitzitzaidan. Hainbeste atentatu, manifestazio eta abar zeuden herri batean bizitzea... Herrian ezinikusi handia zegoen batzuen eta besteen artean; horixe, alde batean zeudenen eta bestean zeudenen artean. Ez zenekien non kokatu. Nik esaten nuen: nire seme-alabak ezin dira giro honetan bizi, ez dut nahi nire haurrak hemen haz daitezen. Beste leku batera joatera bultzatu ninduten gauzetako bat da hori.

Zenbaitentzat ez da erraza izan, eta zalantzak helarazi nahi izan dituzte:

Gauza asko daude, e! Hainbeste hiletatan izana naiz...

Hauekin ez banago, besteekin ez banago, orduan zein da nire lekua? Non nago ni? Garai hartan, horixe zen, nirekin zaude ala nire kontra zaude, ez zegoen erdibiderik. Eta nik oso gaizki bizi nuen hori. Nik esaten nuen: ez hemen eta ez han, nire lekua beste bat da. Nik uste dut gaizki pasatu nuela luzaroan, eta uste dut jende gehiagori gertatu zitzaiola. Egoera hartan, esaten zenuen: nik ez dut hau onartzen, baina beste aldean ere ez nago. Orduan, zein da lekua, eta nola bilatuko dut?

Euskal independentista militante baten bizitza ez da batere erraza izan. Nola izango da erraza, zure euskalduntasuna defendatzeagatik, eraldaketa soziala bultzatzeagatik, Euskal Herriaren aitortza ikustarazteagatik, ETA-kide bezala, terrorista moduan salatu eta atxilotzen bazaituzte. Egunkariak, aldizkariak eta irratiak ixten badituzte. Independentistak diren indar politiko guztiak legez kanpo uzteko apustua egiten badute, ANVren kasuan bezala alderdi horien jatorria ETArekin aurrekoa dela jakin arren. Hau da, argudio sinpleenari ere bizkarra emanez. Estatu basakeria itzela izan da. Estatuak beti ukatu du Euskal Herriaren aitortza eta bertako herritarren erabakitzeko eskubidea. 1975. urte arte diktadura baten modura eta herri ukazioa ziurtatuz, demokrazia itxura emanez ondoren. Basakeri horren ondorioz, militante asko ezagutzen ditut, gauaren erdian atxiloketa bortitzak, torturak irudikatuz gau bat eta beste, lokartu ezinik eman dutenak. Halabeharrez, Irratiaren konplize bihurtu diren entzule nekagaitzak.

Dena dela, Errenteria inoiz ez da Ipar Irlanda bezalakoa izan, zuloa ez da hain sakona izan, elkarrizketatu batek adierazi duenez:

Nire atarian, EAJko, PPko, ezker abertzale erradikaleko, EAko edota alderdi sozialistako jarraitzaileak bizi zitezkeen (eta, izatez, bizi ziren), eta bizikidetza zentzuzkoa zen. Erabaki beharreko gaietan, agian adostasun handiagoa neukan ezker abertzalekoarekin nire ideologiako edota nire alderdiko beste pertsona batekin baino. Ipar Irlandan bizi izandakoa bezalako hausturarik ez da izan. Belfasten horma bat dago oraindik, eta atea ordu jakin batzuetan itxi egiten dira oraindik. Beraz, konparazio askok ez dute inolako funtsik. Hemen jendea elkarrekin ibiltzen da poteoan. Jakina, batzuetan manifestazioa zegoen kalean, eta erdialdeko taberna guztiek irekita jarraitzen zuten, eta jendeak ohiko itzulia egiten zuen. Hori horrela da, arrazoi batengatik edo bestearengatik greba orokorra zegoenean izan ezik. Orduan, jakina, jende guztiak ixten zuen, inor ez baitzen kontrakoa egitera ausartzen. Eta inori ez zaio eskatu behar heroi izateko. Neurri handiagoan normalizatu al dira harremanak Errenteriarren barruan? Bai, jakina. Izan ere, alderdi bakarra zen ofizialki jokoan sartzen ez zena. Gainerakook harreman normalak izateko jokoan sartuta geunden.

Nola iritsi gara hain urruti orduan?

Estatuko terrorismoaren arrazoiak garbi daude. Frankismoaren muinak denbora-tarte batean iraun zuen diktaduran. Oso garbi daude niretzat. Denbora-tarte batean iraun zuten demokrazian, adinagatik –besteak beste– belaubildia-aldaketa bat gertatu zen arte, Estatuko indar guztietan batez ere. Akademietan ematen zen heziketa desberdina zelako ere bai. Handik aurrera, nire ikuspuntutik, terrorismoak ez zuen iraun Estatuko errepresio-aparatuek (eta, duela urte askoz geroztik, Ertzaintzak ere bai) egin zituzten edo egiten zituzten basakeriei erantzuteko. Baina arrazoa, zenbaitentzat, Euskal Herriko independentzia izango da oraindik... Aurrera egin al dugu horretan?

Niri oso, oso gogorra egiten zait baina ulertzen dut azkenean estrategia politikoaren baitan oso gauza zailak justifikatzera iritxi gaitezkeela. Orduan niretzat gehiago izan da ezagutzea errealitate pertsonalak, zer suposatzen duen kartzelan ez dakit zenbat urtez norbait edukitzea, astebururo bisitan joatea, eta nola ulertu daitekeen norbaitek esatea nik Lizarra-Garazi arte bai, gero ia ez. Nola konbentzitzen duzun zure burua, estrategia politiko baten baitan, ze momenturarte bai eta gero ez. Eta niretzako hori oso perbersoa bezala da. Ni gehiago hori deskubritzen ari naiz baina ez daukat beste aldea.

Estatu espainolaren barne bada ere, Euskal Herria aitortua balego eta euskal herritarrek azken hitza eta erabakia balute, nire ustetan ez legoke arazorik eta benetako gatazka politikoa gainditua legoke.

Autokritika... eta denbora

Batzuek hutsegite larriak aitortu dituzte, hala nola jendea etiketatu eta kalifikatzeko erraztasuna; zenbait kasutan, atentatuak justifikatzeko balio izan zuen horrek (baita heriotza eragin zuten atentatuak ere). Hori adierazi duenak autokritika moduan esan du, eta jarduteko modu horrengatik askok sufritu egin dutela onartu du:

Ez dut gainera argitzerik izan, baina bazegoen geure artean halako txibatoen... txibatoen zera hori. Hori txibatoa da, hau txibatoa da... Eta klaro, txibato izatea... ostras pedrin!!! Eta ni neu ere ez nago batere gustura nola bizi izan nuen hori zeren datorik ez genuen... norbait txibato zela esaten bazen, nahi edo nahi ezta ere, errezeloa sartzen zitzaizun... harremanak hoztu egiten ziren... zera hori... gaizki, gaizki... nere buruarekin behintzat... eta argitu gabeko kontuak dira gainera... batek bere garaian fama hori hartu zuen eta egia izan zen ala ez zen... hoiek ere ez dira argitu. Hori ez da konpondu.

Garai batean euskara politizatu genuen. Ni gogoratzen naiz, Jesus Egiguren telebistan... han Lizarrako mutila zera... sentitu nuenean eta nere zean, nola liteke euskalduna izan eta PSOEn egon! Ez nuen ulertzen. Neretzat txokantea zen. Hola bizi nuen, orain esateak ere lotsa ematen dit baina...

Batzuek pentsatzen dute autokritika besteek baino ez dutela egin behar.

Elkarrizketatutako pertsona gehienak bat datoz zauriak sendatzeko oraindik denbora behar dela esatean:

Denborak zauriak sendatzen ditu, eta gauzak egiten baditugu eta egoerak aldatzen baditugu, prozesua bizkorragoa izango da edo hobea izango da, baina... baina... denbora. Denbora garrantzitsua da.

Orduan mina... eta mina daukate besteek ere! Mina alde danetan dago, arazoa da nola lan egin ez jarraitzeko sufrimendu hori mahai gainean egoten, nola irixten gera besteen mina ulertzen.

Nire ustez, hainbeste urtetan izan dugu erradikalismo eta bereizketa hori (zentsugabe samarra nire ikuspuntutik, berriz diot), denbora beharko da harreman guztiak bideratzeko.

Garaiak gizarte-erritmora egokitzen ez badira, gertatutakoa gutxiesteko eta, guztiei erantzukizunak eskatzearen bidez, eragindako kaltearen ezinbesteko autokritika saihesten saiatzeko arriskua dago. Dena dela, gertatutakoa gainditzeko denbora inoiz ez da berdina izango indarkeria jasan dutenentzat eta erabili dutenentzat, denbora bi kasuetan garrantzitsua bada ere.

Guk nahi dugu eta horretan gabilta. Gertatzen dena da beste batzuek korrika ibili nahi dutela, interesak baitituzte hau lehenbailehen konpon dadin, eta, gainera, edonola egin nahi dute korrika, eta hori... ez dakit

barkatu hitza edo besteren bat esan behar den, baina eragindako kaltea aitortu gabe, egin dutena deitoratu gabe eta historia bera ere aldatu nahirik... bada ez.

Bat-batean, hainbestearainokoa izan ez balitz bezala jokatu nahi da. Hara zer jatorrak garen. Eta bada gauza bat min handia egin didana, hots, herritarrek eman dieten legitimitatea. Gainera, zigortu egin gaituzue. Ezinezkoa da tiroka aritu ondoren herria gobernatzera iristea, herriari sufriarazi dioten guztiaren ondoren probintzia bat gobernatzea. Hori prozesu batean gertatzea normala iruditzen zait; izan ere, prozesua denok egiten dugu, dolua egiten dugu, jarrera bat hartzen dugu eta abar. Baina egun batetik bestera hemen ezer gertatu ez balitz bezala ibiltzea eta zintzoarena egitea, hori ezinezkoa da. Hori oso gogorra da.

Autokritika eta barne hausnarketa ezinbesteko baldintzak direla uste dut aurrera egiteko. Eraginiko minaren aitortza eta bestearen errekonozimenduan aurreratu beharra dago etorkizuna kolorez marraztu nahi badugu. Halere uste dut, bortxa, alde biak edo guztiak, denon aldetik erabili den bitartekoa izan dela. Beraz okerra iruditzen zait erabili duten eta ez dutenen arteko bereizketa, disekzioa egitea. Posizio desberdin horietatik abiatu arren, garrantzi handiagoa eman nahi diot, normalizazio demokratikorako, inposatu gabeko normalizaziora heltzeko proposamenak adosteko ariketari. Halako mina jasan duen komunitate poliedrikoak gai izan beharko du, normalizazio demokratikoaren oinarria eta funtsa aurkitu eta adosten. Ziur aski modu desberdinetan formulatu daitekeena baina beti ere herritarren erabakia kontutan hartuta eraikiko dena.

Autokritika bi mailatan egin beharko litzateke: maila pertsonalean (bakoitzak egin duenaz eta egin ez duenaz erantzun beharko du), eta maila kolektiboan (egiten utzi dena). Era berean, ez dugu besteak autokritika egin arte itxaron behar geuk egiteko. Eta autokritika egiteko modu asko daude (hurbilketak, pronuntziamendu biribil eta argi bat hartzailearengana ongi irits dadin...). Eta norabide guztietan gainera, inork ez dezala pentsa norberaren kontua ez denik, agian zure izenean edo legeak aldatuz egin baita indarkeria, dena gauza bera ez bada ere.

12.2. ZER ALDATU DA ETA ZER EZ DA ALDATU ERRENTERIAN?

Erantzun batzuk oso kategorikoak dira:

Gauza batzuk asko aldatu dira.

Begiradak erabat samurtu dira.

Nik uste dut urratsak egiten ari direla gainditzeko. Beste gauza bat da ongi miatuz gero elementu jakin batzuk ager daitezkeela. Tira, ez dira agertuko garai batean bezala, indarkeria-egoera haren ezaugarri nabarienak (ETAren atentatuak batetik, eta bereizketarik gabeko atxiloketak, tratu txarrak eta antzekoak bestetik) zorionez desagertu egin baitira neurri handian. Nik nabaritu egin dut. Alde batekoak guztiak, eta beste aldekoak ere ia guztiak, ezta? Oraintxe bertan ez da gai nagusia, eta ez du zinegotzien arteko inertzia eta egoera zailik sorrarazten. Bestalde, beti pentsatzen dut korporazio honetan guztion helburua dela egoera horiek gainditzeko urratsak egiten hastea.

[Gaixo larria den Aitzol Gogorza presoaz mintzatzen] Laguntza-talde bat sortu zuten batzuk etorri ziren, hamar edo hamabi lagun. Mozioaren inguruan eztabaidatu zen; batzuek aldeko botoa eman zuten eta beste batzuek kontrakoa, baina ez zen inolako liskarrik sortu. Bakoitzak bere ikuspuntua azaldu zuen.

Zorionez, herri osoan ibiltzen naiz paseoan. Zorionez, halaber, lehen agurtzen ez ninduten, beste alde batera begiratu izan duten eta lurrera tu egin izan duten batzuek egun on eta arratsalde on esaten didate orain. Badira nirekin hitz egitera gelditu direnak ere; eta esan didate: - Zergatik ibili gara hainbeste urtetan horrela? - Bada, zuek jakingo duzue, ni beti egon bainaiz prest agurtzen ninduen oro agurtzeko eta berriz saiatzeko.

Nabarmen aldatu da. Zubiak aurrez-aurre zabaldu dira. Harremanak erabat berreskuratuta ditut. Oso ikuspuntu politiko desberdinen artekoena ere bai. Ezin ikusiak gainditu eta pote bat hartzeko tartea ere egin izan dugu.

Nik uste dut borroka ideologikoak behera egin duela ETAk borroka armatua bertan behera utzi izanaren ondorioz. Niri iruditzen zait lehen zeuden jarrera horiek –hain mugatuak, hain irmoak eta hain kontrakoak– moteldu egin direla nolabait ere. Gero, beste gauza bat pentsatzen dut, hots, errealitate ekonomikoak zaplazteko handia eman digula, eta denoi berdin-berdin eman digula gainera. Lehen ETA eta ETAren indarkeria zen gai bakarra, eta, azken

aldi honetan, oso jarrera ideologiko desberdinak genituenok beste kontu batzuetaz hitz egiten hasi gara, fabrikak itxi izanak kalte egin digula, langabezia gero eta handiagoa dela, gure seme-alabek lanik ez dutela eta kanpora joan behar dutela... Horrelako gauzei esker, elkartzen ari gara, edota kezka berdina ditugu eta ados jar gaitzke. Ez dakit adibide egokia den ala ez, baina hauxe bururatu zait: hilaren lehen astelehenean, pentsioak izoztearen, baterako ordainketaren eta kaltetzen gaituzten alderdi horien guztien kontrako kontzentrazio bat egiten dugu erretiratuok. Nik ikusi dudak kontzentrazio unitarioenetako bat da. Gai horiekin kezkatuta dauden Errenteriako erretiratu guztiak daude. Duela urte batzuk pentsaezina izango zen hemen. Gai horretan denok batzen ari bagara, pozik sentitzen naiz.

Beste kasu batzuetan, berriz, ez dirudi jarrerak hainbeste aldatu direnik; hori ez da, behintzat, gurekin hitz egin duten pertsona guztien pertzepzioa, zenbait arazoren aurrean batez ere:

Herri honen zatiketaren zerak hor jarraitzen du. Gaur egun ere. Alde batetik, politikaren mundu hori hor dago, alkateari eskerrak gauzak asko leundu dira, elkarlanari garrantzia handia eman zaio, pauso batzuk eman dira, baina oraindik zatiketak hor daude. Esate baterako eta oraingo kontua da, neri... eta kontradikzio horrekin bizi naiz, alde batetik gisa eskubideak zertzen ditut, defenditu behar direla bete-betean, gisa eskubideak direnez presoenak ere hor daude, baina biktimak ere oraindik asko sufritzen duen jendea, eta gainera presoena erabatera edo bestera konponduko da, beste batzuk konponketarik ez dute izango, norbait familiak galdu dutelako. Eta ikusten dut hik zera... holako... preso... zera eta... sakabanaketa eta joer... bai, bai, ni ere ados naziok horrekin baina... eta orduan esan behar izaten diet "baina gustatuko litzaidake batzuekin hainbesteko sentiberatasuna duzuen hoiek ere, pixkat besteek ere haintzat hartuko bazenituzke, ez?" Orduan maila horretan polarizatua ikusten dut.

Irekitzeko eta aurrera egiteko borondatea

Legegintzaldiaren hasieratik, udal-talde guztien arteko jarrera irekiagoa eta begirunetsuagoa izan da, eta harreman normalizatuagoa eta sentsibilitate desberdinen arteko komunikazio handiagoa ahalbidetu du horrek. Ikusi dugunez, udal-talde guztiek lagundu dute horretan.

Zinegotziren batek oraindik bizkartzaina badu ere, ez da indarkeriazko gertaerarik izan, eta Udaletxearen barruan zein kanpoan hautematen den giroa logikoa da edozein lehia demokratikotan.

Horretarako, hainbat faktore izan dira lagungarri:

Jendeak bazuen gogoia, hau erabateko aldaketa da. Jendeak ilusio eta itxaropen handia zuen armak utziko zituztela esan zutenean. Garai berri bat

ireki zen. Une horretan, nik uste dut Errenterian talde sozialista zuzentzen zuten pertsonen urrats bat egiteko aukera ikusi zutela, ondorio guztiakin egitekoa gainera. Gehiago irekitzea... izan ere, uzkurtuta, ezkutuan eta guztiaz babestu beharrean egon gara 28 edo 30 urtean. Eta hori, egunak joan eta egunak etorri, urteak joan eta urteak etorri, bada, gogaikarria da. Orduan, halako batean argi- eta itxaropen-izpi bat ikustea...; urratsa egin genuen lehenak -gure baitan ere beharra baikenuen- geu izan ginen.

Beti pentsatzen dut errealtateak gurutzatzeko arreta handiagoa eskaintzen eta ahalegin handiagoa egiten ari dela. Hau da, paralelo doazen bi errealtate ez izateko. Beti garrantzitsua iruditu zitzaidan ekitaldi bat, legegintzaldiaren hasierakoa, 2012ko udan, kulturen arteko senidetze-ekitaldi bat izan zen. Emaitza ona izan zuen. Udalak bultzatutako ekitaldi soziala izan zen, eta jolas- eta kultura-jarduerak egin ziren. Elkarte mota guztiak gonbidatu zituzten. Izan ere, hemen indar handia duten gauzetako bat elkarreak eta eskualde-etxeak dira, Extremadurakoak eta Andaluziakoak bereziki. Ekimen horrek oso harrera ona izan zuen kolektibo horien aldetik, eta gehienak hiribilduaren goialdean daude. Euskal kulturarekin loturarik handiena duten kolektiboak behealdean dauden bezala, horiek goialdeko auzoetan daude; hortaz, paralelo samar zihoazen, baina inoiz gurutzatzen ez ziren bi errealtate ziren. Jarduera harrez geroztik, elkartzera animatu zituzten, eta topaketak pozik utzi zituen. Topaketa horri jarraitutasuna emateko, dinamika bat sortu da Madalenetan eta beste ekitaldi mota batzuetan.

Alkateak bete duen zereginak gainerako taldeen balioespen positiboa jaso du:

Alkateari eskerrak gauzak asko leundu dira, elkarlanari garrantzia handia eman zaio, pauso batzuk eman dira, baina oraindik zatiketak hor daude.

Elkarteen munduan, nik uste dut Julenek lan garrantzitsua egin duela Extremadurako eta Andaluziako etxeekin integratzeko. Lehen horiekin elkartzeko bazinen, aberriaren traidorea zinen ia, eta orain ez da ezer gertatzen, haiek elkartzeko baitira. Eta horretan hurbilketa-lan garrantzitsua egin dute.

Alkatea bera, kapitan...

Nik uste Julenek egin duen lana oso handia izan dela, PSOE eta PPrekin gerturatze handi bat izateko. Hor eduki genuen antezedente bezala BateraBai egitasmoa. Hauteskundeen aurretik hasi ginen bilera batzuk izaten eta hor jende desberdina zegoen, baina gehiago zen PNV eta EA eta Ezker Abertzaleko jendea eta hor egin genituen bilera eta saio batzuk eta hitzegiten zen politikaz, biolentziaz, eta hor gehiago izan zen PNVrengana gerturatzeko modu bat.

Pertsonen, keinu txikien eta elkarrekiko konfiantzan aurrera egiten denean ehotzen diren konplizitateen garrantzia:

Hasiera batean funtsezkoak diren hurbilketa-lan horiek guztiak pertsona jakin batzuei esker egin ahal izan direla uste dut nik, hau da, Aljarafe elkarteko presidentea edo Extremadurako zentroko presidentea dena delako eta alkatea dena delako. Baina, tira, funtsezkoak dira egoera eteteko eta, hortik abiatuta, aurrera egiteko.

Nik uste dut oso inportantea izan dala, Julenek eduki duela... zirkunstantziak aukera hori eskeintzen zutelako, lanketa oso handia banaka, egon delako jendearekin asko. Bera Jose Angelekin askotan joan da bazkaltzera adibidez, eta Txemarekin ere bai; esan nahi dut saiatzea harreman pertsonal batean eta konfidantzazko harreman pertsonal batean oinarritzen. Niretzat lan hori egin ez balitz, Eraikiz ez zen edukiko; niretzat Eraikizek hito handi bat suposatu zuen. Nik uste dut harreman pertsonalak eta konfidantzazkoak lantzeak eman duela aukera momentu batean horrelako eszenifikazio batzuk edukitzeko.

Gutxieneko oinarriak jartzeko modua, eta une egokian jartzeak duen garrantzia:

Legegintzaldiaren hasieran gertatu zen. Guk ere ikusten genuen Udalean sartu ziren pertsona berriekin tolerantzia handiagoa, errespetu handiagoa zegoela eta hitz egin zitekeela, gurutzatzen ginenean elkarri irribarre egiten genion... Alkateak eta biok [Jose Angel Rodríguezek] zinegotzien bazkariren bat edo afari batzuk bultzatu genituen izotzaldia urtzeko eta jendeak zituen eragozpenak gainditzeko. Ez genuen ehuneko ehunean lortu, baina beste giro bat sortu zen.

Demokrazian sakonduz, oinarri sendoak eta demokratikoak ipiniz marraztu beharko dugu etorkizuna. Herritarrak prozesu osoaren protagonista modura identifikatuz, prozesuaren epizentroan kokatuz eta azken erabakia herritarren esku utziaz.

Niri keinu politikak iruditu zaizkit, batzuk azalekoak, hala nola apirileko feria batean kulturako zinegotziak "Zuek ere gu zarete, gu ere zuek gara, denok osatzen dugu herria" adieraztea. Esan beharrik ez dagoen zerbait da, baina lehen ezin zen esan edo ez zen esaten, ez baitzegoen halako interakziorik.

Zailtasunak gainditzeko modua:

Hitz egin eta adostu ondoren egin behar dira gauzak. Eta guztien artean hitz egin behar da; hori oso gai garrantzitsua da, oso gai labaina da, eta komeni da gai horretan ongi jardutea, bi kolektibo horien onerako ez ezik, herritar guztien onerako ere bai.

Dauden ideiak mahai gainean jarri behar dira, elkarrekin landu behar dira eta bakoitzak bere gain hartu behar ditu dagozkion rolak.

Lubakiaren bi aldetara egon daitezkeen posizioak hurbiltzeko, zubiak eraikiz. Komunikazioa erraztuz. Herritar guztien izaera eta nortasuna errespetatzeko bidea eginez. Eta komunikazioa errazteaz ari garenez, komunikazioa errazteko, komunitate desberdinen arteko errespetua bermatzeko neurriak hartuko nituzke. Har dezagun adibide gisa: indarrean dauden bi hizkuntzen ezagupena behartuz eta nahi duzun hizkuntzaren erabilera bermatzeko neurriak jarritz. Arazoak gainditzeko, hizkuntza eremuan proposatutako bidea marraztu beharko genukeen bizitzako beste eremuetan ere.

Borondate ona egon daiteke, baina zenbaitetan ez da nahikoa. Halaber, kontuan hartu behar dira kanpoko baldintzak, testuingurua, karga politikoa eta sare politiko eta sozialen konplexutasuna, botere-eskala eta botere-maila guztietan eragiteko aukera errealak, talde politiko bakoitzaren barneko orekak eta aparatuek egiten dituzten aliantzak eta hauteskunde-kalkuluak. Eta kontuan hartu behar dira, halaber, egoera pertsonalak eta elkarte-sarearen konplexutasuna, “goiko” eta “beheko” auzoak...

Gainerako alderdiek nola eramaten duten ez dakit, baina nik beste arazo batzuk ditut. Ni erakunde bateko kidea naiz, parte bat naiz, eta, jakina, gauza batzuetan joka dezaket –eta jokia izan dezaket, azken batean– eta beste batzuetan ez. [Akordioa] Lortzen bada, salduko dut saldu behar dudan lekuan.

Oraindik entzuten duzu batzutan jendeak ez duela Alkartetxera joan nahi eta Alkartetxea orain EH Bilduren egoitza bezala erabiltzen dugu, baina batzuk... horrelako gauzak, gehiago gure artekoa, ez hainbeste de la “gran violencia”.

Gure galdera... gure... nerea, nik ez dut beste inoren izenean, nere galdera da, ba berriro zulo berera nator. Eta da alderdi politikoen barruan... eta PSOEn barruan... edo HBren barruan...HB edo Bildu... zenbateraino gara gure buruaren jabe... edo PNVren barruan... zenbateraino gara gure buruaren jabe. Hau da, gaur beste Eraikiz bat egitea posible izango ote litzateke?... Nik nire dudak ditut. Agian, herri mailan...

Aurreko urteetan egin zena eta egiten zena nabaria zen; orain badirudi...

Orain edonor hasten da sevillanak dantzatzen, eta ongi dago agian. Horrekin zertan egiten da aurrera bizikidetzan? Bada urrats garrantzitsua da. Baina, beste alde batetik, esaten duzu: “Zer? Iritsi berria al zara?” Izan ere, berrogei urte baino gehiago dira hauek hemen daudela. Duela berrogei urte baino gehiago dira herriaren, garenaren parte, eta zu oraintxe konturatu al zara? Bada, ongi etorri, bazen garaia! Baina, tira, egia da horrela bizikidetzak hobera egiten duela behintzat.

Biktimak kontuan hartzea, haien bizi-errealitateetatik abiatzea.

Bizikidetzari lotutako politika publiko edo ekintza orok sentikorra izan behar du besteen minarekin, hots, oraindik badirauen eta okerreko erabaki batek areago dezakeen minarekin. Biktima askok errezeloa eta zuhurtasuna agertzen dute oraindik ekitaldi publikoen aurrean, autodefentsa gisa, iragana gogoratu behar ez izateko:

Biktimek ez dute hor ibili nahi, badute nahikoa dagoeneko. Nireek [PPren inguruko biktimek] behintzat, ez dute horrelako gauzetan parte hartu nahi, inondik ere. Ez dute lidergorik nahi; lasaitasuna nahi dute eta beren senideen memoria ohoratu nahi dute.

Harremanetan jarri naiz ezagutzen ditudan biktimekin, haien senideekin; izan ere, jakina, biktima handiek [hildakoek] ezin didate erantzun. Eta haien senideek esan didate ez dutela omenaldietara joateko gogorik, zauriak irekiko baitizkiete; joanez gero min hartuko lukete. Orduan, niretzat ez dut egingo, hildakoen inguruko pertsonak pozik uzteko izan beharko du.

Nolanahi ere, badaude hurbiltzeko beste aukera batzuk, beste maila batzuetan, azpitik, zuhurtziaz, entzunez, lagunduz...

Aldizka elkartzen gara eta kafea hartzen dugu, buruan zer duten eta zer ez duten jakiteko... Eta, azkenean, erosketaz hitz egiten dugu, laranjen prezioaz, familiaren sakabanaketaz, gertaerek luzera izan zituzten ondorioez, batzuek eta besteek izan duten eraginaz, edota seme-alaben hezkuntzan izan duten ondorioez. Eta zer irtenbide eman dakieke denborarekin sortu diren arazoei, gertatu zenari? Baina gehiago sakondu gabe.

Gauza gehiago lor al daitezke?

Nik daukadan gauza bakarra eskaini dut, hau da, ni neu. Esan didate aztertuko dutela zer egin daitekeen eta zer ezin den egin, baina ez da ezertan gauzatu, bilera gehiago eta auzokoen elkarrizketak salbuetsita.

Zer egiten genuen? Ba, abenduaren hamarra, gisa eskubideen zera, hemen zehatzen ginen, pankarta arratsaldeko zortziretan zehatzen genuen eta hortxe ordu erdi bat. Hortxe bilduko ginen hogeitahamar, berrogei bat lagun. Gisa eskubideen, gisa eskubide guztien alde. Hor ere gure diskusioak izan genituen. Esate baterako, anekdotikoa da baina apaiz batek, diskusioa... nere teoria zen eta ez dut behin ere argitu baina badirela gisa eskubide batzuk, danak direla gisa eskubideak baina batzuk badirela pisu zeragoa dutenak, bizitzarena. Bizitza edo askatasuna. Eta bestearen teoria zen gisa eskubideak, gisa eskubideak direla eta denak berdinak direla. Denak errespetatu beharrekoak. Konforme. Danak errespetatu beharrekoak.

Eta norberari dagokionez? Gure solaskideetako batzuek biktima anizkuntzat hartzen dute beren burua; beste batzuek, berriz, ez dute uste biktimak direnik, edota urrunetik ikusten dute kontzeptu hori, eurak biktimak izanik ere. Zalantza asko eta asko dituzte:

[Azkenean bizirik atera den pertsona dela uste duen galdetuta] *Bai, horrela uler liteke. Biktima al naiz? Ez dakit. Biktima lurpean dagoena da. Nor da biktima?*

Zer gara? Biktima bikoitzak, biktima hirukoitzak? Zehatz dezagun, eta ikus dezagun zergatik sortu zen ETA bere garaian, adibidez; diktaduraren kontra sortu zen. Gogoan dut tabernetan politikaz hitz egiten hasten zinenean aldeetara begiratzen zenuela badaezpada, 'gris' bat egongo ote zen beldur. Gero, zenbaitetan, politikaz hitz egiten hasten bazinen, kontuz!, ETako komando bati informazioa ematen zion norbait egon zitekeen eta salatari izatea lepora ziezazukeen, nolabait esatearren.

Kartzela jasan eta egun 10 urteko kartzela zigorraren mehatxupean bizi arren, ezker abertzaleko militantea naizen neurrian ez naiz biktima sentitzen. Euskal herritar modura sentitzen naiz biktima. Aitortzen ez den herri baten parte sentitzen naizelako, nire ama hizkuntza zokoratzeko ikusten dudana saiakerarengatik,.... Horrexegatik sentitzen naiz biktima.

Jendeak erresumina duela ikusten dut nik. Erresumina esklaboaren sentimendua da. Zulo batean sartuta egon zara, sagu bat bezala, bizkartzainarekin ibili behar izan duzu, izurriduna bazina bezala, eta erresumina duzu, normala da. Orduan, nik agian gainditu ahal izan dut, baina izan dut, jakina! Baina ez dut Stockholmeko sindromea, pijo askok dioten bezala, ezta pentsatu ere, nik beti eman dut aurpegia, eta hiltzailea denari esan egiten diot. Stockholmeko sindromerik ez dut, eta, gainera, neurriak hartu ditut alde aurretik, halakorik inoiz ez izaten saiatu naiz. Eta posizio horretan nagoenez gero, hau da, egurtuak izan diren eta bizirik atera diren gutxi horien artean –eta horiei barka dakieke erresumina izatea–, bada balio handiagoa du nire jarrerak beste leku erosoago batean egongo banintz baino. Edo biktimengandik hurbil nago, eta gauzak beste era batera esplikatu dakizkieke, giza harremana baitut haiekin. Nik uste dut erantzukizun bat dudala horretan. Ahal dudana egiten dut, eta kito. Urrunegi ere ez naiz joaten, ez naiz gorpuz eta arima aritzen.

12.3. HARRERA ONA ETA OIHARTZUN HANDIA IZAN ZUEN EKIMENA: ERAIKIZ

Elkarrizketa egin duten pertsona guztiek aho batez hobekien balioetsi duten gertaeretakoa bat ERAIKIZ izeneko esperientzia da. Ekimena 2013ko urtarrilean egindako zinema, antzerki eta solasaldiko jardunaldi batzuek osatu zuten, eta askotariko biktimek hartu zuten parte. Ekimenak lau eguneko iraupena izan zuen eta 300 pertsona joan ziren. Edonola ere, hitz egin zuten pertsonengatik ez ezik, Udalean ordezkaritza duten indar guztien (eta guztiak guztiak dira: Bildu, EAN-IU, EAJ, PP eta PSE-EE) artean lortutako adostasunagatik ere izan zuen oihartzun handia ekimenak.

Hona hemen Julen Mendozaren diskurtsoa:

Guztiak gaude: Bildu, PSE-EE, EAJ-PNV, PP eta EAN-IU. (...) Honaino iristeko lehenago konfiantzak sortu eta elkarrizketa asko izan behar dira. Baina bereziki, aurrean duguna entzuten ikasi behar da eta bere tokian jartzen. Enpatizatzen ikasi behar da. (...)

Nire beldurrak gainditu nahi ditut, eta nire hurkotasunik zintzoena agertu nahi diet herrialde honetako indarkeriaren ondorioak jasan dituzten guztiei. Eta guztiei diodanean, guztiak esan nahi dut: nire bizitzaren zirkunstantzia pertsonal eta politikoengatik hurbil izan ditudanak, eta luzaroan niretzat 'besteak' izan direnak eta horrela sentitu ditudanak (nolanahi ere, ezinbestekoa da horiengana aurreiritzirik gabe hurbiltzea). Eta, benetan diot, hemen gauden guztiok beldur asko ditugulakoan nago. Bestearen lekuan jartzeko beldurra, gure ziurtasun edo pertzepzioren bat zalantzan jarriko baitugu agian. Bestearen sufrimendua entzuteko beldurra, iraganean sufrimendu horren inguruan agertu dugun urruntasunaz konturatuko baikara agian. Eta bakearen eraikuntzan aurrera egitea ahalbidetuko duten baldintzak sortzeko beldurra, nahiz eta urrats sinbolikoak izan, gainerakoen urratsen zain egoten baikara beti geureak egiteko. Izan ere, bakea ez da sokatiraren ekuazio politikoan oinarrituta eraikitzen, konfiantzan oinarrituta baizik, denok irabazteko aukera dugula ulertuta.

(...) Bakea soilik giza eskubideen errespetu absolutuan eraiki daiteke, pertsona guztientzako eskubide guztien errespetuan. Hori da lehen lehenengo eskenatoki ezinbestekoa, hori gabe ezinezkoa delako berradiskidetzea eraikitzea (...)

Egun dudan erakunde-karguagatik dagokidan erantzukizunari erantzunez, 'sentitzen dut' sakon bat helarazi nahi diet biktima guztiei bihotz-bihotzez, urte askotan pairatutako sufrimenduagatik. Jakin badakit egoera horretan jartzeko ahalegin handia eginik ere, inoiz ezin izango dudala egoera hori bizi eta behar adina dimentsionatu. Badakit eragindako kaltea atzeraezina dela. Horregatik, nire gain hartzen dut egun dudan erantzukizuna, eta nire

eskuetan dagoen guztia egingo dut sufrimendu horrek denok, hau da, gizarte osoa inplika eta konprometi gaitzan, sufrimendu horren arrazoiak eta ondorioak gaintu ahal izan daitezzen. Hori lortzeko, ezin dugu ahazten utzi herrialde honetan gertatutakoa. Zintzotasun osoz diot, eta zintzotasun berarekin har dadin nahi nuke⁴⁰.

2013ko otsailaren 3ko El País egunkariak honela jaso zuen EFE agentziak Julen Mendoza alkatearen diskurtsoak sorrarazitako erreakzioei buruz zabaldutako informazioa:

Urrats esanguratsua egin du, terrorismoaren biktimekiko hurbilketa eskatu baitu ETAk eraildako herriko PPko bi zinegotzietako bat izan zen José Luis Casoren alargunaren aurrean. Joan den astean egin zuen, biktimei 'sentitzen dut, bihotz bihotzez' adierazi zienean. (...) Alkateak 'beste zerbaiten hasiera izatea' espero du. 'Poliki-poliki ibiliko gara, ez dakigu zein izango den hurrengo urratsa, ezta egin ahal izango den ere, baina helburua urrutirago joatea da'. (...) PPK Udalean duen bozeramaile José Manuel Herzogek sinesten ditu alkatearen hitzak, eta gizon 'balioduna eta zintzoa' dela dio. Herzogek dioenez, berak ez du ahazten, baina barkatu ahal izan du, 'bizikidetzaren oinarria ezin baita izan betiereko etsaitasuna⁴¹.

Zergatik egin dute alderdi politiko guztiek Eraikiz ekimenaren balioespen positiboa?

Nik uste dut topagune bat, gune komun bat bilatu zutela; norabide horretan doazen ekimen guztiak ongi etorriak izango dira.

Nik uste dut harreman pertsonalak eta konfidantzazkoak lantzeak eman duela aukera momentu batean horrelako eszenifikazio batzuk edukitzeko. Ildo horretan egiten den ekimen oro positiboa dela iruditzen zait. Eta pentsatu nuen: gauza ona da Erreterian horrelako gauzak egiten hastea. Hala ere, ez ditut datu asko, ez baitut oso hurbiletik jarraitu, ez, behintzat, alderdi honetan egokiagoa dela edota bestean okerragoa dela esateko adina. Funtsean, aurrera egindako oso urrats garrantzitsua iruditu zitzaidan hemen horrelako gauzak egiten hastea.

Horrek eduki zuen mediatikoki kriston oihartzuna, nik uste dut hor eszenifikatu zela oso ondo elkar lanerako gaitasun bat eta aurrera begira igual ezin duzu relatoa erabat, seguru ezetz, konpartitu baina bai aurrera begira helburu batzuk jarri eta saiatu normalizazio baten bidean sartzen.

Honela bizi izan zituzten, zuzen-zuzenean, ekimenaren norainokoaren gakoak eta egindako lehen urratsak:

⁴⁰ MENDOZA, Julen. <http://herribizia.erretereria.net/2013/01/25/julen-mendoza-alkatearen-aurrekepen-hitzaldia-eraikiz-zine-eta-antzerki-zikloan/>

⁴¹ EFE eta El País, 2013/02/03.

Lanerako gune bat bilatzeko eta horrek etorkizunean zer eman zezakeen ikusteko konpromiso bat lortu genuen.

Nik uste dut Julenen baratzeko baratxuria izan zela. Eta egin behar zuenean egin zuen, une egokian. Bera oso sentikorra da gai horretan, baina egia da, bestalde, gero ez duela urrats garrantzitsurik egiten finkatzeko, baina bai, urrats mota horietan bederen, asmatu egin du. Hauteskundeek nahasi gabeko une batean egin zuen. Ongi moldatzen da Santanorekin, eta alderdi sozialista atzetik eraman zuen; hori izan zen gakoa. Niretzat oso garrantzitsua izan zen denok areto berean hainbat kontakizun entzutea, Egigureni... Interesgarria iruditu zitzaidan.

Oso ongi iruditzen zait, alkatearen aldetik batez ere. Oso ausarta izan zen, zuk egin ez duzun gauza batengatik barkamena eskatzea. Hori duk eta. Eta buru-belarri sartu nintzen planteamendu horrekin. Inork esango dit: "Gutarrek sufritu duten guztia zapaldu duzu". Bada, bere iritzia errespetatu behar dut, baina, zer egingo dut? Nik ez dut nahi nire seme-alabentzat, gure seme-alabentzat, desberdintasun hori, horrekin jarraitzea. Benetako topagunea izan zela uste dut.

Erabat baliagarria.

Ekimen ederra izan zen, batez ere kultura politiko oso ezberdineko pertsona eta alderdiak elkartuta antolatu zelako zine eta antzerki zikloa: Bildu, PSE-EE, EAJ-PNV, PP eta EAN-IU. Lehen aldiz aurrean zuten hori entzuten hasi zirelako eta bata bestearen lekuan jartzen saiatu. Enpatizazio prozesu bikaina izan zen antolatzaileek erakutsitakoa. Ikasgai handia izan zen. Elkarlanean bakarrik eraikiko baitugu demokrazian oinarritutako etorkizuna. Ezinbestekoa da konplizitatea. Inor ez dago soberan.

Bestea entzuteko dugun beldurra garaitzeko aukera eman zuen. Bestea entzun ondoren hausnarketarako tartea eskainiz. Bakoitzarena, oso gurea den egia absolutua zalantzan jartzeko aukera eskaini zuen zikloak.

Eta zergatik hartu zuen ongi ekimena jende askok? Hona hemen kontsultatutako pertsonak gehien aipatu dituzten arrazoietakoz batzuk: harremanen nolabaiteko normaltasuna, konfiantza pertsonala eta agertutako errespetua, indarkeriarik eta hauteskunderik gabeko unea, barkamen-eskaera zintzoa eta abar.

Uste dut nolabaiteko bidea ireki zuela eta orain beste leku batzuetan ireki dela edo ireki nahi dela, ezta? Eta hori lortu ahal izan zen lehengo indarkeria-seinaleak ez zeudelako, eta lortu ahal izan zen korporazio honetan, eta bost taldeetako bozeramaileen artean bereziki, konfiantza-giro handia zegoelako eta dagoelako.

Alderdi pertsonala garrantzitsua da. Ez dut uste beste leku batzuetan, une hartan, egin ahal izango zenik. Eta hurbileko udalerriez ari naiz. Beti pentsatzen dut garrantzitsua izan zela han egon ginen bost pertsonen alderdi

pertsonala. Eta, gainera, hauteskundeak urrun zeuden, eta hori lagungarria izan zen.

Udaleko pertsona talde batek topaketak antolatzea, inaugurazio-ekitaldian alkateak José Luis Casoren alarguna gonbidatzea, harekin egotea eta ahal duen heinean barkamena eskatzea edota, esan dezagun, ez dakit adiskidetasuna edo errekonozimendua eskaintzea lagungarria da. Nola egin behar da? Ez dakit. Diotenez, ale batek ez du aletegia egiten, baina bai kideari laguntzen. Bada, jendearen harremanak normalizatuz, denak denekin.

Giza faktorea garrantzitsua da kasu honetan eta antzeko egoeretan. Protagonisten izaera, erabakitzeke autonomia eta entzuteko eta gainerakoei ulertzen saiatzeko irekitasuna ongi balioetsitako alderdiak dira:

Beste bozeramaileetako batzuen lekuan jarrita, badakit haientzat ez zela erraza izan urratsa egitea; horregatik azpimarratu nahi dut faktore pertsonalaren garrantzia. Gai horretan, alderdien zuzendaritza-batzordeek ez zuten erabaki: “Tira, egingo dugu”, eta zinegotziari egin behar duela esan. Ez. Behetik emandako bultzada izan zen, eta nik uste dut batzuek onarpena emango zutela, Chemak [Herzog] edo Julenek [Mendoza], edota, beste maila batean, Jose Angel Rodríguezek, zeina, seguruenik, nik izan ez nituen baldintzak zituen.

PPkoa esate baterako, PPko zinegotzia, hemengoa. Ba bueno, bere jarrera garbia du. ‘Todo lo que pueda hacer por el pueblo, contad conmigo. Lo que trascienda el pueblo, es otra cosa’. Eta bueno, hemen torturatzen dela, eta horrelako aitorten egin ditu, ezta? Eta nik eskertzen diot. Mirestekoa da horrelako jarrera. Hau da, azkenean, ‘yo por mi parte... pero...’ hori gehiegitxo, gehiegitxo ez ote dan entzuten.

Oso detaile polita izan zen eta on handia egin zigun, San Juan bezperako aurrekuan, hemen udaletxearen aurrean egiten dena, talde politiko guztien zinegotziak parte hartu izana.

Garrantzitsua da une oro kontuan izatea zein izango den egin beharreko hurrengo urratsa, eta hurrengoa, eta hurrengoa... Eta, denon artean, eraikitzen ari dena babestea.

Nik ez dakit lehen aldia zelako izan den edo ez dakit zergatik, baina prozesuaren amaieran ez naiz ongi sentitu; izan ere, prozesuak oihartzun handia izan du eta Udaleko talde guztiek ahaleginak bateratzea lortu genuen, baina, prozesu horren guztiaren ondoren, bigarren mailara baztertuta geratu gara eta errentagarritasuna alkate jaunak eraman du.

Horretan parte hartu duen jendeak agirakak baino ez dituzte jaso beren inguruko jendearengandik: “Baina nola bururatu zaizu hara joatea?”. Guri lehen protagonista gisa iruditzen zaiguna egiteko irizpiderik ez bagenu

bezala. Etorri ziren biktimek, nik haiekin hitz egin bainuen, zertara zihoazen entzun behar izan zuten beren inguruan, ez zutela inor ordezkatzeko eta joan ez ziren besteek ez zutela joan nahi. Zergatik izan behar du horrela? "Traidorea zara hara joan zarela". Zer traidore eta zer traidore-oste! Zer jarrera numantziar hartu nahi duzu? Jarrera numantziarra hartu nahi baduzu, Numantziako gerra lortuko duzu.

Leku eta giro guztietara iristea

Kasu honetan, auzo guztietara iristeko kezka:

Beraungo jendeari hori iristen zaio? Beraungo jendeak badauka kezka bat biolentziaren gaiarekin edo politikariak baliatu duten egun diskurtso bat da? Nik ez dakit ze puntutaraino egin den ibilbideak izan duen inpaktorik han goian (Beraun) edo ez, ez dakit.

Beraun adibidez eta auzo elkarrean ikusten da, da PSOEn gotorleku bat bezala. Eta horrela funtzionatu dute eta 'el mensaje del miedo' aldaketa egon zenean legegintzaldi honetan EH Bildu sartzerakoan, beldurra transmititu zieten eta Irureri, kultura zinegotziari, batzuk iritxi ziren esatera "ba orain ia ez da FERIA de Abril ospatuko"... "Nola ez dela ospatuko, zergatik ez?". Eta hori desaktibatu da. Baina da gehiago eguneroko harremanetan eta zuk egin nahi duzun hori egite aldera udalak erraztasunak ematen dizkizula; horrek konbibentzia hobetzen du eta desaktibatuko ditu gauzak baina gero politikoki ez dakit noraino irizten dan hori...

Horren harian, esanguratsua izan daiteke "normaltasun-maila" herriko egunerokotasunean sentitzen den errespetu-mailaren eta mugitzeko eta adierazteko askatasunaren arabera neurtzea. Horren inguruko sentazioak desberdinak dira, baita alderdi politiko beraren barruan ere. Zenbait kasutan leku jakin batzuk saihesten badira ere, hobera egitearen sentazioa dago:

Ezker abertzaleko jendea inguru batean ibiltzen da, eta besteak, berriz, beste inguru batean. Hori egon badago, eta gauza jakina da inguru jakin batzuek eragin hori dutela eta saihestu egiten dira. Horrek dakarren guztiarekin, ostalaritzarako eta abar. Ni neu joan egiten naiz joan behar badut, baina ez ditut leku horiek bilatzen. Saihestu egiten ditut. Zergatik? Ez da zerbait egingo didatelako, ez, deseroso sentitzen naizelako, begiratu egiten didatelako, hormetan zer dagoen ikusten dudalako baizik. Sartzen naiz eta... Tamalez, hori gertatzen da. Dena dela, nik mundu guztiarekin hitz egiten dut eta errespetuz hitz egiten didan orori erantzuten diot.

Ni, alderdi pertsonalean, nindoan lekutik, seme-alabekin nindoan, taberna honen aurretik ezin nintzen pasatu, agian zerbait esango zidaten eta... Ez naiz ezer asmatzen ari, eguneroko kontua zen hori. Gaur, zorionez, gaindituta dago hori.

Orain Madalen kaletik joaten naiz Salbera, ez naiz erabat lasai joaten, baina, tira, joan egiten naiz, nire buruari agintzen diot. Lehen ezin nuen hori egin, auskalo nola iritsiko nintzen Salbera. Ildo horretan, normalizazio handia lortu da. Beno, gero ikusten dituzu batzuk zure ondoan, tentsio handiarekin, baina zure ondoan daude, haientzat izugarria da, izurria duzula baitirudi. Zure ondoan egotea... Horretan aldaketa handi samarra izan da, neurri handian hobetu dugu.

Udal-korporazioaren jarrera berriarekin bizi izandako esperientziak udal-erakundea bera edo herriko egitura politikoak baino sektore gehiago mugiarazi zituen. Aurrera egiteko modua ez da pertsona bakoitzaren kontua soilik, ezta "gainerakoek" kontua soilik ere. "Zureen" kontua ere bada.

Nola ikusten dituzu zureak bide honetan?

Ez dakit ze gauza egin ditzakegun. Nik oso argi daukat guk EH Bildu bezala, biolentziak zenbat min egin duen modu irekiagoan onartu beharko genukeela eta hor badaukagu arazo bat, zailtasun handia dagoelako hori onartzeko. Guk benetan konpondu nahi badugu jende guztiak onartu beharko du mina, baina nolabait nik ez dut uste posible denik esatea "hau gerra bat izan da de iguales a iguales y estamos todos tranquilos porque ha sido una guerra". Eso hay quien lo dice. Neretzat hori oso gogorra da. Zuk ezin duzu termino hoietan... nik uste dut egon den biolentzia ezin daitekeela justifikatu eta egin duen mina onartu egin behar duzula. Onartu edo... ez dakit ze terminotan, ez dakit nola. Eta nik uste det nahiz eta gogorra izan keinu gehiago egin behar ditugula EH Bildu bezala.

PNV bera ere, ikusten det, ba bueno, gustora giro horretan. Zein da arazoa? Ba, betikoa, bakoitzak partiduaren interesak ere edo batez ere zaintzen baldin badira, ba, klaro, beste dinamika seguraski hemendik eta hauteskundeak egin bitarte eta gauzak tensionatu eta biolentatuko dira.

Nire alderdi politikoan, nire talde sozialean, jendea harrituta geratu da ezer gertatu ez zaidala ikustean. "Honi ezer gertatzen ez bazaio, beharbada lor liteke horrelako zerbait". Pentsatzen duzu: arrazoia ote du tipo honek? (...) Harro nago egin dudana. Eta nire kideak, Iñigo Manrique eta Vanessa Vélez De Pablos, aupa zuek! Eta hori guztia heterodoxoa zela, ongi ezagutzen ez zituzten kontuetan sartuko zirela jakinik etorri ziren.

Nola ikusten dituzu gainerakoak bide honetan?

Ez gara adiskidetu, ez ditugu bakeak egin, ez gara iritsi mahai batean elkarri "hau bizi izan dut" aurpegira esatera. Izan ere, EAJk harria jaurti eta eskua gorde du, bere betiko espezialitatea da hori. Egoera hau komeni zaio, bera

baita nagusi. Begitan hartua dut EAJ, ezin dut besterik egin. Alderdikoa, "pasilleroa", doilorra eta traidorea da. Eta "hau egingo dizut" esaten dizu, eta bihar kontrakoa egin eta labankada bat sartzen dizu.

Nere dudak ditudala esaten dudanean, alkatea Bildu da edo ez da Bildu? Galdera. Alkatearen portaerak eta gero beste hainbat jenderen portaera badirudi... alkateak horrela zioak eta erabatekoak izango dira eta... Mundu hori ez dut ezagutzen baina ez nintzateke harrituko... zera... Errealari zer gertatu zaio, partiduak irabazten zituenean entrenadorea ona zen, eta entrenadore berberekin partidoak galtzen direnean, ba orduan... eta hemen ere berdin, orain gauzak ondo dihoazkie eta bueno... partiduak irabazten dituen bitartean... bale, baina... hori, hori da baina hori. Eta gero, PSOEn ere... nik uste det PSOEk ere orokorrean daraman jarrera askoz ere zentralizatzaileagoa dela, kontrolatzaileagoa... ez ditu behar hainbateko... ez dira, ez dira... beti... zerbait amankomunean egin nahi baldin bada edo... "sí, sí, sí... estamos de acuerdo, sí, sí...", eta personak jatorrak e!, benetan, sinistu egiten diot baietz esaten baldin badit, ez dela gezurretan ari... baina baietz esatetik gero hori egia edo... mamitzera eman beharreko pausoak, zerk eragozten du? Ez dakit baina...

Ezker abertzaleak nerabazaroko arazoak ditu, heldu egin behar du ikaragarri. Oso gauza samurra da, zapalkuntzaren ondorioz sortua. Zapalkuntzatik eta herratik. Elgorria pasatu behar dute, eta beren etxeko gauzak apurtu behar dituzte, nerabeek bezalaxe. Boterea, benetan, ez dute inoiz izan. Lortzen dutenean, esprimitu egingo dute. Ikusiko duzue bai! Hori ere izango dugu, eta babestu egin beharko dugu. Zer eskatuko diet? Ezer ez, ikas dezatela. Horixe eskatzen diet, ikas dezatela.

"ETArrik gabe proiektu guztiak izango dira egingarriak" esaeraren preso ikusten ditut askok. Hainbatetan errepikatu izan duten gezurraren morroi. Gezur handi hori eusten duen sistemaren preso ikusten ditut alderdiak. Egun duten botere guneei eusteko obsesioan itsututa. Herri honetan ETA jaio aurretik gatazka politiko bat bizi genuen eta ETA ondoren indarrean darrai. Demokrazian sakontzeko beldur ikusten ditut, demokrazia aho betez aritu diren alderdiak. Nola kalifikatu bestela, herritarrei hitza eta erabakia emateko ikusten ditugun eragozpenak? Ez dago herritarrei hitza ematea bezain ariketa demokratikoagorik ezta?

Adostasunak eta desadostasunak

Uneak egokitu eta paralelo mugitu beharra dago; osterantzean, dena geldiarazteko edota atzera egiteko jarrerak ager daitezke:

Gauzak egin nahi al dituzu? Hantxe izango nauzu. Lagundu egingo dizut edo behar adinako mahuka zabala izango dut, nik ere talde politiko bat dut, afiliatu batzuk ditut, herriko batzorde bat dut, eta baditut pertsona batzuk... baina ni ere iristen naiz... Baina, arraioa, ez esan nahi duzula, gero presoen

pankarta bat jartzen badidazu hor, sarreran. Zertan ari gara? Bide jakin baterantz joan nahi dugu, ala orain zu hona etortzea interesatzen zait, ipuina kontatzen dut, baina gero, itzultzean, presoen pankarta bat jarriko dizut, osoko bilkura dagoen aldiro kamisetak edo pegatinak aterako dizkizut... Zertan ari gara? Eta gauza horiek, bada ez, zuk niri presioa egiten badidazu, nik zer egingo dut? Bada, urrats bat aurrera egin ordez, urrats bat atzera egingo dut.

Guk Bildu bezala pentsatu behar dugu politikoki ze pauso eman konbibentzian hobetzeko eta nik uste guri tokatzen zaigula ematea.

Landare elkarteak ezker abertzalearen bizitza soziala hauspotzeko sortutako elkarteak izan da. Ezker abertzalearen egoitza soziala azken 30 urteetan. Eta sinbolikoki bada ere ezker abertzalearen arrastoak biltzen dituena. 80ko lehen urteetan inauguratu zen. Sarrerako harresia adokinez, galtzada harriekin eraikia izan zen. Etor zitezkeen erasoan aurkako neurriak aintzat hartuta egina. Behin baino gehiagotan izan da polizi mota guztien erasoarako gune eta birritan izan da bortxatua. Egun, urrutirago joan gabe, Landare Elkarteak auzipetua jarraitzen du eta ixteko mehatxua indarrean. Garai berriak marrazten hasteko begi bistan dugun beste arazoetako bat besterik ez.

Dirudienez, hori egiteko modua talde guztiek parte hartzea, ahalik eta aniztasunik handiena lortzea eta adostasunak eta dauden eta egongo diren desadostasunak garbi uztea izango litzateke. Horretan adostasuna dago:

Azkenean elkarrekin zerbait egiten badugu, elkarrekin salduko dugu.

Nik neuk garrantzia handia ematen diot personak elkarrekin ondo konpontzeari. Errespetua, irainik ez zehatzea, zuhurtzia... Esate baterako, alkatea bera ere ez da protagonismoaren zale, zehatzen baldin badu pankarta eramateko, ba ez, ez... joaten baldin bada, inbitatu naute eta zera... holako hitz batzuk eskatu dizkidate eta zera... beti formak asko zaintzen ditu.

Alkate jaunak pertsona jakin batzuk ekarri, tresna jakin batzuk erabili edo kolektibo jakin batzuekin lan egin nahi badu, nik esan dezaket beharbada baten bat baietz edo baten bat ezetz, edo izen batzuk falta direla.

Nik beste urrats bat egin nahi dut aurrera. Hura ziklo bat izan zen, eta konferentziekin eta hitzaldiekin ere konbina litezke, film batera eta protagonistak aurkeztera mugatu gabe... Eta hori ongi dago, hori egiten jarrai daiteke. Oreka bat bilatu behar da biktima batzuen eta horiek jasan dutenaren, eta beste biktima batzuen eta horiek jasan dutenaren artean. Kolore guztietako pertsonak baina beste maila batekoak ekarri behar dira, izen handiagokoak, unibertsitateko irakasleak... Izen berak agertzen dira beti. Ez, ez. Aniztasun handiko gizarte batean, denetik egon behar du, beste

pertsona batzuek arazoa nola bizi izan duten eta problematika horrek guztiak gizartean nolako eragina izan duen jakin behar da, zigorra zuzenean jasan dutenen ikuspegitik ez ezik, beste kolektibo batzuen ikuspegitik ere bai.

Glencreeko esperientzia:

Gehien gustatu zaidan esperientzia, egindako moduagatik, jende-aniztasunagatik eta pertsonen garrantziagatik, Glencreekoa izan zen. Zoragarria izan zen.

12.4. BIZIKIDETZA HOBETZEKO MODUA

Jasotako iritzien arabera, bizikidetza partekatua eta librea bilatzeko erabakia ez litzateke etorkizunerako, hau da, balizko une hobeak iristen direnerako utzi behar. Ezin gara zain egon egoera ehuneko ehunean denon gustukoa izan arte. Ildo horretan, desberdinen arteko errespetuan eta elkar ulertzean eta alderdi komunen inguruko lankidetzan aurrera egiteko prestasuna dagoela egiaztatu da.

Eta ez da nahi soil. Leku komunak eta adostasunak bilatu nahi dituzte, gizartearen gehiengoak onesten duen eta bizkar emanda eta bazter utzi ezin duten zereginaren parte baita hori.

Beste ezer baino lehen, **zer gertatu zen jakin behar da.**

Eta, horretarako, ezinezkoa eta kaltegarria da historia ofizial bakarra edota egia hutsa ezartzea, ez baitago halakorik. Hobe da kontakizun guztiak era irekian partekatzea.

Batez ere, ez dadila gertatutakoa ahaztu eta berriro hutsetik hasi, jakin dezala jendeak nondik gatozen. Izan ere, esaerak dioenez: 'beren iragana, beren historia ezagutzen ez duten herriak berritzera kondenatuta daude'. Ez dugu gauza bera gertatzerik nahi, ez dugu sesiotan ibili nahi, ez dugu lubakirik nahi, ez dugu elkar jo nahi.

Entzun eta hitz egin

Ez dugu itxurakeriarik nahi, hitz egin nahi dugu, hitz eginez ulertzen dugu elkar. Adostasun komun batera iritsiko gara, batzuei amorru handiagoa emango die, beste batzuei txikiagoa; batzuk pozik egongo dira, beste batzuk ez hainbeste, baina, behintzat, hitz egingo da. Bakoitzak bere arrazoia azalduko du. Ez dadila etsairik egon, auzokoak gara. Gainera, denon artean bultzatu beharreko lotura komun garrantzitsu bat eta interes komunak ditugu.

Alderdi positiboak gogoratzea

Ez legoke gaizki Erreterian gertatu diren eta arrasto onen bat utzi duten gertaera positiboak eta aurrera egiten, berdin pentsatzen ez duten pertsonen laguntzen edota bizikidetzaren oinarriak finkatzen lagundu duten jokabideak, jarrerak eta pasadizoak biltzea. Gauza txarren artean onak gogoratzea. Biltzea eta ezagutzera ematea.

Ni ez naiz sekulan sartu eta bueno, nik ez nuke problemarik edukiko, baina ni ez naiz sekulan sartu Casa del Pueblon. Eta aldiz, taberna bezala funtzionatzen zuen Alkartetxeak aurreko legegintzaldian pixka bat, eta ez aktibitate handiarekin, baina PSOEko zinegotzi batzuk goizetan kafea hartzera joaten ziren Alkartetxera. Hor ez zegoen, momentu hortan behintzat, beraientzat problemarik.

Egin ohi zuten kontzentrazioetako bat zegoen, uste dut ez zutela egin gertaera jakin batengatik. Jakina, ezagutu egin ninduten. Jo egin ninduten eta udaltzain batek babestu ninduen. Hantxe aritu ziren kalaka ematen, Udaletxeko atean. Halako batean, HBko zinegotzi Jokin Toledo etorri zen eta lagundu egin zidan. Gauza horiek dira; azkenean, oso erradikalak izanik ere, batzuk gai dira gauzak bereizteko. Kolpeak izan ziren, eta 40-50 bat pertsonak –edo zeudenek– jo egin nahi zaituztela jakiteak sorrarazten dizun beldurra. Jakina, lintxatu ahal izan ninduten. Eta ez zitzaidan aldi hartan bakarrik gertatu, gehiagotan ere gertatu zitzaidan, mehatxuak, tira...

Poliziatik babestu nindun nahiz eta ni bezala pentsatu ez!

Gainerakoak pertsonatzat hartzea. “Beste pertsonaren” errekonozimendua

Behin irakurri nuen frantses bat lubakietako zulo batean sartu zela eta aleman batekin egin zuela topo. Baionetarekin borrokan hasi eta tripak atera zizkion. Gau osoa eman zuen zuloan, eta alemanaren arropa arakatu ahal izan zuen, nor hil zuen jakiteko. Eta herri bateko eskolako irakasle bat hil zuen, lau seme-alabaren aita; gutun batzuk aurkitu zizkion. Une horretan, ikuspegia aldatzen da: orain ez da hil nahi zaituen aleman bat, lau seme-alaba dituen eskola bateko irakaslea baizik. Horrek dena aldatzen du.

Nik pentsatzen dut herritarren arteko bizikidetzak hori bestearen errekonozimendutik abiatuta lortu behar dela. Hau da, kontu honetan funtsezkoa da gu-haiek hori apurtzea. Eta apurtzearekin esan nahi dut errekonozitu egiten zaitudala, ezta? Ea, nik sufritu egin dut zure inguruko pertsona batzuek nire inguruko pertsona bat hil dutelako, eta eskatzen

dizudana da, hasteko, zure inguruko horiek nahigabe bat, arazo bat eta erreparatu beharreko egoera bat eragin didatela onar dezazun.

Herrian gauzak aldatzen ari dira. Lehenago gure artean zegoen inkomunikazio hori ari gera gaitzen eta orduan konturatzen gera askotan norbera nolakoa zen pentsatzen genueneko hura, gero elkar ezagutuz joan garen neurrian ezberdina zela. Nik ETari buruz izan nezakeen zera... ETA hiltzailea, era sinplea eta zergatik; eta gero, ETaren inguruan ibilitako hainbatengan ikusi dut pertsonak direla eta pertsona bezala, pertsona baloratzen dutela eta bueno, seguraski nik neuk beraiek txikitan bizi izan zutena bizi izan banu, ETakoa izango nintzela. Esan nahi dut historiaren... eta alderantziz.

...eta, horren ondorioz, norberak gainerakoekin duen jarrera aldatzea:

Ez zara nire etsaia; izatekotan, nire aurkaria zara. Eta gauza batzuetan (edo askotan), nire aliatua izan zintezke (edo ni zurea).

Naturaltasun osoz joka dezatela; gizarte guztietan daude arazoak, ez dago zertan denak lagunak izan, ezta gutxiagorik ere. Baina badaude arau batzuk legeetan jasota ere egon behar ez dutenak eta pertsonen gizabidezko portaerarekin zerikusia dutenak. Zergatik ukatu behar diozu agurra seme-alabak kartzelan dituen edo semea kartzelan duen norbaiti? Zeren errudun da? Edo zergatik sailkatu behar da jendea onen eta gaiztoen artean, alderdi honetako edo sindikatu hartako kide diren kontuan hartuta? Beti iruditu zait zentzugabea, eta zentzugabea iruditzen zait orain ere. Zergatik egin behar diozu eraso, fisikoki eta hitzez, edota erail, zuk bezala pentsatzen ez duenari? Zuk bezala pentsatzen ez badu, saia zaitez konbentzitzen, edota ez zaitez konbentzitzen saiatu, ez da ezer gertatzen.

Zera osoan... horren bila... nik uste oso inportantea dela... relatoak eta ari gera zeaten, bakoitzak geurea daukagu eta nahiko nahasia gainera, baina entzuten... bestearen tokian... gero klaro, hortik hasten zera eta moralina eta... ez dakit nik zer dan moralina edo etika edo zer, baina hori egiten ez badugu ere zaila izango zaigu. Hala ere, ni baikorra naiz. Orain hitzegiteko ere, ia askatasuna... Atzo batekin hizketan eta presoeng inguruan eskatu diote ba zera, sinadura eta bera, PNV giroko gizona, eta hori eskatzen ziolako orain dela zortzi-hamar hilabete, kalean pasata ez zion kasurik egiten. Baina ez zion kasurik egiten aktiboki, ez hola... ba orain horrek besteari, ba hori esaten dio, ba bueno, ondo, presoeng eskubideak, kolaboratzeko tresna da eta... baina esan dio. Orain dala hamar hilabete ez zenidan kasurik egiten... Eta erantzuna? Ba... baina esan, esan nahi dut... lehenago esateko ere...

Hauxe da funtsezkoa: norbait nigana etorri eta agurtzen banau, nik erantzun egingo diot. Inork nire familiaz galdetzen badit, nik naturaltasun osoz erantzuten diot, eta alderantziz. Hori bizikidetzat da, hori bizitza bera da, hori herri bateko herritar izatea da. Azkenean, zer da hiri bat?... Harreman onak

dituzten, eta harreman onekin “ostiaka” (eta barkatu hitza) baino hobeto biziko diren pertsonen multzoa.

Bildu bezala pentsatu behar dugu politikoki ze pauso eman konbibentzian hobetzeko eta nik uste guri tokatzen zaigula ematea, ez dakit zer eta nola... eta beste gauza bat da nik politikari bezala nere mina jartzea nire politika egiteko gaitasunaren aurretik. Egon da estatuaren biolentzia ere... horrek ez dio minik suposatzen? Gustatuko zaigu gehiago edo gutxiago ezker abertzaleak aldaketa bat eman izana, pentsatuko dugu gehiago taktikoa edo estrategikoa izan den, pentsatuko ditugu mila gauza baina guk udaletxean edo parlamentuetan edo ez dakit non politika egiten ari garenean guk konbibentziaren aldeko pauso eredugarriak eman behar ditugu baina denak eta gure mina utzi behar dugu alde batera.

Presoak

Euskal presoen egoerari lotutako gaietara hurbiltzen garenean, nabaria da hemen gertatu zaigunaren mamira iristen den arazo baten aurrean gaudela. Jarrera batetik edo bestetik begiratuta –eta bi jarrera baino gehiago daude, ikusiko dugunez–, mahai gainean zein azpian dagoen zerbait da eta gutxik egin dezakete ez ikusiarena, baina oso zaila da lantzen. Erantzunetan, jarrera desberdinen artean agertzen diren tirabira eta kontraesan horiek ikus daitezke.

Elkarrizketa egin duten guztiek adierazi dute horren inguruko iritziren bat:

Oso larriak diren egoerak konpondu behar ditugu: Batetik, euskal presoen egoera eta beraien eskubideen errespetua. Urgentea da gaiso dauden presoak kaleratzea eta preso guztiak Euskal Herriratzea. Eta bestetik, erakunde politiko baten parte izateagatik oraindik ere zintzilik dauden epaiaketak bertan behera geratu behar dira.

Neri, eta kontradikzio horrekin bizi naiz, alde batetik gisa eskubideak defenditu behar direla bete-betean, gisa eskubideak direnez presoena ere hor daude, baina biktimak ere oraindik asko sufritzen duen jendea, eta gainera presoena erabatera edo bestera konponduko da, beste batzuk konponketarik ez dute izango, norbait familiak galdu dutelako. Eta ikusten det hik zera... holako... preso... zera eta... sakabanaketa eta joer... bai, bai, ni ere ados natziek horrekin baina... eta orduan esan behar izaten diet “baina gustatuko litzaidake batzuekin hainbesteko sentiberatasuna duzuen hoiak ere, pixkat besteek ere haintzat hartuko bazenituzke, ez?” Orduan maila horretan polarizatua ikusten dut, orain bertan Sare martxan jarri da eta... oraindik ez daukat daturik eta gainera ez daukat inor juzgatzen ibiltzeko gogorik baina holako ‘más de lo mismo’ ez ote dan... eta orduan alde batetik maila politikoa.

Nik uste dut espetxe-erreforma bat egin behar dela espetxe-politika humanizatzeko, familiek bidegabeko sufrimendurik ez izateko, zigorren

tratamendua garai berrietara egokitzeko eta espetxe-eskumenak Eusko Jaurlaritzari eskualdatzeko. Kontrakoa egiteak ez dizkigu hildakoak itzuliko, eta ez digu bizi izandako sufrimendua arinduko. Mila adibide ditugu beste herrialde batzuetan.

Nik uste dut dagoela gizartean jende pila bat ez zaiola batere inporta asunto hau, dala "la gran mayoría", eta gero inplikazio zuzena daukaten jendeak bai bizi dutela. Nik bai somatzen dudala, ni ez naiz beti joaten baina noizbehinka joaten naiz enkarteladara edo konzentrazino bat dagoenean, lehengoan Aitzol Gogorza ingresatu egin zutela ez dagoelako ondo eta... Nik bai somatzen dudala... Erreterin jende asko dago presoak kartzelan dauzkana edo iheslariak eduki dituena... eta nik uste dut oso orokorra dela jendeak nahi duela konpondu, aldatu, nahi duela... agian egoismo batengatik baita ere... agian behar duzulako ia zureak etxean aukitzea eta hau aldatzea... baina nik bai uste dut dala... konponketarik nahi izan ez duen jendeak konponketa nahi duela.

Nire pentsatzeko moduari, nire filosofiari jarraiki, inor ez zen espetxean egongo, argi eta garbi diot, espetxea zigorra baino ez dela iruditzen zaidalako, besteak beste. Ez dut etarreatatik esaten, gizarte gisa baizik. Uste dut ez duela ia inor berrezten. Kontua jokabideak zuzentzea eta gizarteari eragindako kaltea ordaintzea –komatxo artean– bada, seguruenik inork ez ditu asmatu oraindik, baina egongo dira gizarteari ordaintzeko era gehiago.

Familiak ez dute deliturik egin eta ez dute zigor gehigarriak bete behar.

Presoen kaleratzea eskatzen duten sektoreek ulertu beharko lukete oraindik denbora behar dela katearen alderik ahulenak (hots, preso daudenen biktimek eta horien inguru sozial eta politikoak) hainbeste urtetako sufrimenduari lehenago edo geroago amaiera eman behar zaiola eta hainbeste urtetan eratutako mendeku-sarea desegin beharko dela onartzeko.

Azken lau proposamen:

a) Lehenik eta behin, besteen nahigabea humanizatzea

Aurreko gaiari eta gertatutako guztiaren errekonozimenduari dagokionez, besteen nahigabea humanizatzen eta geure egiten saiatzea proposatzen dute zenbaitek "oinarrizko helburu" gisa:

Baliteke batzuek oraindik ere 'hil bazuten, zerbaitengatik izango zen' esatea. Eta baliteke oraindik ere batzuei zaplazteko batzuk ematea eta zenbaitek 'zer egingo diogu bada' esatea, edota norbait psikiatrikoki oso gaizki baina espetxean egotea eta batzuek 'zer egingo diogu bada, espetxean trata dezatela' esatea... Bestearen minari gizatasuna kentzen zaio, eta orduan nik

uste dut hemen bestearen minari gizatasuna kendu izanaren arrasto garrantzitsuak geratzen direla oraindik, ezta? Eta nik pentsatzen dut hori izango litzatekeela niretzat oinarritzko helburu bat.

b) Aurkariaren arrazoiak ezagutzea. Bigarren urratsa izango litzateke:

Polizia-auto bateko aurreko kristalera molotov koktel bat jaurti zuenak nola kontatuko dizu istorio bera? Zerk bultzatzen du gazte bat poliziaren auto baten aurrean jarri eta molotov koktel bat jaurtitzera? Horrek ere kontatu egin behar du, hori ez da musu-truk egiten. Poliziaren aurrean larrua jokatzen baduzu, zerbaitengatik izango da. Zer duzu zuk buruan?...

c) Hitz egiten, komunikatzen eta elkarri entzuten hasteko eta entzuten denarekin ados egon gabe ere ulertzen saiatzeko oinarritzko adostasun batzuk proposatzen dituzte batzuek:

Iritzi guztiak, gutxiengoak errespetatu behar dira, nireak dira onak eta besteak hau edo beste dira esanez edo besteak deskalifikatuz enkistatu gabe. "Gu gara euskaldun peto-petoak" edo "gu ez dakit zer gara" eta, gainera, nik esaten dut zer den bakoitza. Ez, inork ez du inor kalifikatu behar, denok gara eta zaku berean gaude, denok. Denon iritzia errespetatu behar da.

Errepidea noranzko bikoitzekoa da, eta zirkulazio-arauak denoi -gehiengoei eta gutxiengoei- bidea errazteko dira. Eta eraginkorrak dira zentzuz eginda daudelako. Arazoak konpontzen laguntzen dute. Joka dezagun era horretan arlo guztietan.

d) Elkarrekin egin litezkeen gauzetan pentsatzea:

Arazo komun batzuen inguruan jendea nolabait ere batzen duten ekimenak sustatzea. Eraikitzekeko modu bat dela iruditzen zait. Badaude denoi neurri berean dagozkigun problematika eta alderdi batzuk, lan egin dezagun elkarrekin horretan. Gainera, gauza asko daude egiteko, bizi ditugun egoerak txarrak dira, eta hori mundu guztiarentzat da. Nik uste dut positiboa izango litzatekeela jendea gai horien inguruan biltzea, elkarrekin eraikitzen hastea izango bailitzateke. Eta, batez ere, mundu guztia neurri berean eraginpean hartzen duten alderdiak direla hartu behar da kontuan, eta horretan oinarrituta eraikitzen hasi beharko litzateke. Nik uste dut hori izango litzatekeela urratsak egiteko bidea.

Batzuek pentsatu dute nola egin litekeen hori zehazki, baita norekin ere, baina zailtasunak daudela adierazi dute:

Nik hor bai egingo nukela leku neutralak ala ez, orain goazen Alkartetxera, eta orain goazen Landarera eta orain PSOEren Etxera...

Hitzaldiak, konferentziak... denok parte hartzeko, alde batekoek eta bestekoek parte hartzeko, batzuek bakarrik parte ez hartzeko.

Foro bat beharko litzateke, oso ezagunak ez diren, baina izen handia duten eta aprobetxategiak ez diren herritarren kolektibo bat, hau da, bizimodua bere kontura ateratzen duen jendea, orain arte jendaurrera agertu ez den eta egunero kalean, parkean edo lorategian jendearekin egoten den edota batere hutsik gabeko oinarri sozial neutral bat duen jendea. Aldez aurretik giza kontaktuaz bestelako harremanik izan gabe saltsa honetan sartzeko prest egongo liratekeen pertsonak, hala nola zapataria eta harategiko emakumea, horrelako jendea.

Aurreko jarrera horrek klase politikoa saihesten al du?

Izan ere, seinalatuta gaude denok. Eta mesfidantza sorrarazten dugu denok.

Kultura eta hezkuntza gehiago:

Harriak botatzen dituen eta besterik egiten ez dakien "boronoa", horixe da etsaia, eta ezin diozu beste ezer sartu buruan. Herritarren kultura-mailari esker, desberdintasun horiek desagertu egiten dira. Hau da, kultura. Jendeak kultura jasotzen duenean, amaitu egiten dira izaki primitiboen kontu horiek.

Jendeak ikasgeletan ematen dituen testigantzen kontu hori gustatzen zait. Eta irakasleei ikusarazi behar zaie ez daudela haurrak ezertan doktrinatzeko. Pertsonak daudela, ez dagoela besterik.

Ospe akademikoko gizarte- eta kultura-erakundeek mugitu behar dute hau, eta, ahal den neurrian, zeharkako egitura bat izan beharko dute.

Zer ez litzateke inola ere ahaztuta utzi behar?

Motibazio politikoko indarkeria ez ezik, bizikidetza baldintzatzen duten indarkeria gehiago ere badaude.

Badirudi alde batera uzten dela beti, gai honetaz hitz egiten denean, emakumeen aurkako indarkeria. Badirudi indarkeria nolabait ere desagertu egin dela eta indarkeriarik gabeko une batean gaudela. Eta nik uste dut garbi dagoela, hortxe dagoela. Eta izugarria iruditzen zait alde batera uztea eta, nolabait ere, beste indarkeriekin zerikusirik ez duen gai bat balitz bezala zokoratzea. Nik uste dut gure gizartean, pertsonen arteko berdintasuna ulertzeko modu batean errotuta dagoen arazoa dela. Oraindik gizonak eta emakumeak berdinak ez direla pentsatzen da, eta emakumeak gizonen

mende daude; gainera, sistema batek, elizak, hezkuntzak eta denok ezagutzen ditugun eta beren horretan jarraitzen duten beste gauza askok eusten diote mendetasun horri. Nik azpimarratu nahi nuke oraindik ere badagoela indarkeria, oraindik ez dela amaitu.

12.5. ATEAK IREKITA, BARRARIK GABE LEIHOETAN

Sinbolo bat. Sinbolo bat baino gehiago da.

2012. urtean, Herriko Etxeko atekak zabal-zabalik jarri zituzten ia hogeita hamar eraso eta sabotajeren ondoren, eta 2012ko martxoaren 31ko komunikabideek titularretan islatu zuten itxaropenaz. *El Mundo* egunkariaren arabera, “El PSE abre su sede de Errenteria ‘de par en par’ a un futuro sin violencia” (PSEk zabal-zabal ireki du Errenteriako egoitza indarkeriarik gabeko etorkizun batera). Aurretituluak gogorarazten zuenez: “[Errenteria] La más castigada por la violencia callejera” (Kaleko indarkeriak gehien zigortutakoa). Argazkian, Gipuzkoako PSE-EEko idazkari nagusi eta garai hartan Eusko Jaurlaritzako Garraioetako sailburu Iñaki Arriola agertzen zen herriko alkatearekin, EH Bilduko Julen Mendozarekin hitz egiten.

Handik ia urtebetera, 2013ko otsailaren 9ko *El País* egunkariak honako titulu hau jarri zion Eraikiz ekitaldiaren inguruan egindako beste erreportaje bati: “Rentería, símbolo de paz” (Errenteria, bakearen sinbolo).

Bada bai, 27 edo 28 aldiz, kalte handiago edo txikiagoekin, ia erabateko suntsiketa zenbaitetan. Horietako batean, taberna eramaten zuen pertsona zegoen barruan; emakume gajoak ihes egin zuen hemen goitik [lekua adierazten digu], erredurekin. Herritarren erantzuna falta zen askotan, zentzu positiboko erantzuna. Horixe zen eguneroko ogia!

Ateak ireki behar zirela, leihoak ireki behar zirela, ilusioa izan behar genuela, konfiantza eta itxaropena izan behar genuela eta urrats bat egin behar zela pentsatu dugu. Eta egin genuen.

Eta, dirudienez, irekiera ez da egun bakar batera eta inguruko egunetara mugatu:

Inoiz sartu ez ziren kolektibo batzuk hasi dira Herriko Etxean sartzen. Beraiek ere ez zuten pentsatzen egunen batean sartuko zirenik. Horien artean, Segiko gazteen gurasoen kolektiboa dago. Bizpahirutan izan dira, hitz egiten. Gauza batzuk ulertu ahal izango dituzte eta ditugu, edo agian une honetan ez goaz ildo beretik, baina, arraioa, hitz egiten ari gara. Eta lasai-lasai, haserretu gabe eta... horrelako ezertxo ere gabe. Eta hori aurrerapena da. Segikoak diot, eta beste batzuk diot, Batera Baikoak ere bai.

Baina gehiago espero dute beste instantzia batzuetatik:

Guk egin genuen. Ateak ireki genituen. Baina gero badirudi batzuk ez doazela bide beretik eta, gainera, beren erritmoa ezarri nahi digute gauza jakin batzuetan. Bada horretan ez dugu bat egingo.

Batzuentzat, zaila baina lortzeko modukoa da:

Nik pentsatzen dut Chemak [Herzog] baduela nolabaiteko legitimitatea preso baten edo poliziaren indarkeriaren biktima baten senide batekin hitz egiteko, Julenek [Mendoza] ETak eraildako pertsonen senideekin hitz egiteko legitimitatea duen bezalaxe.

Nahi hori guztiona da, baina batzuek gutxieneko baldintza batzuk jartzen dituzte konfiantza berreskuratzeko eta errespetua elkarrekikoa izateko:

Ez dut oztoporik jarriko bidean. Ez dut eragozpenik jarriko. Nahi dudana da gauzak egitean denok parte hartzea, denok adostea, eta baten batek amore eman beharko du zenbait gauzatan, denok bezalaxe. Nik ere amore eman beharko dut, baina gainerakoek ere bai.

Eraikiz bezalako ekimenak edo xumeagoak diseinatu behar ditugu. Halako ekimen txiki eta ugariak antolatu. Beldurrak gainditu eta besteen sufrimenduaz ohartu ondoren, etorkizunerako oinarri demokratiko sendoak partekatu. Bakea soilik giza eskubideen errespetu absolutuan eraiki daiteke, pertsona guztientzako eskubide guztien errespetuan. Hori da lortu behar dugun lehen lehenengo eskenatoki ezinbestekoa, hori gabe ezinezkoa baita berradiskidetzea eraikitzea.

Eta azken nahi bat:

Onena utzi nahi dut seme-alabentzat eta bilobentzat.

13. ERRENTERIAN AZKEN BERROGEITA HAMAR URTEETAN IZANDAKO MOTIBAZIO POLITIKOKO INDARKERIA EKINTZEN KRONOLOGIA

Kronologia honetan, ez daude jasota herrian izan diren indarkeria-ekintza guztiak, kronologia zabala izanik ere. Adibidez, ez dira jaso indarkeria-istiluekin amaitu diren manifestazio eta protesta guztiak, errepide-mozketak, zauritu eta atxilotu guztiak, hiri-altzarietan eragindako kalteak, erretako edukiontziak, jazarpenak, mehatxu eta larderiazko pintada guztiak, estortsioak, bonba-abisuak eta abar. Guztiak bilduz gero, amaiezina izango litzateke laburpen hau.

Hortaz, gertatutakoaren adierazgarritzat hartu behar dira hemen azaldutako kasuak. Jakin badakigu oharkabeen edo ezjakintasunagatik ihes egin diguten gertaera batzuk falta daitezkeela edo behar bezala jaso ez ditugun batzuk egon daitezkeela. Barkamena eskatu nahi dugu aldez aurretik. Hutsune horiek osatzeko eta zuzentzeko eta egin ditugun akatsak konpontzeko zeregina herrian partekatu nahi den kontakizunerako zeregina da, hemen dagoeneko badugunetik abiatuta.

13.1. FRANKISMOAREN AZKEN URTEAK

1956 eta 1957

1956ko otsailaren 10a. Erregimen frankistak lehen salbuespen-egoera ezarri zuen. Hiru hilabeteko iraupena izan zuen. Espainolen Foruaren 14. eta 18. artikulua ezabatu ziren, bizilekuaren aukeraketa baldintzatu zen, eta atxilotuak 72 ordu baino gehiagotan atxikitzea ahalbidetu zen.

1956an eta 1957an, grebak eta geldialdiak egin ziren Erreterria, Pasaia eta Irungo enpresetan. Horren ondorioz, kaleratzeak eta atxilotetak izan ziren, eta tratu txarrak eragin zitzaizkien atxilotuei. Horren harira, hamaika euskal apaizek gutun bat bidali zioten Gipuzkoako gobernadore zibilarri: “Grebalaria batzuen aurkako errepresaliak bake sozialerako zorigaitzokoak direla uste dugu” (Itarko, Alderdi).

1958

Maiatzaren 5a. Martxoan bigarren salbuespen-egoera ezarri bazen ere, PCE alderdiak mobilizazio orokorrerako deialdia egin zuen, eta hainbat enpresatako langileek (hala nola Luzuriaga eta Contadores enpresetakoek) bat egin zuten deialdiarekin, Poliziak lan egitera “indarrez” behartu zituen arte. Brigada Sozialak hainbat langile atxilotu zituen, eta “Poliziaren tratu txarrak jasan zituzten” (España Popular 1958: 872 eta 875, Izagirre).

1962

Otsailaren 19a. Gipuzkoako hainbat enpresatan protesta handiak egin ondoren, Poliziak hogeita hamar bat pertsona atxilotu zituen Erreterian, Hernanin, Elgoibarren eta Arrasaten, legez kontra elkartu izana eta legez kanpoko propaganda egin izana leporatuta. Atxilotuek tratu txarrak eta isunak jasan zituzten, eta gehienak lanetik bota egin zituzten.

Maiatzaren 4a. Gobernuak hirugarren salbuespen-egoera ezarri zuen Gipuzkoan, Bizkaian eta Asturiasen. Hiru hilabeteko iraupena izan zuen. Horren ondorioak Erreteriarira iritsi ziren.

Maiatzaren 14a. Grebak zabaldu eta Poliziaren sarekadak areagotu egin ziren. Besteak beste, Antxon Uranga eta Imanol Olaskoaga erreteriarrek espetxeratu zituzten.

Orereta ikastolako sorreran, lehen bederatzi ikasleetako bat izan nintzen (1963). Berehala ohartu nintzen klandestinitatean bizi ginela. Auzoko beste lagunak ikasten ez zituzten gaiak eta modu desberdinduan hezitu ginen. Inspektoreek egin beharreko bisiten aurrean gure hainbat jarduera ezkutatzera gonbidatzen gintuen gure andereñok. Hau da, indarrean zegoen legalitateari aurre egiteko garaian, hezkuntza komunitatea bat zen eta hezkuntza proiektua ere bai.

1965

Maiatzaren 1etik 15era bitarte. Jose Carlos Vázquez Lago, Miren Basabe, Joxan Korta Iribar, Miren Lete Azaldegi eta Amaia eta Iñaki Sagarzazu Lete (anai-arrebak) erreteriarrek tratu txarrak eta torturak jasan zituzten Poliziak atxilotu zituenean. Lehena aske geratu zen, epaiketaren zain; beste bostak, berriz, aske geratu ziren epailearen aurretik pasatu gabe.

Egintzak ba zuen holako bokazio bat, alde batetik euskara eta euskaltasuna, eta gure egiteko nagusia zera zen, pixka bat festak ere nola euskaldu. Orduan euskal antzerki talde bat martxan jarri gendun eta bertsolaritza ere bultzada bat eman genion. Eta oroitzapen bezala zera daukat, alde batetik errepresioan zentsura, maila bitan zentsura. Bertsolari jaialdi bat antolatu eta “nos tenéis que traer las letras de los versos que van a cantar” edo antzerki bat egin behar eta “traiganos el guión... el texto traducido”, holako zerak... alde batetik orduan frankismoaren zera guzti hoiak.

1967

Urtarrilaren 27a. Gipuzkoako langile-komisioen deialdiari jarraiki manifestazio bat egiteko ahaleginak zapaldu zituen Poliziak Errenterian. Herriko 17 pertsona atxilotu zituzten (José M^a Zeberio, Victoria Gariain, Izaskun Madariaga, Carlos Vázquez, Jose Mari Mendinueta, Alvaro Cabada...), eta Ordena Publikoko Auzitegiak (TOP) **azaroaren 3an** epaitu zituen legez kanpoko propaganda eta baimendu gabeko manifestazioa egin izanagatik. Hiru hilabetetik urtebetera bitarteko espetxealdiko zigorra ezarri zieten.

Maiatzaren 1a. Poliziak Jose Miguel Azkarate Intxaurren eta Jesus Villasante Garate erreteriarak atxilotu zituen, eta lehenak tratatu txarrak salatu zituen. **Abenduaren 24an**, Guardia Zibilak Paco Ortega López erreteriarra atxilotu zuen, eta tratatu txar psikologikoak eragin zizkieten. Epailearen aurretik pasatu ondoren, aske utzi zuten.

1968

1968ko Euskal Jai batean, artian grisak ziren, Alameda osoa, Zumar plaza osoa, bederatzi bat jeep zeuden hantxe zain, jarri beraien kasko eta guzti, eta gu mikrofonoan, eta orduan ere mikrofonoan jendia akonjatua, orduan gora euskara eta zera berotzen gendun. Arratsalde osoan, beraien interbenitu nahi. Jende asko zegoen plazan, han edozer gauza gerta zitekeen, eta gu hortxe, sokatiran. Eta hala joan zan arratsaldea, eta ia gauerako esan zidan batek: “Mikel, andan a por ti, andan preguntando por ti, a ver dónde te pueden localizar”. Hurrengo egunean eraman ninduten lanetik “¿qué decía usted por el micrófono?”, eta lanetik gero Sevillara eraman ninduten.

Abuztuaren 4a. Berriz ere hiru hilabeteko salbuespen-egoera ezarri zen Gipuzkoan, ETAk Irungo atentatu batean Melitón Manzanos González (59 urte) hil ondoren. Atxiloketak, torturak, deportazioak... Gipuzkoan, 600 pertsona atxilotu zituzten, eta 50 Espainiako hainbat lekutara deportatu zituzten. Horien artean, Erreteriarako herritarrak zeuden.

Osaba Felix eta aitaren atxiloketak markatu nau bereziki (1968). Nire hamargarren urtebetetzea aita atxiloturik bizi izan nuen eta oso gogoan dut amaren mezu xarmantak. Osabaren hamar hatzak azkazalik gabe ikusi nituen Martutenera egin nuen nire lehen bisitan. Ahaztezina den argazki gordina.

Azaroaren 4a. Gipuzkoan, salbuespen-egoera hiru hilabetez luzatu zen. Estatu espainoleko mila eta bostehun intelektualek errepresioa eta tortura salatu zituzten.

1969

Urtarrilaren 24a. Salbuespen-egoera dekretatu zen Estatu espainol osoan. Hiru hilabeteko iraupena izan zuen. Herrian ere eragina izan zuen. Gotzon Elkano Uharte eta Joxe Krutz Sarasola Mitxelena errenteriarrek Poliziaren torturak salatu zituzten. Lehena aske geratu zen Ordena Publikoko Auzitegiak epaitu ondoren.

Martxoaren 19a. Poliziaren sarekada ELA-STVko kideen aurka Errenterian

1970

Abenduaren 3a. Poliziaren errepresio bortitza Bianchi, Niessen, Mecnoplástica, Luzuriaga, Ramón Vizcaíno, Catelsa, Paysa, Papelera eta beste enpresa batzuetako langileen aurka. Langileak askatasunen alde eta ETako kideen aurkako Burgosko Gerra Kontseilua salatzeko mobilizatu ziren. Atxiloketa (Eduardo Guillán...), kaleratze, isun eta abar ugari izan ziren.

Oso gogoan dut Burgoseko auziaren inguruan eginiko mobilizazioak eta etxeko balkoitik begira nagusitzen zitzaidan kezka “aita helduko ote da etxera”. Radio Paris entzuteko edo eztabaidatzeko etxean egiten ziren aitaren lagun arteko mahai inguruak. Konspirazio giroan bizitzen nituen uneak zirelako ditut gogoan

Abenduaren 4a. Ministroen Kontseilu frankistak Gipuzkoan hiru hilabeteko salbuespen-egoera (bederatzigarrena) ezartzen zuen deklarazio bat onartu zuen, protestak eta grebak geldiarazteko asmoz. Atxiloketa gehiago Errenterian. Tortura-salaketa gehiago. Hilaren 14an, salbuespen-egoera Estatu espainol osora zabaldu zen.

1971

Martxoa. Hilabete horretan, Oarsoaldeko langile ugari atxilotu zituzten, eta Luzuriagako langile-komisioa desaginda geratu zen. Atxilotuen artean, Pablo Díez, Txubi Zubizarreta, Luis Alzola, Jose Luis Cerezo eta Cayetano Díaz “Tanito”

errenteriarrek zeuden. Batzuk Komunistak (gero EMK) taldeko kideak ziren. Hamaika egun eduki zituzten polizia-etxean, eta torturatu egin zituzten (Izagirre, 2013: 201 eta 202).

1972

Abenduaren 6a. Alaberga auzoko Delegazio Sindikalaren aurkako eraso.

1973

Apirilaren 13a. Errenteriako Sindikatuen Delegazioaren aurkako beste ekintza bat. Molotov koktekin egin zen eraso, eta ETAk hartu zuen bere gain.

1974

Apirilaren 29a. ETAk beste atentatu bat egin zuen Alabergako Delegazio Sindikalaren aurka.

1975

Apirilaren 25a. Hamaikagarren salbuespen-egoera dekretatu zen Gipuzkoan eta Bizkaian.

Irailaren 26a. Julio Perurena Lizarazu, Errenteriako herritarra eta langilea, 25 urtekoa eta Euskadiko Mugimendu Komunistako (EMK) kidea, egoera larrian ospitaleratu zuten Donostiako Ospitalean, Donostiako Polizia Etxean jasan zituen torturen ondorioz. Bertsio ofizialaren arabera, polizia-etxeko eskaileretatik erori zen ihes egiteko ahaleginetan.

Irailaren 27a. Francoren azken fusilamenduen egunean bertan, Poliziak hamar urteko neska bat zauritu zuen balaz, herriko protesta ugarietako bati aurre egitean.

13.2. FRANCOREN HERIOTZATIK KONSTITUZIORA ARTE

1976

Apirilaren 4a. Guerrilleros de Cristo Rey taldeko kide eta "inkontrolatu" batzuek Etxebeste drogeria harriatu eta beirak apurtu zituzten. Halaber, Hilario García Ilardiaren etxeko atea erre eta Domingo Revillaren etxebizitzari egin zioten eraso.

Ekainaren 14a. Herriko zinegotzi Isaac Oyarzabal Mugicaren autoa erre zuten.

Uztailaren 19a. Julian Yuste Sánchez alkatea herritarren ordezkari batzordea batekin bildu zen. Herritarrek Galtzaraborda auzoko ur-horniduraren akatsak konpontzeko eskatzen zuten, besteak beste. Bilera amaitu ondoren, eta guardia zibil ugarik herritarrak normal irtetea eragozten zutela ikusita, haien buru zen kapitainak hiribilduko alkate gisa zegoen autoritatea onar zezan saiatu zen, herritarrak indarrez sakabana ez zituzten. Hori lortu ez zuenez gero, eta goragoko mailako agintariekin harremanetan jartzeko alferrikako ahaleginak egin ondoren, dimititu egin zuen publikoki, eta egiaztagiriak hautsi zituen Guardia Zibilaren aurrean. Hurrengo egunean, hamaika zinegotzik bat egin zuten alkatearekin eta dimititu egin zuten.

Nik ez dut bizitza osoan inor erreprimitu. Ez dakizu nola defendatu salaketa horretaz, eta hain erraza da salaketa hori egitea! Alkatea izanik ere, zuk ez duzu inolako eraginik ezein segurtasun-indarretan, ez Guardia Zibilean, ez Polizia Nazionalean, ez Ertzaintzan, inondik ere.

Uztailaren 25a. Guardia Zibilak Galeuska jaialdiaren ondoren atxilotutako bi herritarren askatasuna eskatu zuten milaka pertsonak. Protesta kuartelera iritsi zenez gero, errefortzuak iritsi ziren Irundik eta Donostiatik. Istiluetan, Guardia Zibilaren jeep batek 17 urteko gazte bat harrapatu zuen, eta beste batek – gutxienez – makadurak izan zituen. Hainbat pertsona atxilotu zituzten.

Abuztuaren 15a. “Inkontrolatu” batzuek su eman zioten CIRR etxetresna elektrikoaren dendari.

Irailaren 8a. Hondarribiko jaiak bertan behera geratu ziren Guardia Zibilak 24 urteko Josu Zabala Erasun gaztea tiroz hil izanagatik protestatzeko. Protesta haietan, Guardia Zibilak Jose Murua Etxabe errenteriarra eta Luzuriagako langilea balaz zauritu zuen.

Irailaren 27a. Ordena Publikoko Indarrek Madalena ermitako asanblada bat desegin zuten, eta ondorengo istiluetan, hainbat pertsona zauritu ziren. Horietako bi Donostiako Ospitalera eraman zituzten; lesioak zituzten begi batean eta barrabiletan, hurrenez hurren. Halaber, Pedro Murugarren, Mohamed Bahara eta Lino Vallina zauritu ziren (azken horiek balaz).

Abenduaren 16a. Compañía Telefónica Nacional (CTN) konpainiaren hedagailua apurtu zuten goma-2rekin, Txoritokieta mendian.

Abenduaren 30a. Amnistiaren alde itxialdia egiten ari ziren Oarsoaldeko 19 lagun atera zituen Poliziak Jasokundeko Andre Mariaren elizatik.

Abendua. Eskuin muturrekoen mehatxuak Maria Jesus eta Jose Luis Elizegi Ezeizaren eta Maite Erice Lizarberen aurka. Pasaian, Enkarni Salaberria andereñoari mingain bat bidali zioten pakete batean, honako mezu honekin: “A la tuya le pasará lo mismo” (Zureari gauza bera gertatuko zaio).

1977

Urtarrilaren 28a. Bi hilabeteko salbuespen-egoera Estatu espainol osoan. Espainolen Foruaren 15. eta 18. artikulua etenda geratu ziren partzialki, eta bizilekuen miaketari eta atxiloketen modu eta epeari buruz ezarritakoa aldatu zen.

Martxoaren 23a. Atxilotuta zegoen Miren Salinas Gutiérrez errenteriarra Poliziaren egoitzatik Donostiako Ospitalera eraman zuten giltzurrunetako arazoekin.

Martxoaren 29a. Isidro Susperregi Aldaco, 68 urtekoa, Errenterian jaioa eta Errenterian tailer mekaniko bat zuena hil zen, **martxoaren 15ean** Donostian Polizia Armatuak amnistiaren aldeko manifestazio bat desagitean jaurtitako gomazko pilota batek zauritu ondoren.

Maiatzaren 12a. Rafael Gómez Jauregi, 78 urtekoa eta bi seme-alabaren aita, Guardia Zibilaren tiro batez hil zen, lagun batekin Errenteriako batzokiaren ondoan zegoela, Amnistiaren aldeko Astearen barruan deitutako protestetan.

Maiatzaren 12a eta 13a. Amnistiaren aldeko Astea. Hilaren 12an Guardia Zibilak eta Poliziak Errenterian tiroz zauritutakoak: Candido Peña Francisco (17 urte, sarrerako eta irteerako zuloa toraxean), Julio Marqués Sein (21 urte, tibia eta peroneko haustura irekia), Josu Ascasibar San Martín (22 urte, ezkerreko hankan), Jose Maria Tolosa (orkatilan), Paquita Villa (eskuineko besoan, etxean zegoela), Ignacio Rodríguez eta Alberto Vidaurre Ortuño (16 urte, eskuineko izterrean, tibiazainaren haustura). Istiluetan, halaber, Polizia Armatuko kabo bat eta beste lau kide, eta bi guardia zibil zauritu zituzten. Hilaren 13an, Ignacio Lertxundi, Alfonso Salazar eta Carlos Urbina zauritu zituzten. Handik egun gutxi batzuetara, Francisco Aramburu Lete eta Pedro Olaiz Olaizola zauritu zituzten (azken hori balaz).

Maiatzaren 13a. José Luis Cano Pérez, Beraun auzoan bizi zena, *La Voz de España* egunkariko tipografoa eta CCOO sindikatuko kidea, Polizia Armatuko kide batek Iruñean hurbiletik lepoan egindako tiro batez hil zen, Amnistiaren aldeko Astearen barruan.

Maiatzaren 13a. Clemente del Caño Ibáñez, Bilbo-Behobia autobideko langilea eta hiru seme-alabaren aita, auto batek harrapatu zuen, Guardia Zibilak aginduta Amnistiaren aldeko Astearen barruko greba-egun batean A-68 autobidean jarrita zegoen barrikada bat kentzen ari zela.

Maiatzaren 14a. *El Diario Vasco* egunkariak bertako langileen ohar gogor bat argitaratu zuen. Bigarren puntuan, “Ordena Publikoko Indar izeneko enpresioa” eta “gure herriak bizi dituen gertaera larriak, eta horien artean, norainoko handiagatik, Errenteriakoak” salatu zituzten, eta bi lankide gomazko pilotekin zaurituta geratu zirela jakinarazi zuten.

Maiatzaren 16a. Polizia Armatuak kargatu egin zuen Beraunen, hileta batetik irten eta manifestazioan erdialdera zihoan jendearen kontra. Distantzia laburrean jaurtitako ke-poto batek Juan Carlos Bayón Fernández (18 urtekoa eta CCOO sindikatuko kidea) jo zuen, eta sudurra hautsi zion.

Maiatzaren 23a. Gregorio Marichalar Ayestaran, 63 urtekoa, Donostiako Arantzazu Ospitalean hil zen, **hilaren 13an**, Amnistiaren aldeko Astearen barruan, Biteri kaleko etxeko balkoian zegoela bala-tiro bat jaso ondoren.

Ekainaren 4a. Lehergailua Kaputxinoetako Gainan kokatutako telefono-zentralean.

Ekainaren 18a. “Inkontrolatuen” eraso larria Angel Ramos Garate herritarraren aurka. Ramosek bi seme-alaba zituen eta hiru saihets hautsi zizkioten.

Uztailaren 12a. ETA militarrek bomba bat jarri zuen telefono-zentral batean, eta beste bat Irun-Madril tren-linean, Errenterian.

Urriaren 12a. Poliziaren karga bortitzek manifestazio bat desegin zuten Errenterian, Amnistiaren aldeko IV. Astearen ondorengo istiluetan, lau pertsona zauritu ziren (horien artean, polizia bat).

Urriaren 12a. ETA militarrek atentatua egin zuen Telefónica konpainiak Txoritokietan zituen instalazioetan.

1978

Urtarrilaren 21a eta 22a. Asanblada Beraunen, eta milaka pertsonako bi manifestazio, Errenteriako Emakume Taldeak antolatuta, inguruan hainbat emakume bortxatu zituztela salatzen. Egileak Poliziako kideak izan zirela adierazi zuen Emakume Taldeak.

Urtarrilaren 22a. Komando autonomo batek bonba bat jarri zuen Paisako obretan.

Otsailaren 2a. Tiroak Madalen kaleko kuartelaren atean jagoletza-lanetan ziharduen guardia zibil baten kontra. Onik atera zen.

Uztailaren 7a. Guardia Zibilak aurreko urtean tiroz hil zuen Rafael Gómez Jauregiren oroigarria apurtu zuten ezezagun batzuek.

Uztailaren 11 eta 12a. Iruñeko German Rodriguezen heriotzaren aurka protestatzeko Errenterian egin ziren manifestazioetan Polizia Armatuak balaz zauritutako pertsonak (lehena dum dum balaz): Julian Hernandez Centeno (17 urte, besoan eta aldakan), Beraunen, Jose Luis Jimenez Ruiz (hanka batean)...

Uztailaren 13a. Greba orokorrerako deialdia, poliziak tiroz hildako German Rodriguezen (Iruñean) eta Joseba Barandiaranen (Donostian) heriotzen aurka protestatzeko. Goizeko istiluen ondoren, kaleak hutsik zeudela, Polizia Armatuko hainbat konpainiak “erasoa”⁴² jo zuten “aurreko inolako probokaziorik gabe”⁴³ eta ibilgailuak, erakusleihoak, leihoak, higiezinatako atezain automatikoak eta abar apurtu zituzten. Ordena Publikoko Indarrak hainbat establezimendutako objektuak lapurtzen agertzen dituzten argazkiek gertaeren larritasuna uzten dute agerian⁴⁴. Polizia batzuek hori guztia egin zuten, “eta zenbait bebarrutan baita kaka

⁴² Picavea, Pedro. *Errenteriako historia*, 547. or. Honela deskribatzen du: “Polizia Armatuaren unitate batek Errenteriarri erasotzen dio”. *El País* egunkariak honako hau zioen tituluari: “Actuación vandálica de una compañía de la Policía Armada” (Polizia Armatuaren konpainia baten jardun basatia).

⁴³ Muro Arriet, Koro. “Polizia Armatuak Errenteria hartu zuen” *Errenteriako historia*, 565. or.

⁴⁴ 1978/07/14ko ABC egunkariak aipatzen ditu “kaltetutako merkatariek aurkeztutako salaketak: hogeita lau betaurreko, hainbat argazki-kamera, arrantza egiteko kanaberak, bonboiak eta txokolata (hiru mila pezeta inguruko balioa zutenak), kristal asko eta asko hautsiak, hainbat etxebizitzatako atezain automatikoak apurtuta, dolu-xingola zuten ikurrinen kontrako tiroak, Errenteriako Udaletxeko ikurrina piltzartuta eta abar.

egin ere”; “Geroago FOPEk Luzuriagako enpresa baten kamioiari su eman eta barruan zeraman zama (birabarkiak) Oiartzun ibaira bota zuten” (*Errenteriako historia*, 1996: 565). Zaurituen artean, Florencio Andueza Buelles zegoen. Bere etxeko sukaldean zegoen, eta gazezur-traumatismoa izan zuen. Konpainiak Miranda de Ebron zuen egoitza, eta kapitaina kargutik kendu zuten.

Irailaren 28a. Ezezagun batzuek lau molotov koktel jaurti zituzten Madalen kalean kokatutako Guardia Zibilaren kuartelaren atzealdeko patioa. Ez zuten kalterik eragin.

Urriaren 12a. Ezezagun batek molotov koktel bat jaurti eta Polizia Armatuaren jeep bat jo zuen. Ez zen kalte pertsonalik izan; bai, ordea, ibilgailuan.

Urriaren 21a. ETAk Iztieta Pasealekuan guardia zibil baten ibilgailuaren azpian jarritako bomba bat desaktibatu zuten. Ez zen kalte pertsonalik izan.

Azaroaren 11. Juan Malpica Aguilera, 30 urteko guardia zibila, lau seme-alabaren aita eta aurretik beste atentatu bat izan zuena, larriki zaurituta geratu zen ETAk bere ibilgailuaren azpian (Seat 1430 bat) jarritako bomba batek eztanda egitean, Ondartxoko Iztieta Pasealekuan. Ezkerreko hanka moztu behar izan zioten Donostiako Arantzazu Ospitalean. Udal Gestorak gaitzespena adierazi zuen eta protesta egiteko manifestazio baterako deialdia egin zuen. Bi hilabete lehenago beste atentatu bat izan zuen eta onik atera zen.

Abenduaren 5a. ETA militarrek Jose Maria Sarrais Llasera hil zuen Donostian. Errenteriako polizia-etxeko komisarioa zen, 56 urtekoa eta bost seme-alabaren aita. Atentatu berean, komisario bat eta udaltzain bat hil ziren.

13.3. KONSTITUZIOA ONARTU ONDOREN

1979

Urtarrilaren 20a. Istilu ugari Donostiako jaiegunaren hasieran, goizean goiz. Poliziaren karga batean, gomazko pilota batek Errenteriako Juan Carlos Gaztelumendiri eman zion begian, eta galdu egin zuen.

Gainera, hori guztia gertatu zela eta hori egin zuten poliziek beren armen kulatekin beren ibilgailuak joz alde egin zutela erakusten duten dokumentu grafikoak daude”.

Otsailaren 10a. Polizia Nazionalaren ibilgailu bati molotov koktel bat jaurti zioten Gamon Zumarditik. Ez zen zauriturik izan.

Martxoaren 8a. Bi kilo lehergai zituen pakete bat desaktibatu zuten Carrefour-en inauguratu berri zen instalazioan. Gaueko 12etan eztanda egiteko aktibatuta zegoen.

Apirilaren 21a. Candido Cuña González, Galizian jaioa, 46 urtekoa, okina eta CCOOko kidea, larriki zaurituta geratu zen ETA militarrek su-armekin lau tiro egin ondoren. Bigarren atentatu batean hil zen, 1983ko urriaren 20an.

Ekainaren 10a. Errenterian probaldian zegoen kalez jantzitako polizia batek Vicente Vadillo Santamaría trabestia hil zuen pistola-tiro batez, Apolo dantzalekuan. Biktima Jaenen jaio zen, eta, dirudienez, euskaldunen alde agertu zen erasotzailea “Estoy del País Vasco hasta...” (Kokoteraino nago Euskadiz) eta “Voy a cargarme a un vasco “ (Euskaldunen bat akabatu behar dut) esaten hasi zenean. Gaitzespena adierazteko manifestazioa istiluen aurkako material kantitate handiarekin desegin zuten Ordena Publikoko Indarrek.

Ekainaren 11. Polizia Nazionala Errenteriako Udaletxean sartu zen, “asanblada baketsu” batean (*El País*, 1979/06/13) parte hartzen ari ziren pertsona batzuen atzetik, jendea joz eta potoak eta pilotak jaurtiz. Une horretan, Vicente Vadilloren heriotzaren inguruko osoko bilkura bat egiten ari ziren Udaletxean. Poliziarekin hitz egiten saiatu ziren hiru zinegotzi egurtu zituzten, eta korporazioak azken solairuan babestu behar izan zuen. Udalak eta PNV, PSOE, PCE, EE, EMK-OIC, LKI eta HB alderdi politikoek Ordena Publikoko Indarren jarduna “basatia eta bereizketarik gabekoa” izan zela adierazi zuten (*El País*). Eusko Kontseilu Nagusiaren ohar batek “justifikaezina” izan zela zioen. Poliziako buru zen Miguel Medaro Corsini komandantea destinorik gabeko nahitaezko egoeran geratu zen uztailan, eta destinoa aldatzeko eta Sevillara joateko eskaera egin zuen.

Ekainaren 12a. Bi pertsonak herriko C.D. Touring futbol-taldeko entrenatzaile Paco Ferreres jipoitu eta mehatxatu zuten bi aldiz. Pertsona horiek poliziak zirela adierazi zuten, dokumentazioa eskatu zioten eta ibilgailuarekin jazarri zuten. *ABC* egunkariaren arabera, pistolak zeramatzaten eta hainbat tiro egin zituzten. Bestalde, gauez manifestazio bat Apolo dantzalekura zihoala, pertsona batzuek izu handia eragin zuten beren pistolekin, eta manifestazioak ez zuen jarraitzerik izan.

Ekainaren 29a. Teodora Sánchez Ofertorio, 77 urtekoa, Nafarroa Etorbidean oinezkoen pasabide bat berdez zeharkatzen ari zela, Polizia Nazionalaren jeep batek harrapatuta hil zen. Poliziak abiadura handian eta kontrako noranzkoan zihoazen, Soriako presoen aldeko manifestazio bat erreprimitzeko asmoz. Ondorengo protestetan, larriki zaurituta geratu ziren Arantxa Iparragirre eta Jose Peña (traumatismo kraneoentzefalikoa) eta Manuel González Muñoz (ke-poto batek aurpegian eragindako erredurak), eta ospitaleratu egin zituzten. Horren aurka protestatzeko greba orokorra uztailaren 3an.

Uztailaren 3a. Mila pertsona inguruk Polizia Nazionalak goizean goiz kuarteletik alde egin zuela ospatu ondoren, poliziaren konboi bat “arratsaldean itzuli zen eta gomazko pilotak eta ke-potoak jaurti zituen adineko emakume baten heriotzagatik protestatzen ari ziren manifestarien aurka. Ordena Publikoko Indarren ibilgailu batek ostiralean harrapatutako emakumearen heriotzagatik ari ziren protestan” (*El País*, 1979/07/04).

Uztailaren 19a. Grupos Armados Españoles (GAE) taldeak Udaletxean jarritako bomba batek kalteak eragin zituen udal-ikuskaritzako antzinako sarbidean, eta behe-solairuko eta bigarren solairuko kristalak hautsi zituen, baita aldameneko etxebizitzetan ere. Apirilaz geroztik, alkatetza Herri Batasunaren esku zegoen.

Abuztuaren 30a. Errefuxiatuen egoera salatzeko mobilizazio batean, polizia nazional batek erredurak izan zituen molotov koktel batekin.

Irailaren 1a eta 2a. Pertsona talde bat PNV-EAJren batzokian indarrez sartzen saiatu zen bi egun horietan.

Irailaren 26a. ETA militarrek Sixto Holgado Agudo taxilaria hil zuen atentatu batean. Sixto Holgado 46 urte zituen, zortzi seme-alabaren aita zen, eta aurretik udaltzaina izan zen. Gorpua San Markosen agertu zen, Beraun auzotik hurbil. Taxilariak grebarako deialdia egin zuten.

Irailaren 29a. Astigarragan HBko zinegotzi Tomas Alba atentatu batean hil zuten, eta herritarrek hainbat autobus erre zituzten protesta gisa.

Azaroaren 14a. M.A. (16 urtekoa) eta haren mutil-laguna Sorginzulo auzoan zeudela, bi gizon armatu iritsi eta nortasun-agiria eskatu zieten. Ondoren, Seat 850 urdin batean sartu eta Lezoko kaira eraman zituzten. Bertan, lotu egin zituzten eta beren eta senideen ideologia politikoari buruzko galderak egin zizkieten. Ondoren, bi erasotzaileek M.A. bortxatu zuten. Grupos Armados Españoles (GAE) taldeak hartu zuen bere gain ekintza.

Azaroaren 24a. Bi udaltzain mehatxatu ondoren, GAE taldeko kide batzuek bonba bat jarri zuten Udaletxean, eta kalteak eragin zituzten eraikineko lehen solairuan eta Udaltzaingoaren bulegoetan.

Azaroaren 27a. Beste zenbait zaurituren artean, Jose Manuel Etura Ruiz de Eginok begi bat galdu zuen Langileen Estatutuaren aurka protestatzeko greba-egunean Poliziak jaurtitako gomazko pilota batek jota.

Abenduaren 15a. Bi gizon armatuk Maite Cerezo Cuadrado 14 urteko gaztea bortxatu zuten Errenteria inguruko eremu batean. Egileak Grupos Armados Españoles (GAE) taldekoak izan ziren, eta bortxaketa eta antzeko ekintza gehiago iragarri zituzten.

1980

Urtarrilaren 13a. 18 urteko emakume bat, mutil-lagunarekin Errenteriako Renfeko geltokian zegoela, auto batean sarrarazi zuten indarrez. Oiartzunera eraman zuten, eta bi gizonek bortxatu zuten bertan. Hirugarren erasotzaile bat mutil-lagunarekin geratu zen, eta haren eta gurasoen ideia politikoei buruzko galderak egin zizkion. Egun horretan bertan, adin bereko beste emakume bat bortxatu zuten Pasaian, eta hilaren 4an 19 urteko beste emakume bat Irunen. Azken emakume hori depositu zaharraren ondoan utzi zuten bortxatu ondoren. Azken herri horretan, bi gazte bortxatu zituzten hilaren 21ean, 14 eta 16 urtekoak.

Otsailaren 8a. ETA militarrek Miguel Rodríguez Fuentes erail zuen eskolak ematen amaitu eta bere autora zihoanean. Miguel Rodríguezek 44 urte eta lau seme-alaba zituen, Infanteriako komandantea zen, eta irakaslea Don Bosco Lanbide Eskolan.

Martxoaren 28a. BVE taldeak bonba bat jarri zuen HBko eta Amnistiaren aldeko Batzordeetako kide ziren Jexusmari Ijurko Orbegozo eta Mari Carmen Illarramendi senar-emazteen autoaren azpian. Senarrak ezkerreko eskua eta hanka galdu zituen, eta merkatuan arrain-postu bat zuen emazteak, berriz, erredurak izan zituen.

Askotan gogoratzen naiz Ijurkok izan zuen atentatuaz; bonba bat jarri zioten autoan. Nire inguru berean bizi zen, eta ibilgailua nire etxe azpian zuen aparkatuta, gutxi gorabehera. Ni lehen solairuan bizi nintzen, eta izkinan zegoen gela argitsuena zenez gero, bertan zegoen nire umetxoaren sehaska. Bonbak oso goiz egin zuen eztanda. Gogoratzen naiz jauzi egin nuela, eta gelara joan eta semea hartu nuela. Kristalez inguratuta zegoen alde guztietatik, leihoak erori egin ziren, eta Ijurkoren autoko zati handi batzuk zeuden sehaskaren ondoan. Zorionez, haurrari ez zitzaion ezer gertatu. Ni oso ikaratuta geratu nintzen. Behera begiratu eta burdin mordo bat ikusi nuen, eta Mari Carmen zegoen, etzanda. Arrandegitik ezagutzen nuen, besterik gabe. Niretzat oso zirrargarria izan zen. Oraindik ere eztanda harekin egiten dut amets gau batzuetan.

Apirilaren 1a. Zenbait guardia zibilek tiro egin zuten benetako balekin, senar-emazteek jasandako atentatuarengatik deitu zen eta orokorra izan zen greba-egunean egindako manifestazio batean. Anbulatorioan, Poliziaren ke-potoak geletan sartzen jarraituz gero lanpostutik alde egingo zutela mehatxatu zuten langileek.

Apirilaren 29a. Rufino Muñoz Alcalde, 40 urteko guardia zibila eta hiru seme-alabaren aita, Donostia-Hondarribia lineako autobus baten barruan erail zuten, Gaintxurizketa aldean (Lezo, Errenteria eta Hondarribiaren artean).

Ekainaren 25a. Jose Ortega López aske utzi zuten Guardia Zibilaren kuartelean lau egun eman ondoren. Epaileak, haren egoera fisiko “negargarria” ikustean, beste 24 ordutan eduki zuen inkomunikatuta.

Uztailaren 9a. EAJko ordena-zerbitzuak Bilboko Nervaceroko langileekin izan zuen jokabideagatik protestatu nahi zuen pertsona talde bat (*El País*) herriko Batzokiari su ematen saiatu zen. Horretarako, bost litroko gasolina-lata bat eta molotov koktel bat erabili zuten. Barruan zeuden afiliatuek sarbide-eskaileratik itzali zuten sua, eta horri esker ez zen zabaldu.

Abuztuaren 26a. “Inkontrolatuek” beste atentatu bat egin zuten Lasa Mitxelena familiaren etxebizitzaren aurka (egun batzuk lehenago zenbait mehatxu izan zituzten).

Urriaren 2a. ETA militarrek herriko beste taxilari bat hil zuen atentatu batean: Benito Morales Fabián, 40 urtekoa eta hiru seme-alabaren aita. Gorpua taxiaren barruan zegoen, N-1 errepidean, Erreterian.

Urriaren 20a. “Inkontrolatu” batzuek Maite Lasa Mitxelena jo zuten kalean. Jipoitzeaz gain, pistola baten kulatarekin jo zuten.

Urriaren 31. ETA militarrek Enrique Aguirre Pozo zauritu zuen balaz, Ondartxoko Ferreres galdategian. Komunikatu batean, “hanka-sartzea” izan zela aitortu zuen ETAk.

Azaroaren 2a eta 4a. Batzokiaren kontrako hiru eraso-saio egin zituzten; horretarako, kristalak apurtzeko harriak eta zenbait molotov koktel jaurti zituzten. Lehen eraso-saioan, EAJ-PNVko kide bat zaurituta geratu zen begian.

1981

Urtarrilaren 1a. ETA militarrek lehegailu bat jarri zuen Iberdueroren azpiestazio batean.

Urtarrilaren 5a. ETA militarrek Antonio Díaz García erail zuen bere etxebizitzako igogailuaren ondoan. 31 urte zituen, ez zuen seme-alabarik eta Erretereriako Nafarroa Etorbidean zegoen La Gramola pubaren jabea zen. Donostian jaio zen eta Erreterian bizi zen.

Otsailaren 24a. “Inkontrolatu” batzuk Maite Lasa Mitxelena bahitzen saiatu ziren, eta zaurituta utzi zuten. Maite Lasak 23 urte zituen eta ikastolako irakaslea zen. Jasaten zuen hirugarren eraso zen.

Irailaren 25a. Ordena Publikoko Indarrek hiribildua okupatu eta Udaletxea inguratu zuten. Une horretan, udal osoko bilkura egiten ari ziren aurrekontu

arrunta erabakitzeko, eta bilkura-aretoa lepo zegoen. Bilkura bertan behera geratu zen, eta alkateak, alderdi bakoitzeko zinegotzi banarekin batera, zertara etorri ziren galdetu zion kapitainari. Gobernadorearekin eta Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailarekin harremanetan jartzen saiatu ziren, baina alferrik. Hori ikusita, jendea istilurik gabe irten zen. Zinegotziek protesta egin zuten aho batez; izan ere, “poliziaren presentziak beldurra eragin du aretoaren barruan, eta askatasun osoz jarduteko aukera eragotzi du”.

Irailaren 25a. Txanodun talde batek Banco de Bilbao erakundearen sukurtsaleko eta Aurrezki Kutxa Probintzialeko beirak hautsi zituen.

Urriaren 9a. ETA militarrek eraso egin zion Iberduero enpresaren Land Rover bati.

Urriaren 21a. Guardia Zibilak ETako kide ziren Jose Jauregi Altube (22 urtekoa) eta Andres Izagirre Gogorza (30 urtekoa) hil zituen A-8 autobideko kontrol batean, Errenteriarren eta Pasaiaren artean.

1982

Urtarrilaren 1a. Urteko lehen egunean, amnistiaren aldeko manifestazio bat amaitu eta ordu-erdira, guardia zibil batzuk tiroka hasi ziren –benetako balekin– Zumardiko dantzara joan zen jendearen kontra. Bala batzuk Zumardiko horma eta ateetan sartuta gelditu ziren, eta beste batzuk La Rosa tabernan sartu ziren. Horren ondorioz, 7 urteko Daniel Muñoz Valverde haurra balaz zauritu zen izterrean. Haurra tabernaren barruan zegoen gurasoekin eta arreba batekin. Tabernako jabeetako bat, Maria Jesus Bailó, lehen solairuan zegoen eta hatz batean zauritu zuten. Halaber, Manuel Cosano Cuenca, 68 urtekoa, Zumarditik paseoan zihoan emaztearekin, eta zauri sedala izan zuen hemitoraxean eta ezkerreko besoan.

Otsailaren 5a. San Kristobal mendian *footing* egiten ari zen pertsona batek objektu batekin estropezu egin eta objektuak eztanda egin zuen. Lehergailuak zauri larriak eragin zizkion hanka batean eta beso batean, eta metraila sartu zitzaion besape batean eta belarri batean. Odol asko galdu zuen.

Otsailaren 16a. Jose Frago Martín guardia zibila, 35 urtekoa eta lau seme-alabaren aita, ibilgailuaren barruan erail zuten bizilekuaren ondoan, Lartzabal auzoan. Pasaiaiko portuko zerga-zerbitzuan lan egiten zuen.

Martxoaren 15a. Modesto Martín Sánchez, Guardia Zibileko kabo bigarrena, 41 urtekoa eta bi seme zituen (emaztea zazpi hilabetez zegoen haurdun), ETako kide batzuek emaztearen eta semearen aurrean tiro eginda hil zen, Beraun auzoan.

Maiatzaren 1a. Komando Autonomo Antikapitalistek bonba bat jarri zuten CCOO sindikatuaren egoitzan.

Ekainaren 6a. ETA militarren eraso Iberduero enpresaren azpiestazio baten aurka.

Ekainaren 26a. Alberto Muñagorri Berdasco, 10 urtekoa, larriki zaurituta geratu zen ETaren bonba bat zuen poltsa bati ostiko bat ematean, Iberduero enpresa elektrikoaren ondoan. Eztandak lesio larriak eragin zizkion bi begietan, aurpegian, toraxean eta abdomenean; ezkerreko hanka galdu zuen.

Irailaren 14a. ETak Jesus Ordoñez Pérez (25 urte), Juan Seronero Sacristán (35 urte, bi seme-alaba), Antonio Cedillo Toscazo (29 urte, seme bat) eta Alfonso López Fernández (30 urte, alaba bat) Polizia Nazionaleko kideak erail zituen Perurenaren eta Landarbasoko kobazuloen artean. Bosgarren polizia bat, Juan Jose Torrente Terrón, zaurituta geratu zen tiroen ondorioz.

Irailaren 15a. Hildakoen laguna zen Julian Carmona sarjentuak bere buruaz beste egin zuen Donostian, hildako lau polizien gaubeilan.

Irailaren 20a. ETA militarrek bonba bat jarri zuen Banco de Santander erakundearen sukurtsalean.

Azaroaren 13a. Estradizioen aurka protestatzeko, hainbat pertsonak su eman zioten Donostia-Errenteria lineako autobus bati mojen zubian, errepide nazionalean, gidaria eta erabiltzaileak jaitzarazi ondoren. Ibilgailua kiskalita geratu zen.

Azaroaren 18a. ETA militarren atentatua Kaputxinoetako hiru langileren aurka: Carlos Manuel Patiño Casanova (28 urte), bi seme-alabaren aita eta drogeria baten jabea, larriki zaurituta geratu zen hasieran, baina ospitalean hil zen **azaroaren 23an**; Francisco Rosco Herraizo (38 urte, 11 tiro) eta Esteban Fariñas González (26 urte), berriz, zaurituta geratu ziren. Balek inguruan aparkatuta zeuden auto batzuk jo zituzten, baita eskola-zerbitzuko autobus bat ere, gidaria eta irakasle bat zauritu gabe. Hiru lagunak pintoreak ziren lanbidez, eta guardia zibil batena izan zen Seat 127 batean zeuden. Horregatik, ETAREN hanka-sartze bat izan zitekeela pentsatu zen. Luze jo zuen ETAK erreibindikazio-komunikatua bidali zuen arte, eta hirurak “informazio-talde berezi” batekoak zirela adierazi zuen. Horrek sumindura handiagoa sorrarazi zuen hurbileko pertsonengan.

Azaroaren 28a. Liskar, agiraka eta eraso larriak kontrajarritako bi manifestaziotan parte hartu zuten artean. Manifestazioetako bat ETAK hilaren 18an egindako atentatuaren kontra protestatzeko zen (pertsona bat hil eta bi zauritu ziren atentatu horretan), eta PNV, PSOE, EE, PCE, CCOO, UGT eta Beraungo Auzo Elkarteak egin zuten deialdia. Bigarrena, berriz, HBk antolatu zuen amnistiaren alde. Atentatuaren biktimetako baten alabak pankarta bat zeraman beste haur batzuekin batera (“Gure aiten izen onaren alde” zioen), eta jo egin zuten (*El País*).

Abenduaren 5a. ETA militarrek lehegailu bat jarri zuen Banco de Santander erakundearen sukurtsalean.

Abenduaren 20a. Komando Autonomoen bonba batek Listorretako bidean, Villa Ego-Azpian etxean zegoen Adingabeen Babeserako Auzitegiaren mendeko zentroa suntsitu zuen.

Abenduaren 21a. Santi Vicente Altxu (‘La Madelon’) EHGAMeko kidea bahitu eta Zamalbide auzora eraman zuten. Bertan bi ordu eduki zuten, eta jo, kristal batekin gorputza markatu eta preso ohi bati buruz galdetu zioten.

1983

Martxoaren 1a. Andone Elizondo Ubiria ospitaleratu behar izan zuten Poliziak atxilotu eta polizia-etxean gau bat inkomunikatuta eman ondoren; hamabi egun eman zituen ospitalean.

Martxoaren 11. Komando Autonomoek hiru lehegailu jarri zituzten: CCOO sindikatuaren egoitzan, G. Echeverría y Cía SA (Pekín) enpresaren atzealdeko atean eta Niessen SA enpresaren malguki-atean. Bi fabrika horiek plantilla erregulatzeko prozesuan zeuden.

Martxoaren 16a. Imanol Aizkorreta Zabala, Zamalbideko Lanbide Eskolako 29 urteko irakaslea bahitu zuten 21:00ak aldera zazpi gizon armatuk, bere autoan sartzera zihoala. Liho-fabrikaren ondoko eremu batera eraman zuten. Poliziak zirela esan zioten. Poltsaren tortura egin zioten, lau ordu baino gehiagotan jipoitu zuten eta hainbat gairi buruzko galderak egin zizkieten, konortea galdu arte. Utzi aurretik, gertatutakoa salatuz gero tiro egingo ziotela esan zioten.

Zirrara eragin zidaten eta gogoratzen ditudan gauzak?... Imanol Aizkorretaren bahiketa eta tortura; nire lankidea zen lanbide-heziketako eskolan. Sentsazio hori, agertu den ala ez den agertu, eta azkenean bizirik utzi dutela. Batez ere gogoratzen naiz berriz ikusi genuenean ile urdin asko zituela. Orduan, pentsatu nuen: jainkoa, hori sufrimendua! Tortura-ordu horietan ilea urdinu egin zitzaion.

Maiatzaren 19a. Talde batzuek bi kamioi gurutzatu zituzten, barrikadak jarri zituzten trenaren errailetan, eta Banco de Santander-eko altzariak Biteri kalera atera eta su eman zieten, "hainbat preso Carabancheletik Puerto de Santa Mariara lekualdatu izanaren" aurka protestatzeko.

Maiatzaren 25a. Arrautzak jaurti zituzten PSE-PSOeko alkate Jose Maria Gurruchagaren inbestidura-ekitaldian. Gurruchagak 35 urte zituen eta OHoko irakaslea zen.

Ekainaren 9a. Eraso Morrongilleta kalean zegoen Herriko Etxearen (hots, PSE-PSOEn eta UGTren egoitzaren) aurka, Poliziak egindako hiru atxiloketaren aurka protestatzeko. Taberna zegoen behe-solairu osoa suntsitu zuten. Lokala inauguratu aurretik egindako eraso izan zen.

Uztailaren 21a. Liskar handiak herriko jaien hasieran, kalez jantzita zihoazen eta egunkarietan ezkutatuta barrak, borrak, makilak eta arauzko eskuburdinak zeramatzen 60 bat polizia Madalenen hasierako suziriaren zain zegoen jendea eta Udaletxean Espainiako bandera jartzeko erabakiarekiko desadostasuna agertu nahi zuen jendea jotzen hasi zirenean. Jende asko zauritu zuten. Handik ordubetera, Ordena Publikoko Indarrek bandera gorri-horia jarri zuten Udaletzeko balkoian, ikurrinarekin eta herriko armarriarekin batera. Istiluak herri osoan zabaldu ziren, eta jaiak bertan behera uztea erabaki zuten elkarteek eta jai-batzordeak.

...banderen gerra, ez zan triskantza bat gertatu... hemengo plaza guztia jendiaz beteta, dana, festetan zirenak, orduan poliziak paisanoz disfrazatuak... hura izan zeiken...

Uztailaren 22a. Lesakako Laminaciones enpresan lan egiten zuen Peio Mindegiak bere begi on bakarra galdu zuen aurreko eguneko gertaerengatik protestatzeko manifestazio batean, hurbiletik jaurtitako ke-poto batek aurpegian jo ondoren. Poliziaren neurritz kanpoko jardunaren ondorioz, dozenaka pertsona eraman behar izan zituzten osasun-zentroetara.

Uztailaren 29a. Egun horretako *Egin* egunkariak honako titulu hau zuen: “PSOeko zinegotzia zeregin parapolizialetan harrapatuta”. Dirudienez, “HBko jarraitzaile” batek Errenteriako PSE-PSOeko zinegotzi Jose Angel Prietoren aurkako salaketa jarri zuen, bere autoaren matrikula Polizia Nazionalaren kuartelaren telefono-zenbakia zegoen paper berean idazten ikusi baitzuen. Gipuzkoako PSE-PSOeko udal-politikako arduradunaren arabera, berriz, salaketa egin zuenak “eraso fisikoak eta heriotza-mehatxuak egin izan ditu zinegotzi sozialisten aurka”, eta sozialisten “kontrako giro bat” sortu izana leporatu zion HBri (*El País*, 1983/07/30).

Abuztuaren 3a. Ezohiko udal osoko bilkuran, zentsura-mozio bat eta alkatearen dimisioa aztertu behar ziren Madalenetako gertaeren ondorioz, baina PSE-PSOeko zinegotziak bakarrik geratu ziren Udaletxean, gainerako taldeek alde egin baitzuten Udaletxearen inguruan poliziak zeudelako. Eusko Legebiltzarreko presidenteorde Jose Antonio Maturanak (PSE-PSOekoak) kaletik jaurtitako harrikada bat jaso zuen kopetan, bere alderdiko alkate Jose M^a Gurruchaga babesteko bilkura-aretoan zegoenean. Herriko PSE-PSOeko zinegotzi Mari Carmen Ruizek ere lesioak izan zituen.

Abuztuaren 5a. Iñigo Bengoetxea Jauregi errenteriarra eta Koro Izagirre Larrañaga motoz zihoazen Oiartzundik, eta zaurituta geratu ziren ETAko kideek egindako tiroen ondorioz, Manuel Peronié Díaz hil zuten atentatuan. Donostiako Arantzazu Ospitalera eraman zituzten.

Irailaren 21a. Hilaren 7an quorumik ez zegoelako huts egin zuen ahaleginaren ondoren, zentsura-mozioa eta alkatearen dimisioa aztertzeko ezohiko osoko bilkura hastea lortu zen. Osoko bilkura, ordea, bertan behera geratu zen, bozketarik egin gabe, PSE-PSOeko zinegotzietan objektuak jaurti ondoren (aurretik, zinegotzi horietako batek Herriko Etxean pintadak egin izana leporatu zion HBko zinegotzi bati). Ondoren, kalean, talde bat PSE-PSOeko zinegotzientzat atzetik joan zen irainka Maria de Lezo kalean barrena, eta lau pertsona zauritu ziren gorputzez gorputzeko liskarretan. Jose Maria Gurruchaga alkatea babesten zuten poliziek airera egin zuten tiro, alkatearen kontrako eraso saihesteko.

Urriaren 5a. Txanodun batzuek Donostiatik Gabierrotarako lineako autobus bat erre zuten.

Urriaren 12a. ETA militarrek Angel Flores Jiménez guardia zibila hil zuen atentatu batean, Beraunen. 44 urte eta bost seme-alaba zituen. Agenteak Irungo tren-geltokiko esku-hartze fiskaleko zerbitzuan lan egiten zuen.

Urriaren 20a. ETA militarreko kide batzuek Cándido Cuña González erail zuten, Zubiaurre kalean. 50 urte eta hiru seme-alaba zituen, eta okina eta Molinaoko Ogilan kooperatibako kidea zen. 1979ko apirilaren 21ean beste atentatu bat izan zuen.

Urriaren 21a. Errefuxiatu baten arreba zen eta haurdun zegoen Maite Lasak mehatxu gehiago jaso izana salatu zuen epaitegian. Mehatxuak idatziz jaso zituen euskarazko eskolak ematen zituen Zamalbideko etxeko atean: “Candidoren heriotzagatik mendeku hartzeko prest dago jendea. Zugan pentsatu dugu. Benetan ari gara” (*El País*).

Azaroaren 22a. Autobus bat erre zuten trenbidean, Gernikako Juntetxean Juan Carlos de Borbón erregearen aurrean “Eusko Gudariak” abesteagatik Madrilen HB eta LAIAko kideen aurka egiten ari zen epaiketaren aurka protestatzeko.

Azaroaren 23a. Su eman zieten Banco de Bilbao eta Banco Santander erakundeen sukurtsalei.

Azaroaren 23a. Jose Antonio Marcos, 36 urteko polizia nazionala, bere polizia-ibilgailuan zegoen Juan Carlos de Borbón erregeari egindako irainengatik Madrilen egiten ari zen epaiketaren aurkako protestetan, eta zaurituta geratu zen molotov koktel batek ibilgailua jo zuenean.

Abenduaren 5a. Poliziak Maria Vaquero zauritu zuen balaz.

Abenduaren 9a. Pablo Garraza García 59 urteko taxilari erretiratuaren gorpua aurkitu zuten Zamalbide auzoan, hilerrri berriaren ondoan. Atentatua ETA

militarrak hartu zuen bere gain; aldez aurretik, biktima bahitu egin zuten, eta galdeketa egin zioten.

Abenduaren 20a. Ramon Oñaederra Bergara (23 urtekoa) Baionan atentatu batean hil ondoren, Herriko Etxeari egin zioten eraso, eta barruan zegoen Jose Maria Gurruchaga alkatea jo zuten: “Zangozabatu egin ninduten, euritako batekin eman zidaten, eta betaurrekoak hautsita nituela eta odolatan egin nuen ihes. Ahaleginean hasi nintzen korrika, Pedro Bustos sindikalista zenak bere etxera eraman eta lagundu zidan arte. Bahitu egin nindutela pentsatu zuen poliziak” (DV, 2008/10/11).

Abenduaren 20a. Protesta berean, su eman zieten Banco Hispano Americanoko altzariei, Zumardira atera ondoren.

Abenduaren 30a. Donostiako lineako autobus bat erre zuten, Renfeko geltokiaren ondoko trenbideetan gurutzatu ondoren, GAL taldeak Donibane Lohizunen 27 urteko Mikel Goikoetxea Elorriaga erail izanagatik protestatzeko.

1984

Otsailaren 8a. GAL taldeak Bixente Perurena Telletxea erail zuen, Poliziatik ihesean zebilela. Astigarragako Bentan jaioa zen, 38 urte zituen eta hiru alabaren aita zen. Atentatu berean, ETAko kide Angel Gurmindo Lizarraga (30 urtekoa) hil zen. Berria jakin bezain laster, su eman zieten Frantziako hiru kamioiri eta Donostia-Hondarribia lineako autobus bati.

Otsailaren 9a. Lau kamioi gurutzatu eta erre zituzten: Frantziako hiru eta Suitzako bat.

Otsailaren 14a. Bonbak Banco Hispano Americano eta Banco Santander erakundeen sukurtsaletan.

Otsailaren 16a. Bomba Banco Guipuzcoano erakundearen sukurtsalean, Biteri kalearen eta Segundo Izpizua kalearen izkinan.

Martxoaren 16a. ETAko kide batzuek Frantziako kamioi bat tirokatu zuten.

Martxoaren 23a. Su eman zioten Gamon Zumardian zegoen Banco Hispano Americano erakundearen sukurtsalari, Pasaiaiko badian poliziak Komando Autonomoetako lau kide tiroz hil izanagatik protestatzeko. Hildakoak honako hauek izan ziren: Pedro Isart Badiola (23 urte), Dionisio Aizpuru Arbelaiz (23 urte), Rafael Delas Aizkorbe (27 urte) eta Txema Izura Sanz (26 urte).

Maiatzaren 3a. GAL taldeak balaz zaurituta utzi zuen Jesus Zugarramurdi Huici errenteriarra, Baigorriin egindako atentatu batean. Atentatu horretan, Rafael Goikoetxea Errazkin (30 urtekoa) hil zuten. Horren aurka protestatzeko, alkatearen bizkartzain-lanetan ziharduten polizien autoa harriatu zuten, eta poliziek tiroz erantzun zuten.

Maiatzaren 7a. Kalez jantzitako polizia batzuek Josetxo Portu Espina 23 urteko errenteriarra balaz zauritu zuten GAL taldearen aurkako manifestazio batean. Hiru orduko ebakuntza kirurgikoaren ondoren, ezin izan zioten atera giblean sartuta zuen bala. Gertaera horiengatik, bi inspektorek eta bi polizia nazionalak deklaratu zuten Instrukzioko Epaitegian. Egun hartatik 2002. urtera arte, Polizia Nazionalak eta Ertzaintzak hamar pertsona inguru zauritu dituzte larriki hainbat protestatan.

Maiatzaren 7a. Donostia-Gabierrota lineako autobus bat erre zuten Matxaingo izkinan.

Maiatzaren 25a. "Inkontrolatu" batzuek Xabier Lorenzo Almandoz bahitu zuten. Bederatzi ordutan galdeketa egin eta torturatu ondoren, soldadutza egiten ari zen Loiolako kuarteletik hurbil utzi zuten. Egin zizkioten galderen bidez, Errenteriako herritarren izenak eta jarduerak ezagutu nahi izan zituzten. Aurreko abenduan, Poliziak gaztea atxilotu zuen eta kargurik gabe utzi zuten aske, baina egun haietan mehatxuak jaso zituen telefonoz eta idatziz. Udalak bahiketa gaitzetsi zuen.

Uztailaren 19a. ETAk bonba bat jarri zuen Bidasoa kaleko Bowling-JJ pubaren atean, eta kalteak eragin zituen pubaren barruan eta hurbileko etxebizitza eta establezimenduetan.

Uztailaren 22a. Frantziako matrikula zuten bi ibilgailu erre zituzten goizean goiz, Jose Erbiti kalean.

Uztailaren 25a. Txanodun batzuek molotov koktel bat jaurti zuten Garaje Lete establezimenduaren aurka (Renault markaren kontzesionarioa zen). Lokalaren gainean zeuden etxebizitza batzuek kalteak izan zituzten.

Abuztuaren 13a. Pablo Gude Pego, 28 urteko errenteriarra eta Komando Autonomo Antikapitalistetako kidea, Lasarte-Orian hil zen Guardia Zibilak tirokatuta, ibilgailua atzeman ondoren. Polizia Nazionalak manifestazio bat desegin zuen Errenterian.

Irailaren 9a. ETAk bonba bat jarri zuen Lagunak establezimenduan (Citroën markaren kontzesionarioan), Beraun auzoko Aita Donostia kalean.

Irailaren 23a eta 24a. Istilu eta liskar ugari Poliziarekin, Frantziako Gobernuak Gotzon Castrillo errefuxiatu errenteriarra eta beste batzuk Togora deportatzeko hartu zuen erabakiaren aurka protestatzeko.

Irailaren 28a. Udal osoko bilkura bat etenda geratu zen ordu-erdi batez, bonba-abisu faltsu baten ondorioz. Udaletxea hustu egin zen. Gauez, bonba batek eztanda egin zuen Telefónica enpresaren instalazioetan, Alaberga eta Kaputxinoak auzoen artean.

Urriaren 17a. ETAk Vicente Gajate Martín erail zuen San Markos kalean. 34 urte eta hiru seme-alaba zituen. Gajate Beraunen bizi zen eta PSE-PSOeko zinegotzi izan zen 1979ko udal-gestoran. Udaltzaina eta UGT sindikatuko kidea zen.

Urriaren 17a. Vicente Gajateren aurkako atentatuaren ondorengo protestetan, hainbat pertsonak HBko jarraitzaile baten gozo-dendako kristalak hautsi zituzten, eta jabea astindu zuten. Udal osoko bilkuran, UGTko afiliatuek HBko lau zinegotziak oihukatu eta mehatxatu zituzten eta agiraka egin zieten (“hiltzaileak”, “faxistak” edo “pistolariak”), eta Udaletxetik irteteen pezetak jaurti zituzten (*Libertad Digital*).

Urriaren 18a. Ezezagun batzuek su eman zioten Landare elkarteari, eta tiro egin zuten barrura.

Abenduaren 24a. Bi kilo Goma 2 jarri zituzten Renault enpresak Nafarroa Etorbidean zuen kontzesionarioan, Garaje Lete establezimenduan.

1985

Otsailaren 22a. Komando Autonomo Antikapalistek bolbora prentsatur egindako bonba bat jarri zuten Herriko Etxean (PSE-EE alderdiaren egoitzan, alegia), Morrongilleta kalean. Kalteak eragin zituen sarreran eta hurbileko etxebizitzetan.

Apirilaren 15a. ETAko kide batzuek Frantziako bi kamioiren aurka egin zuten tiro, autobidean.

Apirilaren 26a. ETAk atentatua egin zuen Frantziako kamioi baten aurka.

Ekainaren 20a. Pentsioen erreformaren aurka protestatzeko deitutako greba orokorra izan zen Errenterian, eta Polizia Nazionalarekin izandako istiluetan, gomazko pilota batek aurpegian zaurituta utzi zuen pertsona bat.

Uztailaren 30a. HBko zinegotzi Agustin Zelihueta Almazani GAL siglak grabatu zizkioten objektu zorrotz batekin ezkerreko besoan, eta markak egin zizkioten gorputz osoan, besoetan, bizkarrean, ipurmasailetan eta izterretan; bere etxeko ezkaratzean egin zioten hori guztia. Buruan poltsa bat jarri, eta pistola batekin tiro egingo ziotela esan zioten.

Abuztuaren 7a. Frantziako matrikula zuen auto bat erre zuten Juan Olazabal kalean. Gaua senide batzuen etxean eman zuen etorkin galiziar batena zen autoa.

Azaroaren 2a. HBko zinegotzi Agustin Zelihueta Almazani bala bat eta heriotza-mehatxuak zituen gutun bat bidali zioten. "Revolución Nacional" zen sinatzailea.

Azaroaren 7a. "Inkontrolatu" batzuek GAL siglak markatu zizkioten objektu zorrotz batekin 26 urteko Txema Tolosa errenteriarrari ezkerreko besoan, Goiko kalean jo eta iraindu ondoren.

1986

Urtarrilaren 17a. Guardia Zibilak autobidean ETAko hiru kide hil izanagatik greban zeuden ikasle batzuek ezohiko udal osoko bilkura bat eten zuten, komunikatu bat irakurtzeko asmoz. Osoko bilkura bertan behera geratu zen, eta zenbait ikaslek arrautzak jaurti zizkieten PSE-PSOeko zinegotziei.

Urtarrilaren 20a. Jose Maria González Garrido eta Vicente Blasco Lorenzo guardia zibilak larriki zaurituta geratu ziren ETAk Beraunen granada-jaurtigailuz egindako atentatu batean.

Otsailaren 4a. Manuel Espinosa Sanju polizia nazionala, 36 urtekoa, eta haren alaba Noelia Espinosa Magariño, 9 urtekoa, zaurituta geratu ziren ETAk haren ibilgailuan jarritako bomba batek eztanda egitean, Jesus Guridi kalean. Poliziak eskuineko hanka galdu zuen, eta alabak zauri larriak izan zituen aurpegian eta hanketan. Auzokoen arabera, biek ibilbide bera egiten zuten egunero (*El País*, 1986/02/05).

Otsailaren 23a. “Inkontrolatu” batzuek Amnistiaren aldeko Batzordeetako kide Juan Fernando Rico bahitu eta Ergoienen dauden Arditurriko meatzetara eraman zuten. Bertan, herriko pertsona batzuei buruzko galdeketa egin, jo eta mehatxatu egin zuten lau ordutan. Halaber, tiro egin zioten lokiaren ondoan, eta burua ibaian sartu zioten hainbat aldiz.

Martxoaren 25a. Bi ezezagunek PSE-PSOeko zinegotzi Jose Angel Prieto Alabergatik udal-hiltegira eraman zuten indarrez, eta bertan eraso eta jipoitu egin zuten. *Efemérides renterianas-en* arabera, ETAREN aldeko oihuak egitera behartu zuten.

Apirilaren 8a. Agustin Zelihuetak mehatxuzko gutun bat jaso zuen berriz ere, Udaletxean bertan. Gutuna Baionatik bidali zuten, eta 1985eko iraileko abisua (bala batekin bidalia) gogorarazten zioten.

Maiatzaren 29a. Bixente Perurenaren familiaren baserria eta jatetxea metrailatu zuten. Zortzi bala-tiro jaso zituen. Ekintza GAL taldeak hartu zuen bere gain.

Uztailaren 15a. Bomba batek Landare elkarteko leihateko kristal blindatua suntsitu zuen, eta metrailak kalte handiak eragin zituen lokalaren barruan.

Uztailaren 15a. HBko zinegotzi ohi Iñaki Murua Elizondori autoa erre zioten.

Uztailaren 21a. Alkateari arrautzak eta sagarrak jaurti zizkieten herriko jaien hasieran.

Uztailaren 27a. Lineako autobus bat gurutzatu eta erre egin zuten, estradizioen aurka protestatzeko.

Uztailaren 30a. Pertsona talde handi bat Udaletxean sartu zen udal osoko bilkura egiten ari ziren unean, eta PSOEn aurkako oihuak eta irainak egin zituzten. Osoko bilkura eten behar izan zen.

Abuztuaren 30a. Ezezagun batzuek HBren jarraitzaileen bi auto erre zituzten: R-5 bat Alabergan, eta R-4 bat tren-geltokiaren parean; lehena C.P.M.-rena zen, eta bigarrena J.L.M.-rena.

Irailaren 2a. “Inkontrolatu” batzuek HBren jarraitzaileen bi auto erre zituzten: Peugeot 504 bat (J.P.L.-rena) Arramendin, eta R-12 bat (F.J.H.-rena) Aita Donostia kalean.

Urriaren 15a. Epaileak Agustin Azkarate Intxaurrondo ospitaleratzeko agindua eman zuen, Guardia Zibilaren kuartelean atxilotuta eta inkomunikatuta egon ondoren.

Urriaren 19a. “Inkontrolatu” batzuek Langaitz ikastolako irakasle Inaxi Vives Mendizabali (22 urte) egin zioten eraso Beraunen. Ebaketak egin zizkieten gorputzaren hainbat aldetan eta bi besoetan; GAL siglak eta svastika bat grabatu zituzten bizar-xafla batekin. Halaber, ile-txirikorda moztu eta “ikastolako haur guztiak” hiltzeko mehatxua egin zioten.

Azaroaren 5a. Lau trailer gurutzatu zituzten barrikada moduan N-1 errepidean, “euskal errefuxiatuen atxiloteten aurka”. Frantziako matrikula zuen kamioietako bati molotov koktel bat jaurti zioten, eta, pisuaren inertziak, zuhaitz bat puskatu eta Nafarroa Etorbideko etxebizitza baterantz abiatu zen; suak eta keak lehen bi solairuak kaltetu zituen.

Abenduaren 12a. Ikasle talde batek Udaletxea harriatu zuen, barruan Gobernu Batzordea bilduta zegoen unean. Ondoren, Polizia Nazionala agertu zen; gomazko pilotak, kulata-kolpeak eta harrien jaurtiketa. Bi zauritu.

1987

Urtarrilaren 3a. Langaitz ikastolako irakasle Inaxi Vives mehatxatu zuten berriz: bizar-xafla bat zuen gutun bat jaso zuen; “erregetako oparia” zela zioen gutunak.

Urtarrilaren 18a. Bi pertsona armatuk Land Rover bat lapurtu zioten Udaltzaingoa ETArenean. Hurrengo egunean agertu zen Orereta ikastolatik hurbil.

Otsailaren 12a. Frantziako senar-emazte batek erredura arinak izan zituen biak beren kamioiaren barruan zeudela molotov koktel bat sartu zenean.

Otsailaren 22a. Molotov koktel batzuk jaurti zituzten Renault enpresak Segundo Izpizua kalean zuen Lete kontzesionarioaren barrura, eta hainbat ibilgailu kaltetu ziren.

Otsailaren 23a. Frantziak Inziarte errenteriarra Espainiako Poliziari entregatu izanagatik ikasleek egindako manifestazio baten ondoren, istiluak izan ziren Poliziarekin, eta Jose Luis Ibañez eta Pablo Casares (68 urtekoa) zaurituta geratu ziren (Casares hamar metro baino gutxiagoko distantzian jaurtitako gomazko pilota batek jo zuen). Halaber, Morrongilleta kaleko PSE-PSOEn egoitza harriatu zuten.

Otsailaren 24a. *Kale-borrokako* eraso Renault enpresaren bagoi baten kontra.

Martxoaren 4a. Alkatetzako delegatu eta PSE-PSOE alderdiaren udal-hauteskundeetarako zerrendaburu Miguel Buen Lacabrari eraso egin zioten Herriko Enparantzan.

Maiatzaren 12a. HBko zinegotzi Agustin Zelihueta Almazan bahitu zuten Agustinetako monasterioaren parean, eta Txikierdi ingurura eramane zuten. Egileek

guardia zibilak zirela esan zuten, eta Revolución Nacional taldeak ere bere gain hartu zuen ekintza. Galdeketa egin zioten eta torturatu egin zuten (besoa eta hatzak hautsi zizkioten).

Ekainaren 30a. Herriko ezker abertzaleko kide M.C.B.-ri autoa erre zioten.

Abuztuaren 15a. Rafa Etxebeste Garmendia, 28 urtekoa eta Erreterian jaioa, Donostian Peugeot 505 batean manipulatzeko ari zen bonbak eztanda egitean hil zen. Harekin batera, Maite Pérez Sever hil zen. ETAko kideak ziren biak.

Abuztuaren 18a. Gobernadore zibilaren aginduz, Poliziak pankarta bat eta ikurrina kendu zituen Udaletxetik, fatxadaren ondoan ipinitako tumuluan zeuden Rafa Etxebeste eta Maite Pérezen argazkiak hautsi ondoren. Gazte batzuek bi trailer gurutzatu zituzten errepidean; horietako batek Frantziako matrikula zuen, eta gabarrari su eman zioten.

Urriaren 3a. Euskal errefuxiatuen atxiloketen aurka protestatzen ari ziren manifestari batzuek Portugalera automobilak garraiatzen zituen tren bat erre zuten. Hamaika auto suntsitu ziren gutxienez.

Irailaren 1a. Frantziako matrikula zuen auto bati su eman zioten Donostia kalean. Autoa Portugalgo senar-emazte batena zen.

Irailaren 3a. Frantziako matrikula zuten bi autori su eman zieten: R-12 bati Parke kalean, eta GS Club bati Santa Klara kalean.

Irailaren 19a. Frantziako matrikula zuen auto bat erreta Parke kalean.

Irailaren 22a. "Inkontrolatuen" hirugarren erasoak Agustin Zelihueta Almazan zinegotzi ohiaren aurka. Leku urrun batera eramane zuten eta ebaketak eta ubeldurak egin zizkioten. Udalak gaitzespen bat onartu zuen aho batez. Revolución Nacional taldeak hartu zuen bere gain ekintza.

Urriaren 1a. Ezezagun batzuek Citroën markako bi auto erre zituzten Beraungo Talleres Lagunak kontzesionarioan.

Azaroaren 26a. Frantziako matrikula zuen trailer bati su eman zioten, Komando Autonomoetako kide Patxi Imaz Martiarenaren estradizioaren aurka protestatzeko.

1988

[Urte honetan, Gaztetxearen aldeko Asanbladak hiru eraso egin zituen udal-egoitzetan –urtarrilaren 14an, apirilaren 12an eta apirilaren 30ean– Polizia Nazionalak zahar-egoitza zaharra utzarazi izanagatik protestatzeko; pintura jaurti eta su eman zieten hainbat bulegori. Zenbait zauritu eta atxilotu izan ziren, eta horietako 21 auzipetu zituzten]

Otsailaren 3a. Frantziako matrikula zuen auto bati su eman zioten.

Apirilaren 25a. Mikel Blanco Laskibar (“Txuri”) kamioi baten atzealdeko gurpilek harrapatu zuten, Ertzaintzako bi moto-gidarik aginduta kamioilaria barrikada bat saihesteko ahaleginak egiten ari zenean. Ez zuen gaztea ikusi, eta Mikel Blancok hanka bat galdu zuen. Zainketa Intentsiboetako Unitatean egon zen maiatzaren 11ra arte. Handik lau urtera, gazteari 34 milioi pezeta ordaintzeko zigorra ezarri zioten kamioilariaren maniobra zuzendu zuen ertzainari.

Apirilaren 26a. Ertzaintzaren ibilgailu baten kontrako eraso, “Txuriri” gertatutakoa salatzeke.

Apirilaren 27a. Mikel Blanco Laskibar gazteari gertatutakoaren inguruko protestetan, Polizia Nazionalak hainbat taberna utzarazi eta istiluen aurkako material ugari erabili zuen. Horren ondorioz, etxeko balkoian zegoen Jose Ignacio Lete zauritu zuten begi batean. Hainbat pertsonak su eman zioten Frantziako trailer bati.

Apirilaren 28a. “Inkontrolatu” batzuek tiro egin zuten herriko taberna eta establezimendu batzuen aurka, zauriturik eragin gabe; egin zituzten pintadetako batek “Renterianos, hijos de puta y dos mil gitanos” (Errenteriarrak, putakumeak eta bi mila ijito) zioen.

Maiatzaren 4a. Bonba batek Garaje Lete-ren egoitzak suntsitu zituen Lintzirinen. 40 milioi pezetako galera eragin zuen. Aurreko kokapenean, hamar alditan egin zioten eraso.

Maiatzaren 6a. Mehatxuzko gutun anonimoak jaso zituzten Errenteriako saltoki batzuek, Frantziako produktuak saltzen jarrai ez zezaten.

Ekainaren 16a. Ford markako 14 auto erre zituzten Herrerako espetxean zegoen Juan Carlos Alberdiren heriotzagatik protestatzeko egindako manifestazio baten ondoren.

Ekainaren 29a. Mikel Arrastia Agirre, 28 urtekoa, Gaztaño auzoan bizi zena, igeriketako monitorea eta Ereintza dantza-taldeko kidea, berearen ondoko etxe batetik amildu zen Guardia Zibilak inguratuta zuela ikusi zuenean. Guardia Zibilak atxilotu egin nahi zuen, ETAko kidea zelakoan.

1988, Mikel Arrastia, Ereintzako dantzari kidea, bere burua balkoitik behera botako du, poliziatik ihesean. "Bateginik" kanpainan buru belarri ibili berriak ginen biok.

Ekainaren 29a. Herriko Etxeari eraso zioten gauez.

Uztailaren 29a. Frantziako matrikula zuten bi autori su eman zieten.

Abuztuaren 1a. Frantziako bi auto erre zituzten euskal errefuxiatu eta presoei babesa adierazteko.

Irailaren 23a. Donostia-Errenteria lineako autobus bati su eman zioten, Poliziak Donostian Mikel Kastresana hil izanagatik protestatzeko.

Irailaren 24a. Frantziako auto bati su eman zioten arrazoi beragatik.

Azaroaren 4a. Donostia-Errenteria lineako autobus bat erre zuten Hondarribiko HBko zinegotzi Fermin Urtizberearen bahiketaren aurka protestatzeko (GANE taldeak bahitu zuen).

Azaroaren 12a. Banco de Vizcaya-ren sukurtsaleko beirak hautsi zituzten “gerra zikinaren” aurka protestatzeko.

Abenduaren 14a. Beste eraso bat Herriko Etxearen aurka.

1989

Urtarrilaren 12a. Autobus bat erre zuten azken atxiloketen aurka protestatzeko.

Urtarrilaren 14a. Hainbat banku-erakunderen sukurtsaletako beirak hautsi zituzten arrazoi beragatik.

Martxo eta apirila. 1989ko martxotik apirilera bitarte, mota eta garrantzi desberdineko 17 indarkeria-ekintza izan ziren.

Apirilaren 28a. “Inkontrolatu” batzuek Orereta Ikastolako Karmele Urruzono 18 urteko ikasleari eraso eta mehatxu egin zioten; ebaketak egin zizkioten aurpegian.

Maiatzaren 5a. Zamalbideko ikasle batek mehatxuak jaso zituen telefonoz.

Maiatzaren 13a. Lehergailu batek eztanda egin zuen Itsas Izar pubean. Ez dakigu egileak nor izan ziren. ETAk ekintza horrekin zerikusirik ez zuela adierazi zuen maiatzaren 25ean, eta ez du inork bere gain hartu.

Maiatzaren 16a. Karmele Urruzono gazteari eraso egin zioten berriz. Hurrengo egunean, Zamalbideko LHko Institutuan itxialdi bat egiteko deialdia egin zen, Erreterian eta Euskal Herriko gutxienez beste zortzi herritan gertatzen ari ziren erasoengatik.

Ekainaren 8a. Joseba Lekuona ikasleari GAL siglak grabatu zizkioten Orereta ikastolatik irtetea. Hiru gizonak egin zioten eraso, eta labana bat jarri zioten lepoan.

Irailaren 20a. Jose Antonio Cardosa Morales, 22 urtekoa, antimilitarista eta Kakitzat taldeko kidea, Ildefonso Salazar Uriarte HBko kideari igorritako bonba-gutun batek eztanda egitean hil zen, gutuna haren postontzian (Juan Olazabal kalean) sartzen saiatzean, hain zuzen ere. Guardia Zibileko zuzendari ohi Luis Roldán Ibáñezek 1996/05/05ean salatu zuenez, Barne Ministerioak hainbat bonba-gutun bidali zizkien militante abertzaleei. Gehienak posta-zerbitzuan atzeman zituzten, Iñigo Iruin abokatuari zuzendutako bat barne. Covite erakundeak heriotza GAL taldeari leporatzen dio zuzenean Terrorearen Mapan.

Irailaren 21a. Istilu larriak Josean Cardosa gaztearen hiletan, “gobernadore zibilarren bizkartzainetako batek tiro egin ondoren; Felix García Rivera, Trintxerpekoa, balaz zaurituta geratu zen” (*Efemérides renterianas*). Bost pertsona auzipetu zituzten.

Irailaren 22a. Cardosaren heriotzagatik deitutako greba orokorrean, hainbat pertsonak Herriko Etxeko atea hautsi eta su eman zioten lokalari. Halaber, tren/tranbia bati eman zioten su Renfeko geltokian.

1990

Martxoaren 8a. Banco Central erakundearen Biteri kaleko sukurtsaleko beirak apurtu zituzten.

Martxoaren 15a. Bakearen aldeko Koordinakundeak lehen deialdia egin zuen urtarrilaren 31n, eta kontzentrazio isila egiten ari zirenean, bertaratuak PSOErekin eta GALEkin konparatzen zituzten hainbat pertsona *Gora ETA* oihukatzen hasi ziren.

Abuztuaren 22a eta 25a. Hiru autori su eman zioten (bik Frantziako matrikula zuten, eta besteak Madrilekoa) 22 urteko Jose Mari Arantzazistroke Maiozen heriotzagatik protestatzeko. Arantzazistrokeri eztanda egin zion Mamuteko aparkalekuan manipulatzen ari zen bonbak.

Irailaren 19a. 23 urteko ETako kide Mikel Castillo Furtadoren heriotzaren aurkako protestetan, Topoko hiru bagoiri su eman eta Lintziringo Garaje Leteko L.L.-ren autoa erre zuten. 32 urteko E.I.C. gazteak bere motozikletarekin barrikada bat jo zuen eta zaurituta geratu zen, Papeleraren ondoan.

Irailaren 21a. Bonba-abisuak Cristobal Gamon eta Biteri ikastetxeetan.

Irailaren 22a. Bonba-abisua Renfeko geltokian.

Irailaren 27a. Errenteria, Pasaia, Oiartzun, Lezo eta Herrera eta Gros auzoak argirik gabe geratu ziren Iberdueroren Pasai Donibaneko dorre baten aurkako atentatu baten ondoren.

Urriaren 6a. ETAk lehergailu bat jarri zuen Citroën enpresaren Irun kaleko kontzesionarioan. Zenbait etxebizitzatan eta Euskalpielen ere kalteak izan ziren.

Urriaren 13a. Pintura-potoak jaurti zituzten PSE-PSOEn egoitzaren aurka.

Azaroaren 9a. Ikasleek nahitaezko soldadutzaren aurka egindako manifestazio batean parte hartu zuten batzuek pintura jaurti zuten Herriko Etxearen fatxadara.

Abenduaren 20a. ETaren bonba Ned Land pubean.

Abenduaren 22a. Gazteek Foru Enparantzan ipinitako Olentzero erraldoi bat erre zuten ezezagun batzuek.

Abenduaren 25a. Molotov koktela Citroën enpresaren Beraungo kontzesionarioan.

Abenduaren 27a. Guardia Zibilak *kale-borrokako* zenbait erasorekin zerikusia zutelakoan hamar adingabe atxilotu ondoren, talde batek hainbat suntsiketa egin zituen Renfeko geltokian.

1991

Otsailaren 16a. Ertzain Etxearen kontra protestatzen ari ziren manifestari antimilitaristen eta ertzainen arteko liskarretan, ertzainek kamera birbobinatzerak eta alde giterra behartu zuten *El Diario Vasco* egunkariko argazkilaria.

Maiatzaren 31. Liskarrak Guardia Zibilaren eta Lliça d'Amunt-en (Bartzelona) hildako ETako bi kideren heriotzagatik protestatzen ari ziren manifestarien artean. Bakearen aldeko Taldea Gamon Zumardian bildu zen isilean aurreko egunean, ETak Vic-eko kuartelaren aurka egindako atentatuagatik (hamar pertsona hil ziren atentatu hartan: bi guardia zibil, zazpi senide -lau neska tartean- eta udaltzain bat), eta egun horretan berriz bildu ziren Poliziak hildako ETako bi kideengatik.

Ekainaren 8a. ETak Raúl Suárez Fernández ("Cocoliso" izengoitia zuena), 24 urtekoa eta ezkongabea erail zuen Iztieta pasealekuan. Atentatuaren egileek haren txakurra ere hil zuten tiroz.

Uztailaren 29a. Autobiaren eta Juan Carlos de Borbón erregearen bisitaldiaren aurkako sabotajea eta pintadak hainbat banketxetan.

Abuztuaren 3a. Bonba-mehatxu faltsua Sindikato tabernan.

Abuztuaren 18a. Hondarribiko lineako autobus bat erre zuten. Liskarrak manifestarien eta Ertzaintza eta Guardia Zibilaren artean, Poliziak Morlansen ETako hiru kide hil izanaren ondorioz. Liskar gehiago hilaren 21ean Ertzaintzarekin.

Abuztuaren 22a. Guardia Zibilak herriko lau gazte atxilotu izanagatik protestatzeko manifestazioa. Pontika auzoko gazte bat zaurituta.

Abuztuaren 24a. Santiago Vargas Estomba HBko kidearen autoari su eman zioten, eta erabat kiskalita geratu zen.

Abuztuaren 31. Herriko saltoki eta kabina batzuk suntsitu zituzten.

Irailaren 2a. Landare elkarteko ikurrina kendu zuten. Udaltzaingoak egileak atzeman zituenean, guardia zibilak zirela esan zuten eta ez zuten identifikatu nahi izan.

Irailaren 3a eta 16a. Ertzain batzuek Ertzaintzaren aurkako pintada iraingarriak ezabatu zituzten.

Irailaren 23a. Ertzain Etxearen aurkako manifestazioa (azaroaren 15ean inauguratu zen ofizialki). **Iraila, urria** eta **azaroa**: liskar ugari Ertzaintzarekin, eta atxiloketak. Hogeita hamar tabernarik protesta egin zuten Ertzaintzak tabernak hustean agertutako jokaeragatik, baina udal-talde gehienek ez zuten protesta babestu.

1992

Otsailaren 15a. Uniformerik gabeko ustezko ertzain batzuek David López Rufo gazteari dokumentazioa eskatu eta “hainbat ebaketa egin zizkioten ezkerreko begiaren azpian” (*Efemérides renterianas*). Familiak salaketa aurkeztu zuen hilaren 17an.

Martxoaren 7a. Errenteriako sei gaztek jasotako mehatxuak salatu zituzten prentsaurreko batean.

Apirilaren 10a. FEVERen bagoi bat (Renfeko geltokian) eta kutzazain automatiko bat erre zituzten Juan Lasa Mitxelaren (“Txikierdi”) estradizioaren aurka protestatzeko.

Maiatzaren 2a. Herriko hainbat kabina suntsituta.

Maiatzaren 13a. Jose Antonio Inziarte Gallardo ospitaleratuta egon zen astebete Psikiatrikoan, Guardia Zibilaren kuartelean egon ondoren.

Ekainaren 4a. Atxiloketen aurkako manifestazio baten ondoren, Donostia-Hondarribia lineako autobus bat erre zuten molotov koktel batekin.

Uztailaren 1a. Ezezagun batzuek hainbat tiro egin zituzten autobidetik Beraungo etxebizitza-bloke baten aurka. *Efemérides renterianas*-en arabera, Grupo Antiterrorista Nacional Español (GANE) taldeak hartu zuen bere gain ekintza, hilaren 3an.

Abuztuaren 23a. Beraungo telefono-kabina bati su eman zioten.

Irailaren 8a. Ertzaintzaren ibilgailu baten kontrako eraso bat molotov koktelekin.

Irailaren 29a. ETAk Jose Luis Luengos Martínez, Telefónica enpresaren azpikontrata bateko langilea eta 31 urtekoa erail zuen tren-geltokiaren ondoan. Ertzaintzak hanka-sartze bat izan zitekeela pentsatu zuen, eta ezaugarri beretsuko auto bat zuen polizia-inspektore batekin nahasi izana. ETAk Poliziaren laguntzailea zela adierazi zuen.

Urriaren 1a. Molotov koktel bat jaurti zuten Ertzaintzaren patruila-auto baten kontra.

Urriaren 23a. Banco Vitalicioren sukurtsalaren aurkako eraso bat.

Urriaren 24a. Ertzain Etxearen aurkako eraso bat harriekin. Ondoren, hainbat atxiloketa egin zituen Ertzaintzak.

Azaroaren 28a. Telefónicaren kutxatila bat narriatuta geratu zen sabotaje baten ondorioz.

1993

Urtarrilaren 27a. Telefónicaren lau furgoneta erre zituzten Gernika Enparantzako garajeetan.

Otsailaren 6a. Ertzaintzaren hiru patruila-autoren aurkako eraso bat harriekin. Antzeko ekintza bat **otsailaren 17an**, beste patruila baten aurka.

Otsailaren 26a. Correos eta Banco Vitalicioren bulegoen kontrako erasoak.

Martxoaren 10a. Kalteak Euskotrenen merkantzia-bagoi batean.

Martxoaren 18a. Zubiaurre Jauregian kokatutako EAren Alkartetxearen aurkako eraso; sarrerako atean zabor-poltsak pilatu eta su eman zieten.

Martxoaren 20a. Ertzain baten aurkako eraso harriekin.

Martxoaren 22a. Ertzaintzaren patruila baten kontrako eraso molotov koktelekin.

Maiatzaren 15a. Pello Mariñelarena Imazen (29 urte) heriotzagatik protestatzeko, molotov koktel bat jaurti zuten Madalen kaleko Foru Ogasunaren egoitzara. Bi pertsona atxilotu zituzten egun hartan, eta 14 urteko beste bat hilaren 8an.

Maiatzaren 27a. Ertzaintzaren furgoneta bat harrikatuta.

Uztailaren 9a. Hiru telefono-kabina suntsitu zituzten etxean egindako lehergailuekin (Alabergan, Gabierrotan eta Kaputxinoetan). Handik egun batzuetara, lau lehergailu zituen poltsa bat aurkitu zuen haur batek Alabergan, eta Udal Ikuskaritzara eraman zuten.

Uztailaren 31. Liskar gogorrak Ertzaintzaren eta euskal errefuxiatuen entrega eta espetxeratzeen aurka protestatzen zuten manifestarien artean. Correoseko eta Xenpelar kaleko telefono-kabina bateko beirak apurtu zituzten.

Abuztuaren 13a. Guardia Zibilak Mikel Prieto Aspiazu atxilotu zuen zigorra betetzeko, baina hanka-sartzea izan zen. Molotov koktel bat jaurti zuten Ertzaintzaren ibilgailu baten kontra.

Abuztuaren 25a. Ertzaintzaren patruila-auto baten kontrako beste eraso bat koktelekin.

Irailaren 4a. Autobus bati eta Frantziako auto bati su eman zieten.

Irailaren 21a. Ezezagun batzuek Telefónicaren kutxatila bat erre zuten.

Irailaren 24a. Alberto B.M., Oscar A.S. eta Fernando B.F. atxilotu zituzten polizia-etxean hildako Gurutze Yanci Igarategiren (31 urte) eta Xabier Kalparsoro Golmaioaren (26 urte) heriotzengatik protestatzeko mobilizazioetan.

Irailaren 26a. Ertzaintzaren bi ibilgailuren kontrako eraso harriekin.

Azaroaren 15a. Lehergailu batek merkatuaren aurrean kokatutako telefono-kabina baten barruan egin zuen eztanda, aldez aurreko abisurik gabe. Ez zen zauriturik izan.

Irailaren 30a. ETAk Telefónicaren ondoko edukiontzi batean ipinitako bi lehergailuk lau pertsona larriki zaurituta utzi zituzten: Marco A. Tobías Galea udaltzaina, Jesus Narbarte DYako kidea, Francisca Mangas Fernández eta Alejandro Del Pozo Gil. Beste pertsona batek zauri arinak izan zituen.

Azaroaren 25a. PSE-EEren egoitzaren kontrako beste eraso bat.

1994

Otsailaren 26a. Molotov koktel bat jaurti zuten Ertzaintzaren patruila baten kontra.

Martxoaren 6a. Telefónicaren ibilgailu bat kiskalita utzi zuten.

Martxoaren 10a. Eusko Trenbideak-en furgoneta bati su eman zioten.

Martxoaren 19a. Telefono-kabina bat apurtu zuten.

Apirilaren 20a. Lehergailu bat ipini zuten telefono-kabina batean.

Apirilaren 22a. PSE-EEren egoitzaren aurkako beste eraso bat.

Apirilaren 26a. Telefónicaren furgoneta bati eta Frantziako matrikula zuen ibilgailu bati su eman zieten, eta silikona jarri zuten INEMen bulegoetan.

Maiatzaren 14a. Autobus bat eta Ogasunaren lokal bat erre zituzten.

Maiatzaren 28a. Ezezagun batzuek Frantziako auto bat erre zuten.

Uztailaren 5a. Ertzaintzaren patruila-auto baten kontrako eraso molotov koktelekin.

Uztailaren 21a. Herriko jaietako ohiko Salbearen ondoren, eraso egin zieten eta izotz-koskorrak jaurti zizkieten Madalen kalean zinegotzi batzuei, horien bikotekideei eta udaltzain batzuei.

Uztailaren 22a. Txanodun batzuek Herriko Etxearen aurkako eraso egin zuten goizean, eta tabernako arduradunaren autoa apurtu zuten.

Uztailaren 25a. Txanodun batzuek EAren egoitzari egin zioten eraso herriko jaietan.

Abuztuaren 4a. Etxean egindako lehergailu bat jarri zuten Udal Alondegia gainean kokatutako telefono-kabinan.

Abuztuaren 14a. Banco Exterior de Españaren Biteri kaleko sukurtsalaren beiratea suntsitu ondoren, su ematen saiatu ziren.

Abuztuaren 26a. Correoseko motozikleta bat erre zuten.

Abuztuaren 27a. Joaquin S.A. (31 urte) eta Josu M. (27 urte) ertzainek bigarren eta hirugarren mailako erredurak izan zituzten gorputzaren % 25ean, patruilatzen

ari zirela molotov koktel batzuk jaurti zizkietenean. Ertzainek Oiartzun ibaira jauzi egin behar izan zuten arropak su hartu eta kiskaltzen ari zirela ikusita. Egun hartan bertan, autobus bat erre zuten N-1 errepidean.

Irailaren 20a. Harriak eta molotov koktel bat jaurti zituzten Ertzaintzaren patruila-auto baten kontra, Goiko kalean.

Irailaren 24a. Telefónicaren ibilgailu bat erre zuten Alabergan.

Irailaren 27a. KASek deitutako “Gudari Egunean” Ertzaintzarekin istiluak izan ondoren, autobus bat erre zuten Pontikan.

Azaroaren 20a. Ezezagun batzuk Euskotrenen bagoi bat erretzen saiatu ziren.

Abenduaren 10a. Lehergailu batek Alondegiaren gainean kokatutako telefonokabina suntsitu zuen. Halaber, harriak jaurti zituzten Herriko Etxera.

Abenduaren 21a. Guardia Zibilak egindako azken atxiloketen aurka protestatzeko, Oiartzun-Donostia lineako autobus bati eta ertzain baten ibilgailuari su eman zieten.

1995

Urtarrilaren 20a. Kutxaren Aita Donostia kaleko bi kutxazain automatikori su eman zieten, “poliziaren errepresioaren aurka protestatzeko”.

Urtarrilaren 29a. Sua eragiteko artefaktu bat eta harriak jaurti zituzten Ertzaintzaren ibilgailu baten kontra Zumardian.

Martxoaren 22a. Josean Lasa eta Joxi Zabalaren gorpuak agertu zirela jakitean, hainbat sabotaje egin zituzten Telefónicaren instalazioetan.

Martxoaren 24a. Jon Ruiz Sagarna ertzainari gorputzaren % 50 erreta geratu zitzaion Ertzaintzaren furgoneta bati molotov koktelekin egindako eraso batean,

Lasa eta Zabalaren gorpuak agertzean ezker abertzaleko hainbat erakundek deitutako borroka-egunean. Bost ertzain zeuden furgonetaren barruan. Koktelek azido sulfurikoa zuten barruan, eta horietako bat ibilgailuan sartu eta bost ertzainak harrapatu zituen. Oscar Muñoz Ortegak eta Juan Jose Miragayak erredura larriak izan zituzten, eta gidariak, erredura larriekin hori ere, kontrola galdu zuen. Horren ondorioz, sutan zegoen furgonetak bi emakume harrapatu zituen: Amaia Arrubarrenak, 19 urtekoak, zauriak zituen bularrean eta ezkerreko hankan, eta larruazala urratuta zuen bulbaraino; haren laguna zen Estitxu Urangak, berriz, orbita-haustura eta hanketako zauriak izan zituen eta ebakuntza kirurgikoa egin behar izan zioten.

Martxoaren 28a. 19-23 urteko hiru gazte atxilotu zituzten erasoan parte hartu izana leporatuta. Atxilotuetako bat ertzain baten anaia zen. 1996an egindako epaiketan, gazteek ukatu egin zuten gertakariekin zerikusia zutela (*El País*).

Apirilaren 20a eta 21a. Ertzaintzaren kargak bi enkarteladaren kontra, "gogortasun handikoak" (*Efemérides renterianas*). Horietako batean, bere lanbidezeregina betetzen ari zen *Egin* egunkariko Jon Urbe argazkilariak eta LABeko ordezkari Ainhoa Ortegak kolpeak izan zituzten (bigarrena hurrengo egunetan osatu zen).

Apirilaren 23a. Lehergailu batek Kutxak Correosen ondoan zuen kutxazain automatiko bat suntsitu zuen.

Maiatzaren 24a. Telefónicaren furgoneta bat erre zuten.

Abuztuaren 9a, 12a eta 15a. Frantziako matrikula zuten hiru ibilgailu erre zituzten.

Abuztuaren 13a. Kutxaren kutxazain bat erre, telefono-kabina bati molotov koktel bat jaurti eta Banco Santander eta BCHren sukurtsaletako erakusleihoak hautsi zituzten.

Irailaren 27a. Indar handiko lehergailu batek Gestoría Salsamendi establezimendua suntsitu zuen Miguel Alduntzin kalean.

Urriaren 16a. Telefónicaren kutxatila baten kontrako sabotajea.

Urriaren 29a. Ertzain baten autoa erre zuten.

Azaroaren 15a. Intsumisioaren aldeko kontzentrazio bateko parte-hartzaile batzuek pintura jaurti zuten Herriko Etxearen barnealdera.

Azaroaren 17a. Donostia-Beraun lineako autobus bat erre zuten Pontikan.

Azaroaren 19a. Kutzaren kutxazain automatiko bat erre zuten Xenpelar kalean.

Abenduaren 29a. Ezezagun batzuek su eman zioten Frantziako matrikula zuen auto bati eta Iberdueroren kutxatila bati, “euskal presoek sakabanaketaren aurka”.

1996

Urtarrilaren 6a. Azidoa eta pintura isuri zuten PPko kide baten autoaren kontra, eta molotov koktelak jaurti zituzten Udal Epaitegiaren, Correosen, Kutzaren sukurtsal baten eta Xenpelar kaleko kutxazain automatiko baten kontra.

Urtarrilaren 23a. Molotov koktel batzuk jaurti zizkieten Foru Aldundiaren Errepide Departamentuaren furgoneta bati, estradizioen aurka.

Otsailaren 4a. Ertzaintzaren ibilgailu bati eraso zioten molotov koktelekin.

Otsailaren 7a. Eusko Trenbideak-en bagoi bati su ematen saiatu ziren.

Otsailaren 23a. Kutzaren Aita Donostia kaleko sukurtsaleko kutxazain automatikoak erre zituzten molotov koktelekin.

Otsailaren 25a. Ertzaintzaren ibilgailu bat harrikatu zuten. Horren ondorioz, hiru pertsona atxiki zituzten, baina aske utzi zituzten handik gutxira.

Otsailaren 28a. Txanodun batzuek molotov koktel bat jaurti zuten Herriko Etxearen kontra.

Martxoaren 1a. Telefónicaren furgoneta bat erre zuten.

Martxoaren 5a. Ezezagun batzuek pintura gorria jaurti zuten Landare elkartearen kontra.

Martxoaren 15a. Kutzaren bi kutxazain kiskalita utzi zituzten euskal presoak berriz elkar zitzaten eskatzeko.

Martxoaren 26a. Molotov koktelak jaurti zituzten Kutzaren Biteri kaleko kutxazainaren kontra.

Martxoaren 28a. Txanodun batzuek Topoko tren-makina bat erre zuten.

Apirilaren 27a. Molotov koktelak Kutzaren Donostia kaleko kutxazain baten kontra.

Halaber, beste molotov koktel batek Ertzaintzaren furgoneta bat jo zuen.

Maiatzaren 1a. Bi ertzainen auto partikularrei su eman zieten.

Maiatzaren 7a. Etxean egindako lehegailu bat jarri zuten Batzokiko atean; ez zuen kalte pertsonalik eragin.

Maiatzaren 10a. Sabotajea telefoniako antena batean.

Maiatzaren 25a. Frantziako matrikula zuen ibilgailu bati su eman zioten.

Maiatzaren 27a. *Egin* egunkariaren fardel bati su ematen saiatu ziren Madalen kalearen eta Foru Plazaren izkinan.

Maiatzaren 30a. Madalen kaleko Ogasunaren bulegoari su eman zioten.

Ekainaren 8a eta 19a. Bi autobus erreta, bata Oiartzun-Donostia lineakoa eta bestea Hondarribia-Donostia lineakoa.

Ekainaren 12a. Guardia Zibilaren Land Rover baten kontrako eraso harriekin, eta koktelak Topoko instalazioen kontra, Galtzarabordan.

Ekainaren 19a. Telefónicaren furgoneta bat erre zuten.

Ekainaren 29a. Ezezagun batzuek Ertzaintzaren Nissan Patrol bati eraso zioten Panierreko zubiaren ondoan.

Abuztuaren 1a. Kutzaren bi kutxazain automatiko erre zituzten Xenpelar kalean.

Abuztuaren 9a eta 10a. Ertzaintzaren bi furgonetaren kontrako eraso lehen egunean, eta beste bi ibilgailuren kontrako hurrengo egunean. **Hilaren 10ean,** halaber, 'Hijos de Antonio Areizaga' enpresaren autobus bat kiskalita geratu zen Pontikan.

Abuztuaren 18a. Txanodun batzuek suziriak jaurti zituzten Ertzain Etxearen kontra.

Abuztuaren 27a. Kutzaren Xenpelar kaleko bulegoko kutxazaina erre zuten.

Irailaren 2a. Batzokiko kristalak hautsi zituzten.

Irailaren 10a. Ertzaintzaren patruila-auto baten, PSE-EEren egoitzaren eta Herribus konpainiaren autobus baten kontrako erasoak (autobusa erre egin zuten).

Irailaren 12a. Frantziako matrikula zuen auto bati su eman zioten.

Irailaren 25a. Erasoak Renault markako auto baten kontra Kaputxinoetan, Lagun Aro aseguru-enpresaren kontra Bidasoa kalean, eta Argentariaren kutzazain automatiko baten kontra Ikutza Kortsarioa kalean. Gertaera horietan, udaltzain bat jo zuten.

Irailaren 27a. Silikona jarri zuten EAren Alkartetxean, Topoko geltokian eta herriko hainbat banketxetan. Alkateak udal osoko bilkura geldiarazi behar izan zuen amnistia eskatzen zuten pertsona batzuek bilkura eten ondoren.

Irailaren 29a. Frantziako auto bat erre eta Kutzako beira bat hautsi zuten.

Urriaren 11. Correosen furgoneta bat kiskalita geratu zen *kale-borroko* ekintza batean.

Azaroaren 11. Sabotajea Kutzaren kutzazain baten kontra.

Azaroaren 14a. PSE-EEko zinegotzi Jesus Oficialdeguiren autoa erre zuten. Erasotzaileek presoan egoera aipatu zuten ekintza justifikatzeko (*El País*).

Erasoak pertsoneri; niri, adibidez. Eta Leguinori autoa erre zioten, molotov koktelak jaurti zizkieten etxebizitzara. Jesus Oficialdeguiri autoa erre zioten. Oficialdegui bi garaitan izan zen zinegotzi. Aldeari eraso egin zioten. Gurruchagari [Jose Maria, alkatea] askotan egin zioten eraso.

Azaroaren 30a. Erasoak Kutzaren kutzazain baten eta Mapfreren bulego baten kontra.

Abenduaren 20a. Beste eraso bat Herriko Etxearen kontra.

Abenduaren 31. Urtearen azken egunean, Telefónicaren bi kamioiri egin zieten eraso.

1997

Urtarrilaren 1a. Telefónicaren hiru furgoneta erreta.

Urtarrilaren 7a. Herribusen autobus bati su eman eta artefaktuak jaurti zituzten Topora.

Urtarrilaren 15a. Polizia Nazionalak hiru pertsona atxilotu zituen *kale-borrokako* ekintzekin zerikusia zutelakoan. Hirurek torturak salatu zituzten gero.

Urtarrilaren 17a. Txoritokietako hedagailuari su eman zioten.

Otsailaren 5a. Jose M^a Lobato Femia errenteriarrak (27 urtekoa, Vinsa enpresako langilea, Donostiako PPko zinegotzi Elena Azpirozen bizkartzaina) zauri larriak izan zituen (ikusmena galdu zuen ezkerreko begian) zinegotziaren bizilekuaren ondoan (Donostian) eskopetaz egindako tiroen ondorioz.

Otsailaren 13a. PSE-EE, PNV, EA, PP eta IU alderdien botoekin udal osoko billurak HBk bere Mahai Nazionalaren espetxeratzearen aurka aurkeztutako mozioa ezetsi zuenean “Erasoak, irainak eta listuak”. EAJko zinegotzi batek eta PPko bik kolpeak jaso zituzten pertsona batzuegandik. Miguel Buen alkateak hezigabetzat hartu zituen kolpeka hasi zirenak eta HBko zinegotziak, hori saihestu ez izanagatik (*El Diario Vasco*). Udaltzaingoak esku hartu behar izan zuen.

Martxoaren 7a. Tentsio handiko uneak HBko Mahai Nazionalaren atxiloketagatik deitutako greba orokorrean, Pablo Iglesias kaleko barrikada baten aurrean benetako suarekin egindako tiroen ondorioz.

Martxoaren 26a. Donostia-Beraun lineako autobus bat kiskalita geratu zen *kale-borrokako* ekintza batean Pontika auzoan, barruan zegoen jendea jaitsarazi ondoren. Halaber, su eman zioten Kutzaren kutzazain bati.

Martxoaren 29a. Molotov koktelak jaurti zituzten bi furgoneten, Kutzaren bi kutzazainen eta banketxe baten kontra, Itziarren agertutako Josu Zabala Salegi (“Basajaun”) 26 urteko ETako kidearen heriotzagatik protestatzeko.

Martxoaren 31. Kalteak telefono-kabina batean.

Apirilaren 3a. Molotov koktela Telefónicaren furgoneta baten kontra Kapitanenea kalean.

Apirilaren 4a. Koktelak Airtelen antena baten kontra, Agustinen eta Zentolenen artean.

Apirilaren 16a. Juan Jose Baeza González espetxe-funtzionarioa, PSE-EEko eta UGTko kidea eta hiru seme-alabaren aita, larriki zaurituta geratu zen balaz, ETAk Olibet auzoan egindako atentatu batean.

Apirilaren 26a. Argentariaren kutzazain automatiko bati su eman zioten Parke kalean, eta Kutzaren bi kutzazain automatikori Sorginzulo eta Xenpelar kaleetan.

Apirilaren 28a. ETAk 30 kilo amosal eta 10 kilo torloju zituen bonba-auto bat utzi zuen Ertzain Etxetik hurbil. Barrutik lehergaiaren zati bat atera ondoren, era kontrolatuan aktibatu zuten. Hala ere, kalteak eragin zituen berrogeita hamar etxebizitzatan eta hogeitazazpi ibilgailutan, eta Miguel Alduntzin kaleko auzokoek etxetik kanpo eman behar izan zuten gaua. Dirudienez, ibilgailuak ez zuen eztanda egin Ertzaintzaren furgoneta bat igarotzean.

Ekainaren 5a. Polizia Nazionalak bost pertsona atxilotu zituen. Ondoren egindako protestan, Ertzaintzak Xabier Dorronsoro atxilotu zuen, eta berriz atxilotu zuten abenduaren 11n, kartelak jartzeagatik.

Ekainaren 6a. Txanodun batzuek molotov koktelak jaurti zituzten Telefónicaren furgoneta baten kontra.

Uztailaren 14a eta 15a. ETAk 28 urteko Miguel Angel Blanco PPko zinegotzia erail ondoren, Herri Batasunako jendearen kontrako erasoak eta agirakak izan ziren kalean, establezimenduetan eta Udaletxean. Jose Antonio Ardanza lehendakariaren hitzetan, “egiten zutena pairatu zuten”⁴⁵.

Uztailaren 23a. Lasa Mitxelena familiak salaketa aurkeztu zuen Epaitegian, Alcalá Mecotik bidali zioten postal batengatik. Postalak honako hau zioen: “Un acto terrorista más y tu familia vestirá de luto” (Beste ekintza terrorista bat gehiago eta zure familia doluz jantziko da). Garai hartan, Juan Lorenzo Lasa (“Txikierdi”) Alcalá

⁴⁵ Elkarriketa *El Diario Vasco* egunkarian, 2007/07/12.

Mecoko espetxetik atera zuten, eta familiak ez zekien non zegoen. Uztailaren 28ra arte ez zuten jakin Melillako espetxean zegoela.

Uztailaren 27a. Txanodun batzuek molotov koktelak jaurti zituzten Udaletxearen kontra, eta kalteak eragin zituzten informazio-bulegoan eta atarian.

Abuztuaren 9a. Beraun-Donostia lineako autobus bat erretzen saiatu ziren Pontikan.

Abuztuaren 29a. Kutzaren bi kutxazain automatiko erre zituzten.

Irailaren 23a. Kamioi bateko gidaria ibilgailua gurutzatzera behartu zuten N-1 errepidean, Papresa fabrikaren aldean, “atzoko eta gaurko gudariak” erreibindikatzeko.

Irailaren 24a. Txanodun batzuek su eman zieten Mapfre aseguru-enpresari eta Euskotrenen Galtzarabordako geralekuko buruaren bulegoari.

Urriaren 4a. Txanodun batzuek hiru molotov koktel jaurti zituzten Herriko Etxearen barnealdera, “alderdi horrek euskal presoen problematikan agertzen duen gelditasunagatik”.

Urriaren 11. Molotov koktelak Kutzaren hiru kutxazain automatikoren kontra, Xenpelar kalean eta Agustinak auzoan.

Urriaren 24a. Hondarribia-Donostia lineako autobus bati su eman zioten N-1 errepidean.

Azaroaren 17a. Txanodun batzuek Kutzaren Xenpelar kaleko sukurtsalaren sarrera erre zuten.

Abenduaren 4a. EAJko zinegotzi Mikel Arretxe Gutiérrezen anaia ertzainaren autoa erre zuten Parke kalean. Beste eraso bat Herriko Etxearen kontra.

Abenduaren 11. ETAk Errenteriako Udaleko PPko zinegotzi Jose Luis Caso Cortines erail zuen atentatu batean. 64 urte zituen, bi seme-ren aita zen eta Irunen bizi zen. Erailketa Irungo Txantre tabernan gertatu zen.

Abenduaren 14a. PPko zinegotzi Concepción Gironzaren eta PPko kide eta eraildako zinegotziaren lagun Manuel Zamarreñoren aurkako mehatxuzko pintadak: "Tú serás el siguiente" (Zu izango zara hurrengoa). Halaber, ertzain baten kontrako pintadak egin ziren.

Abenduaren 16a. Lineako autobus bat kiskali zuten molotov koktelekin Pontikan, HBko Mahai Nazionala atxilotu izanagatik protestatzeko.

Abenduaren 20a. Bi molotov koktel jaurti zituzten Udaletxeko atariaren aurka, ate nagusiko kristalak apurtu ondoren.

Abenduaren 26a. Lau molotov koktel jaurti zituzten Ertzaintzaren ibilgailu baten kontra Beraunen.

Abenduaren 28a. Manuel Zamarreño Villoriaren autoa erre zuten. Handik gutxira, ETAk eraildako Jose Luis Caso ordeztu zuen PPko zinegotzi gisa.

*Espero nuen eta onartua nuen...*⁴⁶

1998

Urtarrilaren 5a. Molotov koktel bat jaurti zuten Ertzaintzaren patruila baten kontra, Batzokiaren inguruan.

Urtarrilaren 10a. Zaragozako espetxera joan ziren euskal preso-en senideen autoak apurtu zituzten (tartean, Unai Erkis preso errenteriarren senideena).

Urtarrilaren 17a. Ertzain baten senide baten autoa erre zuten.

⁴⁶ Hitz horiek Manuel Zamarreñok esan zituen ETAk 17 egun lehenago erail zuen Jose Luis Caso zinegotzia ordezteko hautagaia zela (bera hil baino sei hilabete lehenago), bere Seat Ibizaren kontrako erasoaren berri izan zuenean. *El País*, 1997/12/30.

Urtarrilaren 25a. Bi udaltzainek erredura arinak izan zituzten Caja Rural de Navarraren Xenpelar kaleko bulegoen kontra egindako *kale-borrokako* eraso batean.

Otsailaren 27a. PSE-EEko idazkari nagusi [eta geroago alkate] Juan Carlos Merinoren autoa kiskali zuten “PSOEk herrian agertzen duen jarrera errepresiboaren errepresalia gisa” (*Efemérides renterianas*).

Martxoaren 12a. Pablo Iglesias kaleko Seguros Vitalicios konpainiaren bulegoari su eman zioten.

Martxoaren 18a. Molotov koktelak Euskotrenen transformadore baten kontra.

Martxoaren 30a. ETak lehergailu bat jarri zuen Irunen, Errenteriako PPko zinegotzi Concepción Gironzaren (54 urte) etxebizitzako sarreran (amarekin bizi zen bertan). Kalte handiak izan ziren eskaileran eta etxebizitzan. Bi emakumeek eta eraikinean bizi zirenek etxetik irten eta hotel batean eman behar izan zuten gaua.

Apirilaren 13a. PPko zinegotzi Concepción Gironzak kargua utzi zuen, ETaren beldur: “Ezin dut horrela jarraitu, nire eta nire familiaren bizitza arriskuan jarriz”.

Apirilaren 24a. Kutxaren Markola Etorbideko kutxazain automatikoa erre zuten.

Apirilaren 27a. Manuel Zamarreñoren kontrako pintadak.

Apirilaren 30a. Txanodun batzuek Aldundiaren Ogasun Delegazioak Madalen kalean zituen bulegoari su eman zieten azken estradizioen aurka protestatzeko.

Maiatzaren 5a. PPko zinegotzia izango zen Manuel Zamarreñoren aurkako kartelak.

Maiatzaren 16a. Udaltzaingoaren ibilgailu baten kontra molotov koktelak jaurti, Udaletxeko bilkura-aretoa erre eta Euskadiko Kutxaren sukurtsal bati, Euskotreneko geltokiari eta hiri-autobus bati eraso zieten.

Maiatzaren 31a. Liskarra ezker abertzaleko kideen eta Ertzaintzaren artean. Hiru ertzain zaurituta geratu ziren Ricardo Sáenz de Ynestrillasen Alianza por la Unidad Nacional (AUN) taldeko ultrak babesteko eta eskoltatzeko ahaleginetan. Ultrek manifestazioa egin nahi zuten “Recuperemos España” lelopean. Kalteak izan ziren hainbat auto eta edukiontzitan.

Ekainaren 6a. *El Diario Vasco* egunkariak banatzen zituen furgoneta bati su eman, eta Gernika Enparantzan zeuden Telefónicaren bi ibilgailuri eraso egin zieten.

Ekainaren 11. Molotov koktelak Euskotrenen bagoi baten kontra. Handik lau egunera, **ekainaren 15ean**, Euskotrenen Galtzarabordako geltokia erre zuten.

Ekainaren 25a. ETak PPko zinegotzi Manuel Zamarreño Villoria, 42 urtekoa eta lau seme-alabaren aita erail zuen, karguan hilabete pasatxo baino bete ez zuela. Bonbaren metrailak haren eskolta zauritu zuen, Juan Maria Quintana ertzaina. Donostiako Arantzazu Ospitalera eraman zuten.

Ekainaren 25a. Udaletxea hustu behar izan zuten bonba-abisu baten ondorioz. Tentsio handiko osoko bilkura Manuel Zamarreñoren erailketagatik. Alde bateko eta besteko oihuak eta esloganak.

Uztailaren 2a. Mehatxuzko pintadak PPko zinegotzi izango zen Jose M^a Trimiñoren aurka.

Uztailaren 7a. HBko zinegotzi Manu Ugartemendiak barruan balak zituen gutun bat jaso zuen. Idazpuruan Alianza para la Unidad Nacional (AUN) taldea agertzen zen.

Uztailaren 15a. Poliziak *Egin* egunkaria itxi eta egunkaria editatzen zuen enpresako kontseilariak ziren Manu Aramburu eta Maite Mendiburu errenteriarrek atxilotu zituen. Tentsioa.

1998, gogoan dut Eginen itxiera eta herriko lagun minen atxiloketak.

Uztailaren 21a. PPko zinegotzi Jose Maria Trimiñoren aurkako pintadak, heriotza-mehatxuekin: “Trimiño, ahora tú” (Trimiño, orain zu), “Trimiño, vete de Rentería”

(Trimiño, alde Errenteriatik), “PP, ven y no lo contarás” (PP, zatoz eta ez duzu kontatuko)...

Uztailaren 25a. Txanodun batzuek tren-geltokiari eta Ertzaintzaren furgoneta bati egin zieten eraso molotov koktelekin. Patruila Papresa enpresaren ondoan zegoen, eta bertako segurtasun-zaintzaile bat harrapatu zuen koktel batek. Suzko barrikadak ipini ziren hainbat lekutan, eta Ertzaintzak istiluen aurkako material kantitate handia erabili zuen. Hogeitatu bat zauritu izan ziren.

Abuztuaren 25a. Espetxeetan egiten ari zen txandakako “txapeoaren” inguruan protestatzeko, Donostia-Hondarribia lineako autobus bat gurutzatu eta su eman zioten.

Urriaren 7a. Bonba-abisua Orereta ikastolan, Añabitarten.

Azaroaren 20a. Ertzaintzaren furgoneta baten aurkako eraso molotov koktelekin, Juan Olazabal kalean.

Abenduaren 11. Jose Luis Caso hil zuen atentatuaren lehen urteurrenean, Amnistiaren aldeko Batzordeek kontzentrazio bat egin zuten Concepción Gironza ordeztu zuen PPko zinegotzi Jose Maria Trimiñoren bizilekuaren aurrean. Ondorengo egunetan, haren argazkia eta “carcelero” (kartzelazaina) idatzita zuten kartel batzuk agertu ziren.

1999

Urtarrilaren 12a. Telefónicaren kutxatila bati su eman zioten Santa Klara kalean.

Urtarrilaren 16a. Txanodun batzuek furgoneta bat eta motozikleta bat erre zuten Correosen bulegoko garajejan.

Urtarrilaren 28a. Euskal Herritarrok (EH) taldeko legebiltzarkide Aurkene Astibia errenteriarrok eta talde horretako beste kide batzuek GAL taldeak sinatutako heriotza-mehatxuak jaso zituzten.

Martxoaren 15a. PSE-EEren eta UGTren egoitzaren aurkako eraso, “poliziaren azken operazioen kontra” protestatzeko (torturak salatu ziren).

Martxoaren 20a. Jose Luis Geresta Mujika 30 urteko eta Zizurkilen jaiotako ETAko kidea aurkitu zuten hilda Zamalbide auzoan. Bertsio ofizialaren arabera, suizidioa izan omen zen, baina familiak ez zuen onartu. Txosten toxikologikoak egiaztatu zuenez, gorpua manipulatu egin zuten. Madrilgo Toxikologia Institutu Nazionalaren ekaineko txostenaren arabera, berriz, bi hagin atera zizkioten hil aurretik.

Martxoaren 22a. Telefónicaren furgoneta bat erre zuten Gaztaño auzoan, eta hainbat edukiontzi Fernandez de Landa Enparantzan eta N-1 errepidean.

Martxoaren 25a. Polizia Nazionalak ertzain bat atxilotu zuen Erreterian, ustez ETaren izenean Irungo industrialari bati estortsioa egin izanagatik.

Uztailaren 5a. Telefonia mugikorreko hedagailu baten aurkako sabotajea Agustinak auzoan.

Irailaren 29a. Txanodun batzuek likido sukoia jaurti zuten Herriko Etxearen barnealdera, barruan pertsona batzuk zeudela. Ez zen zauriturik izan, baina kalte materialak eragin zituzten.

Urriaren 2a. Telefónicaren kutxatila bat kaltetu zuten sabotaje batean.

Azaroaren 19a. Ezezagun batzuek Renferen tren-makina bat erre zuten.

Azaroaren 20a. PPko zinegotzi Maria Angeles Bastosen autoari su eman zioten Galtzarabordan. Suak beste bi ibilgailu kaltetu zituen.

Azaroaren 28a. Telefonia mugikorreko hedagailu bati su eman zioten Agustinak auzoan.

Abenduaren 7a. Txanodun batzuek su eman zioten Herriko Etxeko taberna eramaten zuten senar-emazteen autoari, eta kalte handiak eragin zituzten.

Abenduaren 16a. Hondarribia-Donostia lineako autobus bati eraso egin eta erre egin zuten.

Abenduaren 31. Mehatxuzko pintadak PPko zinegotzi Maria Angeles Bastosen bizilekuaren fatxadan.

2000

Otsailaren 4a. Txanodun batzuek hainbat ibilgailu kaltetuta utzi zituzten Telefónicak Olibet auzoko Gernika Enparantzan zuen garajeari su eman ondoren.

Otsailaren 25a. Topoko bagoi bati su eman zioten Pablo Iglesias kaleko geltokian.

Martxoaren 18a. Herriko Etxeko tabernaren ardura zuen Domitila M.I.-k (45 urte) narritadurak izan zituen begietan, txanodun talde batek PSE-EEren egoitzari su emateko erabili zuen gasolinak zipriztindu zuenean.

Apirilaren 12a. Polizia Nazionalak 18-20 urteko bost gazte atxilotu zituen, kale-borrokako ekintzetan parte hartu izana leporatuta. Gazteetako batzuk adingabeak ziren egotzitako ekintzak gertatu zirenean.

Apirilaren 28a. Euskaltelen antena bateko koadro elektrikoa erre zuten.

Maiatzaren 7a. *Kale-borrokako* erasoak Kutxaren sukurtsal baten kontra.

Maiatzaren 21a. Hiri-autobus bati su eman zioten Galtzaraborda Etorbidean. Bertan aparkatuta zeuden sei ibilgailu kaltetu zituen suteak.

Ekainaren 3a. Ezezagun batzuek su eman zieten Aldundiaren Ogasunak Madalen kalean zituen bulegoiei.

Ekainaren 19a. Topoko geltokiari su eman zioten.

Ekainaren 25a. Ezezagun batzuek su eman zioten Banco Vitalicioaren sukurtsaleko sarrerari.

Uztailaren 19a. Topoaren Galtzarabordako geralekuko bulegoei su eman zieten.

Abuztuaren 10a. Ezezagun batzuek molotov koktelak jaurti zituzten Catalana de Occidente aseguru-agentziaren kontra.

Irailaren 20a. Ezezagun batzuek hainbat molotov koktel jaurti zituzten Kutzaren Parke kaleko kutzazain automatiko baten kontra.

Irailaren 27a. Ezezagun batzuek eraso egin zioten Zurich aseguru-konpainiari.

Azaroaren 14a. Madrilgo poliziaren egoitzetan tratu txarrak jaso zituztela salatu zuten Nerea Garrok eta Ainara Estebanek.

Abenduaren 8a. BBVAren Ikutza Kortsarioa kaleko kutzazain automatikoari su eman zioten. Bertan aparkatuta zegoen ibilgailu bat kaltetu zuen suak.

Abenduaren 28a. Ertzain baten auto partikularrari su eman zioten Gaztaño auzoan.

2001

Urtarrilaren 5a. Txanodun talde batek su eman zien Banco Guipuzcoano, BBVA, La Caixa eta Kutzaren kutzazain automatikoei. Gauza bera egin zuten Halcón Viajes agentziarekin.

Urtarrilaren 26a. Euskotrenen bagoi bati su eman zioten.

Martxoaren 9a. Molotov koktelak jaurti zituzten Ertzain Etxearen atzealdera.

Martxoaren 11. Euskotrenen geltokiko bulegoari su eman zioten.

Martxoaren 20a. ETAk Lasarte-Oriako PSE-EEko zinegotzi Froilan Elespe Inciarte (Errenterian jaioa) hil zuen. 54 urte eta bi seme zituen. Aurretik, Urnietako zinegotzi izan zen.

Apirilaren 8a. Correosen eraikinari eraso egin zioten molotov koktelekin.

Maiatzaren 14a. Ogasunaren bulegoari eraso zieten molotov koktelekin.

Uztailaren 13a. Txanodun batzuek Caja Rural eta Kutxaren Xenpelar kaleko kutzazain automatikoak eta Correosen bulegoa erre zituzten.

Uztailaren 31. Txanodun batzuek autobus bat erre zuten Nafarroa Etorbidean.

Abuztuaren 24a. Telefónicaren furgoneta bati su eman zioten Juan Olazabal kalean.

Urriaren 1a. Txanodun batzuek Movistar konpainiaren Xenpelar kaleko dendari eta Kutxaren bi kutzazain automatikori eraso zieten molotov koktelekin.

Azaroaren 1a. Txanodun batzuek su eman zieten Viajes Barceló agentziaren bulegoari.

Azaroaren 10a. Seguros Artola-Zurich konpainiaren Uranzu kaleko bulegoak erre zituzten.

2002

Urtarrilaren 5a. Molotov koktel bat jaurti zuten ertzain baten etxebizitzaren kontra.

Urtarrilaren 17a. PSE-EEko zinegotzi Gema Artolak dimisioa aurkeztu zuen. Adierazi zuenez, “mehatxuak berak baino okerragoa izan da eskoltarekin bizitzea”. “Hori ez da lagungarria zeregin honetan jarraitzeko”. Gaineratu zuenez, “elkartasuna adierazi nahi diet geratzen diren kideei, oso gogorra baita honela bizitzea” (*ABC*, 2002/01/18).

Otsailaren 8a. Goizean goiz, ezezagun batzuek su eman zieten Euskotrenen Gaztañoko geltokiko hangarrean zeuden hiru bagoiri likido sukoiarekin.

Apirilaren 9a. Correosen Andoni Korta kaleko bulegoan eragindako sute baten ondorioz, bederatzi auzokok eta ertzain batek laguntza behar izan zuten nerbio-krisialdiengatik eta arnastutako kearengatik. Eraikineko lau solairu hustu behar izan zituzten.

Maiatzaren 3a. Ertzaintzak 16-18 urteko lau gazte atxilotu zituen borroka-egun batean, *kale-borrokarekin* zerikusia zutelakoan. Gazteetako batek tratatu txarrak salatu zituen.

Ekainaren 25a. Hiri-autobus baten kontrako beste eraso bat.

Uztailaren 8a. Bancoaren kutxazain bati su eman zioten Biteri kalean.

Irailaren 18a. Ertzain baten bizilekuari eraso zioten molotov koktelekin. **Hilaren 21ean**, EAko hautetsiak (Begoña Errazti presidentea tartean) eraso salatuzko kontzentratu ziren.

Irailaren 24a. Egoitz Gurrutxaga Gogorza, 28 urtekoa, Errenterian jaioa eta ETako kidea, Basurton (Bilbo) hil zen, auto baten barruan zegoela bomba batek eztanda egin zionean. Gorpua leherketa gertatu eta bi egunera identifikatu zen. Harekin batera, Hodei Galarraga Irastorza hil zen. Ertzaintzak debekatu egin zuen **urriaren 2an** Egoitz Gurrutxagari egin nahi zioten omenaldia, eta istiluak izan ziren.

2002, Egoitz Gurrutxagaren heriotza, lehergailuak Basurton eztanda egin ondoren. Lagun mina nuen. Latzak izan ziren hiletak egiteko bizitako eragozpenak.

Irailaren 25a. Hiri-autobus bati su eman zioten Pablo Iglesias Etorbidean.

2003

Urtarrilaren 30a. Molotov koktelak jaurti zituzten ertzain baten etxebizitzaren kontra. Komunikatzaile anonimo batek hartu zuen bere gain ekintza.

Otsailaren 20a. Guardia Zibilak *Euskaldunon Egunkaria* –euskarazko egunkari bakarra– itxi eta zuzendaritzako eta administrazio-kontseiluko kideak atxilotu zituen. Horien artean, Orereta ikastolako presidente Xabier Oleaga zegoen. Torturak salatu zituen.

Maiatzaren 25a. Ezezagun batzuek hiru molotov koktel jaurti zituzten PSE-EEko lehen alkateorde Juan Carlos Merinoren bizilekura, hauteskunderen egunean bertan.

Irailaren 6a. Sua eragiteko artefaktu batek Errenteriako Herriko Etxea suntsitu zuen. Kalte larriak izan ziren lokalean eta handik hurbil aparkatuta zeuden bi autotan.



Irailaren 20a. Molotov koktel bat jaurti zuten ertzain baten etxebizitzaren kontra.

Azaroaren 23a. Sua eragiteko artefaktuak jaurti zituzten Kutxaren Xenpelar kaleko kutxazain baten kontra.

2004

Martxoaren 14a. Hainbat pertsonak Eusko Alkartasunako (EA) zinegotzi Mikel Carcedo iraindu, jo eta mehatxuka eta agiraka jazarri zuten kaletik, hautesleku

batetik etxera zihoala. Ukabilkada batek belarrian egin zion ebakia sendatu zioten anbulatorioan, eta etxera itzultzean irain eta mehatxu gehiago jasan zituen: “No vas a vivir tranquilo” (Ez zara lasai biziko)⁴⁷. Etxera joaten lagundu zion udaltzaina ere iraindu eta mehatxatu egin zuten⁴⁸. 200/02/26an egindako epaiketan, bi urteko espetxe-zigorra ezarri zitzaizkien erasotzaileetako biri. Epaiketan, bi akusatuek barkamena eskatu zioten publikoki Mikel Carcedori.

2005

Urtarrilaren 13a. Bi militarrek Mikel Martin erreteriarra jo zuten Donostian. Ostikoak eta ukabilkadak eman zizkioten. 137 egun eman behar izan zituen gaixondoan, eta zortzi hilabete tratamendu psikologikoan.

Urtarrilaren 25a. Molotov koktel batek PSE-EEko zinegotzi baten bizkartzainaren autoa jo zuen.

Otsailaren 6a. Molotov koktelak Familia Epaitegiaren kontra.

Otsailaren 14a. Beste eraso bat Herriko Etxearen kontra.

Abuztuaren 9a. Ertzain Etxearen kontrako eraso molotov koktelekin.

Urriaren 26a. Jose Angel Alzuguren presoaren heriotzagatik protestatzeko, txanodun batzuek Euskotrenen Galtzarabordako geltokiko bulegoari su eman zioten, barruan zegoen txartel-saltzailea irtenarazi ondoren.

Abenduaren 21a. Molotov koktel bat jaurti zuten ertzain baten bizilekura.

2006

Martxoaren 4a. Botilak jaurti zituzten Juan Carlos Merino alkatearen bizilekura.

⁴⁷ *El Diario Vasco*, 2007/02/27.

⁴⁸ *Gara*, 2004/03/24.

Martxoaren 20a. Goizean goiz, hiru molotov koktelek 59 urteko PSE-EEko zinegotzi Jesus Oficialdegui Ruizen bizilekuko leiho bateko pertsianan jo zuten. Urte batzuk lehenago, botilakada bat eman zioten bizkarrean Madalenetan, eta autoa erre zioten.

Ekainaren 11. Errepidean hainbat edukiontzi gurutzatu eta su eman zieten.

Ekainaren 24a. Ezezagun batzuek EAren egoitzari eta Bake Epaitegiari eraso zieten.

Irailaren 19a. Ertzaintzak bi gazte atxilotu zituen Euskotrenen geltokiari su eman izana leporatuta. Zenbait kolektibok, berriz, “poliziaren amarrua” zela adierazi zuten (*Efemérides renterianas*). Hurrengo egunean, hilaren 20an, Ertzaintzak atxilotutako bi gazteak errugabetu zituzten “lekuko ugarik” (*Gara egunkariaren 2006ko Urtekaria*).

Irailaren 22a. Adskripzio politikorik gabeko pertsona baten ibilgailuari su eman zioten goizean goiz Beraunen.

Azaroaren 24a. Euskal presoek egoera salatu nahi zuten pertsona batzuek edukiontzi batzuk gurutzatu eta su eman ondoren, Ertzaintzari aurre egin zioten.

Abenduaren 9a. Kutxaren Xenpelar kaleko kutxazain automatikoari su eman zioten.

2007

Urtarrilaren 30a. Ezezagun batzuek pintura jaurti zieten aurreko hilabetean inauguratutako Bakearen aldeko Parkeko monolitoari eta Herriko Etxeari.

Maiatzaren 25a. Mehatxuzko eta larderiazko pintadak Juan Carlos Merino alkatearen garajeko atean, udal-hauteskundearen aurreko egunetan.

Ekainaren 13a. Telefónicaren zortzi ibilgailu erre zituzten Gernika Enparantzako lurpeko aparkalekuan, *kale-borrokako* ekintza batean.

Irailaren 27a. Trenbideko katenaria moztu zuten.

Urriaren 5a. Hainbat ekintza egin ziren aurreko egunean Seguran eta beste herri batzuetan ezker abertzaleko 23 kide atxilotu izanagatik protestatzeko. Atxilotuen artean, Anjel Mari Elkano zegoen, ikastolako irakaslea eta Errenteriako HBko zinegotzi ohia.

Urriaren 7a. Sua eragiteko artefaktuak jaurti zituzten Juan Carlos Merino alkatearen garajeko atearen kontra.

Abenduaren 16a. Ezezagun batzuek Eusko Alkartasunako (EA) zinegotzi Joxe Mari Burgosen etxebizitzari eraso zioten. Udal-talde guztiek gaitzetsi zuten gertaera, ANVk izan ezik.

Abenduaren 30a. Txanodun batzuek Euskotrenen Pablo Iglesias kaleko geltokian txartelak saltzeko zegoen guneari su eman zioten.

2008

Otsailaren 11. Lezoko azpiestazio elektrikoaren kontrako sabotaje batek argirik gabe utzi zituen errenteriar asko.

Apirilaren 18a. Oarsoaldeko hamar gazte atxilotu zituzten *kale-borrokako* ekintzak leporatuta. Horietako bat –Iosu Arruabarrena– ospitaleratu egin behar izan zuten atxiloketaren aldian izandako gastroenteritis akutu batengatik. [Auzitegi Gorenak absolbitu egin zuen azken gazte hori 2012an, akusazioa “zehaztugabea eta generikoa” zelako (*Europa Press*, 2012/12/18). Beste sei gazteri bezalaxe, Auzitegi Nazionalak sei urteko espetxe-zigorra ezarri zion 2012ko urtarrilean, Segi taldekoa izatea leporatuta, eta auzitegi berak beste hamaika atxilotu absolbitu zituen].



Apirilaren 19a. Oarsoaldeko hamar gazteren bezperako atxilotetengatik Gaztaño auzoan prentsaurreko bat ematen ari ziren berrogeita hamar bat pertsona protestatzen hasi ziren Ertzaintzako agenteak, istiluen aurkako materialarekin, inguruan kartelak jartzen ari ziren hiru gazte identifikatzera joan zirenean. Kalez jantzitako ertzain batek bi tiro egin zituen gora, eta 59 eta 63 urteko bi pertsona atxilotu zituzten. 63 urtekoa Jose Luis Gurrutxaga zen, eta osasun-zentro batera eraman zuten jipoi bat jaso ondoren, sorbaldako minez. Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailak “sarekada” bat izan zela adierazi zuen gertatutakoa justifikatzeko. Askatasuna erakundearentzat, berriz, “karga basatia” izan zen. Ondoren, talde handi bat Ertzain Etxera joan zen protestatzera, eta karga gehiago izan ziren kanpoaldean; istiluak herriko hainbat kaletara zabaldu ziren. Herrizaingo Sailaren arabera, bederatzi ertzainek kolpeak jaso zituzten.

Apirilaren 19a. Kalez jantzitako ertzain bati eraso zioten.

Azaroaren 2a. Telefonía mugikorreko antena baten kontrako atentatua Beraunen.

2009

Otsailaren 6a. Euskotrenen Gaztañoko geltokian zerbitzuz kanpo zegoen unitate bati su eman zioten. Kalte txikiak izan ziren.

Irailaren 4a. Telefónicaren bederatzi ibilgailu kiskalita geratu ziren Gernika Enparantzako garajejan. Aparkaleku horren aurkako seigarren eraso zen.

2010

Abuztuaren 22a. Hiru edukiontziri su eman zieten.

Urriaren 20a. Kutxazain bat erre zuten atxiloketa batzuk salatzeko.

2011

Uztailaren 18a. 2008ko apirilaren 18an atxilotu zituzten gazte batzuen aurkako epaiketagatik protestatzeko manifestazio batean, Ertzaintzak Xenpelar Enparantzako kioskoaren teilatuan zeuden horietako hiru gazte atxilotu zituen Auzitegi Nazionalen *motu propio* agertu ez izanagatik.

13.4. ETORKIZUNA

2012

Martxoaren 30a. Errenteriako PSE-EEren egoitzako leihoetako burdin hesiak kendu, ateak ireki eta Herriko Etxearen “inaugurazio berria” ospatu zen, 1983. urteaz geroztik hogeita hamar sabotaje eta eraso inguru jasan ondoren. Errenteriako PSE-EE alderdiak esanbidez gonbidatuta, Julen Mendoza alkatea (Bildukoa) eta Udalean ordezkaritza zuten alderdi guztietako (EAJ-PNV, PP, Bildu eta EAN-IUko) zinegotzien ordezkariek izan ziren ekitaldian.

2013

Urtarrila. ERAIKIZ ekimena egin zen, Udalean ordezkaritza zuten bost talde politikoen adostasunarekin.

14. AZKEN APUNTEAK

Etorkizunean pentsatuta egin da lan hau. Iragana kontatzen du, baina etorkizunerako oinarriak jartzea du helburu, antzekorik gerta ez dadin, gertatutakoaz ikas dadin (ikas dezagun) eta egungo bizikidetzeta eta etorkizuneko adiskidetzeta eraikitzekeo baliagarria izan dadin.

Oroimen-ahalegin honek Errenteriako biztanle guztientzat izan beharko luke baliagarri, alkatetza zein talde politikoren esku dagoen kontuan hartu gabe. Adostasun kolektibo baten bidez, alderdikeria sektario oro saihestu beharko litzateke, oraindik itxi gabe dauden zauriak ez gaiztotzeko. Atzera begirako ahalegin honek zailtasun handiak dakartza berez, eta ez lirategi gehiago erantsi behar, batez ere etorkizunera begiratu nahi dela kontuan hartuta.

Hona hemen erronka handia dakarten proposamen batzuk aurrerantzean jarraitzeko:

- Datu hauek osatzen amaitzea eta, akatsik izanez gero, zuzentzea. Beste lan batzuk sortu eta ikerketa berriak osatu ahala, partekatu beharreko memoriari eransteko aukera ahalbidetu behar da. Foru Aldundia osatzen ari den datu-basea tresna egokia da lan komuna egiteko.
- Errenteriako biktima mota guztien senideen eta hurbilekoen zuzeneko testigantza biltzea eta, material horrekin, biktimekiko enpatia-giro bat sortzen lagunduko duen monografiko edo dokumental bat egitea. Helburuak honako hauek izango lirategi:
 - giza alderdiak, biktimak nor ziren, haien bizi-ezaugarriak eta abar hobeto ezagutzea...
 - maite zituzten pertsonak zer azpimarratu nahi duten...
 - pertsona maiteak urte hauetan guztietan nola bizi izan diren, nolako sentimenduak izan dituzten, hain sufrimendu handiaren aurrean zer jarrera hartu duten, zer eskatzen duten...
- Txosten honetan zirriboratu dena amaitzea eta honako alderdi hauei buruzko lanak egitea, neurritasun- eta aniztasun-irizpide berdinak erabiliz:
 - a) indarkeriak zeharkako biktimegan izan dituen ondorioak;
 - b) adierazpen-askatasunari eta beste askatasun demokratiko batzuei lotutako giza eskubideen beste urraketa batzuk;
 - c) torturak herrian izan duen inpaktuaren errealitatea ezagutzera ematea;
 - d) estortsio ekonomikoak Errenterian izan duen inpaktua;
 - e) herrian egin diren atxiloketa arbitrarioak ikertzea;
 - f) hainbeste indarkeria-ekintzaren artean izan diren gertaera eta jokaera positiboak berreskuratu eta biltzea.

- Elkarrizketak egiten jarraitzea. Komenigarria izango litzateke ikuspegia zabaltzea, beste biztanle-segmentu batzuei eta gizarte-sektore guztiei hitza ematea eta hiribilduko auzo bakoitzean bizi izandako errealitateak ezagutzea.
- Zer gertatu zaigun, zergatik gertatu zaigun, zergatik iraun duen hainbeste eta nola gaindi dezakegun aztertzeke eztabaida kolektiboa erraztea.
- Gizarte-loturak sendotzeko herriko plangintza publiko bat ituntzea. Beste zenbait ekimenen artean, herria osatzen duten auzoen errealitateen arteko hurbilketa handiagoa bultzatuko du plangintza horrek.
- Errenterian gogoratzeko leku bat (Fanderiako Bakearen aldeko Parkearen osagarria) sortzeko aukera aztertzea. Oraingo eta etorkizuneko belaunaldiei gure azken urteetako historia helarazteko eta ez ahazteko lekua izango litzateke. Memoriagune horrek honako ezaugarri hauek izango lituzke:
 - Adostasunean eta aniztasunean oinarritutako proiektu bat izan beharko luke. Zaindu egin beharko litzateke eta baita alde jakin batera eraman nahi duen alderdikeria sektario oroz babestu ere. Ez da komeni ikuspegi desberdinak alde batera utziko dituen zerbait sortzea. Integratzailea izan beharko luke, eta adostasunak eta desadostasunak kontuan hartu beharko lituzke.
 - Gertatu zaigunari buruzko erakusketa iraunkor bat hartzeko adinako azalera izan beharko luke. Erakusketa horretan, kontakizun, adostasun eta desadostasun guztiak hainbat formatutan agertuko lituzketen testigantzak, irudiak, datuak, materialak eta abar bildu beharko lirateke.
 - Eginkizun hezigarria, didaktikoa eta pedagogikoa bete beharko luke. Oarsoaldeko ikastetxe guztien baterako erantzukizuna izan lezake.
 - Toki-mailan garatu beharko litzateke. Ezin ditu bikoiztu maila nazionalean abian dauden beste ekimen zabalago batzuk. Izatekotan, Oarsoaldeko udalerriekin adostu eta eskualde-mailan planteatu liteke.
 - Eusko Jaurlaritzaren etorkizuneko Memoriaren Institutuarekin eta Foru Aldundiaren eta Estatuko beste ekimen batzuekin koordinatuta egongo litzateke.
 - Gogoeta egiteko eta gogoratzeko harrera-leku baterako edukiera egokia izan beharko luke. Hobe da leku komun bat izatea herri osoa plakaz betetzea baino.
 - Erakusketari lotutako dokumental bat egin liteke.

15. BIBLIOGRAFIA

Bizitzeko eskubidearen eta osotasun fisiko eta psikikorako eskubidearen urraketeki buruzko ataletarako:

- ALONSO, Rogelio; Florencio Domínguez eta Marcos García Rey. *Vidas Rotas. Historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA* (2010)
- ARGITUZ, Giza Eskubideen Aldeko Elkarte, www.argituz.org
- COVITE, *Mapa del Terror* (2014). <http://mapa.covite.org/>
- Eusko Jaurlaritzaren Terrorismoko Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza. *Talde inkontrolatuek, eskuin mutureko taldeek eta GALEk eragindako terrorismoaren biktimei buruzko txostena* (2008).
- Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritza *Motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketen biktimei buruzko txostena* (2008).
- EUSKAL MEMORIA Fundazioa. *Gernikako seme-alabak 1960-2010* (2010) eta *Oso latza izan da. Tortura Euskal Herrian* (2012).
- LIBERTAD DIGITAL, *In Memoriam: No olvidar lo inolvidable*, [blogs libertaddigital.com/in-memoriam/](http://libertaddigital.com/in-memoriam/)

Kronologiarako kontsultatutako bibliografia:

- URTEKARIAK: *Egin* (1977-1982 eta 1983-1997), *El Diario Vasco* eta *El País*.
- ARGITUZ. Datu-basea: <http://www.argituz.org/>
- BORJA Bandrés, Rafa Bandrés eta José Ángel Prieto Jiménez. *Oarso aldizkaria. Efemérides renterianas* bilduma. Errenteriako Udala.
- COVITE. *Mapa del Terror*, 2013: <http://mapa.covite.org/>
- EUSKAL MEMORIA Fundazioa: www.euskalmemoria.com
- FERNANDO BUESA FUNDAZIOA: www.fundacionfernandobuesa.com

- IRIARTE “Bikila”, Joxe eta Luis Elberdin. *Orereta (1976-1983)*. Autoedizioa, 1996.
- IZAGIRRE, Koldo. *Luzuriaga, voz y vida obrera, hogeita bost lekukotasun*, Pasaiaiko Udala, 2013.
- MURO Arriet, Koro. “Cronología”, honako honetan: *Historia de Rentería*, Jiménez de Aberasturi, J.C. (zuz.). Errenteriako Udala, 1996.